



A. ONAINDIA



СЕРГЕЙ

ЛАНДИ



LAMIÑAK

LAMIÑAK

ORRAZI-ESKEAN

(Bilbao'ko Udal-Aurrezki Kutxak, 1976, eratu eban «Resurrección María Azkue» bigarren euskal ipuin sariketan, bigarren saria jaso eban lana).

I SAILLA

Egillea: Aita Onaindia

Marrazkille: Larrañaga'tar Paulin

«Lamiñak, erdi emakume erdi arrai, erromata-
rren Ninfa'en antzekoak dira. Orrelako sinismenak
emen izan ta, ez da arritzeko gauza Ninfa'en elizki-
zunak Euskalerrria'n errez sartzea.»

(J. M. Barandiaran, *Eusko Mitologia*, 1921,
60 orr.).

BEAR DIRAN BAIMENAKAZ

© Aita Onaindia, argitaldaria
Amorebieta - Larrea (Bizkaia)

I. S. B. N. 84 - 85.458 - 01 - X
Depósito Legal: BI 2.178 - 1978

EUSKALDUN UMEAI

Eskuetan daukazu, ume maite, liburu polita, zeuretzat egiña. Bear zenduana, ez ete? Uste orrek eraginda egin dautzut nik.

Ipuin-zale dira umetxoak, dan-danak, nik uste. Zu be bai, igarri barik gaiñera. Aspaldi dala ibilli naiazu umetxoen artean, zeu lakoxe neska-mutikoen artean, euskeraz eta kristiñau dotriñea erakusten. Ez dot iñoiz be gogait egin; egia diñotzut. Zelan gogait egin baratzeko lili artean?

Munduko umeak bardin-samarrak dira, diñosku R. Tagore, India'ko olerkari eztiak: bizkor, alai, pinpirin, jolas-zale. Orrez gain ipuin-zale. Baita euskaldun umeak be. Zenbatetan ez daustazue eskatu ipuiñak kontetako? Eta nik gitxi baiño ez jakin umetxoentzako ipuiñik. Baiña, azkenean, ikasi egin ditut zuen guraria ase naita.

Emen daukazue liburu au, esku artean, ipuin antzera osotua; beronen gaia, neuk asmatuko kontakizun luzea da. Alan be, ba-dituzue berton, askotxo izan be, ari ta oni itandu ta entzunik, erriaren aotik jasotako elezar ta kontraerak.

Zuek ba-dozue lamiñen entzutea, ezta? Izena daroan guztia ei da; lamiñak be, bada, naitaez izan bear. Leenago ba-zan lamiñarik gure artean. Gaur ez ete? Erderazko «hada» edo «ninfa» orrein antza daukie, zer askotan beintzat, gure lamiñak; iturri, ibai ta urmael ondoetan bizi dira; ez dituzue gaizkille, sorgiñak lez, onak baiño, liburu au irakurriaz ikusiko dozuenez. Ari ta oni on-egiñez bizi dira ur-ertzean beti orraztu ta orraztu diarduen emakumetxo orrazi-zale ta abots meedunok. Umetxoak, gabaz, ez dauala lorik egin gura? Eurak ezarriko dabe olakoaren betazeletan loaren ezia. Gazte bat, illunduta, galdu egin dala? Eurak esango dautsoe bere etxeraño daroan bideari nundik eldu.

Txomin eta Itziar, Berriz'ko neba-arreba gaztetxo biak, bein, Oiz'ko San Kristobal jaietan, galdu egin ziran, ekaitz bildurgarri baten ondoren; ango lamiña Mari Burrika'k atera zituan estualditik, gau berandu zala. Mesede orren orde, erriz-erri bialdu ebazan orrazi billa. Eta orretan ibilli yakuzan aste bi osoan, Markiña, Ondarru, Lekeitio, Elantxobe, Artia, Gerrika, Busturi, Sukarrieta, Mundaka, Bermeo, Bakio, Gorlitz, Getxo, Lamiako, Artxanda, Usansolo, Zornotza ta Maume'n zear, orrazi batze galantak egiñik.

Liburuan ez datoz batzeak bakarrik; berriztar gaztetxoak ibilli ta arakatu zituen errietako albiste, barri ta istori-zatiak be ortxe daukazuez. Asmo au begi aurrean izanik egiña da idaztia: gazte bion goraberak atsegiñez irakurriaz, erri bakotzak arildu ta eundu dauan edestia (istoria) be, zuek ikasi ta jakin dagizuen. Niretzat leun-gozoa izan da berton datorrena; zuentzat be, nik uste, orrela izango da, jakin-zaleak zarie-ta.

Euskera, geure izkuntza jatorra, ikasten zabilte. Ulertzeko erarik onean, errezenan, egin dautzuet liburua. Itz naiz berbaren bat ez dakizue-nean, itandu zeuen andereiño edo maixuari; arkatza be eskuan euki, ta ezagutzen ez dozuezan itzak paperean idatzi, edo-ta ikastolara daroazuen ingurrazti dotorean. Neu be orrela egiña nozue: amaren altzoan ikasitako euskerea sakondu ta sustraitzean, eta beste izkuntza batzuk ikastean, orrelaxe ibilli nintzan. Eta orrela ikasten dira itzak bein eta barriz irakurri ta ausnartuaz.

Liburu onetan, beraz, euskera ta errietako kondaira, istoria ikasiko dozuez. Irakur, aspertu barik.

Larrea, 1978-III-24'an

AITA ONAINDIA

I

ZORRA ORDAINTZEN

«Gure Lamiak etzuten inolaz ere erensuge edo dragoi-antzik. Emakumetxo orrazi-zale, mintzura (voz) mee-meedun omen ziran, ta gainera uretan maiz ibiltzekoak» (R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, 10 orr.).

Oiz gaiñean erromeri

Txomintxo ta Itziar dira ipuin-kondaira onen egille. Neba-arreba bizkor liraiñak. Ikastean naiz jolasean alkar ederto artu izan dabe umetatik. Txomintxok, beste gauza askoren artean —amairu urte diru—, gitarra jotzen ikasia dau; oindiño amaika egiteko daukazan Itziartxok aots mee gozoa dau, ta euskal abesti mordoa daki orain-etzker.

Andikona azpian, muna biribil baten eregitako etxean jaio ta biziak dituzu biak, euren guraso ta beste iru neba-arrebakin. Eskolan dabilte ikasi ta ikasi; eskolan etxerako lan bezela agindutako ikasgaiak osatu ondoren, baserri osteko zugatzpera joanda, jo ta kanta orduak emon oi dabez kerizpe atsegiñean, inguruai pozaren betea eskeiñirik.

Ekatxa

Zelaiune ta mokor gaiñetan eratu dabe geienak bazkari legea. Gure Txomin eta Itziar'ek be bai, euren guraso ta anai-arrebakaz, jakiña. Egun

ederra. Urrin alan be, Ondarru ta Lekeitio, itxas barrurantz, laiño zurizkak agiri dira, naspildu nairik; baiña ez dau iñok uste euririk egingo dauanik.

Neba-arreba musika zale biak, eurentarrak itxi ta txistua joten diarduenen alderantza zuzendu dira. Txistuaren doiñu zorrotza mendi gaiñean! Pilarmunika jotzaille bik be azkar diardue, soiñu bizkorrean; jente gaztea, ta zar batzuk be, artazika, dantza beroan, gorputzeko orkatil-giltz, belauburu, besatzoko ta mokor azurrai askatasuna emon nairik. Bada zaratotsa ta autsa!

Txistu, danbolin eta beste soiñu tresnak ixillera diranean, arnasa pizkat artu naiean antza, Txomintxu, bere gitarrea zorrotik atera ta joten asi da. Praka urdiñak daroaz eta kaiku epaiña alkondara zuri gaiñetik; mendigoizaleak oi daben antzera, abarka biguna oiñetan belaubun azpiraiño galtzerdiak zinta baltzez bernetan lotuta. Euskal txapela buruan, nasai ta aurrerantza; aitak erakutsi dautsa zelan ipiñi. Begi-bizi ta zalu; ezpan-gorri, bere arreatxo lez.

Mutil koskor aldrea inguratu yako, gaztetxoaren jo-leia bizia ikustean. Jo ta jo diardu Txomintxok, euskal abesti sentikorrak. Abesteko kiñua egin dautsa Itziar'i, ta onek bere abots atsegiñez sekulako eresi saila bota dau. Ango txalo ta gorak!

Panpiña emoten dau Itziartxok. Ain dotore jantzi zan Oiz'erako! Neska lerdan azia; matrail gorri, ule kizkur, arpegi biribil, kerexa anpolai ale eldua dirudi. Kolorezko soiñekoa daroa aldean, goi ta bee panpoxa, gerrian eder ta poxpolin iru atzezko ugelez lotua. Algodoizko galtzerdi ñabarrez guri berna jaso zardaiñak; zapata punta motzez dotore asko sagar-arbazta antzeko ointxo biak. Ule-adatsean zapi zurizka, orizka, aizetan dantzari; utsik bi beso baltzizkak. Lepotik dingilizka narruzko zisku luze zabala. Gerrian, atzetik politico estututa, artulezko jersey araña.

Amar aldiz gitxienez gazte bien entzuleen txalo-zartak durundutu dau mendiaren bizkarra. Txominek jo, Itziarrek kanta, sekulako erronomia! Eder yake guztiai gaztetxo bien jarduna: odolak odolari dei, ta euskaldunari euskal kantak arnasa emoten.

Onetan aizea zakar, laiñoa narras itxasaldetik. Mamu izukor dirudi bealde guztiak. Unetik unera illunago. Jentea, barne-indar ixillak eraginda, gordeleku billa etxerantza... Euria sendo; zidar-baba antzeko tantakadak datoz goitik, zerua errada apurtua bai litzan. Aitearen baten arima barik gelditu da Oiz osoa. Aizeak urruma inguruko zer guztiak astinduaz. Euri zarratua. Noizik bein, tximista ta trumoi otsa ur ur. Mari, sorgiñen ama, dabilkigu emen; axe bait da ekaitz sortzaille.

Mendian galdurik

Gure gaztetxo biak —Txomintxo ta Itziar—, ekaitzak sakabanatuta, elorri adartsu baten azpian egon dira luzaro. Etxerantza egin nairik ibilli yakuz gero urduri, baina ez dakie nundik joan: mendia lenik be iñoiz ibillia izan arren, ez-ezaguna egin. Orduetan ibilli yakuz gora ta beera, baiña alperrik. Gorantza doaz orain be, lengo lekura, andik obeto bidea aurkituko dauelakoan. Ez da euririk, baiña gaua guztiz illun; itzalak ez dautse ezer ikusten izten. Ez argi, ez bide, ez zantzu! Ixil betearen erpa artean adorea bear... Gorantz dagie arnas-oska trokatik igesi. Nun sartu ete dira?

Illargiak erdi-dizdiz laiño sabeletik. Itxaroaren gozoa! Gau berandua. Illargi motelaren argipean, zearka doaz gaztetxo biak. Bien ibilkera jasa! Izerditan doaz; biotzak pilpilka. Nekatu dira...

—Gureak egin dau —diño Itziar'ek, elbitz moltzoan jarririk.

—Tira, arreatxo! Ez estutu —erantzun dautso Txominek—. Pitin baten gagozan ementxe.

Elbitz-aldeak jarleku dabezala, biak diraue ixil, eskutxoak alkarri emonda.

Illun-altzoan argi

Aizeak ikaratuta edo, alboko ota-muturrak atzamarra kilikatu dautsa Itziar'i. Ez da ezer. Igurtzi batez arindu yako artu dauan miña. Beeko illun itsuaren sabela goi-zear dabillen illargiaren argi zurizkak zerbait gozatzen.

Galdutako bien kezka, estura! Oteak atzamartxoan egiña baiño latzagoa nunbait. Ardura bardiñak danbaka darabiltzez biotzak: etxea, gurasoak; opor-aldian dagoz, eta ez daukie eskolara joan bearrik, baiña maixuak emonda ainbat lan daukiez opor bitartean egitekoak.

Orrez gaiñ, zer esango dabe gurasoak? Eta neba-arreba txikiak? Kezkaz egongo dira, berezkoa. Onezkero etxean dagoz areik: luze eritxita nunbait, gure zain jakiña, zer jazo yakun eta nundik nora gabiltzan ez dakie-larik. Pentsamentu oneikaz illunago, larriago egin yakez barruak. Gai-xoak! Bakarrik mendi puntan! Galduta, ekaitz zakar ostean!

Damu dabe, bai, txistu soiñuak lilluratu izana. Gurasoengandik ainbeste urrindu izana! Gitarra jo ta kanta, orrenbeste luzatu ezpa-lebe! Ez eben, egia esan, olakorik nai, baiña biotz-lerak askotan urriñegi eroaten!

Era onetan, alkarri dautsela pentsaketan dagozala, argi izpi zuriak gero ta biziagotzen asi yakez ingurumari. Zer da? Amesat dirudi. Illargiarena bear bada, laiño meta ostetik? Norbait ete yatorke? Erantzun bako itaunak.



Oiz'en, San Kristobal'ez, ekaitz gogorra, Mari'k sortua

Aize-barrunba. Beingoan dardaraztu dira ezarrita dagozan birako areitz adarrak. Zer ete da? Izerdi otzak artu dauz biak. Mamuren bat? Garrasi luzea biak batera... Aize-burrinbadatik sortua lez, emakume bat daukie aurrean, zuriz jantzia. Bai ederra!

—Ez larritu, gaztetxoak! —dirautse, agertu ala—. Lamiña nozue, on egiten dakidana.

Otoz-otoan, aizea mee; argia, gozo.

Mari Burrika

Ez da errez leen-ikararen inarrosia noberagandik aldentzen. Illunaren altzoan galduriko gure gaztetxoai be etxake errez izan artu daben izu-ikareak eurakandik astintzea. Lamiñak, baiña, besotik oratuaz jagi-azo ditu. Ta onela iragarri:

—Mari Burrika nozue ni. Ez al dautsazue inoiz amari entzun nitaz itz egiten? Oiz aldeko lamiña jagolea naz ni.

—Bai? —Txomintxok ari, arri ta zur oindiño—; okerra zareala, inoiz entzun dogu.

—Ori diño jenteak. Baiña ez da olan: gu lamiñok zaurian osagaia ipintzen dakigunak gara: txarrik ez kalterik, ez dautsagu inori egiten. Erriak, zori txarrez, nastau egin oi ditu lamiñak eta sorgiñak. Ez gara bardiñak, alan eta guzti be: sorgiñak, egia dan lez jakin nai ba'dozue, kalte egiñez bizi dira sarri. Gaurko ekatxa? Mari'k ekarria dozue; uiolak, gaixoak, begizkoak... eta zer ez?, berak dakaz ez gitxitan. Guk, oster, ez dogu kalterik zolitzen; gu gau ta egun mesede egiñez bizi gara. Ez dautsagu inori gorrotorik, ez ezin-ikusirik.

—Andra eder!, guri be ez? —diñotsa Itziar'ek urduri.

—Ez, neskato! Ez izan bildurrik. Gu on egiñez bizi gara, barriro diñotzuet. Bideetan galdu danari bidea erakusten saiatu oi gara.

—Zu, beraz, guri laguntzera etorri al zara?

—Bai ba! Mari'k, sorgiñen buru danak, ekaitz gogorra bialdu dautzue. Zuek, eta antzera beste askok, asmorik onenagaz igon dozue Oiz gaiñera.

—Geure zaindariaren eguna ospatzera —bota dautso Txominek.

—Ederto eginda. Baiña Mari'ri etxako eder mendi onetaz gizasemeak jabetzea; euskal mendi bizkarrak eta arkaitz-zulo asko ta asko, uste dau, bereak dirala ta sarri egin oi dau ori, au da, bazterrak nastau. Gaurko euri ta odei-laiño goibela berberak asmatuak dozuez, zuoi kalte ekarri ta min emotearren. Ez leuke ak orrela izan bear.

—Guk alan be uste genduan Mari Burrika, amak ainbat bider aitatua, Mari beraren alaba zala.

—Ez! Aren alaba ta jarraitzalleak naiko biurriak dira, txarrez bizi diranak. Ni ta nire taldekoak ez gara olakoak. Areik eta guk artu-emon gitxi baiño ez dogu. Leku bakarretan bizi gara areik eta gu; baiña ez gara bardinak, ezta urrikik be. Koba-zuloak eta toki ixillak, errekoak dira gure egoitzak. Lamiñok, orraitño, ez gara gaitz ekarleak.

—Au poza! —bota dabe biak batera, zerbait nasaitzen asirik.

—Eta orain, zer gura dozue? Zetan lagundu neikezue?

—Txomin ta Itziar gara gu, neba-arrebak, «Bolu» baserrikoak. Gaur goizean, Oiz'ko jaia dala-ta, ona igon dogu geure guraso ta neba-arrebakaz. Arrats-beran, euri-zurrumbillo ikaragarriak sakabanatu gaitu berton. Ez dakigu gure guraso ta enparauak nundik diran, baiña onezkero etxeratuko zirala uste dogu.

—Ez izan orren ardurarik: neuk lagundu dautset etxe-bururaino.

—Bai! Etxean dagoz, orduan?

—Pizkat bustita, baiña etxean dagoz. Zuon ardurea erakutsi dabe.

—Oba ez! Berezko da! Eta ardura orregaz iraungo gaixoak.

—Orain osterara araino joateko bide luzea egin bear.

—Zuk lagunduta, alan be...

—Berandu da niretzat. Laster da gau-erdia, ta lamiñon gaualdia gaurdiraino luzatzen da bakarrik. Bein oillarrak jo ezker, guretzat ez da gauaren gozoa, sorgiñentzat baiño. Illuntzea ta goizalde dira gureak.

—Orduan...

—Orain, biar goizerarte, zatoze neugaz, geure egonlekura.

Oxinbaltz

Eta besotik oratuta, bedar gurizko bide-zidor atsegiñetan zear, Oxinbaltzeko artzulora eroaten dauz. Atarira eldukeran, bertako ateak barneindar batek eraginda lez, edegi yakez ots-otsean. Barruko toki zabal nasietan dana da argia. Lamiñ-aldrak ara ta ona, autu ta alkar-izketa pozkarioz gaiñezkakoan. Mari Burrika ta gaztetxo biak ikustean, arein poza ta jakin-gurea! Zenbat itaun, danak batera! Atsegin yake benetan gazte bien jantzi ta ibilkera. Itziartxoren ziskua ta Txomintxoren gitarrea ikutu bearra!

Agur eta txera oneik amaitu ondoren, apari-izkia dagie, bertoko lamiñak eta epo txikiak sekulako dantzaldiak eratzen dabezan bitartean. Eundaka lamiña dira berton, nagusi ta menpeko. Mari Burrika da guztion buru.

Iñok ez leuke asmatuko era ontako lekuak dagozanik euskaldunon mendarte ezkutuetan. Lur azpian, koba zirrikituetan izugarrizko bizilekuak daukiez ixilleko numen, ezpiritu oneik. Epo txikiak laguntzen dautse garbi-

ketan, sukaldean, musika jotan. Zelako jantzi ta oiñetakoak! Egurastu ta dantzarako daukiezan saloietan millaka argi dabez urrezko txibistetatik dingilizka. Goialde ta ormak sedazko oiazez apainduta, lilluragarriro agiri dira. Ertz ezkutuetatik soiñua datorkie leunki.

Gazte biak eta Mari Burrika Oxinbaltzera ziraneko, lamiña guztiak alkartuak ziran euren lurpe-zokoetan: igaroak ziran orduko gabeko amabiak sala erdian, lau zutiko gaiñean, daukien arezko orduarian. Txaki, etzango ta lo-geletara baiño len, gauero, eresaldi luzeak entzun, dantza ta irra bi-ziak antola ta irakastegi antzeko agarri batetik itzaldi entzungarriak zuzentzen dabez.

Bitxia yaken Txomintxoren jogaillua, gitarrea. Eta epotxo batek, jakin-min nunbait, mesedez itxi egiola eskatu eutson. Beraz, luzaro ekin eutson epotxoak gitarra jotan, inguruko danak artazika ta txalo joka ziarduelarik.

Atzanean, oiak emoten dautsez Mari Burrika'k «Bolu» baserriko gaztetxo galdu biai. Baita, ezeren bildur barik, lo gozoa egin be lamiñen egonleku atan.

Orrazi-eskean

Egunak bere miesa-oialak gozo urratu ondoan, eguzki aitak Oxinbaltz inguruko areitz, piñu ta sarats-puntak bitxitu dauz. Zortzirak dira. Mari Burrika'k eresi leunetan itxartu ditu Txomin ta Itziar. Gosaria ekarri dautse. Zer? Lenen, txokolatea urrezko katilluan; maspasa usaintsuak gero, azpil atxabitxi kolorezkoan.

—Orain, laztanok —dirautse gero—; mesede bat eskatu bear dautzuet. Gu, ari ta oni on egiñez bizi gara, esan dautzuedan lez. On egiñak zorra sortzen, eta zorra ordaindu bearrezkoa izan. Zuok, eta zuon gurasoak bardin, larri ta estu ikusi dozuez zeuen buruak. Neuk atera zaituet onik. Mesede bat daustazue zor. Zegaz edo zelan ordainduko daustazue berori?

—Ez dakigu —erantzun dautsoe umetxoak.

—Ara: gu, goiz-illuntzez bear dauanari on-egin ondoren, egun bitartean, giro ona danean batez be, errecondora jatsi oi gara. Zertan diraustazue? An zugazpean, arri gaiñetan, uraren plisti-plasta gozoan geure oiñak doguzala, geure ule-adats luzeak orraztuteko.

—Orixe esan dausku sarri amak: lamiñak ibai ertzean orraztu ta orraztu aldia emoten dabela.

—Miresgarri al da? Bakotxak dau bere griña, bere apeta, arazo berezia; zuen artean be bai. Errazoiz esan oi da: «Bere zoroak darabil bakotxa».

—Olantxe da. Ni gitarra barik ez naz bizi —dirautso Txominek.

—Ezta ni be neure kanta barik —gaiñeratzen dau Itziar'ek.

—Guk geure orrazketarako orrazi asko bear doguz. Ulertzen dauz-tazue?

—Bai orixe!

—Orain, ba, mesede bat eskatzen dautzuet. Gaur asita zoaze orrazi-billa; eskatu lenengo itxasaldeko errietan orraziak; urengoren baten, nire lagun-tza bear izango zendukenean, nik lagundu ta zuek orraziak eskatu, beste txango ta ibillaldi bat egingo zeunkie. Oraingoz Markiña, Ondarru, Lekeitio, Gernika, Mundaka, Bermeo, Bakio, Gorlitz, Ondarreta, Artxanda, Usansolo, Bizkargi, Maume ta onakoa egin. Errez osotu zeinkien egitekoa da: Txomintxok gitarrea jo ta zuk, Itziartxo, kanta ta orraziak batu; batu, bai, lepoan daroazun zisku ori ondo bete artean.

—Eta arin betetan ba'dogu?

—Guk koba asko daukaguz: Markiña'n, Amoroto'n, Elantxobe'n, Ar-teaga'n, Santimamiñe'n, Busturi'n, Mundaka'n, Butroi'n, Lamiako'n, Usan-solo'n... nun ez? Senitarteko gaituzue guztiok, ari batekoak. Neuk iraga-rriko dautset danaí zelan zoazen, eta ondo artuak izango zarie. Zisku ori betetan dozuenean, koba orreitan utsitu. Ta aurrera! Ez izan bildurrik!

—Guk pozarren egingo dogu ori. Baiña, ta gure gurasoak... arduraz izango dira, ta...

—Ez! Idatzi emen zetan zoazen egun batzuetarako. Neuk eroango dau-tset zuek idatzia, zuen karteak.

—Ederto! —diñotsoe, biak batera, berriztar neska-mutikoak.

II

LENENGO IBILLALDIA

«Orren bildurgarri etziran lamia orrazi-zaleak»
(R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, 14 orr.).

Kiñar usaintsu artean

Esana beteaz, oraindiño goiz, Oiz sarkaldetik zear doaz Txomintxo ta Itziar. Mutikoak sorbaldatik dindil daroa bere gitarra kutuna; eta Itziar-txok bizkor jarraitzen dautso bere neba arroskoari. Ira ta ota muturrak iruntzetan dagoz atzoko euriaz; neska-mutillak ondotik igarotean, zirkin dagie ta zidar-tanta buperaz ureztatzen dabez arein jantzi barrenak, Dabil-tzala, bedar-izpi galantak be, agur dagitse buru-makurka. Ota-matazetako amaraunak sorgin-klizkaz daukiez, atertu barik. Izadi ederraren arnaspean, errezten yake bidea, oiñak gero ta beerago ipiñiaz. Ardi ta auntzak egiñiko bidetxiorrez, ote, ira ta kiñar usaintsu zear, ixillik doaz...

—Gu bai zori-zale! —diño Itziartxoak, oroldian txirristaka, zearkako bide zabalago batera jatsi diranean.

—Orrela don, bai... —Txominek erantzun.

—Lendik be gu zaplada ederrak artuak gaituk; baiña oraingoan, etxera biurtzean, izango yoagu barda otsa. Ez dok uste?

—Ikusi: nik beroa sumatzen yonat.

—Aize otz-epela dabil ba.

—Ezkerreko belarri aldera sumatzen yonat batez be.

—Ba-dakik, ba, gure aitak zer esaten dauan: zera, ezkerreko belarria norbaitegaitik txarto esaten danean berotzen dala.

—Olan entzuna non neu be.

—Etxekoak, beraz, gugaitik txarto esaka ete yagozak?

—Ez litzake arrigarri.

—Arri ibillian ez dok oroldirik.

—Guk, alan eta guzti, naikoa oroldi yonagu emen.

—On egiña on-egiaz ordaintzea... ez yagok gaizki. Baiña bide ezezagunetan zear, onan ibiltea be! Mari Burrikak ona emoten dau, eta tira...

—Ona ta ederra. Aren jantzia! Zuri-gorria, goitik beera eskuz birjosita. Me-mea gerria, orratz baten antzean. Bizkarretik darion uledi baltzugaria, adats kizkurretan. Ibilkera jaso. Irripar eztia ezpan ertzean, iñoiz be kendu bakoa. Txingar ixiotu bi zirudien aren begi luzanga biak.

—Aleginduko gaitun arek esana betetan. Geure poz beterako, gaiñera, berak eroandako karteari esker, etxean ba-dakie nundik nora ta zetan gabiltzan. Ez daiguzan orduak kezkaz lorrindu. Aurrera!

Zenarrutza

Uste ezik, gurbiz, ota, sasi ta kiñar artetik urtenda, oin-mutur gaiñean jarri dira, beeratxoago agiri diran etxeak obeto ikusi nairik. Ziarrotza da; edo Zenarrutza, Zear-otza, etxe ta landaz inguratua. Soloak agiri dira, zugatz auskor ta tantaia solo barrenetan; aruntzago piñu-saillak baltz, parrastaka. Oiz'tik sakonera datoz ur-begiak, gero ta aziago; Arrangiz, Errotalde, esate baterako. Zenika, ezker aldeko auzotegia, lo astunean egona, oraintxe itxartu da eguzkiak erraiñu guriz kilikili egitean.

Zenarrutza'ko eleiz aurrean dagoz, erdi lilluratuak.

—Au toki ederra! —diño Txominek.

Alboan dabe antxiñako gaixotetxea, Santiago'ra erromes joiazeneztat batez be; eta baserriak or-emen. Eleiz barruratu dira; urtetsua dirudi onek, 968 garren urtean jasotakoa nunbait, amaseigarren gizaldian barriztu ta edertua. Barrutik bikaiña ezbaierik bage: «Bizkaiko Santillana» dala iñoiz irakurri dogu, Juan Aialak 1543'an egiñiko altara nagusiagaitik berariz. Bertoko irudi batzuk eta inguruko bebarrua, ixiltokia, zidar-apaindura dago. Orogaillu baliotsua dozu gaur Bizkaiko eder-gaietan bardiñik ez daukagun lakoxea.

Oiz'ko are-arritz egiña da. Ez dau zutoiñik, ez aberik. Larogeta amaika oin daukaz luze ta berrogeta zortzi zabal. Sei altara. Bikaiñak goi-ganga ta zerua. Torre nasaia kanpai bigaz. Jantzi, argi-mutil eta ontzi donez, aberatsa. Illobiak be, lenago, eleiz barruan egozan. Gure gazteak, au ikutu ta a begitu, ez dira nekatzen.

Kalaorra'ko gotzaiña izan zan Gontzalo Mena'k abat-eleiza egin eban bere garaian; eta arrezkero, emengo eleiz-buruak —Markiña ta ingurueta-koak asko— entzute guztiz zabalekoak izan ziran. Gaur zaar itxuraz ta ixil samar ba'daukagu be, Zenarrutza gora-bera betekoa izana dogu gizaldiak zear. Kanpotar asko joan oi da berau ikusten, udaldian batez be.

Jareille baten jatorri-tokia

Ziarrotza'ri agur egin ondoren, neska-mutillak beerantz jasteko arat-onat dabiltzalarik, Markola deritxon alderdira eroan ditu bertako andratxu batek. Gauza zaarrak ikus-min diran ezker, ango arri aundi bat, «jentil arria», erakutsiko dautse. Arri ori, itxura danez, Mari'k beiñola, bere gaiz-giro ta saputz-aldi baten, Oiz'tik bilinbolaka jaurtitakoa da. Gizon bat bere idi-buztarri ta guzti zapaldu ei eban azpian.

—Arrigarri! Mari sorgiñak, alan be, egin oi ditu olakoak —dirautse azkenez andratxuak—. Atzoko ekaitz karkailla...

—Oso-osoan arrapatu ginduzan gu.

—Baita ni be. Makiñatxo bat aldiz egiten dauskuz antzeko barrabaske-riak. Gaur soloak ondatzen ditu arri ta txingorrez, biar ardiak sakabanatu bee-laiño, urrengoan illunetan dabillenari bildurra sartu mozolo urrumak iruntsi-azoaz...

Eta ziarrotzar andra ongille ari be agur gozoa egiñik, kaltzadan beera igarri bage eldu yakuz Bolibar erritxora. Or Udaletxea, eleizea ta plaza nasaia; ortxe daukie baita, polpolka datorren erreka ta bide zabal bitartean, arrizko gomutagarri eder bat, antzez landua, Ameriketako ainbat errialderi —Venezuela, Kolonia, Peru, Ekuador eta Bolibia'ri— euren erri-jabetasuna eskuratu eutsen Simon Bolibar'i jasotakoa: emengoxea bait zan jatorriz.

Uri ontako edertasunak miretsitakoan, ba-doaz tapa-tapa Iruzubieta' runtz. Solo, sagasti ta piñudiak berde, ezker eskuma. Iruzubieta'n bide bi aurrez aurre: bata, eskumaldekoak Durango'ra daroa, besteak Markiña'ra. Ezkerrekoea artu dabe gazteak.

Bertatik taberna bat, ezkererra. Neska, ez gazte ez zaarra, arpegiz alai, bertoko atarian. Zeren zain? Neba-arrebak, soñeko nabar kikirrikiz eta joale bitxiz ikusirik, barre-irria loratu yako bat-batez ezpan-ertz gorri bi-zietan. Txomintxo ta Itziar, egarri be ba-dirala-ta, ara zuzendu dira «kas» bana artzen.

Edaria artu bitartean, zetan dabiltzan azaldu dautsoe biak neska irri zuridunari. Onek, guztiz txeratsu ta maitekor, dozenerdi orrazi ekarri dautsez. Bidelari txikien poza! Zelan edo alan emoi biozkor ori ordaintzearren, euskal kanta bat jo ta abestu dautsoe. Baita txiribogiñak biotzez eskertu be!



Txomintxo ta Itzartxo, orrazi-eskean, Zenarrutza'runtz

Erdotza

Meabe, sendi ta gizaseme azkarren auzunea, begi aurrean; zuri-gorri etxeak, orlegi goi-aldeko txarea. Arrobiak or-emen, Lekoitz'erako aitz bizian ebagitako bide gaiñean eta azpian. Erdotza, barriz, beeko lautadan, beti dozu begiko. Zergaitik ete? Pelotari errimen sorleku dalako, bear bada? Bai. Oraindik geiago, alan be, bide egalean daukagun Andra Mariari eskeiñitako ermita txanbeliñagaitik. Beronek aurrean daukazan idazkunai begira dagoz gazte biak; or, beerago, errekondoan, eleiz nagusiagoa, bedar zelai ezea tarte. Ez da iñor agiri. Txindor bat kantari alboko areitz adarrean, poz oiua eioten or nunbait. Zut-zut dau eguzkiak jotzen, aurreko aitz-arteai ikuskizun bedegarra ezarriaz.

Kanta otsa da orain beeko eleizan, Eleizkizunen bat ete? Gazte bi, Oso lo gaiñeko neska ta Zubiaurre'ko mutilla ezkondu dira gaur.

—Goazen bertara, Itziar! —bota dautso Txominek bere arrebari.

Eta eleiz aurrera doaz biak. Arako bidea artuaz bat, begira!, or jentetza aundia eleizatik urteten. Eleizatxo onen ardura dauan neska ule kizkurdu-nak esan dautsienez, aspaldian ezkontza asko ospatzen dira emen.

Eleiz osteko landan ba-da jenterik. Dotore ta alai dabiltz ezkonbarriak lagun, adiskide ta sendikoen artean, oni agur ta ari mosu. Etorkizunak zer dakartsen ez dakie, baiña gaurko eguna lañorik bakoa nai dabe guz-tiendako.

Eztegu jentea, poz-jario, alkarri agurka ta moltzoan ta bakarrean argazkiak ateraten diarduen artean, Txomin ta Itziar eleiza barrura dira. Txit apaiña da. Urte batzuk dirala barriztu ta atondu eben auzotegi ontako neska-mutil zoliak; arrezkero jente asko dator bertora ikusten eta errezatzen: ederrak biotza tiratzen. Leen kareztuta egozan ormak, arri bizi dituzu orain, leena ta oraiña ilduski baten arnas-beroturik.

Gazte biak, ikus-gurea zerbait asetu dabenean, gitarra soñu gozotan kanta au eskeiñi dautsoe Erdotza'ko Amari:

«Erdotza'ko lorea,
bigun ta zuria
gorde, zaindu egizu
euskaldun erria».

Ondoren, eztegutarrak oindiño euren alaitasunean itxirik, aurrera dague Markiña'rantza.

Uri barrura baiño len, bide gurutzea: Murelaga'ra diño ertzeko oltxoak. Ezkerretik etxe polit bat, lau ezku edo astigar aurean ditularik. Or ega-lean, iru zoko egiñik, baratz txikia, ederto landutakoa. Ez andi ez txiki dan andra batek bere kipula, berakatz, porru, arbi, idar, baba, azelki ta olakoak artzen dauz, eta orain be erdiz-erdizean diardu bere arloa jorratzen.

Biotz onekoa emoten dau-ta, arengana urreratu dira gazte biak. Ema-kume arek bai betarte argia! Atxur txikia laga ta bide ertzeko ormara yake. Jaso ta garbia dirudi bere jantzi ta berbetan; beso mardul biak karel gaiñean,

—Gaztetxoak! —dirautse—, bide au norantza doan? Or goiko Meabe auzotegira lenen, ta gero Lekoitze zear, Aulesti ta Lekeitio'ra.

—Or goian, gaiñera, ez ete dago Santa Eufemi?

—Bai. Lekoitze'n artzen da, eskumatik, arako bidea. Zuek argiak zarie ta ba-dakizue onezkero Igotz-mendi (Urregarai) zein eta zelako mendia dan. Mendi atsegia benetan. Arkaitz, zugatz eta landaz, tontor ikusgarria dozue. Orain etxeak be jaso dabez bertan. Gaillurrera eltzeko arlanduzko mailladia daukazue, berreun bat zapalda daukazana. Aitz gaiñean dago, ikusgarriro, Eufemi deunaren baseliza. Ezkutu ta misteri aundiz betetako tokia. Bertara igon nai al dozue?

—Ez. Markiña ikusi bear dogu; andik gero itxasaldera joteko.

—Meabe gaiñean egiten da ermita ori; ez da emendik ikusten, baiña ortxe dago txara gaiñean. Orain larogei bat urte, nire amak iñoanez, txara ortako koba-zuloan eta Santa Eufemi baseleiz inguruan bizi izan zan pa-dar bat, bakar-zale bat, oso entzute aundikoa.

—Or be, orduan, ba-dagoz koba-zuloak, ezta?

—Padarra bizi zana bai, beintzat. Beste bat be, naiko entzutetsua, bidez zatozela, ezkerretik itxi dozue: Osolo koba deritxo.

—Nun gero? —bota dautso Itziartxok.

—Ortxe, neskato, Erdotza'ko ermitatik laster.

—Ortik igaro gara, ta ez dogu ikusi.

—Antxiñako egunetan lamiñak bizi ei ziran bertan.

—Lamiñak? —neska-mutil biak, era batean.

—Bai, lamiñak.

—Gu orretariko batek bialduta gatoz...

—Zuek be, orduan, arein artekoak zarie? Gitarra ta jantzi orreik, egia esan, olako zerbaiten zantzu dira.

—Gu, ez uste, ez gaituzu lamiñ-endakoak; baiña orretariko bat bein-tzat maite dogu. Mesede bat, ez txikia, egin euskun eta orain, ak bialduta, orrazi eskean gabiltz. Zuk ba al dozu orrazi politik?

—Oba ez! Seme bat daukat pelotari Miami'n, eta arek bialtzen daustaz txitean potean. Bat ekarriko dautzuet, oso pinpiriña.

—Au poza! Biotzez eskertzen zaitugu.

Muiño ertzeko zelaian erne ta azten dan begi-zuri lorea ezagutzen ete? Zoragarria emon oi dau, goizeko iruntzak bitxitu naiz aize ozkirriak za-butzen dauanean. Alakoxea dirudi andra ak be, bere arpegi gozo ta ibil-kera atsegia. Joan eta Jesus baten ekarri dautse semeak Miami'tik bial-dutako orrazia, polita, ponpox liraiña.

—Zu ona, etxeoandra! —esan dautso Itziar'ek.

—Zeruak ordainduko dautzu! —Txomintxok, eskertsu.

Etxekoandreak, oindiño be, gose izango zirala-ta, ogizati bana ekarri dautse opil-puska batekin naste. Ta alkarri agur egiñik, Markiña'runtz doaz gazteak, opillari aginka. Pozik dabiltz, diru-mordoa jazo yakona baiño argiago.

Jatea amaitutakoan, Itziar'ek Txomin'i:

—Ba-dakik, neba, bapo gabiltzana? Itxureak asko esan nai yok, urrean. Gu beñik-beñ ibilliago pozago gaiozak orain arte: arpegi alaiz artu gaitue bazterretan. Zer nai dok geiago? An zereko zerean larritu gintzoazan, eta errazoiz; baiña gero, aize meiak ur-gaiñez darabillen ontziarena lez dok gure ibillia. Gosea arintzeko ba-yoagu zer jana; sariak be, orraziak... Onela ibiltekotan, ez gabiltzak txarto.

—Bai. Guk be, arraiñari amuan jausi dedin, egiten dautsoena egin bear.

—Zer gero?

—Amuzkia atera, ta ondoren zapla! Au don: orraziak ziskura.

—Ik be, maltzur izaten ikasi al dok? Maltzurak, baiña, ez dozak ondo ikusiak.

—Orrela don, Itziar. Goazen aurrera!

Uri griñatsu

Markiña ta Xemein lenago, eleizaz ta erriz, bi ziran. Orain, aspaldi-tik, alkar-asarre ta ikusi-eziñak uxatzeko edo, batean bizi dira adiskide mo-rapillo atsegia alkarri lotuak. Bitzuon kale, etxe ta baserriak nastean daukaguz. Olan Xemein zarrago dalarik be, ezerez bezela dogu gaur: bide-gurutzetako oltxoetan bakarrik agertzen dana. Markiña, oster, leen «uri griñatsu» zana, mundu zabalean txit aotan artua dogu gaur.

Lautada ederrean kokatua izanik be, mendi garai samarrez inguratuta dago Markiña. Iruzubieta'tik bertorantza gatozela, ezker-eskuma, mendi jagi ta txara illunak dituzu nunnai. Aspaldi baten ezer askorik ezpazan be, gaur fabrika, lantegi, zerra, arrobi ta olakotan ba-da ugari; au da: nun lan

egiña ta naiko ondo bizi izateko erea ez da gaur palta. Azken urteotan, etxe barriak be, bertoko langille ta abarrek nun bizi ta aterputu izan egien, astrapaladan jasoak izan dituzu. Erri baketsu, ta alaia, dirudi.

Gizaseme ospetsu askoren kuma dogu. Andikiak, pelotariak, eleiz-gizon argiak, euskal idazle oparoak, bertsolariak, idi-probalariak... danetik emon dausku Markiña'k. Uretan eta arraiñetan ugari diran erreka bi berton al-kartzen dira, besarkada samurrez. Kale estu ta zabalak daukaz, txandaka; amar-amabi jauregi eder, antxiñakoak. Eleiz nagusi eder bat, eta iru praille-moja komentu, euren ikastetxe ta guzti. Erdian dau zelai berde bat, zabala ta atsegia, jenteak opor-aldian ibilliz aize ozkirria artzeko. Eta pelota-leku bikain-bikaia, pelotari txiki ta andientzat.

Une onetan, baratzetako orma gaiñetatik kolorezko lora —txordo ta mulkoak, eta sarats-adarrak agiri dira narras. Etxe-gaiñak ke-jario, ezti ta baketsu. Musker bat, begi-firfir, arlosa ertzean geldi. Itzala eskatzen eguzki galdak. Sarrerako bide-kaleetan ez dabil arimarik.

Itziar ta Txomin, frontoi aurreko zelaiara elduz, atsedeen pizkat artzearen, bertako jarleku baten ezarri dira. Girgillu bat alboan kantari. Txominek be, ango ixiltasun gozoaren miesa urratu nairik, bere jogaillua zorrotik atera ta ariak emetuz, euskal abesti jakin bateri bereak esan-azodautsaz.

Iñok entzuten ete?

III

MARKIÑA

«Zelan Markiña-Etxebarri'n, Iremategi base-
rri onduan, dagon Alzibar deritxon errekatxua;
eta bere aitaitak esan eutsela askotan zelan ikusi
zituan lamiñak orrazten, euzkitara urtenda, sorgin-
orraziak esaten dautsen bedar batzuekaz. Eta Pe-
dro Errekalde'k esan eustan lamiña oneik letaña,
prozesiño ta otoiekaz jaurti ebezela emetik» (J.
M. Barandiaran, *Obras Completas*, II, Bilbao,
1973, 425 orr.).

Kale ta inguruak

Ordu bi ta erdiak dira. Ez da iñor agiri, edo oso gitxi, Markiña'ko kale ta bazterretan; geienak jatordua dabe, antza, ta orretan diardue banna batzuk izan ezik. Umetxoak be, kanpoko eguzki beroa baiño gurago dabe barruko kerizpearen gozoa. Begira oraintxe: langille batzuk bazkari legea eginda, euren arlora doaz; baita ain langille ez diran gizaseme ta emakume batzuk akeit-etxeetara be.

Txomin eta Itziar'ek bitartean, bira-inguru osoa egin dautsoe erriari. Uri onek erdian daukan zelai zabal ederra, zugatz gaztez betea, iru bider zearkatu dabe. Aurrean daukie Mertzedeko komentua, eta karmeldar lekai-deena. Urriñago, Elgoibar'erako bidean, Etxebarria, Barinaga, Aginaga, Iturreta, Murga, Munibe ta gaiñerako jauregiak: danak dotore ta lamiñ-
cedestiz gaiñezka.

Kalamu ta Urko aldetik datorren ibaitxoia —Urko— igaro ta gaixotegi aurretik doaz, dana ikusi nairik: Itziar'ek buruan daroa bere kapela biribilla, ta Txomin'ek besapean bere gitarra durundutsua. Emen Xemein'ko eleiza, egiazki ederra, baiña itxirik dago; or «Esperanza» lantegi aundia: bada langai, tramankulu ta makiña otsa barruan. Lan-eskola barria ta Gaitandarren torretxea miretsi ondoren, ondoko zubi-azpitik labanka doan uraren ederra ikusiz, bitsetan egon yakuz pizkaten.

Ortan dagozala, konturatu barik, sei-zazpi mutiko urreratu yakez. Gure gazte biak, jantzi ta jogaillu, era orretan ikusiez, ao zabalik geratu dira, euliai aterpea erakusten, esan oi danez. Arein jakin-miñari ase-betea emon nairik, Txomintxok, gitarrea besoetan artu, orma gaiñean jarri ta sekulako doiñuak eskeiñi dautsez. Arein poza ta entzun-gurea!

Zaartxo bat

Udaletxe azpian dagoz jarrita. Kale-Oker zear zaartxo bat, jakitun itxurakoa. Txomin, bertatik jagi ta gizon ari zerbait itandu guraz, urreratu yako.

—Aitita! —diñotso, alai ta urten.

—I, txotxo —gizonak erantzun—, i ezaz iñundik be atearen azpiko orri.

—Ezta bear be, gabiltzan bidean —Txominek ari.

—Zer ba?

—Gu neba-arrebak gara. Erriz erri gabiltz nun zer barri, ta eskean. Beraz, ausartak izan bear. Parkatu, otoi: erri ontako albiste batzuk jakin nai geunkez: lendikoak naiz oraingoak, bardin dauku. Oraindik gordiña dirudizun arren, zuk ba dozuz zeure urteak, burua soil dozu-ta. Nire aitagorri, buru-soiltasuna gizon zurraren ezaugarri da. Au be esan oi dauku: jakituria ez datorkiola gizonari bat-batez, apurka baizen.

—Eta zer gura dozue, gazteok?

—Markiña'ko barriak, bertoko gizon eta gauzenak.

—Markiña! Erri dotorea dozue, ta entzute aundikoa. Bertoko jauregi ta etxetorreak kendu ezker, lenago etzan zer aundirik, baiña azken urteotan etxe barriz ornidu yaku. Irabaziz be ez dabil txarto.

—Parka! —dirautso Txominek—; atsegin ba'yatzu, jarleku onetan gengo kez obeto.

—Ederto! —derantzu zaartxoak.

Eta alkarren ondoan egokitu dira irurak. Aitita erdian, Itziartxo ezkerrean eta Txomin eskumaldean. Alaia, alan emoten dau gizonak; argi ta adimen zorrotzeko. Tximurrak ditu bekokian. Garbi jantzia dago. Eskualatz, langille izana dirudi. Agin bakanak erakusten dauz, irriak eskatuta ezpan-ertzak luzatzean batez be.

—Ondo letorkigu guri emengo kondaira pizkat —asten da Txomin—; entzutez bakarrik ezagutzen dogu Markiña. Berriztarak gaituzu, ta araiño be eltzen, zelan ez?, beronen izena. Baiña guk, tamalez, bertoko gorabera gitxi dakigu.

—Ain jakin-gura zarien ezker, zerbait beintzat pozik adierazoko dautzuet. Markiña ez da zaarra, amalaugarren gizaldiaren erdirantza irasia dozue-ta. Tello Bizkaiko jaunak 1355'garren urteko maiatzaren seian, Bermeo'n idatzitako eskutitz batez emon eban uri au jasoteko baimena. Laudada onek iru ibar daukaz: Oiz eta Lekoitze'etik datozen urak osotzen daben Artibai erreka ondokoa; Gantzia, Kalamu, Urko ta Ukarregi'koa osotzen dabena, ta beerago, uritik urtenda, Artibai ta Urko'ren urak alkatzen diran lekukoa. Lenago, Markiña ta Xemein bateratu aurretik. azkenengo toki au zan garrantzitsua, ta Xemein eritxon. Erri biok alkatu ziran, bai, gaur Etxebarria ta Ziarrotza'k egin daben lez; baiña, nire eretxi apalean, erri txikiak be obeto bizi dira euren kontura, iñoren pentzutan baiño. Erriz auxa dozue gaurko Markiña.

—Eta gizona?

—Ez da exkaxa. Markiña aldeko etxe ta jauregietan armarri asko agiri dira: ikur ta armarriok ez dira errazoi barik ipiñiak izango. Or doguz Ugarte, Barroeta, Bidarte, Ubilla, Munibe, Murga, Gaitan, Ansotegi, Uha-gon, Mugartegi torretxeak. Emengo kaleak ez dozue gaurkoak seireun urte edo geiagokoak baiño. Gure asabak ementxe bizi izan ziran, Urko ta Artibai erreka ertzetan, astegunez langille ta igande-jaietan atsedan. Karmenak dira emengo zaindari-jaiak.

—Gizon ospetsuak?

—Baita. Torretxetan bizi ziranak ez-ezik, beste asko be, bertoko semeak, ezagutu ditu eleizate onek. Ona batzuk: Juan Barroeta, Prai Frantzisko Ugarte, Pedro Munibe. Iñazio Munibe, Bartolome Ibaseta-Beitia, Juan Antonio Mogel, Prai Bartolo, karmeldarra. Euskal idazle bikaiñak dozue azkenengo biok.

—Zenbat biztanle, arima lez daukaz gaur Markiña'k?

—Sei millara ez da eltzen.

—Emengo pelotariak be ospe aundia dabe. —Txominek.

—Bai orixe! Pelota Ikastetxea emen eukitea ez da auntzaren garberdiko eztula lez. Jokolari onak dozue markiñarrak, musean, bolaketan, arri-jasotzen, palankan, txingo eroaten naiz beste edozein joku-motatan. Baiña pelota-zale dira geien bat. Len eta orain zenbat markiñar pelotari, or munduan zear! Inguruetako baserri ta urietatik be ainbat datoz ona pelotan ikasten.

—Eskola liburuetan be aitatzen dira emengo pelotariak.



Markiña'n, zaartxo batek, erria erakusten dautse

—Orrela da. Izenak aitatzen asi ezkerro, sail aundia osatu geinke. Oneik beintzat gogoangarri doguz: Luis Arakistain, atzelari bizkorra; Pedro Amoro, Pola, Zugarri, Laba, Salazar anaiak, Jenaro Arrate, Tomas Bustindui, «Arrarte», Erdotza anaiak, Maguregi, Urbietta, Bereziartua, Bustingorri ta beste asko oneik lakoak. Ipar-Amerika, Kuba, Filipinas, Itali, Mexiko, Txina, Argentina, Kairo, Alejandria, Madrid, Barzelona... nun etziran ibilli? Gaurkoak be arein ezpalekoak dira, onak eta konta-ezin ala.

Au esanda, gaztetxoai adi, pozaren gozoa arnas artzen dau zaartxoak. Maite dau bere erria, eta entzuteko gertu dagonari, bizi-bizi edestu oi dau-tsoz Markiña'ko gauzak.

Pelota-lekua

Ixil-une laburraren ondoren, Txominek zaarrari:

—Guk, aitita, pozik ikusiko geunke frontoia.

—Bai, gaztetxoak; goazen ara.

Eta Guenkale zear, Karmengo komentu aurretik, ara dira irurak. Bidean, Mugartegi jauregiari aurrez-aurre dagoan iturri zardaiña erakutsi dautse. Toldope ta Zelai zabalean bada orain jenterik, zaar eta gazte. Erriko liburutegia eskumara itxi ta pelota leku barruratu yakuz zaar-gazteak.

—Au leku ederra! —diño Txominek, pelota leku zabal edatua ikasiaz.

—Egia —zaartxoak erantzun—; urte gitxi dirala barriztatua dago. Ikasle asko ditugu berton, iñoz be aspertu barik. Ez dira beti partidu aundiak egiten; egiten diranean, orraitino, udaldian batez be jainko txiki batzuk jokutzen dabenean, ikusten dozuezan jarleku guztiak bete-beterik egoten dira.

—Jente asko artzen dau?

—Nok jakin zenbat! Gora aundiko partidu bat jokutzen danean, gaiñera, ikusgarria izaten da oso. Jokolariak, jo ta jo, nekatzen dira, zelan ez? Baiña nekatzen dira, ta ez gitxi, joko atondu ta zuzendu dabenak be. Euskal jentea trebea da ortarako, ta markiñarrak eredu doguz. Zelako trebetasuna ezarri oi daben trabesak eratzen! Ikusi barik, siñistu eziñekoa da. Egia bene-benetan, jokolariak jokutzen baizen erne ta trebeak izan bear dabe trabesetan diarduenak euren ezarpenak jasoten.

Edu orretan autuan diarduela, atea zabalik ikusiaz, mutil koskor taldea sartu da barruan. Eun begi dira Txomin gitarreaz eta Itziartxo zisku ta kapeleaz ikusiaz. Sor ta lor, mamortuta gelditu dira.

—Pelotari txikiak dozuez oneik —diñotse aititak.

—Ikasten dabilzanak? —Txomintxok.

—Bai. Partidu bat eratu —diñotse aititak pelotari txikiak—, neba-arreba oneik ikusi dagien.

Aida baten, txokoan daukezan pelotak eskuratu ta su ta ke asi dira pelotan. Au jasa! Amar-amaika urte daukiez oindiño, ta oneik bai dakiela peloteari gurpilla emoten! Begira dagoz txiki biak, eta aitita, ase eziñik.

Amaitu dabenean, gure txikiak be, arein ekiña ordaindu nairik, zerbait eskeiñi bear euren aldetik. Eta Txomintxok jo ta Itziartxok kanta, «Aitor'en izkuntza» ordaiñez eskeiñi dautse. Pelotari txikien txalo-jo bearra!

Arretxinaga

Pelota lekutik urtenaz, Txominek aititari:

—Orain, aitita, neke aundia ezpa-yatzu, Arretxinaga ikusi gura geunke.

—Atsegin aundiz. Goazen ara —dirautse aititak, pozarren.

—Zu bai ona! —Itziartxok, zapla.

Irurak ara zuzendu dira. Kontu-kontari doaz, kalea zear. Ara eltzean, alboko etxean giltza eskatu ta eleiza barrura dira. Ikusgarria Mikel deunaren egoitz au. Ainbat jente etorri oi da bertora ikusten, udaldian batez be. Iru arri aundi daukaguz emen, miresgarriak, goian alkarri dautsela. Txundituta dagoz gazte biak aititak zerbait azaltzen dautsen bitartean.

Eleiza au, zaarrak diñoanez, gaur daukagun lez 1741'an egiña da, arlanduz egiña izan be. Erdiko arriok nok ipiñi ete ebazan gaur dagozan lez? Noiztik iñok ez dakiala, berton aurkituak ete dira? Ala uiola aundiren batek ona ekarriak? Ala gizonak —jentillak— olan eratuak? Edo-ta, lamiñen edo sorgiñen baten asarre-aldiak? Ez dakigu.

Euron azpitik igaro daiteke, ta ona datozenetatik asko igaro oi dira senargaia idoro nai daben neskatzak. Katamarka ibilli bear da, igarobidea estua da-ta. Katamarka ta alboka, arriai ikuturik egiteke, batetik beste-raiño. Iru altara daukoz arri artean, erdikoa Mikel deunarena dalarik.

—Zoragarri! —diñoa neba-arreba biak, luzaro ikuskatu ondorean.

Gabaro

Markiñar erakusle a benetan ona ikusirik, Txomintxok beste mesede bat eskatu nai dautsa, esanez:

—Orain, aitita, neketsu ezpa-yatzu, Gabaro ikusi nai geunke.

—Gabaro! Lamiñen bizi-lekua, koba-zulo entzute aundikoa; bardin, Kanterazar.

—Gu, ain zuzen be, lamiña batek bialduta gabiltz orrazi billa.

—Bai. Ulertzen dot. Antxe aurrez aurre daukazue Gabaro. Etorri neugaz. Arako bidean ipiñiko zaituet.

Atsedean barik, Urko erreka gaiñeko zubia igaro ta San Jazinto ermita ondolik gorako bidea erakusten dautse. Andik gora jo ezkerro, laster aurkituko dabe Gabaro; ez daukie galtzerik. Eta gidari zaartxoari samur eskerrak emonez, lamiñen arperantza doaz bizkor gaztetxo biak.

Eguzkia sartua da onezkero mendiaren bestaldetik, Kalamu txuntxurra bere azken-izpiz urrezaturik. Illunabar ozkirri. Itzalak datoz ipar aizearen bizkar, bazterrak illun korromorrotuaz. Bikote txikia goibelaren bildur, toki ezezagunean dabilta-ta. Osoro illundu dau, ta goian ez da izarren begi zurizkarik kiñuka. Gurbiz, abaro ta auntz-osto artean galduta... Txikien minkaiztasuna! Itzetik ortzera, aize-burrunbada ta argi-jaurtika inguruak... Eta konturatu orduko, alkarri eskutik elduta doazan neba-arrebatxoan aurrean neskatz segailla, txotadun eta jantzi zuriko, agertzen da irribarretsu ta maitekor.

—Itziartxo! —Txomiñek bere arrebari, alkar estutuz.

—Txomintxo! —Itziartxok, biotz larri.

—Ez izutu, gazteok! —diñotse neskatzak, mosuan parra ta biotza maitati—. Gaiñ-alde ontako maitagarria nozue. Ez dautsat iñori kalterik egiten. Neska-mutil gazteen zale naz. Poz-kutsuz ta maite-arnasaz ase nai ditut oneik.

—Orren ongille, ta, zelan bizi zara bakartade ontan? —bikoteak bertatik, aurreneko latz-ikara zerbait eztitu ondoren.

—Auxe nire bizitegi, ta nire antzekoena; Gabaro, Igotz-azpiko leza-zulo ixilla. Erdi gizaki, erdi pizti gereala diñoa or zuen artekoak. Gizonak ez gaitue euren laguntzat ezagutu gura; baiña gu ez gara gaizkin. Orma ta gela estu artean bizi dira gizasemeak; gu emen, izadiaren altzoan, argi, aize ta osto artean. Gizasemeak kale, bide ta jolas-lekuetan txulumulu ta baraila nai dabe; guk, oster, bakartadearen ixillezko gozotasunaz naikoa dogu.

—Zu orduan lamiñen erreñukoa zara? —Itziartxok ari.

—Bai, gazte! Ezagutzen al donaz lamiñak?

—Ezagutu, ezagutu... Bat ezagutzen dogu. Ak bialduta gabiltz orra ta onera. Araiñegun, Oiz puntan, ekaitz gogor ostean galdurik gengozala, berak artu ginduzan oso maite. Gero, orrazi eskean bialdu ginduzan; emen gabiltz ordutik, orrazi billa.

—Ba-dot nik zuen barri. Emen izan zan atzo Anboto'ko lamiña zuloko andereiñoa: ak esan eustan Oiz gaiñean jazo yakona. Baita zelako adiskidetxoak egin ebazan be. Zuek zarie, beraz, arek bialduak?

—Bai, geu gara...

—Zatoze neugaz. Neuk emongo dautzuet ostatua.

Gazte biak, ikara samar oindiño, alkarri so... Baiña, tira!, Oiz'ko lamiña
Mari Burrikak arrera ona egin eutsela-ta...

—Ederto! —erantzun eutsoen neskatx eder sotillari.

Lamiñakaz Gabaro'n

Arkaitzpe ezkutua da Gabaro, eun aritako txapar, zugatz ta ondoko
jantzia. Begiak sorgintzen dauskuz txokoaren berdetasunak. Atsegin aunditan gero! Aizea guri dabil, ta orri dardaratien soinu marketsa dator belarrietara, baso-landara usaintsuen bigun meeak lurrun-zentzunaren mintz-zilloak be gozo-eztitan jarririk.

Pitin bat zearkatu orduko, illun-erraitik argi jalgia sortzen yake, inguru osoa izpi-firfirka jarriaz. Zoragarria! Goizalde barria dirudi. Errekatzoz bestaldera zapart egiñik, bat-bateko eder-dizdiraz ornidu da koba ataria.

—Auxe dozue —jalgi lamiñak— gure bizitokiaren aurea. Barruan aldra aundiak bizi gara. Ikusiko dozue.

Besotik oratu ta barrura sar-azoten dau bikotea. Azia dirudi kanpoko atea, baiña barnera eltzeko makurtu egin bear. Gauza ikusgarria! Arri ta belarri egiñik gelditu dira gazte biak, bertako argi, soinu ta edertasunak ikusirik. Idazkortzak ez dau kemenik Gabaro'ko lamiñ-leza zelakoa dan, bear bezela, adierazoteko. Ezta urrik emon be!

Ementxe igaro eben gaba, guztiz ederto, gure gazte biak. Baturiko orraziak, Miami'koa batez be, ikusi ta atz-artean igurtziaz, ezin-esan alako ikoti ta oin-saltoak egin ebezan lamiña ta epotxoak. Zelako txerak neba-arrebai! Arein musika jo bearra! Zelako afaria! Arein «bizimaian diñardugu» alkarri esatea! Bost azpil ekarri eutsezan alde-erreskan. Eta gero, amesezko gelatxoetan, loaren gozoa!

IV

ONDARROA

«Erri irudimenean Mari ez zaigu aurkezten numen edo jainkoki bakar bat bailitzan, numen-aizpa batzu bailiran baizik. Markiñan, Kanterazarko koban agertzen dan Marije Kobako, Anbotokoaren aizpa dala diote, eta noizik bein elkar ikusten ere dutela» (J. M. Barandiaran, *Euzko-Gogoa*, 1954, azilla-lotazilla, 200 orr.).

Oporrez

Biamamonean, goiza printzetan erdibitu daneko, mailluki-zukuzko gosari aotik ezin itxia artu ondoren ba-doaz gure neska-mutillak Ondarru'rantza. Barroeta ta Ubilla torretxeak ezker-eskuma itxi dabez dagoneko. Or Urberuaga, len naiz orain ospetsua: gatzugaiz aberats diran urak daukaguz berton, arnasa eztitzeko egokiak nunbait.

Aspiltzarako bide-egaleko errekondoan mutil txiki aldreá. Onein zarata ta iskanbilla! Zetan ete diardue? Eskolak amaitu dirala-ta, nasai bizi dira, goiz ta arratsalde jolasari emonak. Zurrumurru artean, alkarri eldurik lez dagoz, arek eta onek zer dagian adi-adi. Kastorrean dabiltz. Aspaldietako ekandua eskola mutikoen artean: euri naiz aterri, aspertu barik jokatu oi dabe, bazkari ta askariaz be aztuta sarri. Temati ta zital, egun osoa emongo leukie jolasean. Eskola garaian be, udabarriz, zugatzak orriz jazten diranean, makiñatxo bat ordu ikasteari ostuten dautsoez!

Txomin ta Itziar bidez bide. Mutiko talde naas-makilla ikusirik, euren alboan jarri dira, ur-ertzeko arlandu baten gainean. Txomintxok, bere gitaran, gizalegez jo dautse euskal abesti baten doiñua; joko!-ariak, baiña, kastor jokia gurago dabe, abeslari gazteen kanta-soiñua baiño. Egiz astundua euskaldun esaera au: «Bere zoroak darabil bakotxa». Besteenari ez dautsogu jaramonik egiten sarri. Arei, ba, lotsa aunditan agur egiñaz, aurrera dagie bidelari bizkorrak.

Berriatu

Plazakola. Ur-jauzi. Bide-gurutzea. Bide bata, ezkerrekoak Lekeitio'ra daroa; besteak, sudurpean daukagunak, Ondarru'ra. Emendik ara, besar-katurik doaz, aundi ta arraintsu, Artibai ta Milloi'tik datorren erreka.

Ibar zabalean dago Berriatu, sagasti, solo, landa ta mendiz inguratuta. Etxe zuriak, teillatu gorriak, or-emenka: eleizalde atsegiña. Erri-biotzera baiño len, or Maitena, sagardotegia, aspaldiko urteetan lez gaur, entzute aundiaren jabe.

Etxe mordo galanta erdi-erdian. Muiño gainean eleiza, ta udaletxe ta frontoia beeratxoago, oraintsu barriztuak. Goialdeetan, lau aizetara, piñudiak baltz eta jagi. Ez aundi ez txiki diran etxeen ertzetik doa, beti mormoxka, ibai ongillea, amorrai dizditsuz ugaria.

Ez da exkaxa Berritu gizaseme azkarretan. Ementxe sortuak dira ainbat eleiz-gizon argi, mixiolari trebe, itxastar bulartsu... Eta bertsolariak, gaurko Mugartegi, esate baterako. Eta euskal idazleak, olerkariak, J. M. Garate, adibidez.

Aurreratxoago joanez, or Arantzibia torretxea, ibai saietsean lerdan, 1360'an Pedro Ortiz bere jaubeak barriztauta. Burrukaldi asko ikusi ebazan etxe onek amabostgarren mendean, Lekeitio'ko Yartza etxeokekin eta Martin Ruiz Ganboa'rekin izandakoak batez be. Amasei-amazazpi metroko goibea dau, laukitua, lau arpegietan amalau bat metro zabal ta metro ta erdi lodiko ormakin.

Beste jauregi batzuk be ba-daukaguz Berritu'n, oso aundikiak, gure baserri nasai yaikalai ezertxo be kendu barik: Elexpurua, Obekola, Zubialde, Mugartegi, Etxebarria, Lekoiabaxo, Kamitxutorre, Andoatorre ta abar, euren armarri bereziak erakusten dauskuezala.

Arrantzale uria

Ba-dau mamifia esan onek: «Mariñel emaztea —goizean senardun—, arratsean alargun». Ondarrutar arrantzale ots aundiko, ta argiak, ba-dakie

ori: bai orixe! Gaur be arrantzale, mariñel da Kantauri ertzeko erri goresgarri au: Ondarru itxasotik bizi yaku. Legorreko asko baiño obeto bizi be.

Joak dira arrastiko irurak, eta kale egalak andrazkoz beterik, lanean edo konta-katillu, eder ta jaseko, eragin ta jaikiak. Nun dira gizonezkoak? Itxas gainean dabe euren eguneroko zeregiña. Moltzoka etxeratzen dabe ainbat besigu, atun, lebatz, antxua, berdel, sardiña, tximiñu ta olako. Baita maxkur, keretxu, magurio ta antzekoak be, jateko ta kontserbarako.

Onaxeino eltzen dira Oiz'tik eta Urko'tik datozen urak. Estu ta aldapatsuak daukaz kaleak; zearka be bai, ez gutxi. Zaarra ta barria da Ondarru: azken urteotan or ta emen, itxas ertzeko lau-unetxo guztiak bete dauz etxez. Mendian gora be ez dira gitxi agiri, zugatz artean, muiño gain jai-kietan. Dana da ona, mariñel erri au dotoretu ta aziagotzeko, jantzi barriz eta adabaki txanbeliñez apaintzeko. Or daukaz eleiz ederra, erromarrak egiñiko zubia, portu zabal gordea.

Kamiñazpi ta Motriko'rako bidea eskumara itxirik, eleizazpitik, erdiko parkerantza doaz Txomin ta Itziartxo. Ontan, ezarlekuetara doazala, bost bat emakume ondarrutar, aruntz-onantz dabiltzanak urreratu yakez, oso adeitsu, nortzuk diran jakin nairik.

—Neba-arrebak gara gu —diñotse Txominek.

—Eta zer gura dozue? Itxura polita dakazue beintzat.

—Guk Ondarru ikusi nai geunke, erri atsegiña dala sarri entzun dogu-ta.

—Zatoze geugaz —gaiñeratzen dau euretariko ausartenak—; eta ikusiko dozue.

Aurrez aurre daukie potin, txalupa ta batel pilloa.

—Orreik dira, itxas-barruan dabiltzanakaz batera, ondarrutarren tresnak itxasoa jorratzeko —diñotse andra lodikote batek.

Eta itxasbeso gainetik doan burdiñezko zubitik bestekaldera eldu dira guztiak, alkar izketa eten-eziñean. Andik agiri da Ondarru zaarra batez be, Eleiza, Antigua'ko Ama, kai aldea, zearkako txaideak, etxe teillatu ta gainki gorriak. Ondartza zabala aurrean; urriñago, Saturrarán... nasa luzea...

Itzulia egiterakoan, barriro be Antigua'ko Ama dager goian.

—Axe dozue ondarrutarren zaindaria —diño argaltxo batek—; gure gizonak arriskuan dabiltzanean, guk araxe zuzentzen begiak. Arrantzaleak bost alditan aurkitzen dabez euren buruak benetako arriskuan.

—Ura ta sua naitaezkoak, baiña arrisku aundikoak esaten sarri entzun dautsat nik amari —Txominek tarteraturik.

—Gaur obeto gabiltz. Baiña gure gazte denporan, zenbat negar itxasoren asarre-aldiak zirala-ta! Zenbat ito ta galdutako! Berrogetamar urteotan asko aurreratu da ortan.



Ondarru, arrantzale errla, gizaseme jatorrez aberats

Kaian ontzi gitxi daukagu. Itxasoan dira geienak. Mutikoak ontzi barruetan, saltoka ta alai; zaarrak bardin, zer-edo-zeri oratu nairik, iñoiz be ez dagoz geldi. Ezkerretik kontserba-fabrikak, eta iragarki dizditsuak... Andra batzuk, moillean zabal jarrita, sare konponketan. Zearka begiratzen dautse bost andrai ta neba-arreba biai. Txipli-txapla dagi urak nasaren kolkotan. Kaio pilloak egada bizkorrean. Porturantz gero ta jente geiago...

Nasaren muturreraíño eldu da gure taldea. Batzuk amu-lanean diarduen bitartean, egonean dagoz beste batzuk olatu nareak begipe. Zidar azala dau kresalak, gozo ta mee. Bidutzia dogu Kantauri, naiko maltzurra; gaur baketsu, lotan dirudi; biar, osterá, brastakoan, itsumustuka, nastu ta sekulako olatuakaz bildurgarri jarri oi yaku.

Ona nasa puntan lau neskatilla, barre algaraka, Zerbait irakurten dabe esku artean daukien liburuan: orrek jalgi-azten dautsez barre-zantzo ain edatuak. Euskeraz da irakurtaldia. Zertaz, baiña? Bost andretatik bat ondoratu yake,

—Zeri, neskak, ainbeste barre? —esanik.

—Brix ta Tramana'na irakurten diardugu, eta...

—A, bai! Txomin Agirre, gure euskal idazle bikaiñarena. Guztiz ederra da zati ori. Irakur barriro be. Gazte oneik be jakin dagiela zelakoak garean ondarrutarrok.

Lau neskatxetatik gaztetxoenak irakurten dau.

Brix ta Tramana

Ondarrutar emakumak, len eta orain, naikoa lan dagie arraiñai begira. Arrain txikia ba'da, txalupatik atera, garbitu ta gazitu; aundia ba'da —besigu, lebatz naiz atun—, saltokietara eroan oi dabe; baita kanpora eroatekoa dana, oriotan erre ta upeltxoetan tolostu be; eta azkenez, errian jatekoa dana, kalerik kale saldu. Antxiña astodun saltzaille asko ebiltzan alboerrietan be: alogerekoak ziran oneik. Asto jabeak ziran Brix ta Tramana, Txomin Agirre'ren «Kresala» elebarrian aitatzen diranak.

«Astodunak ziran —diño Txomin Agirre'k— Tramana ta Brix; langilleak biak eta biotz onekoak, baiña ezagutu ziranetik bata bestearen arerioak edo arerio legez bizi ziranak, eztena baiño miñ zoli ta zorrotzagoak, aora yatorkoen zatarkeria edozeñi esan bear eutsienak, alkar ikusi orduko beti erriertan ziarduenak, atzamarkarako beti prest egozanak. Eurak ziran emakume agirakari guztien buru ta nagusi; agiraka egitea zan euren arrotasuna. Orain bat eta gero bestea esan arren, ez eutsien ardura; guzurretan iñok artuagaitik etziran lotsatuten, bada deadar andiena egitebanak edo atzamarririk sendoenak eukazanak irabazi oi eban auzia. Ta deadar, ga-

rraxi ta txillioak egiten, orretantxe ziran ba eurak mutillak..., edo emakumeak! Utsa bear izaten eben aserratzeko, ta aserre egozanean, entzutekoak izaten ziran euren destañazko esanak..., edo ez entzutekoak, ikusgarria euren gorputz, buru ta eskuen eragin aukerazkoa.

»Aitatu dotan egun onetan be, ezerez bategaitik asi ziran, eta Jaungoikoak daki zelan amaitu eben aserraldia, eztarriak itxi ta zer-esanak eta indarrak amaitu yakezanean.

»Otzarakada bat atunegaz etorrela, nasa gaiñean egozan emakumien artetik igarotean, bultzada bat emon eutsan otzara orregaz Brix'ek Tramanari, uste bage edo naita, ori eztakigu, bada era bietara gertau zeikean. Tramana'k, burua biurturik, ikusi eban bere arerioa ta asi yakon:

»—Nor da berau, ainbeste leku bear dabena? Erregiña dalakoan birau natxako ta Brix sorgiña baiño ezta.

»Tramana'ren esan garratza entzun orduko, itxi eban Brix'ek lurrean bere otzarea, ipiñi zituan esku biak gerrian, eta inguruetakoai begira, buruari eragiñaz, esan eban:

»—Ara, ara oin be zelan asten dan kaskamotz, zikin, ordi ori.

»Ta, arerioari ausarditsu arpegia emonda, jarraitu eban:

»—Entzuizu, Traman zabala, atso popandia, zein sorgintsutan ikusi nozu neu? Zeu izango ziñan sorgintsuan zu, baiña orditurik, eta ez zenduzan ezagutuko zeugaz ebiltzanak be zuk.

»—Ordituta neu? Zegaz gero ordituta? Zeuri atzo *amantalpetik* kalean jausi yatzun bonbillekoagaz?

»—Eee? Zeer. Neuri bonbilla jausi yatala atzo kalean? Guzurra diñozu, zaskil, zantar, txarri, urde, zorritsu, lotsabage orrek.

»—Miñ emoten deutsu egiak, miñ? Alperrik ukatuko dozu ba, Mari kontzek be ikusi zenduzan da.

»—Marikontze eskallu, txatxala, ezkel, petralari ta zuri, biori, arpegiko narrua kenduko deutuet nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue baiña.

»—Zeeek? Ja jaii! Etzaite aztu gero, buruan zorririk ezpa-daukazu, neuk lenago bartzak (ligarrak) ausi neutsuzalako dala.

»—Zeuk bartzak kendu niri? Eztago toki txarrean. Nire buruan eztago bartzik. Burua garbi daukat nik, Tramana: zuk, zital zikin orrek, egundo zeure bizian euki eztozun bestean garbi.

»—Zegaz garbituta? Txanton Kaiuanetik zeroiazun paitarragaz? Obeto egingo zenduan begietako makarrok be garbitu ba'zenduz.

»—Txanton'enetik paitarra ba'neroian, ondo neroian: neuretik, ez zuk lez iñoren lepotik...

»—Ja jaiiii! Len eztozu ba esan ez eroiazula?

»—Len ta orain, ta beti, neuria egia, neuriaa.

»—Uutik, mielga ustel gosekill! Zuaz nire aurretik, bestela...

»—Bestela, zer? Neu joango naz, nai dotanean, zu lango emakume baldar, koipetsu, zetakaz beteriko bat neure aurrean ez ikusteagaitik...»

«Boga, boga...»

Goiko zati onek atera ebazan, batez be, neskatil andra arein barre-zantzo ta berealdiko farrak. Izan be, arrain saltzailleen aserre-aldiak ezin obeto margoztuta daukaguz pasarte orretan. Beste zati batzuk be irakurri ebezan, «Kitolis»-ena, esaterako.

Gero, itxas urdiñari begi-sista samurra egiñik, lengo bidetik datoz barriro parkerantza. Dabiltzala, ainbat mariñel gauza aitatu dabez, arrantzale leialen ekiña goratuaz. Une onetan jentez beterik dago parkea. Eta gure txiki biak, bost andra arein esana beteaz, ementxe jo bearra dabe «Boga, boga» ta orrazi-batzea osotu.

Txomintxok jo ta Itziar'ek kanta, onela asi dira:

«Boga, boga, mariñela, mariñela,
joan bear degu urrutira, urrutira,
bai Indietara, bai Indietara.
Ez det, ez det nik ikusiko zure plai ederra, plai ederra.
Agur, agur Ondarroa'ko itxaso bazterra.
Agur, agur Ondarroa'ko itxaso bazterra.
Mariñela, BOGA! Mariñela.»

Amaituaz batera, zelako txalo otsak! Arriturik egoan jentea. Kontu eizue, batzuk parkeko zugatzetara be igonak zirala, andik obeto ikusi ta entzuteko. Arein gazteak goretsi ta txalotu bearra!

Atzenez, bostetariko emakume batek, jente artean ots dagi:

— Ondarrutarrak! Gazte bi oneik Oiz'ko lamiña amak bialduta orrazi billa dabiltz. Soñu ta kanta ordaiñez, orraziak bear dabez. Ez da mirari bear ez dogunetik emotea. Ez al doguz ainbat orrazi alperreko? Araka, beraz, zeuen arasa zuloak, eta ekarri oraintxe bear ez dozuezan orraziak. Emonak ez dau txirotzen.

Eta beingoan, dozenaka ta dozenaka orrazi ekarri ebezan; Itziartxo'ren ziskua goraiño bete artean ekarri ta ekarri. Ondarrutarrak bai esku-zabal!

Ondarru ez da, inoiz be, azaren azpiko orria, gizaseme sen aundikoen seaska ta buruen burukoa baiño. Askok daukie eredutzat, erri alai ta langille au. Itxasoz beti izan yatzuz trebe ta kementsuak. Antxiñako baten Terranova'raiño joan oi ziran, itxas bizkarrak ausi eragozpenai amor-eragiñik: urmendi apartsuak baizen arro menderatu dabe gizaldiak zear Kantauri'ren lepazurra.

Ondarrutar ernaien egite arrigarriak edestuteko izan dauz erri onek bere bertsolari ta idazleak. Oindiño ez ditu inok abestu Txomin Agirre, bertoko seme ta euskal idazle aurrenak baizen txukun ta sentikor mariñelen kresal arteko kezka, poz eta gorabera latzak.

Ur ta lur garaia izan yaku gizaldietan, gaur dan lez. Urriñetako bale atzean osotu ebezan egite izugarriak ixil itxita be, oraintsuago, 1890'an, izan eben eize ots aundikoa: emen inguruko arrain-mota guztia iruntsiz bizi zan bidutzi edo itxas-abre eskerga, anditzar bat arrapatu eben. Egun osoa igaro eben izugarrizko arrain a kaira ekarten, eta 600 arroba pixatu ebazan. Bai, ondarrutarrak nainoz izan yakuz aundiki itxas-bideetan, zein arraiñetan zein estropadetan; ez dira egundo atzera geratu.

Gure txikiak Antigua'ko eleiz aurrean daukaguz. Or bean Ondarru, etxe, ardandegi, denda ta lantolez ornidua. Or Likona torretxea, Iñaki Deunaren amamarena izan zana; eta Txomin Agirre'ri jarritako oroigailluak; Andra Mari eleiza, portua milla kolorez, ondartza ta egalak, Eskilantxarri atxa... Errenderi, Gorozika, Eizmendi ta Gomendia ta alboetako baserri zu-riak. Sartzera doan eguzkiaren azken-erraiñupean sorgindua dirudi Ondarruk. Gora bertoko gizaseme jator, abeslari errime ta kulturazale guztiak!

Txomintxok, Ondarru'ri agur egiteko, au joten dautso Antigua'ko Amari.

«Zure jantzia
zuri-zuria,
zure begia
da eguzkia».

Geldi bedi, bai, Ondarru Andra Mariaren babespe gozoan; poz naiz nekean Beronek zaindu ta gorde begiz bertoko famili guztiak.

Giro bizia nabari da, izadian eta biotzetan. Txomin ta Itziar, euren tresnakaz, gorantza.

V

ARMINA

«Lamiñak... nolakoa ote zen beren egikizuna? Ijitoen antzera aiek ere egun emen ta biar an bizi izatekoak ote ziren? Eztut uste. Auen antzeko esku-luzeak ziren ere ezta gure ezagutzera eldu. Toki guzietan bizikera berdina zeukaten ere eztakigu. Nonnai orrazizale ta urin (mantequilla) yale zirena ere badakigu ta nunbait gizonen bat senartzat artu nai izan zutela ere nere belarrietara eldu da» (R. M. Azkue, *Euskalerraren Yakintza*, 10-12 orr.).

Illuntzez

Lerdoi baltz baten ondotik txirristaturik, Milloi gaiñeraiño eldu dira gure bidezko txikiak. Aldatz erripena igonagaitik, ez dira askorik nekatu. Txoriak pago buruetan eta kirkillak zoipe egiñiko etxol apañetan, ilten dagoan egunari azken-eresia joten diardue. Illunabar atsegiña!

Gaintxo eder bat da Milloi. Itxasorantza begira jarri ezkerre, eskumara daukazu Berritu, etxe zuri bikaiñez illun-gandupean sorgindua; ezkerretik, Amoroto agiri da, an urrin, solo ta menditxo betetarik, arrats-bera gozoan lilluragarri.

Emen, etxe barritu baten atarian, andra p'illoa kartalari: arratsalde osoa emon dauskue ortan. Gure neba-arrebak, ikus-guraz, bertara jo dabe, «arratsalde on» esanaz.

—Alan ekarri! —erantzun dautse geienak.

Eskuetan daukez kartak; maian artagarauak, eta indiararak. Umore oneko jokolariak dirudie. Euron barre ta zantzoak batzutan! Baita aieneko zizpuruak be! Jokoa zelan doan. Mai-ertzeko atso igarrak euki be bai gero! Iru errege ta zaldia, joko onetan be. Besteak zer? Asi dira berba egiten. Nagusira, txikira, parietara, nok geiago? Ogei ta amaikara «ordago»-ka amaitu dabe. Ez da giro emen iru zazpiko ta txankarekin irabazi dauanaren aurka. Auzoko intxaurrak be zabuka jarri dirala dirudi.

Gazte eldubbarri biak, eztabaidarik etzala bear eta, musika jo dautsie, jokoaren joana obetu daiten. Txominek jo ta Itziar'ek kanta, «Andre Madalen» eskeini dautsie. Amaitzerakoan, muslarien txalo-jotea! Dirua emon nai dautse ordaiñez.

—Ez, dirurik ez dogu nai —agertzen dautse Txomintxok—; diruaren igurtziak loitu egiten. Gu eskaleak gara, baiña ez gabiltz txanpon eskean. Orraziak nai doguz.

—Zetarako? —matrail-tximur batek, aurrenengoak.

—Ez dira guretzat. Gu neba-arrebak gara, ta lengoan Oiz'en galdu giñeanean, emakume eder batek onik atera ginduzan. Eta mesedeak ordaindu bear doguzalako, Bizkaia'n zear bialdu ginduzan biok orrazi billa.

—Zelan deritxo Andra orri? —itaun bape atearen azpiko orria ez zirudian gerri-lodi batek.

—Zuek be ba'leiteke aren entzutea izatea: *Mari Burrika*, lamiñea.

Zurturik lez geratu ziran, barreari eutsi eziñik.

—Bai, ba-dira lamiñak —gaiñeratzen dau agin-loka batek—; ni gazte nintzala, amak askotan esan oi eustan, ni be lamiña nintzala: ona ezpanintzan, eurakana, ibai-ondoko arrietara bialduko nindula.

—Geuri be bardin amak —Txomintxok beretik—; alan be, guk mendian aurkitu genduna ona izan zan guretzat: illunetan galdurik gengoza, berak lagundu ta poztu ginduzan.

—Eta zer agindu eutzuen? —galde lasto-ziri antzeko batek.

—Esan dautzueguna:: orraziak batzeko.

—Gure aurretikoak be ori esaten eben —beste zaartxo batek—; lamiñak orraztu ta orraztu ikusten dirala. Ez da, ba, arrigarri areik orrazi premiñan aurkitzea.

—Gaiñera, askotxo ei dira —Itziartxok be.

—Beste munduko izaki orreik, nik entzutea dodanez, urrezko orraziak erabilten ditue geien bat —egotzi eban beste ule-zuri batek.

—Orixe esan dausku Mari Burrikak, al dala urrezkoak batzeko. Baiña aspaldian urrea exkaxtu egin dala-ta, beste gai batzukaz egiñak be artzen dabezala. Gaur izan be urrezkoak baizen atsegingarri ei yakez gaurko bitxi ta dizditsuak.

—Orrela izatekotan, neuk daukat bat dizdiz utsa dana —bota dautse mokor zabal batek, mai ertzetik.

—Orixe artuko geunke pozik —Txominek.

Joanik, amen batean ikarri dautse. Orrazi bikain! Danak ikusi ta ikutu dabe. Azkenez, Itziartxok bere ziskura. Ta, berandu dala-ta, bezuzagaitik eskertu, jokolariak biotzez agurtu, ta bide zabalez beera, aurrerantz doaz pozarren.

Armiña

Bean agiri da ilunabar gandutan, Ballestegi ibarrera doan bidea. Moko, Txopite, Ikan, Errota, Enparan, Sarkunbide, Olan eta besteak, base-rrietan eder. Atxurra gaiñeko bide-gurutzean, antxiñako arrobi ertzean jarri dira atsedean pizkat artu naiez. Aurrez-aurre, aitz eta zugaitz artean agiri da Atxuriarte baserria, gizon jatorren sorleku, orain gau-itzaletz betea. Illun samar dagoan arren —ikus-miñak parkatzen ez—, Itziartxok, ziskua lepotik eratsi ta zabaldurik, zenbat orrazi daukiezan jakin nai dau. Zenbaketa dagie neba-arrebatxo biak, alkarren leian. Au mordo! Irurogeta lau daukiez.

Jagi ta, zerbait janaz, aurrera dagie. Or eskumatik, konturatu barik, Armiña koba-zuloa. Argia dator barrutik, eurrez, uiol antzean. Zer ete? Jolas-jairen bat? Urre-ratu bidazti biak, ta zer dakuse? Ikuskizun izugarria! Lamiñak argi joritan sartu-urtenka. Ilunabarrean kanpotik izan dira, dirudienez; edo-ta urteteko gertakuntzak egiten dabiltz. Gaztetxo biak atean begira ikusiaz, arrituta, besotik oraturik barruan sartu-azo dabez biak.

Sarreran igarobide medarra daukien arren, barnean saloi luze-zabala- ren aurrean dagoz. Dana da argia! Leku zoragarria! Zenbat lagun zuri jantzirik, musika entzuten! Or baita epó batzuk be, gizontxo pitifiñak, futbolifian olgetan! Bedar gurizkoa da gizategiaren azpia; ertzez ertz zugatz txikiak dagoz loratan; erditik dator lats luze-txikia, arrikoskor biribillez ta oker-une inguru-mingurazkoz bitxitua.

Bertatik yatorke gure bidaztai lamiñen buru dirudian neskatz lirain bat, begi-uridin, soin-lerden, zango-ariña. Ezagutzen ditu Mari Burrikak esanda, ta zelako arrera dagitsen! Lenengo agurrak amaitutakoan, gazte biak batera:

—Au toki zoragarria!

—Ementxe bizi gara gu —lamiñak ebagi—, bizkor ta alai. Guztiok gara aizta: or dituzue batzuk, besteak euren arloari lotuak. Epofio orreik



Armiña, bide ertzeko lamiña-zulo ospetsua, Amoroto'n

mirabe doguz, euren zeregiñari emonak: leza bazterrak garbi, txukun euki, dantza-jolasez itzuli-murdika guri poza ekarri, jatekoa mairatu..., besterik ez dabe.

—Pozik al dagoz?

—Iñoizkoren baten, egia esan, egin oi dabez eurenak: igesari emon, lanean muker agertu, zalapartak jalgi-azo ta olakoak. Baiña erea bear da erregetzat, eta emen be, lege barrutik jokatu nai ez daunari, idizilla erakusten yako, ta orrek zentzuna sartzen dautse odol biziak irakitzen dautsoenean. Dantzaldi bat ikusi nai ete dozue?

—Oba ez! —gazte biak ots-otsean.

Eta, txalo batez, epotx aldra osoa batzen dau lamiña nagusiak, inguru luzea danen aurrean egifiez. Bigarren txaloa, ta berrogei batek asi dabe euren irra zalu, txairo, eragiña; ertzetik datorren aize bigunak be igiera zoragarri ezarten dautse epoen dantza txanbeliñari. Leun-leun doaz lenengo keriza-adar baten antzera biraka; arintxoago gero, bulzki-agifien arintasunaz, eta azkenetako, itxas-olatu asarratuen itxura artzen dau arein jardunak, bits-jaurtika ta egal guztiak iruntsi nairik. Irugarren txaloa, ta supituan geratu da zurrunbillo guztia.

—Dantza ikusgarria, ezta? —difiñotse lamiñak.

—Bene-benetan! —gazteak erantzun.

—Orrelaxe egin oi dabe gure mirabe laztanok. Agindu ezkerok, zain daukazuez zotzaren zantzuari. Esanekoak, zifnez! Dantzari trebeak dira; dantzeak berez bearrezko dituan neurri ta igiera, biak ederto zaintzen dakiennak. Nekez oneik utsik egingo. Atsegin yakuz danoi onein burbutzi, triska, ikoti ta jaikiak.

Laugarren txaloa jo-ala, guztiak doaz saietsean agiri dan jantoki zabal luzera, bakotzak bere lekua arturik.

Lamiña ta epotx, afari garaia dala-ta, or danak sail bitan jateko gertu. Ogei epotxek, galdara zapaletan, ortuariz egiñiko zukua dakarre lenengo, lurrun jario; gero ondorengoak, sei-zazpi zerbitzuraiño. Kurkuiz-xaliz artzen dabe guztia, zuku, aragi, arrain naiz igale; oso modutsu artu ere, gero. Ura pitxer sama estuetan dakarre, noizik beinka, bakotzak gogo dauanean, bertatik edanaz. Jan eta solas, ordu bete lez igaro da.

Azkenean, maitik jagi ta bertan, eskerrak emoteko bear bada, gorputz mee segaillak gora ta beera erabilliz, jinasia osotu dabe ordu laurenean. Ondoren, laster laiñoak zear ibilteko ordua bait dabe, or doaz danak gertaketak egiten. Garbitu ta orraztu bearra! Guk egiteko arduratsuren bat esku artean daukagunean ibilli oi garean baiño askoz zoliagoa da onein leia bizia. Txistu ozenaren zantzu ostean, danak doaz astrapalan kanporantza.

—Nora doaz, ñain arin? —bidazti biak lamiña amari.

—Orain illunetan daukie euren lana.

—Zertan, baiña?

—Gazteen biotzetan amesa ixuritzen; gabaz galdu diranai bidea erakusten; kuman dagozan umetxoai lo eragiten; mutil zarrai adorea emoten; bildur diranai kemena eioten...

—Zelako ongilleak! Eta gau guztia olan?

—Ez; gaberdi aldera oillarrak kukurruku egin arte. Oillaritera ezke-ro, lamiñak eta epotxak arpera biurtzen dira: sorgiñen garaia da ondoren. Gu egun-sentian eta arratsean, gaberbirarte gabiltz arpetik landa. Jenteak egiaz esan oi dau, gu errekondoetan egoten gareala orraztu ta orraztu, eguzkiak lurrari sartu-urtenez agur egitean. Orrela da. Ezta arrigarri: laiñoak zear, giro on ta ekaitz zakar, ibilli bearrak gure uledi dizditsua nastu-azo ta gero orraztu ta apain ipiñi nai izatea.

—Ain zuzen be, aztu orduko, emen dakarguz guk orrazi batzuk...

—Bai...?

—Mari Burrikak esan dausku batzeko, ta Ondarru'n pilloa batu dogu.

Ziskua edegi ta lamiñaren begi aurrean ipiñi dabez guztiak; sail ederra. Lamiñaren poza! Illargi betea dirudi, gazteen bezuza ta atsegin-sariak ikusiaz. Beretzako dirala adierazo dautsoenean, laztanka asi yake barne-pozari eutsi ezinda.

Kontu-kontari

Orrazien auzia amaituta gero, pozik jakiña!, beste saloi txiki batera daroaz gazte biak. Bada emen, argitan ta loratan, zer ikusirik! Sapaia oial gorrizkaz ornidua, ormak sartzera doan eguzki-kolorez, ta azpia larrosa margozko atxurdiñez edertua. Mai luze zuria berton, eskuz bir-josizko zamau lodi samar bategaz estalduta, oso dotore.

Bertara dareanekoxe, epotx buru-biribil bat daukie afaria zerbiduten. Neba-arrebak alkarren ondoan artu dabe lekua, lamiña ama bekoz beko daukiela. Poz-eztitan dagoz irurak. Jan bitartean, ainbat gauza edestu deusiez alkarri, lamiñenak eta gizasemeenak. Jakingarriak oro. Itz gozokoa da lamiña, ta neska-mutillak be adeitsu agertu nai dabe. Giza-legea nainun eder.

Irugarren azpilla ekarri eutsenean, jateko gozoa zala-ta, asko artzeko diñotse. Orrela dagie biak, ezezka ta baiezka ibilli barik.

Txomintxok ondoren:

—Zu bai ona, neskatx lirain!

—Gu ez gara txarrak, ez, jenteak uste dauanez. Gu on-eginaz bizi gara. Gizakien txarkeriak ez yakuz atsegin: guzurak, lapurretak, maltzurkeriak

eta olakoak, batez be. Ona ementxe berton, denpora gitxi dala, jazorikoa. Okamika koba Gizaburuaga'n dago; angio lamiña batek, seiña egiteko egon-eta, an urreko andra baten premiña izan eban, seingintzan laguntzeko. Lamiña erdibitu zanean, erditzailleari, bere emagintza saria ta afaria emon eutsoen. Ogi zuria ikusi ebanean, zati bat gorde egin nai izan eban etxean erakusteko. Afaria amaitu ta etxerako jagiten asi zanean, ezin jagi izan zan. Orrela ikusirik, lamiñak esan eutsoen:

—Andrea, zuk emengo gauzen bat daukozu.

Andreak ezetz eta lamiñak baietz luzaro jardun eben. Andreak azkenez esan eutsen baietz, ogi zati bat artu ebala etxean erakusteko. Eta orduan lamiñak esan eutsoen izteko an bertan artu eban ogi zatia. Orrela egin eban. Ordaiñez, guzurra autortu ebalako, ogi osoa emon eutsoen etxerako.

—Jakingarria, bene-benetan! —Txomintxok, zalantza barik.

—Lamiñak gizonakaz ba-dabe artu-emonik —darrai lamiña buruak—; baiña gizonak uste dabe euren esana ta guraria egin bear dogula beti. Guk, alan be, geure arloa daukagu, ta gizonak euren, ezta alan?

—Nik ori uste —Txomintxok bertatik.

—Ona zer jazo zan ementxe berton, gizonen mukerkeria zala ta etzala. Okabixo baserria ta koba-zulua ortxe urrean dagoz, emendik Lekeitio'ra goazala eskumatik muiñotxo baten.

—Eta zer gertatu zan?

—Lamiñak egon koba atan, eta ez eben nai aren aurretik iñor igaroterik gabeko amabietatik ordu bietara bitartean. Bein, alan be, gizon bat, postorea eginda, arrokeriz, koba aurretik joan zan. Oratu eutsan lamiña batek, eta ba-erabillen gizajoa, jateko eroan bear ebala-ta. Gizonak, estutasunean, izteko eskatu eutsan *liñuen penak* esan artean. Esateko, ba, entzutea ba-eukala-ta. Gizona asi zan, ba, geldigeldi liñuaren penak esaten: «Lenengo soluan atara, gero sikatu, gero pozuan beratu, gero sikatu, gero garramatu, gero jo txagiaz edo mazuagaz, gero ezpatatu, gero txarrantxatu, gero goruan ipiñi, gero ari egin, gero egosi, errekan jo, gero aildu, gero eun egin, josi jantzia, urratu, errekan jo...»

—Zenbat neke, ezta? —Txomintxok.

Lamiñak darrai: «Astiro joian gizon ori, baiña lamiña gosestuak beti arin amaituteko iñotsan. Alako baten Okabixo'ko oillarrak kukurruku egin eban, eta lamiñak, onetxek berbok esanda, iges egin eban:

—«A Okabixo'ko Marti-oillar gorria, eroan daustazu neuk aparitako neukan lebatz andia. Azeri gaiztoak galduko al dautzu zeure ezkerreko begi gorria».

—Gizonak bear dabe olako zerbait —Txomintxok, bizi-bizi.

—Baiña, ikusten dozuenez, lamiña arek be, ona zalako, ez eutsan gizon azarri ari kalterik egin gura, bildurra sartu baiño. Azken biraoa ez eutsan gizonari bota, kukurruku jo eban oillarrari baiño.

—Olan da, neska lirain —Itziarrek, buru-makurka.

Leena oroituz

Oindiño be, lamiña ta epotxak euren lana amaitu ta etxeratu arte, kontu-kontari ta alkar-izketa gozoan jardun dabe irurak. Ez dira aspertzen, orduak aurreratu arren. Emengo lamiña-zulo, arpe, basetxe, erri ta euro-tako gizakume ospetsuak arrotu dabez azken bako erreskada bizian. Amoroto, Oleta, Gizaburuaga, Aulesti, erri ta toki lerdan aberatsak, gizaseme gurenen egite arrigariz gainezka. Eder yaku beti be leena gogora ekartea.

Bitartean ba-datoz, banaka ta taldeka, kanpotik ziran lamiña ta epotxak. Betarteak alai, biotzak pilpilla; danak dakarre zer-esan pizkat, eta bat bestei iragarten diardue ikusi, entzun eta egin dabena. Lamiña buruak ondoren, doi-doi danak lez batu diranean, gazte biak ekarritako orraziak erakutsi dautsez. Arein ikusi bearra! Arein txalo jotea! Arein poz-ikara ta zoramendu! Azkenik, bakotxak artu dau berea. Eta gero, Txomintxok jo ta Itziar'ek kanta. ««Maitia nun zira?» entzun ondoren, lotarako bi-dean jarri dira, txiki biai atzamar pitin zuriz agur egiten dautsela.

Gaztetxo biak be, lamiña nausiak, amesezko etzangu batera eroan dauz, lo gozoa egin dagien. Oera bitartean, eta gero zati batean, ifundiko eresi ta kantu mee leunak entzun dira bazter guztietan. Musika samur eztiaren laztanez lokartzen dira, nunbait, Armiña'ko biztanle lezatar atzaldugatzak. Bikotearen begi-kutxetan be laster ixuri dau lamiña amak lo biguñaren ase.

VI

LEKEITIO

«Ezetik manteniduten ei ziren, au da, esaterako: labradore batek uste eban ogei anega gari eukiko ebazala eta baten batek itanduten ba eutsen zenbat anegen esperantzia eukan, eta berak erantzuten ba eutson, esaterako, amasei; gero, euki egiazala amalau, nai amazortzi, naiz ogei, esan eban guzurragaitik, lamiñak kenduten eutsoezan lau anega, au da, berak erantzuten eutsanetik itxaroten ebanera egoan aldia» (J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, II, 421 orr.).

Egun-sentian

Inguruak apar zurizko zapitan lo oraindik, egun barriari «ondo etorria» emon nai ezta. Egun-sentia alan be, dagoneko azka ta puzka dabilkigu belauñ berotuz, gau-illunari goibela erantzi gurarik. Dulun-dulun Amorotoko eliz-kanpaiak, goiz-otoikoak antxiña dau loa astindu.

Txomintxo ta Itziar be, une onetan, ibai bik, Urregarai aldetik trokaz troka bide luzean datorrenak eta Oiz'tik beera, Aulesti ta Gizaburuaga zearkatuz, itxasorantza doanak alkar artzen daben zubi-gaiñean dagoz uretan dizdiz dagien erraiñai begira. Emendik aurrera beintzat, Lea deritxo ibai oni, itxasgoran batez be, zabal ta nasai agertzen yakuna. Olaeta, Amoroto'ko auzune txairoa, arrotz askoren jolasleku, maiatz-Pazkoz bereziki.

Lamin-zulo askotxo dazauguz emen inguruan: Atxuri, Okamika, Atxurra, Armiña... Lea ibaia begiko ei dabe lurpeko numen oneik. Ementxe, ertz bietan, sarats, milizka ta altzez daukiez euren tokiek orrazketak ezeren bildur barik osatzeko. Eta, eguraldi onez berton ikusi izan ei dira eundaka. Onela abestu eban olerkari batek:

«Sarats ta milizkaz inguratua,
lirain dabil Lea, lamiña zulo!
Goi-errietako basur gardenez
asetuta, oa otzan ta arroso.

Oleta'tik bera, suge geldia,
diztikor akusta, bai, bitsetan naro;
arnas dagik, alan be, atsegiñez
eta ixil ortan dok ames itxaso.

Armiña artzuloko lamiñ gazteak,
auntz-oín ta sai-erpe, doaz igana.
Bada or barailla gau gerizean
intziri gozoa sor oi dauana...»

Ametz, arte, ereñotz eta eukaliptuz esitutako ibai onen ezkerretik doan bitxabalari ekiñik, or gure bidelari biak Arrupain auzotegian, Zubieta jauregia parez pare daukiela. Baratz ederra, zugatz urtetsuz betea; emengoak, lengo gizaldietan, oso izen aundikoak ei ziran, ganboar eta oiñaztar burruka orduetan batez be; Iartza sendikoen da, baiña sendi au be gaur, Euskalerriko ainbat jauregi ta torretxeoak lez, gitxira etorria dozu. Munduko gauzen zori, gaur argi biar itzali.

Goian agiri yake Lumentxa, Lea sortaldetik, Zubieta egora ta Lekeitio uria iparrera ditularik. Ba-dau entzutea kondaira aurreko giza-aztarren gordetzailla dan tontor biribillak. Bere saiets aldera edegiten dan leza-zuloan ba-dira lamiñak.

Lekeitio

Lekeitio! Uri zoragarria! Euskalerra osoan ederrenen artean ederrena. Arrantzale erria, bere kai, nasa ta inguruz bertoko ta kanpokoen arrimen. Izadiak eder jantzi dau, nainundik: eztegu egunerako panpox apaindu dan neskato gaztea dirudi. Bertotarrak, gaiñera, aspertu barik lan dagie uria,

ur-ertzean sotil etzuna, gero ta apañago aurkitu dedin; ortarako izan dauz seme biotz zabalak, diruz ta antzez laguntzen nagi ibilli ez diranak: Uribarren, Abaroa ta olakoak.

Kalez ibilki, or Udaletxea, plaza ederraren aurrean. Or baita eliz galanta, kaiaren ondoan. Dana ikusi nairik, barrura sartu dira Txomintxo ta Itziar. Au bai eleiza zabal apaña! Ederra, ziñez, kanpotik eta barrutik! Antxiñatik berton egoan beste baten tokian berton, 1488'an egiten asia dozu gaurko au. Sarrera nagusia uztai-zorrotz itxurakoa dan arren, geienik godotar egikerakoa da; au da, gotiko egikera berandukoa. Andra Mariaren eta Kristoren amasei bizitz-gaik edertzen dabe altara nausia; erdian Andra Mariaren zeruetara Jasokundea, eta onen azpian Andra Mariaren beste irudi bat jarrita. Aurreko goialdean berrogetazazpi zizel-lan agiri dira, oso bikaiñak.

Egia autortzeko, tokiaz gaiñera, Lekeitio'k daukan edergarrietan ederrera eliz auxe dozu. Gizaldiak zear makiñatxo bat jente auzpazu da berton, lekeitiarrak eta lekeitiar ez diranak. Bertokoak batez be —estualdieten bakarrik?—, negu ta uda atsedean barik daukaguz Ama errukitsuari laguntza eskatzen. Bai, seme-alaben zoriona, senar arrantzaleen ezbear bako jarduna eskatzen. Mirari asko kontatzen dabez, or-emen.

Kaia

—Or portua be! —diño Itziar'ek, eleizatik urtenaz batera.

—Goazen araxe! —Txomiñek beretik.

Ara zuzendu dira. Udaletxe aurrean andrak bendeja saltzen. Kaira baiño len, platanu azpian, ertz baten, Abaroa jaunari eregitako gomutagarria. Aurrez-aur ostatu dizditsua, ondartzari dautsola. Kaian ontzi mordoa, kolorez txit nabar; nasan ara ta ona arrantzale batzuk aize ozkirria artzen. Izuntza'ko ondartzia, itxas-goran. Kurlutxu muiñoan, giza-oín antzeko zulo bi dagoz —Ama Birjiñaren *Pausoak* deritxe. Txomintxok eta Itziarrek be, beste askok lez, euren oiñak areitan ipiñi dabez, bertara joanik. Karraspio, Mendexa'ko bidea, itxas-egal eta arkaitz-gaiñetako txalet koloretsuak, dana eder ta zoragarri! Lotatik itxartuaz doa uria.

Begien aurrean daukie Lekeitio, oso-osorik, etxe barri ta zarrez apain. Or arri-mokor ostean, itxasoa baketsu. San Nikolas ugartea, atxez ta piñuz beterik, beiñola, lenen frantziskotarren komentu ta gero atalai izana; or Tala muturra, etxeak, Otoio mendi, Gardata, Azumendi...

Gaur ostal-etxe bikaiña dogun eleiz-ondoko orretan, Zita, Austria'ko erregeiñ alarguna bizi izan zan. Austri-Ungria'ko errege zan aren senarra, munduko lenengo gerra asi zanean; baiña 1918'an, biak galdu eben euren



Lekeitio, itxas-ertz zoragarria, gizon jakitunen sorleku

koroia; 1922'an il zan Karlos aren senarra, ta erregina ta zortzi seme-ala-bak jo ona ta jo ara ibilli bear izan eben aterpe billa; azkenez, Lekeitio'ra etorri ta ementxe bizi izan yakuzan, eleiz-aurreko etxe bikañean, 1931' rarte. Erriak oso maite ebazan arrotz aundiki areik, baita eurak be Lekeitio ta lekeitiotarrak.

Lumentxa

Aurrez-aurre, sortaldera begira, Ondarru'rako bide gainean etxe barri erreskada. Gorago, Lumentxa mendia, gaur Kalbario.

—Nundik joaten da ara gora? —itandu dautsa Txomintxok, nasan itxaso zabalera begira dagon gizontxo bati.

—Ortxe, eleiz ostetik gora daukazue kale txiki bat; ezkerretik erriko iltegia dago, ta aren aurretik gora doan bideari jarraitzea besterik ez daukazue Lumentxa galdorrera igoteko.

—Eskerrik asko! —biak batera.

Eleiz osteraño lagundu dautse gizonak berak. Eta, ezker iltegia itxiaz —oso ederra da au, lorez, abetxoz eta atxurdiñez betea—, ba-doaz gorantza gazte biak, arri koskor, arte, sasi ta masusta aienez gainezka daukien bidexkaz. Gurutz-bide egotaldiak dabez bide-erakusle.

Tontorrean dira. Emen iru gurutze. Zelako ikuspegia bertotik! Euskalerriak ba-ditu zorameneko gaillurrak. Bat auxe, dudarik bage. Urriñera, Kantauri zabala; bean, ikutzeko eran, sotil, pertxenta, txairo, abra, Lekeitio uria eguzki esnetan.

Euren atzetik igon dabe ara bost neskatiñ amalau-amabost urtekoak be. Gurutze-biran dabiltz, begiak itxita, inguru-inguruka.

—Zergatik ori? —diñotse Txomintxok.

—Senargaia aurkitzeko —areik erantzun.

Eta bostak euren bira-bearra amaitu dabenean, edestu dautse zergaitik egin oi dabenean eurak ori Kalbario gainera datozen bakotxean. Lekeitio'n eta albo-errietan esan oi danez, begiak itxi ta gurutzeari bira egikeran, Kredo bat esan bear da, fedez esan be. Eta Kredoa amaitzean, itxasora begira geratzen ba'zara, senargai itxastarra izango dozu; liorrera begira geratzen ba'zara, oster, liorrekoea. Txomintxok eta Itziar'ek be, beste orrenbeste dagie, begiak zapiz estali ta gurutz inguruan biraka asi: itxasora begira geratu da Itziartxo, liorrera begira Txomintxo, Kredoi amaia emotean.

Arriturik lez dagoz bost neskatillak, Txomintxo ta Itziar ikustez. Gitarra, kapela zabala, zisku luzea... zelako neska-mutikoak! Euretatik ur-tenenak dirautse:

—Guk atsegiñez entzungo geunke musika pizkat.

Eta Txomintxok, geiagoko barik, «Maritxu, nora zoaz» jo dautse, amaitu dauanean, txalo luze ta zoliz eskerrak emonaz.

—Oi, zein polita izan dan! —diñotse begi-txatxu batek—; jo beste bat be.

Eta Txomintxok jo ta Itziarek kanta, «Nere aitak amari» eskeiñi dautse adeitsu. Bigarren txalo-zartakoa, Lumentxa guztian entzun dana.

Txomintxok ondoren:

—Lagunak: kanta zuek be zerbait.

Beingoa asi dira kantatzen, doiñu ta letra atsegiñez. Au abestu dabe:

«Aurak ikas-azue eskuaraz mintzatzen,
ongi pilotan eta oneski dantzatzen...
Aire tun txikitun, aire tun laire,
aire tun txikitun, aire tun laire...»

Batzuk eta besteak kanta-jolas aldia amaikeran, Txomintxok arei:

—Guk Lekeitio'ko barri batzuk nai geunkez. Zuok, neskatilla argiak dirudizue-ta, bertoko edestia jakingo dozue nunbait. Esan eiguzue, mese-dez, bertoko zerbait.

—Onek, Igone'k dakiz Lekeitio'ko barriak, lengoak eta oraingoak —egotzi dau matrail gorri batek.

Beste bagarik asi yake Lekeitio'ko albistak jalgitzen. Noiz irasia dan, bertoko bazterrak, eleiza, sendiak... Yartza ta Likona familiak aitatzen ditu astiro. Yartzatarrak, gaur be, or been daukie torretxea, Erdi-Arotik aomen aundikoa; sendi luzea gizaldiak gizaldi; azkenengoetatik, Mario Yartza argiak, sartu ebazan Bizkaia'n orain mendietan daukaguzan len-piñuak. Likona sendia be ospetsua zan, baiña amabostgarren gizaldiaren lenengoetan, Ondarru'ra aldatua dogu: Martin Perez Likona ango neskatx bat gaz ezkondu zan, eta Loiola'ko Iñaki Deunaren amama famili ortakoa izan zan.

—Or bean, portu ederra be; itxas-gizonak, beraz, ez dira gitxi izango Lekeitio'n —bota dautso Txomintxok.

—Erri au arrantzutik bizi da. Orain urrago dabiltzalarik be, leenago urriñera joan oi ziran baletan, Atlantiku itxasoari bizkarrak ausiz; mariñel bizkorrak dituzue lekeitiarrak. Itxas-gizonetan, barriz, ospe ederreko

dira ta liburuetan sarri datoz emengoen izenak. Kolon'egaz joanak esatera-ko. Lurrari itzuli osoa emon yakonean, an ziran lekeitiarrak gizon errime areikaz. Orixegaitik daroa gure armariak idazkun au: «Reges debellavit, horrenda cete subjecit, terra marique potens Lequeitio».

—Zer esan gura dau?

—Nik batxiler ikastaroan ikasi dodanetik, aux: «Erregeak azpiratu zituan, bale izugarriak menderatu, ur ta lur altsua da Lekeitio».

—Guztiz atsegiña!

Ertilariak

Ondoren euskal literaturari dagokionez emon dauz zeaztasun batzuk, jakingarriak noski. Agustin Basterretxea ta J. Antonio Aboitiz apaizak, ainbat bertso ondu ebezanak, emengoxeak ziran; baita Kandido Basabe Jesulaguna, Azkue aita-semeak, eta gaurko eleberri-gille Eusebio Erkiaga be.

Azkue aitak —Eusebio Mariak —bertsotan idatzi eban batez be. Bizitzako goraberak ondo ezagunak ebazan, eta orreik abesten daukuz. Neurritz ikusi nai dau gizona, ez jausia, baldrasa, alperra. Andrazkoen griña ta joera gaiztoak ederto zirikatzen ditu. Euskal ekandu ta oiturak ba-dakiz eta oneik, zertzelada ugariz, edertzen ditu bertsoetan. Euskera jator, erri-koi ta atsegingarrian idatzi euskun beti.

Azkue semeak, barriz —R. Mariak—, danok ezagutzen doguzan, edo ezagutu bear geunkezan lanok itxi euskuzan batez be: «Euskalzale» aldizkaria, «Vizkaytik Bizkaia» ta beste bost zartzuela, «Ortzuri» ta «Urlo» operak, «Euskal Izkindea», «Diccionario vasco-español-francés», «Cancionero vasco», «Morfoloía vasca», «Euskalerriaren Yakintza», ta abar. Euskaltzaindiaren buru izan zan, sortu zanetik.

Eusebio Erkiaga bizi da oraindik. Olerkari, euskal idazle ta izlari dogu. Olerki asko dauz sarituak. Itz lauz idatzi ditu: «Sinisgogorra», «Aspaldiko Maigret», «Arranegi», «Araibar zalduna», «Kanpaien atsekabez», «Bate-tik bestera», «Damutuak», «Neurria» ta «Zelai bizia». Euskaltzain osoa da, aspalditik.

—Musikalaririk?

Zapirain «Txanton Piperri» ta «Anboto» operak idatzi ebazana; J. J. Altuna, pianista ospetsua, Iparragirre'ren «Gernika'ko Arbolari» musikea ipiñi eutsona, Durango'n jaioa izan arren, ementxe bizi izan zan.

—Margolaririk?

—Oba ez! Aldekoa, Solano, Garabilla, Telletxea ta beste batzuk bertokoak ditugu.

—Iñoiz entzun dogu jai ederrak egiten dirala emen —Txomintxok.

—Bai! Iraillaren lenengoetan ospatzen doguz. Jente asko batzen da. Udaldian, eta igande-jaietan, ogetamar milla pertsonatik gora etorten ei dira ona, baiña bertoko patroï jaietan lagunarte ikaragarria batzen da emen.

—Jaiotako gauzarik ikusgarriena?

—Emen, dana da eder, kale, portu, ondartza, eleiza... Baiña antzar-
rak, nik uste, ikusgarrienak. Antzarra! Kaian ospatzen da jai au. Antzar
jaia! Arratsaldean geienez, eta antxiña-antxiñatik. Eguraldi ona ba'da,
orratz batentzat lekuri ez da egoten kai aldean, albo errietatik be jentea,
bideak artu ala, etorri oi da-ta. Jai onek ba dau bere jasa, erakarpena,
ta Lekeitio iñoizkorik dotore ta bizien. Zenbat kolore portuan eta portu
barruan! Bada kotxerik bazterretan! Zortzi egun —1'tik 8'raño— irau-
ten dabe San Antolin jaiak.

Koba ikusten

Ez dau entzute gitxi emengo koba zuloak: Lumentxa, liburu guztie-
tan bla-bla dabillena dozu. Txomintxok, ba, axe ikusi gura-ta, erakusteko
eskatu dautse neskatillai. «Pozik gaiñera» erantzunik, aratu dira beingoan.
Edesti-aurreko gizonaren aztarrenak aurkitzen dira berton: bertoko orma,
lur eta tresnak begiztu ta ikutu dabez gure gazteak, sorgin-girotan kuin-
kuin.

Arpetik urteteen Txomintxok urduri:

—Lamifiarik ez al da emen?

—Leenago bai; nire amak esaten ebanez, eguzkia zanean, emendik ur-
ten eta Lea ibai-ondora jatsirik, orraztu ta orraztu egoten ei ziran. Au
be bai, esaten euskun: andra batek bein orrazi bat ostu eutsela, ta lamiña
batek zemaika esan eutsola:

—«Izten ezpona neure orrazia, galduko daunat eure azi-orrazi guz-
tia.»

Orrenbestez, danak erriratu ziran, bean agur gozoa alkarri egiñik.

Eguzkia zut-zut. Karraspio'n ur-zaleak ugari. Nasa gaiñean, arrantza-
leak luzez, zurda ta amu-ariz, iraupen aunditan. Tala'n mariñel zaar-
rak autuan. Eta begira. Zeri begia emoten? Agur, Lekeitio, uri eder!

VII

ITXASALDE

«Elantxoben lamiak begi-bakarrak ziran; ger-
ziarren Kyklops (Cíclopes) aiek bezela, bekokiaren
erdian zuten beren begi bakar aundi biribil ori»
(R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, 10 orr.).

Zatika

Sekula be ez dogu goratu ta ederretsiko gure itxasaldeak dauan arnas
lillurakorra. Kantauri bere osoan da eder, baiña batez be Bizkai ta Gipuzko
aldeetan. Munduko lurralde ta bazter yaukalak ikusiago, guk maiteago
doguz geure txoko ixillak. Motriku'tik Gorlitz'erañoko izpazter osoa, bai
zeru urdiña baizen zerua!

Itxasaldeko erriotan, gaiñera, ba-dau oindiño gure euskerak kemenik.
Ondarru, Lekeitio, Izpazter, Ea, Elantxobe, Bermeo... oneitan gure izkera
besterik ez da entzuten. Eta berau dogu —ez arritu!— gure erriak dauan
doerik egiazkoena: euskerak dirauan bitartean, gure erriak be erri iraungo
dau; euskera il ezkeru, barriz, gure erria, erri izango ete? Euskera galdu
ezkeru, euskal gogoarenak ez ete dau egingo?

Gure bikoteak, Lekeitio'ko kalerik geienak zearkatu ondoren, zerbait
jateko artu ta itxas-egalez Santa Katalina'runtz doaz urrats-labur, atsegin
bait yake itxas-uraren, olatuen eta laiñoaren ederra. Itxas-muturreko ar-
kaitz gaiñean, faru-ondoan luzaro egon dira, adi-adi. Gero, jagi ta Otoio
azpitik zear, Gardata'runtz artu dabe. Igarri barik joan yake eguna. Egun
ederra! Bestekaldetik gordeaz doa eguzkia.

Bitxabal gaiñean etxe eder bat, orma zuri ta teillatu gorri. Zatika da. Bertako gizona etxerantza, eguneroko lanari berea emon ostean. On-alaia dirudi. Txomiñek, beraz, oldarkoi ta zorrotz:

—Arrasti on, etxeko jaun! Gau-belutzean, gureztat aterperik?

—Bai, gazteak, bai! Zatoze ona: euskaldunak beti dau bidezkoarentzat aterpea, sua ta janaria.

—Eskerrik asko, biotzez —Itziar'ek ezpan-irriz.

Beste barik, Zatika'ra igon eben. Ango familia! Guraso ta seme-alabak. Bost seme-alaba, bata baiño bestea ederragoak, Zoriontsuak etxe-barne ontako su ta laratz! Txomin eta Itziar'ek gau a, ederto apaldu ta ainbat kontu ta ipuin entzunik, bertan emon eben ezeren ardura barik. Euskaldun sendia bai eder!

Izpazter eta Bedarona

Txomintxo ta Itziar eztitan dagoz Zatika'n izan daben arrera txeratsuagaitik. Eta, goizetik, bidez leiatuta, aurrera doaz zori ta orrazi billa. Bide bi bertatik, ezkerrekoak Ereño'ra daroa ta eskumakoak Izpazter aldera. Izpazter euskal erri uts-utsa; emen ez da oraindik industri ta teknika barrien eragiñik ezagutu, goiko ta beeko auzotegietan leenagokoen bizimodu baserritarra dabe. Arritsua da erria, baiña bertoko lugiñak ba-dakie lurrari guna ta mamiña ateraten: landa, bedartza ta larre joriak ditu ingurumari.

Emen diran jauregi, etxe ta eleiza itxirik, iltegi ondolik itxasorantza artu dabe gazte biak. Otoio'ren saietsa: bean ondartza txiki ixilla, gaur naikoa jente jatsi oi da bertara; goian, itxas-bazterreko aitz ebagi, troka ta labar ikusgarriak. Gorantza doaz Txomintxo ta Itziar arri-mokor eta sasi artetatik zear: itxasoa begiz jo nai dabe bere edertasun betean. Zelako ikuskaria, Otoio'ren kasko gaiñetik! Kantauri osoa ikusten da: eskumatik Baiona'raiñoko guztia, ezkerretik Ogoño, Izaro, Mundaka, Bermeo, Matxitxako, Gaztelugatxe, Armintza, Santurtze'ko lur-gaillur jagiak... Ez yakez ikusiz begiak asetzen. Ezta adimenak be birako edertasunak andietsiz. Izpazter'ko koba, aspaldi bateko lamiñ-zuloa be gogora dakarre, Damazulo batez be.

Iltegi ondolik barriz ibilirik, Ea ta Bedarona'rako bide gurutzean aurkitzen dira, ezbaian nunbait, zein bideri ekin ez dakiela. Eskumakoa artu ta or doaz itxas-gaiñ zear Bedarona'ra. Ur-bizkartxoan, baserriz jantzia daukagu erritxo au, oso dotore gero. Txalet barriak be ikusi zeinkez, leena ta oraiña zoragarriro oretuaz. Jainkoak egiña gizonak apaiñagotu nai: izadia eder da, giza-lanak txukundua, ederrago aurki.

Basetxe asko dauz erri onek, itxas-gaiñeko muna ta landa ertzetan zuri ta ameslari. Etxe mordo baten erdian eleizea, pelota lekua ta taberna bi. Bide ondo zainduak Izpazter, Ea ta itxas-aldera. Ez dauka ondartzarik, baiña bai lapa ta txirla toki ugaria. Zeazki: ur ta lur, erri atsegingarria.

Ea ta Natxitua

Arritxola erreka ondoan dago Ea, auzune ta parroki bi ditula. Erria erdibitzen dauan errekeak ez dakar ur asko; erdi-legor daukazu itxasberan, baiña itxasgoran, blei-blei egon oi da, itxasoa bera emoten daualarik. Leku jator, oi ez bezelakoa dozu Ea, solo, baratz, zugatz eta landaraz beterik. Ondartza txikia dauko: lurreko ta itxasoko ederrak besarkada samurrean alkartzen dirala esan daiteke.

Bertoko biztanleak, urte barruan, bi milla lez izango dira; udaldian, alan be, arrotz naikoa bertoratzen da, emengo aize ozkirri ta bakearen billa. Etxebarria jaunaren paper-fabrikeak naiko lan emoten dautso erriari. Baiña, orrez gaiñ, itxasgizon asko ekarri ditu Ea'k, kapitan, pilotu, bargizon, txo ta olakoak.

Sakon barreneko toki udatiarrari azken-begitua egiñik, aldatz gora doaz Txomintxo ta Itziar, bat bere nekatu barik. Zelai ta landaz esitua, or Aingerutxu, auzune begikoa. Etxe politak, itxasora begira edo itxas gaiñean! Eskuman zapal-zapala bat, teillatuak oz-ozta lurrari ikutzen dautsola: sortaldetik jagia. Neska-mutiko mosu-gorriak erdi-leloturik, bidazti bien jakera ta tresnak ikusiaz.

Leku zoragarri! Etxe guztiak ia, eguzki begira, egutera dagoz, euskal etxe geienak egon oi diranez. Tontorrean naiz lauan naiz sakonean jasoak izan, aurreko aldea eguerdirantza begira eukiko dabe gure baserriak. Euskal asaben zentzuna! Ataria ta lo-gelak eguzkitara.

Bizkar baten dago Natxitua, itxas-gizon askoren kuma. Etxe mordoa, enparantza txikia, erriko eleiza, eskola barriak... Erri atzean, pelota leku barria eskuman itxirik, bide barri bat doa beerantz, itxas-aldeko baserrietara. Baiña Lapatza'ra batez be, an beean eta itxasgoran osorik urez estaltzen dan ondartza txikira.

Emen beste bide bi, bata Gernika'ra doa Muruetagane'tik, bestea Ibarangelu ta Elantxobe'ra. Eskumakoa artzen dabe gazteak. Laster, gaiñik-gaiñ, Ibarangelu ezker itxirik, oker unetxu bat eskumara artu ta or Elantxobe itxas bazterra: laiño kadentsuz jantzia une edo tauki onetan.

Urratsez urrats beste pausu bat, eta bide bi aurrean: goitik doa bata, bestea beetik. Beekotik doaz Txomintxo ta Itziar.



Elantxobe, etxe, kai ta mendi, oso liluragarri

Elantxobe

Bide biak daroe Elantxobe'ra, goikoak erri biotzera ta beekoak portu-
ra. Piñuz ta akaziz beterikotik kantari doaz gazteak; txoriak be kantuari
diardue; egabera ta kaioak, oster, andik onako egazkada etenbakoan.

Portuan txalupa ta ontziak; ez ugari, danak guztiz politak eta garbiak.
Itxasoari ostuta aitz-gaifnean daukazuz portuko kai ta nasak. Berton zut-
zut jagiten dan arkaitz-mukur ostean sartuaz doa euzkia. Onen azken-iz-
pien aier, kresala dantzari.

Portu inguruan bada jenterik. Gaztetxoak, neska ta mutil, igerian da-
biltz oindiño be kai barruko oxifnean. Nasa gaifnetan gizonak, batzuk amu-
arrantzuan, eta andrazkoak eguneko barriketai ezin amaia emonda. Ona-
ko batek, gazte biak ara ta ona, alderrai, arrotz antzeko iruditurik, ez bat
ez bi, diñotse:

—Gazteak, Elantxobe-zale, ezta?

—Bai, andre! Erriz erri gabiltz, eta asko ikusi arren, ez dogu au bai-
zen bitxirik aurkitu. Zelako erripan daukazuen zeuen erria! Etxeak, bata-
besteari, jausi ez daiten edo, eusten dautsoela esan daikegu. Baiña, bai
txairoak etxe oneik!

—Eta zeren billa zabiltze erririk erri?

—Gu lamiñen morroi gara, ta eurak aginduta gabiltz eskean.

—Eskean zuek be?

—Bai; orrazi-eske gabiltz.

—Orrazi-eske!

—Ez al dozue iñoiz entzun lamiñak euren uleak orraztu ta orraztu
egon oi dirala ibai ertzetan? Gu olakoxeentzat orrazitan gabiltz; gauzak,
ba-dakizue, erabilliaz zakartu, ezereztu egiten dira; lamiñen orraziak, zetan
esanik be ez. Eta mesede aundia egin euskun lamiña batek bialduta emen
gabiltz orrazi-eske.

—Askotxo batu al dozuez?

—Polito; iñun be ez gaitue ainbarik itxi.

—Neuk be ba-daukadaz orraziak, eta, nai ba'dozuez, oraintxe ekarri-
ko dautzuedaz batzuk.

—Ori, ori! Zu bai ona, andratxu!

Eta dapa, joan eta beingoan seiraiño ekarri dautsez.

—Itxastarra neban gizona, ontzi bateko buru izana; ak ekarri oi eus-
tazan etxera etorreran, orraziak be.

—Polit-politak dira. Eskerrik asko.

Sei orraziak ziskuan gorde ta errira begira, Itziar'ek andreari:

—Au erria, andra!

—Auxe da Elantxobe, gure erria. Arrantzaleak izan ziran gure asabak, eta gu be bai; itxasotik bizi gara geien bat. Kai txikia; etxeak alkarren gainean lez, aldatz aundiko kaleekin; azken urteotan ia danak polito zuritu ta barriztauak izan dira; baita barriak eregi be, ez gitxi. Erdi-Aroko gaztelua emoten dau emetik begiratuta, kanpotarrak diñoskuenez. Guretzat auxe da tokirik ederrena; euria danean, uiol bat dirudi kaleetan beera datorren uraz. Baiña guretzat erri bitxi ta maitea da.

—Eta kai txiki au? —barriro be Itziar'ek.

—Itxasoa ta Ogoño'ko atxa dauz oiñarri; ez da aundia, baiña guretzako naikoa danik ezin uka. Ikus bertoko ura, beti garbi ta garden; egundo ez gara aspertzen beroni begira: zein euri-jasa, zein eguzki dizditsa, gu beti gengokez gure portuan pozik.

—Itxasoak ba-dakartzue bizi izateko lain? —Txomintxok beretik.

—Azarriak dira gure gizonak; eta guztion alegiñak baturik, kentzen dautsogu bear doguna. Ez dogu kexarik. Itxas-kresalak ondo baltzituta dabiltz gure arrantzaleak. Oi, itxaso! Iñoizka izan oi ditu asarrealdiak, gure sukaldeak negarrez beterik. Alan eta guzti be, maite dogu!

—Antxiñakoa da, ezta? —Itziar'ek.

—Nunbait! Leenago, egia esan, Ibarrangelu ta Elantxobe bat ziran. Geroago, Ibarrangelu bere lurraz geratu yakun, eta Elantxobe bere itxaso urdiñagaz.

—Emen izango dozuez gizon ospetsuak be?

—Oba ez! Gure erria baratz jori izan da itxasgizon landaretan. Gaur be bai, entzute zabalakoak ditu. Idazle-zelaian eta kultura-arloan, barriz, gaur berton gizaseme ospetsuak daukoz: Gorgoni Erreterria, Aita Arriandiaga, Galo ta Andima Ibiñagabeitia, Intxusagarri'tar Joseba, ta gainetakoak.

—Eta lamiña konturik? —Itziartxok bat-batez.

—Bai! Ortaz be zerbait esango dautzuet. Emen beti entzun dogunez, arrain anka daukiez lamiñak.

—Bitxia! Esaiguzu, otoi, lamiña ipuin bat —Itziar'ek barriro be.

—Ona, bada: Ogoño dozue mendi au, aitz bizia; oiñak itxas barrenean daukaz eta gorantza, zeru billa doa irureun metrotan. Guk kutun dogu, kaia ta erria aize zantarretatik zaintzen dauskulako. Arkaitz sendo onek, ezkerretik, itxas-gaiñean, Leixa esaten dautsogun ao-zintzur aundia dauko. Zulo orren sabelean bizi ziran, leenago beintat, lamiñakuak.

—Ona gure lagunak, Elantxobe'n be! —garraxi Itziartxok.

—Lamiñaku orreitatik bat, egun batean, Elantxobe'ko etxe baten sartu ei zan, etxeakoak kanpotik zirala ta umea bakarrik aurkitzen zala bere kuman. Lamiñakua orduan, umea bakarrik ikusiaz, negarrik egin ez egian, umetxoaren aurrean jarri zan kumeari eragiten.

—Eta? —Itziartxok, jakin naiean.

—Etxekoak etorri ziranean, eta lamiñakua umeagaz ikusi, ikaratu ziran, eta lamiñakua jo eben etxetik kanpora aterateko. Lamiñakua, bakarrik egoan-eta, lagunai garrasika asi zan. Oneik entzun ebezan aren oi ta garrasiak, eta onela erantzuten eustoen: —«Nok ein dona, nok ein dona?» —«Niri miri nau» —iñotsen lamiñakuak—. Besteak orduan: «Euk ein bona, eu konpondu adi».

—Polita, benetan! —Txomintxok.

«Gero arte»

Ainbat barri ikasi-azo dautsezan elantxobetar andra-gizonai agur esanik, erri aldapatsuko kaleetan gora artu dabe gazte biak. Ogoño eskumatik daukie ta erria bekoz beko. Ixillaren ixillik eta ia igarri barik, gorakoan dendak, eleizea, pelota lekua, jauregi jaikiak eta abar ikusirik, goiko zelai antzeko unean aurkitzen dira. Illuntzea dan arren, emendik bai ikuskizun ederra iñundik iñora!

Gangurenean, illerria dago apatz, lurra ta itxasoa begipe. Ateburuan daukan idazkunak giza-biziaren igarua dakarsku gogora; onela diño: «Otoi bat eta gero arte!» Ba-eban zentzuna au jarri ebanak.

Biotz-zirrara biziz agurtu dabe azkenez Elantxobe; gau zoragarri baten ames egiñiko laukia dirudi: or geratzen dira zintzilik erri arrantzale zintzo baten bizitz-ariak. Urrintxoago, Kantauri nare ta yaukal, zidarrezko mai dizditsua bailitzan. Itxaso, erri ta jente, osorik euskaldun!

Illunkera

Illunabarrak aldapa beera aurkitu ditu Txomintxo ta Itziar. Ba al daukie norantza doazan? Illunkara sotillak sorgintzen dau ingurua, aurreko ibarra, Ibarrangelu, Akorda, Atxerre bizkarra; illun dago Natxitu aldea, ta Muruetagane; illun Laga ta Laida...

Ozertza laiñoak garandua, muga ziur barik. Ezkerra, goibel daukie, gau itzalak baltzitua; eskuma, alai dago, arerioa azpiratu daualakoa. Burruka latza biziaren eta eriotzearen artean jokatzen dana. Gure bizi naia! Euskalerriak ez il gura!

Egunaren ez il bai il onetan, eundaka txori, azken txintarik eztenak jalgi ondoren, ixillera dira: ez dabe egunaren ilterik ikusi nai. Alan eta guzti be gaba bizkor dator, ernai ta jaseko, egunaren erreñuaz jabetu nairik.

Txomintxo ta Itziar, beresi artetik, Laga'rako bidera jatsi dira. Al-boko errekatxoa polpolka doa, negarrari emona. Bildur ete da sakonaren altzoan?

Or etxe bat bide egalean, eskumatik. Ez da argirik agiri; ifior ez ete da berton bizi? Atean dei egin dabe, eskutxoakaz kisket astun, ugerrez erdoitua joaz. Saguzar batek, goi-gaiñean egaz egin gurea. Ate-deiari ez dautso ifiok erantzun.

Apurtxo baten zain egonik, atea bizkarrez saka ta dan giñean zabal egin yake. Ez da ezetariko zaratarik. Ifioiz errota izana dirudi, gaur ixiltasun aundiaren mende: urik ez dator andaparatik, arritzarrak ez dau artorik ez garirik eioten. Bolu zaarraren ixilla!

Txomintxok, aldean dakazan poxporu —arrast— ta argizaria atera ta argia ixetu dau, arrebari esanaz:

—Kanpoan otz da, Itziartxu, eta gaba berton emongo yonagu, ondo ba'deritxan.

—Batera naiatork —Itziar'ek erantzun—. Leen bildurta giñanok, onez-kero edozetara egiñak gaituk..., eta bardin yatak.

—Orduan ementxe, aldean dakargunetik zerbait jan, eta lo egingo yonagu. Ona don, izan be, amak sarri dirauskunez, gaztetatik edozetara egitea.

Barrurago jorik, tresnak eta aulkiak aurkitu dabez sukaldean; ez yake, bada, ezer paltako. Ez arduratu, diño Kristok, biarkoagaz. Izan be, ardura larregi ez da bape ona: gitxien uste dogunean bait dogu, laguntzeko, nor-baiten esku zaintzaillea.

Apari-legea egin, «Agur, ene maitea» ta «Alostorrea» kanta ta jo ondoren, argia itzali ta elbitz-pilloan etzun dira lotarako.

Leengo saguzarra dabilkioe egazka. Saguzarrak, gau-txoriak ez ete ireltxu ta lamiñen senide?

VIII

ITXAS-EGALA MAITE

«Lamiñek sorginen antzekoak ei ziren eta ur-ondoetan bixi edo egoten ei ziren. Ifiok ikusi ez eixen, nor-edo-nor urreratzen zanian, uretan sartzen ei ziren» (J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, II, 421 orr.).

Laga

Biaramonean alai bide Txomin eta Itziar'ek, Gaba ez dabe, urrean, txarto igaro. Agure mardul bat, goizetik, bedar arloan. Igitaia mota gaiñeko aski, txilar, sastra ta elbitzai ezarri aurretik, bere pipa tabakorritz bete, biztu ta aoan arturik, ke urdiña pa-pafa dariola dago pozarren. Norbere zoria bakotxak egiten.

Gizonak itxasoari, bere bizi-nai gartsuan, leku askotxo ostu dautsaz, Lekeitio'n, Elantxobe'n..., nun ez? Nor ete, baiña, geiago? Indarra ala teknika? Gizonaren trebetasunak izan bear leuke nagusi. Kontuz, orraitio! Gogora zenbat bazter ondatzen ditun urtero! Zenbat diru eraldi bear daben gure erriak Kantaurik egiñiko kalteak txukun jarteko!

Or Laga, ondar gorri, ixil ta apain; azken gizaldiotan zatia iruntsi dautso itxasoak, eten bako ekiñean, Burruka latzez, len lurralde ziran zatiak gaur areatza doguz. Eta aurreko aitz-mokor bilois ori? Ogoño; zut eta malkar, aldiaren eragiñak oso urratua, itxasoak setati jana. Or aurrean, len lurra estaltzen ebazan aitz-erailak, gaur ugarri, itxas-jostailu biurtuak.

Laga, ondartzia eder! Udatiarrak maite aue: jai ta domeketan ur-zale askotxo datoz iri poza emoten. Edari etxe ta txalet zuri gorriak jaso dauz gizonak emen ire inguruak umetxo ta igerilarien txilio-garrasiz alai-azorik. Kresal zabala laiño meepean aurkitzen dan goiz ameskor ontan, agurka daukazak gazte bidazti biok. Agur, bai, bazter zoragarri!

Izaro

Itxas-gaintxoko bidez doaz Txomin ta Itziar. Ertzean, apar zuri da itxaso; azpiko aitz-arte ta zuloetan danbaka diardu, leia biziko dantza ilkor batean lege. Basati az, Kantauri!, inguruko labar-mukuruak eratsi naian.

Izaro aurrez-aurre, Neba-arrebak, muna egalean, bedartzan jarririk, Kepa Enbeita'ren bertso oneik jo ta kanta, asten dira ez-titan:

«Izaro ugartea,
Izaro, Izaro!
Laida'tik ur-urrian,
luzaro, luzaro,
itxasoen altzuan
azke ta gozaro,
iñoiz gogaitu barik
beti antxe dago.

Goian zerua eta
beian itxasoa,
onek damotsalarik
besarka gozoa;
bera da ugazaba,
bera gurasoa,
beti azke bizi dan
zorionekoa.

Urtiak igaro ta
urtiak igaro,
ez zaartu, ez gaztetu,
sen batian dago,
zirkiñik egin barik...
arau ez onago.
Gaurko gizonok baiño
zerbait sendago!

An dago gau ta egun
begira Laida'ra
baita udan Laida'ra
duazan danari:
bera da jagolia,
bera ziñaldari.
Nor zelan ibiltan dan
itandu berari».

Egun zabalez lanerako garaia da-ta, txalupa ta potiñak agiri dira Ogoño ta Izaro ingurumari; elantxobetarrak tximiñotan goiza urratu orduko ara joanak nunbait. Goiz dabillenak dirua egiten; nagiak, osteria, sakela utsik. Illundu arte orretan jardungo dabe, gogaitu ta aspertzera zer dan ez dakiela.

Itxas-zeru zerrendan dana da ixilla, goizargiarekin naste. Ezarian urratuaz doakigu laiñoa ur-zabaldi nasiaren oge ostan; dana da eder, uraren txaplots erdi-etena, ertzetako etxe zuriak —Bermeo, Mundaka, Txatxarramendi—, landa orlegiak...

Aitz-igole bi

Gazte bi otoz-otoan goitik beera. Mendigoizaleak dira, agiri danez. Eguzki ta arkaitz zaleok, bakotxak bere kirol-zorroa dakar aldean. Osasunaren jabe dira izadiaren altzoan azi ta ibilliok. Atxerre'n lo egin eta, andik beera, jatsi yakuz. Txomin eta Itziar, bide ondoan jarrita ikusiaz, txunditu samar lotu dira: arrigarri yake nunbait onein jantzi ta gitarra.

—Egun on, gazteak! —esanez, agurtu dauz Txominek.

—Baita zuei be! Jainkoak emon. Bizitz errezean, ezta? —euretaiko batek.

—Zuen antzera. Gu itxas-bazterreko toki zoragarriak ikuskatzen gabiltz

—Gu osteria, Euskalerriko mendi-gaiñak ezagutzen.

—Nungoak zarie?

—Bilbotarrak. Eta euskaldunak. Geure lurra, geure aurretikoen bizilekua ezagutu nai dogu. Mendi ederrez beterik daukagu. Zelako mendiak, zelako toki ta bazterrak! Mendi ta leku oneitako milla ipuin eta elezar edestu oi dauskuez gure gurasoak, eta egia ete dan, ots, diñoskuena olan dan ala ez, geure begiz eta oiñez jakin nai dogu.

—Txit ederto! —Itziar'ek—; eta nundik zatoze orain?

—Or goitik. Bertan dagoan Atxerre ezagutzen dozue, bear bada; leku ezin ohea: inguru guztiak daukazuz andik mende. Ara igotea ez da erreza; guk ementxe beetik igon dogu; or gorago dago auzune polit bat, etxe batzuekaz; gorago Akorda, ta erritxo au ezker itxirik, bide-zidorrez laster eltzen da goiko kukutzeraiño. Bertan lo egin dogu.

—Orain nora zoaze? —Txomintxok itaun.

—Or aurrean daukaguzan Ogoño ta Ibiñaga ikusi gura doguz. Ikusi bakarrik ez. Gu arkaitz-punta zaleak gara, ta igonaldi galantak egiten doguz an-or-emen. Ariketa au arriskutsua da, egia esan; baiña iru urte daroaguz orretan eta arkaitz oker, sabel makur askori muzin egin dautsogu aldikada onetan.

—Erreza al dozue igotea? —Itziar'ek.

—Lenengotan zail egiten yakun, orain ez; lenengotan bildur apur bat be ba-genduan, orain arkaitz zorrotz, zillbot-aundienak be ez dauskue bildurrik sartzen. Begira or Ogoño; ipar aldetik dakigu zelan aurkitzen dan, baiña ego aldetik naikoa jana daukagu, ta aitz-buru zutez: gaur aizatuko dautsaguz alderdi ontatik dituan ezkutua. Txirri ta gabaik eltzen diran lekuraño elduko gara gu be.

—Bai ete! —Txominek, zalantzazko arpegiaz.

—Alan uste guk.

—Zoria bekizue onez —neba-arrebak ao batez.



Laga, uda-leku atsegina, Izaro aurrez-aur dauala

Arako bidea artu dabe igole biak. Mendirako oskiak daroez, artulezko kaltzerdiakaz; anora zabal luze arina, aize ta ezotasunaen aurka; esku-zorroak, eta askiñekoak belaunetaraño. Buruan txano biribilla, kolore askoz; bizkar-zorroan, lotarako zakua, zelai-txabola, mailluki, untze, gerriko, argi, ipar-orratz, osakai ta olakoak.

Edu aretan areik joaten ikusiaz, Itziar'ek au:

—Ez gabiltzak gu bakarrik zori-billa.

Laida

Muga ezarriak ditu geienik itxasoak. Norbaitek esan eutson: «Onaxeño bai, baiña emetik aurrera oinkada bat bere ez». Eta ortxe daukagu, kateetan dagon idiaren antzean, gaur gozo ta biar murrusaz. Iñoiz etorri izan yakuz, olatu bizien garaia dala-ta, kapeladun gizonak Kantauri'ren bizkar-astina-diak ikusi nairik; baiña zer ikusi dabe? Egunerokoa: loa edo murrusa. Besterik ez.

Bazter au, ederra bene-benetan! Laida, ondar gorri edatua! Emen ba-dau itxasoak nun atsedean artu: Bizkaiko lur-egal guztietan erasoka dabil, burruka dagi arkaitzakaz, oneik ezin eratsiz bere amaibako setan. Emen, ostera, luze-zabal bialtzen ditu bere uin-olatu narrasak: kilometru askotan ez dau ezeren zoztorrik, ez eragozpenik. Gernika'raño zabalazten ditu bere atzapar gezaltsuak. Egunean birritan doa gorantza ta beerantza, zoko oneitako zugatz, zii, bedar luze, altz, elorri, sarats eta abetxo nagartiai poz-ezkoa emonaz.

Laida ta inguruak, ederrak eta maitekorrak diralako, ikerle taldeak daukiez uda ta negu. Baita lamiñak be, eta sorgiñak ez gitxi. Eguraldi ona danean kotxetan ba-dator ona kotxetan! Beste aldetik, barriz, bultziak ezin nai daben guztiak bertoratu. Zoragarria bai euskal itxas-egi au! Itxas-beran, Mundaka'ko eleiz ondoraño luzatzen yatzu ondartz, ainbat kilometru are gorri geratzen dirala. Azken urteotan, naiz-ta asmo bikaiñak izan, zaindu bari lez daukagun arren, ondar piñ meta galantak agiri dira, bertoratzen diranen jolasgarri, eta osasungarri.

Txomin ta Itziar, aspaldian ez bait dira ondarrean ibilli, areatzen ibiltalditxo egin eta ur-ertzean, olatuakaz olgetan, oiñak bustiaz dagoz.

—Ura bai eder! —diño Itziar'ek.

—Jainkoak egina —Txomintxok.

—Gauza guztiak lez.

—Guk daukagun lur-zati onetan, orraitiaño, eder-ereiten diñot, beste tokietan baiña zoliago ibilli zala esango neuken. Itxaso, lur ta mendi, Euskalerriko txokoak adiña eder diranik aurkituko ete?

—Ez da errez.

—Umetatik yagozan gu lekuok ikusten egiñak; baiña nik beti esan yon-
nat, eta esango be bai, gurea lakorik ez dagoala: olan esan dausku maixuak
sarri. Iparragirre asko ibilli zan bere egunetan, Europa'n eta Ameriketa'n,
Uruguai'n batez be, eta ederto abestu eban biotzak beti Euskalerrira joateko
agintzen eutsola.

Eta ur-ertzetik zerbait aldendu, aitz-gaiñean itxi eban gitarra artu ta one-
la asi da Txomin:

«Gazte-gaztetatikan
erritik kanpora,
estranjeri aldean
pasa det denbora.
Egiya, alde guztietan
toki onak ba-dira,
baiñan biotzak dio:
«—Zoaz Euskal-errira!»

Beste bein, atzeritik ibilli ostean, Euskalerriratu zanean, onela abestu
eban:

«Ara nun diran mendi maiteak,
ara nun diran zelaiak,
baserri eder, zuri-zuriak,
iturri eta ibaiak...»

Bat-batean, goi-argiz indarturiko olerkari lez, onela abesten dabe gitarra
soiñu eztitan:

—Guk be, Itziar, kanta dagigun geurez —diñotsa Txominek bere arre-
bari.

«Laida'n gaukazuz, Euskalerrria!,
zuri begira zoratzen,
Sukarrieta, kabi maitea,
zuri biotzez kantatzen.
Ortze daukazu obi zuria,
beñoak zabal eskeintzen...
Txoko samurra, zu bestekorik
ezin guk iñon aurkitzen».

Eztarri-zoli, bost aapaldi edo estrofaraiño kanta dabez, bular-birikak
ondo zabalik kanta be. Ur-aparreko egazti zuri-arreak eta goi-beresiko txin-
dorrak erantzun dautse kantari.

Otoitz-bearra

Zerua laifotu da pizkat. Amabiak Mundaka'ko kanpantorrean. Ura go-
rantza dator, indar me-meetan; leen are artean egozan ondarrak potxoak urez
beteak dira plai-plai. Eta, igarri barik urak arrapau ez dagizan, ondartzan
itzuli luzea osoturik, bide ertzeñ egin dabe.

—Egarri nok —Itziar'ek Txomini; eta bide ondoko edaritegian «fanta»
bana eskatu dabe. Gazte ta zaar, mordoa dago edaten eta edari eske.

Ortik urtenda alboko ertzetik joanaz, eleiza txiki bategaz topez egin
dabe: Iñaki Deunaren kapillatxoa. Ixil ta lora usaintsuz apainduta. Berton
auspaztu dira gure gazteak, Jainkoari ta Bizkaiko Zaindari aundiari lagun-
tasuna eskatzeko. Amar bat minutuan otoitz gartsua, ume ta gazteak egin
oi dabenez, zuzendu dautsoe Goiko Aitari, eurak, euren gurasoak eta Eus-
kalerria gogotan izanik.

Gurasoen ikasbide onaren indarra! Gazte biok gurasoengandik jaso da-
bez, beste zer askoren artean, alkar maite izatea, men-egitea, euskera ta eus-
kal eresi zaletasuna..., ainbat oitura ta ekandu eder. Gurasoengandik jaso
dabe erlejiñoa, fedea, Jainkoa maite izatea. Orrek eroan ditu eleizara, ori-
gaitik eskatu dabe indarra, argia, laguntasuna. Beraz, ez da alperrikoa eurak
gurasoakandik jaso ta artu dabena.

Izkuntza barik, zer da gizona? Ezerez utsa. Eta federik бага? Berdin
jazo leiteke, ots, ezerez izatea. Egi, norberak erabagi bear dau zelan eta zer-
gaitik siñisten dauan, gurasoengandik artutakoa norbere gauza biurturik, as-
tiro ikusi ta onartu ondoren, jakifia. Berezkua da gurasoak, eurak bizi daben
erlejiñoa, seme-alabai emotea: izkuntza ta erlejiñoa, lurreko gauzarik ede-
rrenak, euren ustetan. Berezkua da baita, besteengandik artua norberaren
gauza biurtzeko alegiñak egitea. Nortasuna ez dogu geure barnedoia baka-
rrik, besteengandik jasoak be orretan poliki laguntzen dausku.

Ordulari esanekoa

Otoitzez eta zerbait janez adoreturik, barriro jarri yakuz Itziar ta Txo-
min bidean. Orintsu barriztutakotik doaz, eskuman urez kuin-kuin itxasoa
dabela. Ezkerrera dagien oker-unea igarorik, lamiña zulo dirudien etxe-txa-
letak bidez goitik eta bidez beetik, ezponda ertzean zoragarri. Ur gaiñean
ontzi zuriak zabuka. Urez bestaldetik Txatxarramendi, Busturi, Murueta,
Foru ta osteko mendiak.

Kanala'ra dira izerdi patsetan. Atsedendu nairik, bide gaiñeko eliz-ondo-
ra zuzendu yakuz bertatik. Jente pilloa emen, zarata ta iskanbiltsu. Zer ete
da? Obo edo inguru zabala egiña dabe: erdian gizon bat, txerpolaria emoten.
Orduari bat dauko eskuan.

—Ikus zelan geratzen dan orduari au —diño danen aurrean—; edo, obeto, emoidazue zuek bat, edozein, umetxo orrek eskuturrean daroana.

Umetxoaren amak, semeari eskuturretik askatu ta emoten dautso. Jokoa, beraz, garbia da. Txerpolariak, umetxoaren erlojua artu ta ikusle guztien belarrietara urreratzen dau, artez dabillega ikusi dagien. Ondoren, itz-jario ta txilimala artean, bere ezkerreko eskura aldatu ta, ots aundiz, geratzeko agintzen dautso. Eta orrelaxe da, orduaria, esaneko, geratu egiten da. Txerpolariak barriro be bere ikusleen belarrietara urreratzen dau, mirariaz jabetu daitezana.

Sor ta lor dagoz guztiak. Txerpolariak, ostera be, erlojua bere eskumako eskura eroan eta, pizkat astindurik, barriro asi daitela ibiltzen agintzen dautso. Eta erlojua, esaneko neurriz gora, barriro asten da ibiltzen. Ikusleen txalo ta jakin-naia!

—Arrigaria! —Txomintxok Itziar'i.

Orraziak ona!

Olako deabrukeriz aspertuta edo, Txomin ta Itziar gitarra aundiaz ikusi ebazanean, izugarritzko zalapartan,

—Datozela orain gazte biok aurrera —asi zan esaten—; kantari edo gitarra jotzaille doguz, agian. Zer zarie zuok, gazteok? Zer ogibide dozue?

—Gu orrazi-billa gabiltz erririk erri —Txomintxok ari.

—Zuok, orraziak ona; ekar orraziak ugari! Orrazi dantzariak!

Eta aitaren egin orduko, dozenaka orraziak ekarri dautsoez alboko etxeetatik. Txomintxok, eskerrak emoteko, «Loriak udan» eta «Agur, Zuberoa» jo dautsez pozarren.

«Loriak udan» eta «Agur, Zuberoa» jo dautsez pozarren.

I X

SANTIMAMIÑE

«Lenago, Euskalerrian nonnai, izen bakarra zuten, greziarrena bera. Gure egunetan Aezkoan eta beste Napar-ibar batzuetan *eilalamia* edo *eilelami* deritzaie, Bizkaian *lamina* edo *lamiña* toki askotan» (R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, Bilbao, 1927, 8 orr.).

Gaztelua

Kanala itxita, asi ziran Itziar ta Txomin, bidean barruna. Urriñetik dogu ikusgarri Artia'ko gaztelua. Egun barruko poztasun eta jazoai eragoionik, joan eta joan, azkenez eldu ziran gaztelu aurrera, illunkeran atan be. Zugatzez eta arresiz daukazu dana, txit polito. Ikusgarria benetan! Beerago ondar gorria, illunduaz orain.

Berebiziko laukiaren antza dau inguru osoak. Gazteluak, barriz, leio jaiki apaiñak daukoz ugari; gaiñekaldea agindun karelez; aurrekaldean, erdirantza ta goi samar, larrin txikia erakusten dauku, ormetatik beera kanpantxilla, gare ta aien-bedarrak nasai, dingilizka ditula.

Oi ez bezelako izpi-jarioa sortu da bertatik aurreko zelaian. Eta Txomintxo ta Itziar, ditzira orren islapetan ikusiaz, emakume eder, segail jantzia, agertu yake lore artetik kiñuka. Nor ete da? Apur baten itxoiteko diñotse; eta une laburraren buruan, alboko atea, marraskillo txikiak sarri miaztua aurki, edegi dautse,

—Aurrera, gazteak! —esanaz.

Gazte bien izuak ez baitu dau bera be, antza danez. Adoretu nairik, bein-
goan dirautse:

—Ez izan bildurrik! Ba-dot zuon albiste. Mari Burrikak iragarrita dakit
nortzuk zarien eta zetan zatozen: arpegiz ez arren, entzutez ezagunak gara.
Erdue barrura!

Barrura dira. Au dotoretasun, ezker-eskuma! Dana da lore, argi ta soinu!
Kontu-kontari bazter guztiak erakutsi dautsez Iriñe lamiñak: auxe bait da
aren izena. Zeatz eta meatz erakutsi be, zertzelada bat bera itxi barik: etxe-
barru, arkupe, be-barru, solairu, egurastoki, aizeleku, baratz-aurre, jolastoki,
ziri-esi, doiñu-gela ta beste gaiñerakoak.

—Guzti au, zeurea al dozu? —Txomintxok, zartadan.

—Orain bai: neurea ta neure aiztena. Aspalditik geu gara onen jabe.

—Eta lenago? —Txomintxok barriro be.

—Esango dautzuet. Guztiz antxiñakoa da gaztelu au. Obeto esan: le-
nengo torretxea zan, Santxo Gartziak 914'an eragia, Fortun Gartziak 1358'n
barriro barriztaua ta Juan Alfonso Muxikak eta Pedro Abendañok 1468'an
erraustua. Amabostgarren gizaldi azkenerantza, barriro jaso eben orduko
jabeak, orma gogor ta muru sendoz inguratu ta lau kañoi-toki ipiñiaz. Joan-
dako mendearen erdirantza, 1857'an, torretxe au, Frantziako errege Napo-
león III'garrenagaz ezkondu zan Eujenia andre guren agintariak, bere biz-
kar, barriztu, egokitu ta edertu eban. Arez gerokoa dozue gaurko jauregi
eder au: Eujenia Montijo, Sevilla'n jaioa izan arren, emengoxe zenduen ja-
torriz; onen ondorengoak bizi izan ziran emen, aldikada batzuetan; baiña
aspaldian geurea dogu. Andre gurena lamiña antzekoa ei zan; orain guk la-
miñok daukagu len arek eukitakoa.

—Gure amak diñoanez, ba-dira bai Euskalerrian lamiñak —Itziar'ek.

—Jente ona, ezta alaxe?

—Gureztat bai —Txomintxok supituan.

Sala aundi batera eroaten dautz gero. Eta zernai jatekoz ondo beteriko
maian, Iriñe'k lagunduta, sekulako afaria egiten dabe. Amaitutakoan, Txo-
minek onela:

—Guk, Santimamiñe ikusi gura geunke.

—Orain lotara, ta biar neuk lagunduko dautzuet.

Koba-zulora

Biamamonean, Kanala'n baturiko orraziakaz gazteluko lamiñai pozaldi
ederra emonda gero, goiz-goizetik, abiatu ziran irurak —Iriñe ta neba-arre-
ba biak— Santimamiñe'runtz. Bide ezkutuz joiazan, lamiñak ez bait dira
geienez egun argitan ibiltzen. Amaraunez bitxituriko etxe osteetatik, zugatz

osto berde gaillipeetan zear, lats eta erreondo erdi-argietatik, mastietako
parrape gerizatsuetan barna, igarri barik eldu ziran Santimamiñe eleizatxo-
aren ondora.

Au tokia! Gora so-egiñik, zugatz txikitan dana, gurbiz, arte, sasi, txapar,
Ereiñozar'eraño igonez doan txara edatua. Illun samar dagozan maila ba-
tzuk igonaz, berton daukagu arpe ospetsuaren sarrera.

Bertara sartzeko ez dabe giltzik bear izan. Iru bidaztiak elduaz batera,
eundaka buru txiki agertu dira koba-buruan: abar-izpiak eskuetan, dantzan
diardue danak, Iriñe, Lamiña amaren omenez antza. Arein, begi-txatxu arein
irribarre gozo! Arein irra ta ikotiak, arein txera ta zapart egin bearra!
Orrelaxe ordu erdian.

Atzenik, larros-kolorezko laiñoak estali dau ingurua, osorik. Iru bidaz-
tiak laiñotan aurrera doaz, eta epotxak arei agurka. Sarreran, beerantza ar-
tzean, urrezko zurubitik jasten dira, epotxen kantu-soinu lilluragarritan. Goi
ta bee, milla argi ixetu dira itzetik ortzera. Iriñe'k bere oski zuriz ikutu dau
ate nagusia, ta bertatik edegi da eder ta duinkiro.

Zein zoragarri barnea! Arri oztñezko solairu ta zear-bideak dizditsu,
seda ta zikiriozko miesaz jantzita. Millaka zuzi goitik zintzilika. Emen, er-
dian, beste ate bat, leiarrezkoa; lamiñak oni be beste ikutu bat txinela zuriz,
eta ots-otsean edegi da. Ainbat areto, saloi izugarri agiri dira, urrez ta arri-
pitxiz josiak. Emen be, goiko gangatik dingilizka argontzi dirdiradunak,
milla ta milla, begiak lausoazi bearrez. An naiz emen epotxak, Lamiñ ama-
ren zerbitzari, morroi, mirabe. Txomin ta Itziar'i be, ixilka lez, itz egiten
dautse mintzaira tartaloan.


Santimamiñe

Santimamiñe'k oian itsua dirudi barrutik, argi, osto ta pitxiz artetua.
Ametsezkoak benetan, gain-beera dagozan atxurizko buru zorrotzak. Txi-
lioka saguzar ego luzeak, kasko batetik bestera egats-ukaldi zolian. Iriñe'k
eskutik daroaz, dana erakutsiz, Txomintxo ta Itziar. Oro yake miresgarri.
Bai, miresgarri!

—Leku ederra, ezta? —Iriñe'k neba-arrebai.

—Ezta siñistekoa! —Tomintxok ari.

Arrizko mailladi baten gora igon dabe irurak, zortzi bat belaunkada.
Margozko arri-mutur batzuen ostetik, gari belaunkatuarena egiñik, eleiz-ari
antzeko salara aldatu dira. Bertoko argi-jario, fiñfiñ ta diztira! Alak eginda
be ezin daikegu dan lez edestu iñundik iñora.



Santimamiñe, aspaldi bateko euskaldunen bizitoki

—Auxe dogu eliz-ari —lamiñak neba-arrebai—. Emen laga ebezan euskaldun zaarrak euren jakituri ta trebetasunak. Begira ormara! Or dozuez oindiño, amabost milla urte txirrist egiñagaitik, areik ementxe itxi euskuezan marrazki esanguratsuak.

Mari-sorgin eta txirripita, alkarri dautsela, aitz-erpin batetik bestera. Amabost milla urte gitxienez orman irarritako kolore-lerro gaiñ dabilkiguz orain egalari.

—Or! Mitxeletak dabiltzan alderdi ortan, ikuş iru bisonte. Politak, ezta?

—Orrela da —buru-makurka, Txomin eta Itziar'ek.

—Ikus beste orretan be, basauntza, oreiñen endakoa; gela onetako tartean be, zenbat gauza bitxi! Eta... eskumako tartean, begira or bean auntz bat, antzetsu eratua.

—Arrigarria, marrazki oneik orren antxiña egiñik izan, eta orren ederto, garbi ta aratz, gaur arte iraun izatea —Txomintxok beretik.

—Bai, orrela da. Esan dautzuedanez, orain amabost bat milla urte egiñak dira. Arpe au entzute aundikoa da gaur.

—Eta berton euskaldunak bizi izan zirala, esan dauskuzu?

—Bai! Euskaldunak bizi izan ziran emen. Gizonak eizan eta andrazkoak, etxeko lanetan. Orrelaxe, urte askoz. Geroago lurra lantzen ikasi eben, baita abereak zaindu ta jagoten be. Labur: Luginza ta artzaintza, Orduan, bizitegi lilluragarri au bertanbera itxi ta zelai agirian zurezko ta lastozko etxeak eratu ta bizi izaten asi ziran. Gero, jakiña!, pizti ikaragarrien gordeleku biurtu ziran toki oneik, eta millaka urteak dirala arri-mokor eskergez itxi egin ebezan arpe onein atakak. Eta gu bizi giñean bakarrik. Azken urteotan, baiña, arpe-zaletasunaz griñatu yakun gizona. Eta oraindik urte asko ez dala, au be estalgetu euskuen: iru euskalun argi emen ibilli yakuzan alegiñak egin nairik, aztertu ta aztertu, antxiñako arein aztarna billa, aspaldiko gure egoitz onegaz jabetu arte.

—Zu, Iriñe, emen bizi zara? —Itziartxok.

—Bai, neska! Antxiñakoak gara gu. Margozi oneik osotu ebezanak eza-gutu genduzan guk: gizaseme antzetsu ta erneak, benetan! Arpe onek naikoa irudi ditu; oneik bai beñik-bein: emeretzi bisonte, zezen bat, iru auntz, orein bat, bost zaldi, basurde bat eta beste artz bat; guztiok, marrazki balteez inguruka egiñak, naiko ondo diraue oindiño. Onez gaiñ ba-dira beste ezaugarri batzuk, arrian xixeluz tinkotuak, edo-ta margoztuak.

—Margozi oneik ain zaarrak dirala, dirauskuzu?

—Orrela dozue. Euskalduna, jakin ez noiztikoa dogun euskal lurrean: Goipaleolitos arotik beintzat emen daukagu, bere jakintza ta arte bereziaz. Güretzat be, ez da errez kondaira-aurrea aztertu ta jakin-bidean jarrea. Zaarrak gareana dakigu ziur, bakar-bakarrik. Euskal kultura be, aizkora, zapal,

ezpata, arraska ta onakoetan, zar-zarra dozue jatorriz. Koba-zulo ontako aztarrenak Goi-paleotitos arokoak dituzue. Santimamiñe'n, sarrerako lur-azalak, alkarren gainean, garai ortako aztarrenez beterik dagoz; margozkiak be, Euskalerriko kobetako beste marrazkiak lez, ordukoak izan bear. Eta urtemordook igaziak izan arren, emen daukazuez urte batzuk dirala egiñak ba'ltzaz lez, argi ta eze.

—Zer esan gura ete daben, ba al dakizu? —Txomintxok.

—Ba-dabe, ziur asko, euren adierazgarri. Noruntz zuzenduta dagozan, zelan eratuta, begitu bear. Argia zan nunbait sasoi artako euskalduna; eta emen itxi euskun arrian josita lez bere pentsamentua, bere nor-izatea, ikur eta ezaugarri oneitan. Margozki oneik, egia autortzera ezkerro, gure asabak itxiriko irudi-ikurren mandatu ta mezua besterik ez dozuez. Urtzi-zale amorratuak ziran gizaseme areik; zer guztietarako Ari eskatu oi eutsoen laguntasuna. Eizetik bizi zirala, esan dautzuet; beraz, zaldi bat arrapatu gura ebeanean, siñestedun areik, otoiztoki onetara etorri ta eizatu nai eben abere edo piztiaren aurrean, Urtzi'ri eskatzen eutsoen laguntza, babesa, zori ona.

—Oso polita! —Itziar'ek.

—Ba-ziran —eta gaur be siñisten dabe— lamiña, ireltxu ta olakoak bizi dirala koba barruetan, zezen, auntz ta antzeko irudipean bizi be, siñisten ebenak. Ez dozue olakorik entzun?

—Zer? —Txomintxok, erdi-totel.

Lamiñai ez kalterik egin

Gazte bi arein izenean gizaki guztiei emon kontseju ta aolkuak arein biotz-adimenetan indartsuago sartu nairik, Iriñe'k, yoran aundiagoz, dirautse:

—Leza ta kobazuloetara ez dala arririk bota bear, «Ori iretzat eta ni Jainkoarentzat» esan barik. Zuok orrela egin aldioro. Mundukuok zabar samarrak zarie, edo-ta dira, Urtzi'rekin. Baiña Ark egiñak gara guztiok: giza-kumeok, pizti-abereak eta gu, ez pizti ez giza-kume. Bera guztion jaun eta jabe. Lotsa zor dautsagu, orrengaitik.

—Egia diñozu: geu gaituzu guztiotan egabera, ardura bakoen.

—Ori ez dago zuzen. Urko lagunari begirunea izan bear yako, premiña ta ezbearrean lagunduz. Zuek gaztetxo zarie oraindiñoarren, eta ez zenduen oindiño entzungo or azpialdeko «Lezika» basetxeko andra gazteari jazo yakona.

—Zer? —Itziar'ek, jakin-miñetan.

—Lamiña batek ez lei azken-arnasik emon, giza-pertsonen batek aurretik gaixo dagoana ikustera joan eta oge-buruan otoitzen bat erreza-

tzen ez ba'dautso. «Ziabil» lamiñea, berreun bat urtekoa, il-agiñik aurkitzen zan; deitu geuntson Lezika'ko andre gazteari, eta eskariak egin eutsozan guztiz txeratsu ta eraspen aundiko. Ordañiez, lendik be aregandik mesede ta esku-erakutsi askotxo artuta egoalako, ikatz-zorro txikia emon eutsan itxuraz. Etxera biurtu ta zorroa edegi ebanean, ikatz zirudiña urre gelditu yakon.

—Axe bai biotz onekoa! —Itziar'ek.

—Berein gara gu, gaztelua eta leza barren au bizitoki doguzanok. Askotan bear izaten dogu gizatiarren laguntasuna be. Ikusi dozuen leza-zati au ez da ezer; or barruan areto itzelak daukaguz, eta zear-bide misterioz beteak, jakiña. Zear-bide bat itxasoraño luzatzen da, Atxerre azpitik, Laga ta Laida bitartean aurkitzen dan bazter arritsuraño.

—Andik igaro gara —Itziar'ek.

—Ez al dozue ikusi an ondartza txiki bat, izgoran ia osorik estalia? Araxeño eltzen da zear-bide bat. Eta axe da gure ugerlekua; antxe orraztuten doguz, gainera, geure adats luze ugariak.

—Jakingarria noski! —Txomintxok oi.

—Beste zear-bide bat gorantza doa eskumatik, Ereñozar, Gabika, Arro-la, Nabarniz ta inguruetan dagozan kobakoakaz gu ar-emonean jarririk.

—Izugarria! —Itziar'ek.

—Zear-bide guztietatik, orraitio, luze ta zabalena, mendi guzti au alde-rik alde zulatzen dauana dozue: Gizaburuaga'ko Okamika'raño eltzen da. Argi ta ederra, nunbait! Lurtar gizasemeak be, geure artzuloen antzera, dizditsu ipiñi gura dabez euren kale, bide ta bitxabalak; baiña antz-artze ori, alegiñak alegin be, ez yake aren erreza izango: gure epo txikiak, zeregin ori daukienak, zoli erneak dira.

—Barriro diñotzugu, Iriñe, ikusgarria da au —Txomintxok eta Itziar'ek batera—; ez genduan sekula sifiistuko geure esku mendean orren gauza bikaiñak geunkezanik.

—Bai, ta guk nai ezta be, azken urteotan, iru gizon jakitun areik —Aran-tzadi, Eguren eta oraindik bizi dan J. M. Barandiaran'ek— tokiok estalgetu ta aztertu ebezanetatik, lagunarte itzela dator ona, bertoko edertasunak txastatu nairik.

—Eta zuok? —Txomintxok.

—Guk al doguna egin bear, geure buruak gordetako. Len ez egoan argirik, argizaizko ipurtargiren bat izan ezik; gaur tximistargizko ainbat argontzi distirant jarri dauz Bizkaiko Aldundiak, jentearentzat pozgarri, guretzat nekegarri. Guk asko maiteago bakartadeko bakea. Ikus: emengo pinturak be, gure eleiz txikikoak, erdi loi daukaguz orain, len edurra baizen aratz geunkezanak. Onek ikutu eta arek keztu, denporaz kapustu, morkotu egin bear naitaez. Tamalgarri benetan!

Luzaroan jardun dabe Iriñe'k eta txiki biak, Santimamiñe koba bizitoki onetazko gai ta edestiz. Goi-paleolitos arotik asi ta beerantza, Neolitos eta Mesolitos aroetako euskal kulturaz eritxia emoteko, garrantzi aundia dau bene-benetan koba zulo onek. Eizatik eta arrantzutik bizi zan len-gizona, gero lur-lantze ta abere-zaintzatik. Olako aztarrenak, esan dogu, daukaguz emen eta Lumentxa'n, eta ez gitxi. Gure antxiñako kulturaren asi-masiak, guztiz interesgarriak.

—Eta ona datorren jenteak ba ete daki gauzok zer balio daben? —Txo-minek.

—Ez dot uste; geienak beintzat emengo aztarna ta koba santu onetako irudiak —pinturak eta abar— ikustera baiñio geiago datoz, nik uste, bertoko aitz-lerro, arkaitz-mutur zorrotz, urak jausiz egiñiko bolintxa bitxi ta olako bakankeriak ikusten. Guretzat, oster, askoz balio geiago dabe ormake irudiok, gure aurretikoen arima biziaren arnasa ta kutsu diralako. Irudiok, egia esan, izkuntza lez dira, lengoak oraingoakaz, gure asabak gugaz mintzatzeko era berezi.

—Pentsatze pitxia! —neba-arrebak beingoan.

Geiagoko bage, Iriñe'k gazte biai besotik oratu ta arrizko mailladitik heera jasten lagundu dautse. Epotxoak, sarreran lez, erreskada luzea osotzen dabe Iriñe ta ikusle biak agurtzeko. Dingilizka dagozan argontziak ixetzen dabez bertatik, barne osoa eguzkitan lez jarririk. Iriñe itz-ontzi oindiño, gazte biai agur esan eziñik; oneik, oster, arek diñotsena belarri-zur artu ta jaso naiean.

Atenez, alkar lastandu ta adei-txera egiñaz, atean, Iriñe barruratu da ta Itziar ta Txomintxok aldatz-beerako bidea artu dabe, itzik ebagiteko kemen-urri.

X

IPUIN-BARREKA

«Entzun ote dezute, inoiz, ijito bakar bat munduan medikuen eskuetan agertu ote den? Nik ez. Lamiak, ordea, noizbait beinik bein, beren arteko-ren batek argitara lamiatxo berri bat ekarri bear zuela ta emaginari dei egin zioten» (R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, 15 orr.).

Ikusia auznartzen

Atsegin zoragarriaren goxoa ez dogu errez geugandik uxatzen. Txomin eta Itziartxok leza barnean ikusi ta entzunaren eztia barruan ondo ixuria daroe, Santimamiñe koba sarreratik alde egitean. Aldendu eza naiago leukie; baiña buru-makur ta ixil ba-doaz beeko ermitarantza. Txomintxok, aterpe atako zaiñari agur egiterakoan, Lizardi'k beñiola baso gizatuari agur egitean idatzi eban bertso sotil au gogora dakar:

«Itzal! Baso'ren ume yaukal!,
xaloagorik ezin aal:
beltxeran, begi bai azal:
Itzal...
Itzal...»

Orrelaxe iruditu yakon Iriñe'ren gorputz sotilla, betarte alaia. Itzal Baso'ren ume yaukal, Iriñe Santimamiñe'ko jaupaleme zoragarria!

Koba barruan arturiko biotz-zirrara itzez azaldu eziñik, neba-arrebak gitarra jo ta kantari gertatu ziran, ermita ondoko arlosa gaiñean egokiturik. Ipar leunak gora-beara darabiltz zidar-kolorezko arte-ostoak; ereñiotz eze orri zeedun baten adar erpiñean, bere arrats kanta asi eban txindor txiki batek.

Soiñu-joteari itxi ta oraindik be, luzaro egon yakuz egon gozoan, burumakur eta pentsalari. Itziar'ek ez dautso ezer esan Txomin'i, ezta Txomin'ek be ezertxo Itziar'i: ikusiaz daukie naiko oldozgai. Ta olaxe, goi-arnasaz beterik, atertu eziñeko intziri miñetan aldikada luzea emon ostean, eguzkia beerantza doala-ta, jagi ta astiro ibiltzen asi dira.

Alan be, azkenez, geiegi andik urrindu baiño len, buruak itzuli ta biotz-barrutiko agur gartsua egin dautse inguru arei. Ain yakez leun eztiak!

Lezika baserria

Bidarlo pizkat egiña dabe, baiña Itziar ez dago asko ibilteko; baldar doa, zer-edo-zeren miñak itxiko ez ba'leutso lez. Zer ete dau? Gaixorik bear bada? Ez litzakioe egoki, oraindik bide luzea egin bearra dabe ta. Bidearen biurguneko mota ertzean jarri dira. Lezika baserria daukie, aurrez eurre, eguzkiaren azken-erraiñupean eder ta zoragarri. Eskumatik goian, Ereñiozar, Artia, Kortezubi, Belendiz, Oma ta auzune enparauen zaindari azkar.

—Iriñe'ren eztarria bai gozoa! —Itziar'ek mintza.

—Eta aren miin guria? —Txominek.

Ezin dabe, agiri danez, arpean arturiko soin-erason barnekoia, biotzikutze samurra, eurengeandik uxatu. Itziar'ek, irribarre bigunez, bere agin zuriak agirian daukaz, Txomin'i barruan borbor daukana adierazo nairik edo. Txomin'ek, aoa pitin bat edegirik, zerbait esan nai dautso abots emez; baiña ezta, ezin dau itzik ebagi.

—Itziartxo, goazen aurrera —diño azkenez—; bestelan, ementxe gaitutuko gaitun.

Eta biak, alkarri eskutxotik elduaz, barriro be bidez asi dira. Asto bat irrintzika dago ezker-aldefko soloeran. Andra gazte bat bertan bedarra ebaten. Neskamutillak taiu aretan ikusiaz, Txomin gitarreaz eta Itziar kapela zabaldu ta zisku luzeaz, bedar-ebatea itxi ta orma egalera urreratu yake.

—Zer, gazteak, nagiari emonik, ezta?

—Ez ba, emakume, —Txomin'ek ari— or Santimamiñe koban izan gara, Iriñe lamiñeak lagunduta...

—Gauza ederrak ikusiko zenduezan, ezta? —andra gazteak.

—Ederrak baiño ederragoak! —Itziartxok, itsumustuan.

—Eta orain?

—Orain emen gagoz, or ikusi ta entzundako gauzen gomuta bizia geugandik alde eragin ezinda. Aurrera joan nai, eta eziña yaku.

—Nungoak zarie zeuok?

—Berriz'koak. Lamiña batek bialduta orrazi billa gabiltz egunetan.

—Orrazi billa, eta lamiña batek bialduta?

—Bai, orrelaxe da.

—Eta orain be, Santimamiñe lamiña zulo da-ta, lamiñakaz ibilli zarie?

—Iriñe'k erakutsi dauskuz orko bazterrak oro.

—Olakorik! Iriñe ori ezaguna dot neuk be, baiña batez be gure amak. Eta lamiña ongille oso aundia da. Pertxenta ta on egiten dakiana. Orain noña zoaze?

—Aurrera egin nai geunke. Baiña gogo aundirik ez dogu. Gaba gaiñiera laster da.

—Itxaron apur baten, eta geure etxera etorriko zarie. Zara ori bete bedar ebagi ta amen baten naiatortzue. Itxaron pizkaten!


Ipuin kontari

Ez bait eban ibilteko gogorik arean be, Itziar'i osoan nasaitu yakozan barrenak. Emakume ernai orren etxean emongo eben gaba. Lezika'n, ain zuzen.

Lezika'ko etxandereak, ba, bedarra ebagi, zarea bete ta zarekada bedarra bizkarrean ebal, etxera laguntzen dautse neba-arrebai. Oneik bai pozik! Atari zabaleko etxea da Lezika, uztai bete-betekoa, oraintsu barriztatua. Euskal baserri guren! Emen dozue eredua, ederto egin eta jagoa.

Etxera elduaz bat, dana erakutsi dautse: kortea zazpi bei ta iru txalegaz, sabaia bedar zikuz kuin-kuin, askak dotore ta egoki egiñak, inguru guztiak garbi ta txukun. Sarrerako inguruak antxiñako euskal tresna ta gauzaz orniduta: zenbat edergaillu ormetatik dindil! Eta sukaldean beste ainbeste, dana garbi ta aratz.

Amama ta gurasoak bizi dira berton, iru seme-alaba lau, zazpi ta amar urtekoakaz. Aita kortan dabil abereai jaten emon eta azpiak garbitzen; umetxoak amamaren inguruan, zaartxoaren ezpanetatik jausitako itzak arduraz jasoten: kontu-kontari daragoio atertu barik. Atsegin yake umetxoai, orain batez be eskolarik ez daukien garai onetan. Arratsalde luzeak, eta gau-aldiak, egiten ditu amamak ipuin kontari; beti dagoz gertu entzule txikiak aren aoak jalgitako esan zuur, izkirimiri, kontakizun eta ipuiñak jasoteko. Ez al da au pozbide izlari batentzat?



Lezika'ko amama, kontu-kontari, ainbat lamiñ-ipuñ eralgiz

Itziar ta Txomintxo be, ipuin zale dira-ta, umetxoen ondoan kukuru-mixo jarri dira, amamak diñoana entzun guraz, adi-adi. Eta etxeakoandreak:

—Amama, gazte biok be zure ipuñiak entzun nai dabez. Santimamiñe'n izan dira; Iriñe lamiñak lagunduta ikusi dabez orko edertasun guztiak, Zuk lamiña ipuin asko dakizuz; konta batzuk, nik aparria gertetan dodan bitartean. Gaur gábean gezte biok be geugaz apaldu ta lo egingo dabe. Orrazi eskean dabiltz, eta on-onak dirudie.

—Ederto, amatxo! —ots egin dabe iru neska-mutikoak—; onek —Txomintxo'gaitik— gitarrea be besapean dauko, ta apal-ostean zerbait joko dausku lotara orduko.

—Bai, eta pozik jo be! —Txomintxok beretik.

Amama beingoan asi da ipuinketan, ixil-unetxo baten ostean.

Ogi ostuarena

«Munduan asko lez, arto koskorrez» esanik asten da kontatzen.

Beiñola andra jentil edo jentil-andra bat bizi ei zan Santimamiñe'n, koba zuloan; ta laster seiña egin bear zan lez, Lezika auzoetxeke andra bat ekarri ei eban —emengoxea, beraz—, seiñegintzan laguntzeko ekarri be.

Seiñegintza zorionez pasa ta gero, jentil-andrearen sendikoak auzo-andra ori, eurakaz bazkari bat egitera eroan eban. Bazkari ederra ta saria emon eutsoezan bere zerbitzu orde.

Geien mira-egin eutsana andra orri, bazkaritan emon eutsen ogi ain zuria izan ei zan, Zati bat gorde ei eban sakelean, etxera eroan eta etxeakoai erakusteko. Baiña, maitik jagiteko ordua eldu yakonean, ezin zutundu ei zan, indar aundiak eginda be.

Orduan itandu ei eutsoen jentillak, kobako gauzaren bat artu ta gorde ete eban. Lenengoz ezezkolakoa egin ei eban; baiña gero autortu ei eban, eta biurtu ostu ebana. Gero, jentillak emon ei eutsoen ogi oso bat fami-lientzako. Eta geiago barik etorri ei zan Lezika'ra.

—Polita, amamatxo! —ots dagie bost entzule txikiak.

Orrazi kendua

—Zuek ez dakit dakizuen —barriz be amamak—, baiña or goian Ereñozar ostean, erri politak daukazuez: Ereño, Gabika, Nabarniz... Garai'ko andrea, ba —Garai Gabika'ko basetxe bat da—, egun batean Nabarniz'ko Goikola errotatik etxerantza etorrela, Boluna —Gabika'ko leza dozue au— ondoko bide-gurutzero eldukeran, uleak orraztuten ekion andra bat idoro

eban. Orrazketan eragoion andra onek, Garai'ko emakumea ikusi ebanean, bere orraziak itxi ta igesari emon eutsan. Garai'koak, orraziak artu ta bere etxera eroan ebazan.

Urrengo gabeen, orrazi billa joan ei yakon etxera orraztuten egon zan arako emakumea, eta emoteko esan eutson artu eban orrazia, bestela ordainduko eutsala txarkeri ori; au da, bengantzia egingo eutsala. Eta emakume a joan zan bere koba edo lezara.

Amamak azkenez, kontakizuna amaikeran, sifisgogor bezela:

«Ori alan bada
sartu daitela kalabazan,
eta urten daitela
Bitoria'ko plazan.»

—Bai, baiña, amama, polita da ipuiña —bostak batera.

Burdiñearen galdea

—Entzun beste au be —amamak neska-mutikoai—; deabruari min emotekoa dozue.

Euskaldunak, antxiña-antxiñatik, berton eratu izan dabez etxean naiz mendian bearrezko izan dabezan aizkora, atxur, aiotz, sega, pakin, makets eta abar; baita solo ta landetan bear izan dabezan golde, burdiñiare, bostortzeko, nabasai, palanka, igitai, pala, talopare, au da, burdiñezko ta gal-tzairuzko tresna ta tramankulu guztiak. Gaur fabrika ta olakoetan legez, leenago errementariak egiñak ziran aitaturiko tresnok.

Lenengotan, baiña, zail izan yaken burdiñearen galdea ateratea; burdiña zati bi alkarregaz batzeko, ez ekien zelako galdatan euki bear ebazan zati biok. Deabruak, orraitio, ba-ekian zer bear zan ortarako; gure errementarik baiño tramandulu obeak egiten ebazan. Zelan? Or untzea! Gizonak jakin gura, baiña ezin iñundik iñora. Zelan eratzen ebazan deabruak tresna orren egoki ta eukerakoak?

—Nok igarri eutson? —Txomintxok amamari.

—San Martin'ek. Ona: San Martin be errementaria zan. Eta mutil bat eukan maillukari. San Martin'ek berau bota eban kalerik kale, au esaten: «San Martin'ek atera dau galdea». Inpernuko deabruak au entzun ebanean, onela erantzun eutson mutillari: «Ez, bota ez ba'leutso, buztiña edo area». Ori entzutean, joan zan arin mutilla San Martin'egana; eta iragarri eutson deabruak esana. San Martin'ek orduan buztiña ta area bota eutsozan burdiñeari ta galda ederra atera eban.

Errementariak, arez gero, alkar jo nai dituen burdiña zati gorituai buztiña edo sukar-arez birbiratua ezarri oi dautsez. Arria austuteko erro-ta txikiak daukiez leku batzuetan.

Deabruak zenbat urte?

—Irugarren au be jakingarria —diñotse amamak.

Inpernuko deabruak —ba-da inpernua, umetxoak, eta deabrua be bai— zubigiñan ebillan gizon bati esan eutsan berak egingo eutsala zubia, bera zenbat urtetan ebillen jakiten ba'eban. Baiña, jakiten ezpaeban, bere ari-mea emon bearke eutsala. Gizosak baietz agindu eutsan.

Izentauriko egunean, zubia eginda eukon deabruak; baiña gizonak ezin jakin izan eban deabrua zenbat zenbat urtetan ebillan mundu onetan. Larri egoan gizona, berezko danez. Etorri yakon atso zaar bat eta dapa, zer pentsetan egoan itandu eutson. Gizonak agertu eutson jazoten yakon guztia. Atsoak orduan: egoteko antxe, berak jakingo ebala dana-ta.

Atsoak ba-ekian nundik nora ebillen inpernuko deabrua. Urten eutson bidera, eta makurturik, burua anka artean ebala atzera begira parau yakon. Deabrua, atsoa alan ikusi ebanean, bildurtu zan, esanik: «Milla ta bosteun ta irurogeta amabost urte ta irugarren egunean nabil mundu onetan, eta gaur arte ez dot ikusi olako pxtijerik».

Atsoak, ori entzun ebanean, iges egin eutson arin, gizonari orren barria emoten. Deabrua etorri yakon gizonari, jakin ba-eban itaunka. Gizonak baietz erantzun eutson, jakin ebala: milla ta bosteun ta irurogeta amabost urte ta irugarren egunean ebillela mundu onetan. Deabruak orduan esan eban: «Neuk esan ez baneu, ez eban jakingo iñok».

Deabrua joan ei zan bere lekura, zubia egin eta ezer irabazi barik. Atso zaarrari gizonak emon eutsan zubitik pasetako askatasuna.

—Auxe politena, amama —itzik galdu barik, adi-adi euki ebazan bost neskamutikoak—. Zenbat dakizun zuk!

Aparia

Ondoren, etxeakoandreak gertauka apari ederra egin eben guztiak etxeakoak eta bikote arrotzak. Aitak bedeinkatu eban maia, besteak guztiak, seme-alabak eta arrotzak, lagun ebazala. Gero, bakotzak beretik eragoion jaten. Txikiak be ez eben ezertxo esan apari b'artean, dana egoan ondo, danak ziran jan-gale.

Lezika'ko umetxoak ba-ekien apari ondoan be ipuin kontaketa izango zala, ta inortxo ez ebillan muker jan-gura ezik. Eta, izan be, apari amaitutakoan, etxekoandreak arrikoa egiten eban bitartean, amamak kontaketari lotu ta ogera aurretik, zortzi-amar ipuin edesten jardun eban.

Lamiña sagardo-zaleak

Afari ondoan, amamak, zizaillu ertzean jarri ta onela asi yaken kontari, ta esaten: «Lamiñak beñola sagardo-zale ei ziran. Eta sagardoa egoan lekura sartzen ei ziran edozein zulotik. Bein pitxer bat bete sagardo edozein lekutan itxi ezkerro, a edanda, pozik joaten ei ziran. Baiña a itxi ez ezkerro, beteta, sagardo barrikak apurtuta joaten ei ziran.

Labasua egoan lekura be beti etorten ei ziran bein kea asmatu ezkerro; baiña opil apur bat emon ezkerro, bake-bakean joaten ei ziran. Ezpabere ei egozan egun guztian antoju emoten.

Kaiku esnea

—Entzun au beste au be: «Atxuri azpiko jenteak, gau guztietan, ogera joan aurretik, esne kaiku bat naikoa betea, eta arto-zati batzuk naikoa erreak urdai pizkategaz izten ei ebezan su-bazterrean, zartaiñeko koipe ondarren gaiñean. Etxeko danak lokartuak ziran, lamiñak tximini-beera jatsi ta, miazkau ta miazkau, gurrantzaka batean ekin oi eutsen, su-bazterreko puska-miko guztiak azkeneraño jan arte. Eta, gero, ixil-ixillik joaten ziran tximinitik gora.

Eta, biaramonean, Atxuri azpiko jenteak aurkitzen ebezan soloko ongarri guztiak zabalduta, erreka guztiak garbituta, lurrak iraulita, artoak jorratuta.

Gau batez, kaiku esnea, urdai azalak eta arto zatiak su-bazterrean iztea azturik joan ziran guztiak ogera, eta lamiñak, minberaturik, joan ziran beste baserri batera, urrin, oso urrin, sekula geiago ez bait ziran Atxuri azpiko lanetan agertu.

—Zu bai argia, amama!, zu bai argia! —bostak batera.

* * *

Ondoren, lamiñentzat be, su-ondoan zerbait itxirik, etxeko danak ogeratu yakuzan.

XI

FORU-ERRIA

«Nere aita Mendibe'koa zen. Mutikua zelarik joaiten omen zen goizik kateximarat. Bein lamiñak ikusi omen zituen bidean, erreka batian pasatzian: presunak bezelakuak, bainan xeiak buruziak. Gero apezari salatu omen zion. Eta apezak erran omen zion: «erten duzten guztiak badire; baiña atxiki sekretia iretako, ez du erran bear badiela» (J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, II, 423 orr.).

Saltzaille bategaz

Urrengo goizean, goizetik, bikotea ta Lezika sendikoak, besoak zabalik alkarri lastan emonaz, berriztarrak or barriro be bideari lotuak. Goizgiro ozkirritan erreza yake bide-arloa, ta igarri barik osotu dabez kilometru luzeak. Kortezubi'ko uretxea albora itxi, bide-gurutzean ezker artu ta aldapa beera gozoan muiñotxo bat igarorik, aurrez aur agertu yake erri zabal polita.

Astotxo baten atzean, arantza doan andra zaartxo bati, Txomintxok itandu:

—Zein erri dogu ori?

—Ez al dakizue? Gernika: ez al dozue iñoiz entzun?

—Bai orixe! —Itziartxok arnasean.

—Gu orraxe goaz. Benetako poza yaku berau ain ur eukitea. Oiñez gabiltz, eta oiñez ibilliz, ba-dakizu!, atzenerako bat nekatu egiten.

—Orrela da; baiña neu be, ta nire astotxo au, beti oiñez gabiltz, eta onezkero naiko nekatuak gu biok. Baiña zer-edo-zergaz bizi bear... Eta besterik ezean...

—Zer daroazu astotxoan?

—Ortuaria, geien bat. Kortezubi'n, eta Artia'n bardin, ortutik bizi gara: toki ona ortarako, lurak eta eguzkia lagun doguzalako. Urtero, millaka ta millaka piper ta tomate dozena saldurik, txanpon ederrez ase oi dogu ziskua.

—Sarri zoaz orrela?

—Astelen guztietan; aste bitartean be bai, noizik-bein; zer saldu asko daukagunean, adibidez. Daukanak saldu egin gura, goztetxoak. Orain gaiñera; kanpotik be berein salgai dakarrez, eta gure barazkia baiño merkeagoa sarri, ta ez yaku errez izaten geure gauzak saltzea.

—Ederto, andra! Ito-agiñik gabiltza denpora-ezaz eta ba-goaz aurrera. Eskerrik asko zeure esan onakaitik.

Iriñe lamiña

Gernika begipean. Eskumatik, etxe ta solo artean, ametz, milizka ta tamarindoz erdi-estalia, itxasoraño luzatzen dan Erregiña ibaia, txairo ta zabal. Aurrez aurre Luno, erripan, eta inguruetak mendiskak zugatzez jantzita. Eskumattik, Loiola auzunea, sagasti, landa ta etxe barriz dotore.

Pizkat aurreratuz, ezker Arratzu aldetik datorren bidea: berebil mor doa dabil bertotik, Nabarniz, Belendiz, Arratzu, Arbaizegi, Aulesti ta Markiña'rantza doazanak, edo andik datozenak. Aurreratxoago, ta Errenderi auzunean, beti ezkerretik, beste bide zabalxe bat Axangiz, Mendata, Albitz, Muniketa'tik zear, Durango'ra doana.

Berton, bide egalean, arrizko gurutzea, ederto landuta. Antxiñakoa ei da, batzuk diñoenez. 1468'an, burrukaldi latza izan zan emen Arteaga'ko ta Muxika'ko jauntxoan artean: burruka ostean osoturiko itunbena gogoratzen dauku gurutze onek, diñoenez. Auzo ontan ba-da gizon alai jakintzua; onako gauzetan oso aitua dana.

Laster zubi bat. Ego aldetik ipar alderuntz dabil ura: Gernika ibaia da, Bizkargi ta Oiz'ko urez aunditua. Jente asko dabil urduri arat-onat, leia bizian. Eguzkiak jadanik naiko zut bialtzen dauz bere printz gartsuak. Txomin eta Itziar'ek, zerbait jateko, ibai ertzerantz artu dabe, eskumatik. Emen, ogei bat urte dirala jarritako ezki sailla ibai ondoan, aurrerago egiñik, itxasorantz beti, zume ta zii-tokiak ugari; azkasi bat be, segearen aobizarra baizen zoorrotz, gorago azi nairikan. Ezkipean egokitu yakuz gazte biak, eta Lezika'ko andra gazteak emondako ogi ta gaztae usaintsuak ziskutik atera ta mauka-mauka jaten diardue.

Amaitu dabenean, zutundu ta urondoan dagoz tente, nare ta bitxi, ertzera urreraturik eguzki izpiakin jolasean ari diran zarbo, ezkira ta kas-kailluai begira. Onela, erdi-totel, Santimamiñe'ko Iriñe lamiña gogoratu ta ikusi bide dabe oraindik txit bigun ta jainkoti. Aize-furrunda bertatik, inguruko lar ta sasi-puntak dantzari jarri-azoaz.

—Neu nozue! —diñotse Iriñe'k, oso maitekor, ibai ertzean besoz beso oarkabe dagozan bidazti ameslariai.

—Oi, bai! Iriñe gure lagun! —biak oi.

—Ondo Gernika'tik? —Iriñe'k itaun.

—Eldu besterik ez dogu egin.

—Nun egon zarie, ba, atzotik oraiñarte?

—Atzo, eguerdi ostean, zuri agur eginda gero, onantza asi giñanean, Lezika'ko etxeoandrea idoro genduan bedar-ebaten; amultsu ta biozti artu ginduzan bere etxean, bertatik ainbat euskal tresna ta gauza miresgarri erakutsirik etxeako atari ta sukaldean; bertan egin genduan gaba, apal-aurretik eta ostean, bertako amamaren agotik ezin-konta-ala ipuin eta esakun zaar entzun eta jasorik.

Sendi orrek mesede asko egin daukuz guri —Iriñe'k beretik.

—Goizean agur egin dautsegu arei, ta emen gaukazuz orain Gernika'k dituan edertasunik bikaiñenak ikuskatu nairik, baiña nundik asi ez daki-gula.

—Etor neugaz. Goiz-ganduak estaltzen dauz oindiño bazterrak; geure aldia da, beraz, eguzkiak lartxo jo artekoa. Ni, gaiñera, gaur zuri jantzita nabil, Gernika'n beste andrazko askoren antzera: ez dauste igarriko nor nazan.

—Bedi olan! —Itziartxok.

—Neuk erakutsiko dautzuedaz erri onek, Foru-erri onek daukazan oroigailurik beñenak. Gernika! Nik pitean bein jo oi dot ona, astia emonala, antxiñako euskaldunak berton itxi euskuezan gauzaz neure izate-barrrena eder-murgildu gurarik. Gernika dabe, bai, Bizkaiak eta euskaldun zintzo ta jator guztiak euren edesti-orririk bikaiñena, urre-gorritzkoena. Lurpuska onetan daukagu, lerdan ta santu, antxiña bateko Zugatz a, Areitza, emientxe sortu, erne ta azia, tantai garratz egiña, frutuak be, ugari ta baikor, gizaldietan emona.

Zenbat dakizun, Iriñe! —Itziartxok pozarren.

—Bai, gaztetxoak! Lenengo, txerpi, sabi, kimu ta landara; gero, garrazta ta azkenez tantai; ez dakigu zenbat urtetan, baiña beti orrelaxe. Gaur or daukaguz zaarra ta gaztea, alkarren giro ta arnas beroan. Zaarra, egia esan, arrizko zutoin artean daukagu gaur, joanaren gomuta lez, kristalezko kutxa barruan; zatitxo bat besterik ez da, enborra soilki, adar ta buru-besanga barik. Amazortzigarren mendekoa ei da, baiña 1860'garren urteran-



Gernika, Foru-erria, edesti ta oroigailuz betea

tza aultzen asi ei zan eta orde, zaararen ezkur eta landaretikoa, gaur Bazartegi aurrean larden ta adartsu daukaguna da. Zaarra, jakina, 1892'an osorik igartu zan, eta Bizkaiko Aldundiak, Zugatz gogoangarria zaindu ta gorde nairik, orain ikusten dogun kutxa orretan ipiñi euskun.

—Ederto, txit ederto, Iriñe! Baiña guk geure begiz ikusi nai geunke Areitz ori, eta Gernika'k daukazan beste edertasunak —gazte biak leiatsu.

—Bai, laztanok! Zatoze neugaz; neu izango naiatzue gidari.

—Aupa! Eskerrik asko!

Urian zear

Besteko barik, ba-doaz irurak; Iriñe erdian eta neska-mutillak ezker-eskuma. Iriñe izlari, Itziar ta Txomintxo entzule, lamiñaren aotiko guztia arduraz jaso ta euren adimen-kutxatillan kutunki gorde naian.

Ibai gaiñeko zubia igaro ta Bilbao'tik Bermeo'rako bultzi-bidea saiets itxirik, ondoko kaletik ezkerrentza artu dabe, astiro. Pizkat ibilki, azoka lekua. Itzuli osoa egin dautsoe: gaur ez dago jente askorik, ezta saltzeko, naiz erosteko, zer aundirik be; aspaldiko euri ezak, legorte ikaragarria ekarri dau, ta gure baserritarrak ez daukie plazara zer eroan aundirik. Biar, bear bada, obarik izango dala-ta, itxarokizunez bizi bear. Beste orduetan, garaietan, izan be, lagunarte izugarria batzen da emen, astelenetan batez be; au dala-ta, gernikarrak eta alboetakoak astean jai bi ospatzen dabez, domekea ta astelena. Ori, agustuko Andra Mari ta San Roke jaiak eta urrilleko azken astelena aitatu barik.

Geltoki aurretik uri erdirantza doan kalea artu dabe gure iru ibiltariak; edari ta jatetxeak or-emen, banketxeak, liburutegiak, oski-dendak, aragitegiak, jostaillu-lekuak... danetik dago Gernika'n, eta ugari be ugari! Goratxoago, aurrez aurre Andra Mari eleiza jaikia, ezkerretik Bilbao'rako errege-bidea ta Arrien arroztetxea...; eskumatik, arkupe luzea, Bermeo ta Lekeitio'rako bitxabala erdian daualarik: alde bietati dendaz beterik au be. Erdirantza, bestaldetik, Udaletxea dotore, apain eta txeratsu. Sarrerako zei txikian daukagu Tello Bizkaiko Konde jaunaren atxurdiñezko irudia: jaun onek irasia dogu Gernika uria, 1366'ko jorraillaren 28'an, Orduña'n emoniko idazki baten bitartez.

Lenengotan lur gitxikoa zan Gernika: ogetamabi milla metro lauki besterik ez. Geroago, 1882'an. Gernika ta Luno alkartu yakuzan; baita 1943'ko zezeillaren 12'an Aianguz be Gernika'gaz batu zan, eta azkenez, 1967'ko urtarrillaren 27'an, Arratzua, Nabarniz, Kortezubi, Forua ta Murueta be. Eta gaur, Udaletxe bat osotzen daben zortzi erri oneikaz, Gernika'k 15.500 biztanle gitxienez daukaz.

Uriaren biotz-biotzean dago gaur Andra Mari eleiza, goi-aldean, Batzar etxetik laster. Iru ikerleak ezkerretik doaz. Barru ta kanpo, eleiz ederra dozu Andra Mariari eskeiñitako otoiz-leku au. 1450'an asi ziran berau jasoten. Godotarren egikeraz dago eregia, eusko estiloa be pizkat zaintzen daua. Goratxoago gain zear doan kale ertzean, eskumatik, jauregi eder bat, «Alegria» deritxona. Gerra aldiko triskantzetan, doixtarren lerki-batatze eta su-emote ikaragarri aretan, Gernika osorik austua izan zanean, Andra Mari eleiza, jauregi au ta Batzar etxea, kalterik bage galditu ziran.

—Uri au erre egin al eben gerratean? —Txomintxok.

—Bai! Ikusten dozuenez, Gernika gaur etxe barriz beterik dago; barriztua ta txukundua. Lenago be, Gernika etzan erri motza, naiko dotorea baiño: zer-edo-zer-gaitik zan bizkaitar guztien Batzar-leku, au da, Bizkaiko erri bakotxak bere jarleku berezia eukan, ementxe, Gernikan, Batzar-etxean. Eta ezin iñundik iñora be uri itsusia izan.

—Eta gerraldian! —Itziartxok, jakin-miñez.

—Gerraldian erre egin eben, eta astelen baten erre be, 1937'ko jorraiaren 26'an. Egun orretan, arratsaldean, millaka bonba bota ebezan Gernika'ren gaiñ doixtarrek, eta sutan jarri eben lau alderdietatik. Infernua bera zirudian! Millaka batzuk izan ziran illak eta zaurituak.

—Eta gero? —Txomintxok.

—Euskalduna, zoritxarpean be, beti izan da kementsu, naimen sendoko. Eta, apurka apurka, barriro jaso dauku, lerdendu dauku, bere lanez eta izerdiz, uri dontsu au.

Aldatz gora lenengo ta zearka gero, ikuspegi eder bat idoro dabe gure ibiltariak. Batzar-etxera orduko, ezkerretik begitu ezker, —Gernika'ra etorri ta iñok izten ete dau emendik so-egin bage?— "Gernika osoa begipean artzen da, azken urteotan eregi dabezan etxe gaindegi zut batzuk, ikuspegi eder au, zerbait beintzat, apaletsi dauen arren.

Bean plaza edatua, zugatz orritsuz dana inguratuta. Astegunez umetxoz bete-beterik, erriko eskolak bait daukaguz berton, albo bietan. Jai eta domeketarako musika jo ta dantzari emon, toki berezi-berezia. Beeragotik, atertzeke dabiliz, Bermeo'ra ta Lekeitio'rantz doazan kotxeak, eta Zornotza'tik, Muxika'tik eta Errigoiti aldetik datozenak. Urriñago, teillatu gaiñez bistan dagoz Aiangiz eta inguruetakoko solo, landa ta piñadiak.

Ibar guztiori, ego ta ipar, ikusgarria dago. Ikusmenari ego zabalagoak emonez gero, an urrin, gibel-zokondo lez, Ereñozar, Burgo, Burgogane ta besteak. Jo eskumarantz eta osertzean daukazuz Oiz gaillurra ta inguruak illun samar, Bizkargi ta onen lepagañ konkordunak, beti eder ta sotil. Atzealdean Luno daukazu, Kosnoaga ta Foru'ko arkaitz illuna, gaur ozka-tramankulu gaizto baten agiñez naiko koskatua. Laua da geien bat Gernika'ko ibarra, izurdura gitxikoa.

Kondaira ta abar

Gernika'k ba-dau garrantzirik. Leen, abere ta ortuariz bizi ziran bertakoak; gaur industria be aski ugaritu yaku uri-egaletan. Eundaka gauza egiten dira bertan: egur-zerrak daukazuz, izkillu ta motorrak egiten dira, zidarrezko tresnak eta abar.

Komertzio ta sal-erosketa bizia agiri da, urtetik urtera asko ugaltu dana. Jentea pozik bizi izateko ba-ditu Gernika'k jatetxe, kafe-etxe, zinema, dantzaleku, frontoi, futbol-zelai ta olakoak. Astelenetan atan be, zaar ta gazte, lagunarte aundia etorri oi da bertora, ondo jan ta edan egitera, alkarizketa gozoak izatera, idiprobak eta pelota-partiduak ikustera..., zertara ez? Bizimoduari azaskaldi pixkat emon nai, ziur asko.

—Kondaira gizonak berak, naiz erriak berak egin oi daua, entzuna dot nik sarri —diñotsa Txomintxok Iriñe'ri.

—Egi utsa! Gizonak zerbait dagi; zerbait orreik jazoak, gertakariak dira. Or gero zer kontatzen dogun! Orixe dozue kondaira naiz edestia, edestuten dana.

—Gernika'k be, bada, bere kondaira naitaez euki bear —Txomintxok.

—Eta, ez laburra! Urtez urte guztia edesten asi ezker, arin amaituko ez litzakiguna euki be. Gernika'k gizaseme azkar eta jakintsuak oparo emon daukuz, entzute aundia lortu ebenak nunbait: gaur be ba-daukaz olakoak. Gernikar anaiak, adibidez, an amabostgarren gizaldiaren azkenerantz, ospetsu egin ziran Granada'ko burrukan; Txomin Bernaola, Olazar eta J. Olaeta ontzidi-buru izan ziranak, aintza bizitan ibilli ziran euren sasoi; letretan, barriz, Aita Martin Murga, J. Pedro Urdaibai ta Kasimiro Loizaga aipagarri doguz.

—Españá'ko erregeak be eldu ziran onaiño, ezta? —Itziartxok.

—Oba ez! Eta ez gitxitan be. Amabostgarren mendearen erdi aldetik asita batez be, sarri samar etorri ziran gure Lege Zarrak ontzat emon eta zin-egiten. Gaur Areitz Zarra dagoan lekua izan zan, kondairaz oso betetako lekua, Gaztela'ko erregeak zin-egiten eben tokia; ementxe auzpazu zan 1334'an Alfonso XI'garrena, 1358'an Pedro I-goia, 1371'an Juan I-goia, 1393'an Enrike III, garrena, 1457'an Enrike IV-garrena, 1476-ko garillaren 30-an Fernando Katolikua, Isabel Katolikua 1483-an eta Isabel II-garrena 1839-an. Ementxe zin-egin eben Bizkaiko Jaun guztiak lenengotik azkeneraiño. Ementxe zin-egin eban 1875'ko garillaren 3'an, karlisten buruzagi zan Karlos Zazpigarrenak. Urrengo urtean, 1876'an, alan be, osoan kendu eutsezan euskaldunai, antxiña-antxiñatik eurak sortu ta legetzat eukiezan Foru ta oitura zaarrak. Urte onetan, iraillez, ospatu zan azkenengo batzarra, forubatzarra, «Gernikako Zugatzaren azpian».

—Eta gerrateetako izparrik? —Txomintxok jakin-naiez.

—Ez gitxi, gaztetxo! Bizkaiak, eta Euskal erriak bardin, ainbat guda, erasoaldi ta eztabaida alperreko ikusi ta jasan dauz joandako gizaldietan. Euskalduna, egia esateko, ez da berez gudu ta burruka zalea: bakea naiago dau iskanbilla baiño. Askotan, alan be, izkillu otsetan murgildua izan da. Eta beti txarto urten bearra izan dau. Amalau-amabostgarren gizaldietako jauntxo ta aide nagusien arteko burruka zoroak aitatu ezik be, ba-doguz beste batzuk naioko garratzak; euskal errian izan ditugun gerraldi guztietan gorriak ikusi ditu Gernika'k: 1794'an, frantsesak Espaiña indarrez artu ebenean, gure Arbola santuari omena egin eutsoen; 1808'an, frantsesak barriro onantza etorri ziranean, Jose I'goaren agindupean egon zan geien bat, 1813'rarte, eta alde egin ebenean, su-emon eutsen alderdi batzuei. 1833'an eta 1874'an, karlista gerrate bietan, sarri egon zan Gernika su biren artean.

Barri guztiok adierazo dautsez Iriñe'k, Batzar-etxe aurreko baranda gaiñean kokaturik, Gernika osoa orlegi, zuri ta gorri begipe daukien bi-tartean. Pozarren joan yake aldia. Atzenez, bira egiñaz, lamiñak diñotse:

—Goazen Areitz donea ikusten!

Eskumaldeko bidean zear astiro doazala, Txomintxo, bere joale txikia zorrotik atera ta Arrese-Beitia'ren «Arbola bat» jotzen asi da:

«Kerizpe zabal artan jarririk
Eginda euren Batzarrak,
Buztarri бага, nasai ta libre,
Bizi ziran bizkaitarrak».

XII

GERNIKA

«Lamiak orrazi-billa ibiltzen zirela Bizkaiko uri batzuetan orain ere badiote: Errigoitin, Gernikan, Galdakanon eta beste askotan. Azken erri orietako Lamiak urrezko orraziak erabiltzen zituzten» (R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, 15 orr.).

«Adoratzen zaitugu...»

Zurturik geratu dira gazte biak, sartalde aldetik, gure Areitz gurena begiz jo dabenean. Zelako biotz zauskada! Gaztea lenengo ta zaarra gero, leiarrezko kaiola barruan, Gure asaben batzar lekuan, gure arnasa darioan Aritz donea! Buruak makur, «adoratzen zaitugu, Arbola santuba» uxumuxuka ebagi dabe irurak. Zaarra, arrizko sapai utsa gaiñ daben zutoin biribillak esitua; gaztea, orritsua, eder ta garrazta oraindiño. Izan zaitetz, Aritz santu!, sekulakoz olantxe.

Batzar lekua

Itzik egiteke, ase arteraiño begitu ta miretsi dabez Areitz zarra ta gaztea. Guenean, Iriñe'k dirautse:

—Naiko! Goazen barrura.

Eta barruan sartu dira. Batzar lekua! Zoragarria nunbait, edesti ta istoriz goi-goiraño betea. Euskaldunen santutegian dagoz! Andra Mari Sortzez garbiari eskeiñia! Or aurrean, uts-gune edo kapera txukunean bere irudia, bizkaitar zintzoen Ama. Ezker-eskuma batzarkideen arrizko jarlekuak, utsik naizta ezinbestez. Goian Bizkaiko jaunen irudiak, sailka, bizi-bizi; guraso, seme, loba ta billoba, danak erreskadan. Gomutakiz betea dago, gure aurretikoen arnas-otsa, orri artean aizea lez, oraindik bala-bala dabillearik. Ormatik dingilizka dakusguzan margozki orreik 1664'an bilbotar Galbarriatu ta Brustin anaiak egiñak dira; or dago baita, Aide Nagusiak Fernando Katolikuari egiñiko mende-legea be, Frantzisko Mendieta'k marraztua. Ortze daukagu kutxatxu bat be, 1855'an Bizkaiko zaindari autatua izan zan Sortzez Garbiaren ondoan, Tonkin'en burua moztu eutsoen Balentin Berriotxoaren erlikiategaz. Aipagarri atenez Batzar leku ontan, Eujenia Montijo, frantsesen erregiñak emondako lanparargia, tupiki gaitetik urreztatua.

Batzar lekuari be «adoratzen zaitugu» esanik, Artxibura aldatu dira iru ikusleak. Emen miresten dabez ainbat liburu ta paper zaar, antxiñako gauzarik asko. Auxe da Bizkaiko Artxibu orokorra, 1366'tik gaur arteraiñoko agiri ta dokumentuakin. Bizkaiko Foru liburu bi daukaguz: 1526'an eskuz idatzia ta 1528'an Burgos'en irarritakoa. Bizkaiak ez eban berandurarte lege idatzirik euki. Zergaitik? Ez ebalako bear. Euskaldunen artean au berezkoa izan dala, autortu bear dogu; euskaldunaren lege bakarra oiturea izan da: ekandua, usarioa; gurasoak egin ebena egin bear eben semeak be. Toki-egunik ez daben oitura orreik, euskaldunen artean betidanik datozan oitura orreik, 1342'garren urtean batu ziran lenengoz idazki baten, gero 1526'an lege-bilduma zarraren orde z barria osoturik.

Kondaira museua

Sala onetan be gauza asko daukaguz, naizta arreta aundi barik gordeta. Or Bizkaiko irugarrengoak, 1860'an, Afrika'ko gerran erabilli eben alta-rea; Basterra'ren «Palankaria» margo-laukia; Bizkaiko Aide Nausien ikurdi ta armariak, Longa jeneralak zuzendu eban «Iberia» godarostearen ikurriña; «Gernika'ko Arbola» musika partitura, Altuna'ren eresiaz, J. M. Iparragirre'k 1853'an, Madrid'eko San Luis kafetxean abestu ebana; Iparragirre'k berak Uruguai'n bizi zala erabilli eban gitarrea, ta beste olako asko.

—Au poza! —diño Txomintxok ikusiaz batera.

—Bai, interesgarria da gitarra au, euskaldun batentzat —Iriñe'k erantzunez—; «arlote» arek onetxeri atera eutsozan bere bizitzako azken-doiñurik samurrenak.

—Orixen niri atsegiñen yatana —Txomintxok, barriro be.

—Ez da arritzekoa! —Iriñe'k.

Irurak andik eta emendik begira ta begira, ez dira beingoan aspertu. Zimiko bizia darabil Txomintxok barne-muiñean ozka: gitarra orren soñua zelakoa dan jakin nai leuke. Zelan, baiña? Gidariari iragarri dautso azkenez, barruan irakin bizian daroan nai gartsua.

—Oraintxe eskatuko dautso baimena emengo jagoleari —Iriñe'k itsustuan.

Buru-itzul batean joan eta bertatik biurtu da etxe zoragarri onen ardura dauan emakume txiki, begi-arraiategaz. Onek, Txomintxo ta Itziar agurtu ondoren, gitarra kristalpetik atera ta Txomin'i emon dautsa. Txomin'en poztasuna! Gizaseme ain gurenaren jogaillua besoratu ta ak jotako edozer joteko gertu dagolakoa egiten dau.

—Zer nai dozue jotea? —diño begiak bizi ta atzamarrak dardar.

Andra txikiak eta Iriñe'k batera:

—«Gernika'ko Arbola».

Eta Txomin, alboko jarlekuan jazarri, belaun bata bestearen gainean ipiñi ta Iparragirre, euskaldun bertsolarien aita erabillitako gitarrea biotz gainean dauala, «Gernika'ko Arbola» jotan asten da. Zelako letra ta zelako musika!

«Gernika'ko Arbola da bedeinkatua,
Euskaldunen artean guztiz maitatua;
Eman ta zabal zazu munduan frutua;
Adoratzen zaitugu, Arbola santua.

Milla urte inguru da esaten dutela,
Jainkoak jarri zuela Gernika'ko Arbola.
Zaude, bada, zutikan orain ta denbora;
Eroritzen ba'zera, arras galdu gera.

Ez zera eroriko, arbola maitea,
Baldin portatzen ba'da Bizkaiko Juntea.
Laurok artuko degu zurekin partea,
Pakean bizi dedin euskaldun jentea.

Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko
Jarri gaitzen danok laster belauniko;
Eta biotzetikan eskatu ezkerro,
Arbola biziko da orain eta gero.



Gernika, gure asaben Batzar-lekua, Zugatz-pean

Arbola botatzea dutela pentsatu,
Euskal-erri guztian denak ba-dakigu.
Ea, bada, jendea, denbora orain degu:
Erori gabetanik iduki biagu.

Beti egongo zera uda-berrikua
Lore aintziñetako mantxa gabekua.
Erruki zaitez, bada, biotz gurekua,
Denbora galdu gabe emanik frutua.

Arbolak erantzun du kontuz bizitzeko
Eta biotzetikan Jaunari eskatzeko,
Gerrarik nai ez degu, pakea betiko,
Gure Lege zuzenak emen maitatzeko.

Erregutu diogun Jaungoiko Jaunari
Pakea emateko orain eta beti:
Bai eta indarra ere zedorren lurrari,
Eta bendizioa Euskal-erriari.

Bostekoa emon ostean, emakume txiki ari agur egiñik, sartu zirean lekutik atzera egiten dabe iru ikerleak. Iriñe doa aurretik, Itziar gero ta Txomin azkenik, bere gitarra besapean daualarik. Onek, makurtu ta Areitz santuaren ostu bat jaso dau; ezpan-gorritz mosutu ondoren, beti aldean darabillen egutegi-orri artean gorderik. Itziartxok be, beste ezkur bi artuta sartu dauz bere zisku luzean.

Kanpoan dirala, Txomin'ek gidariari:

—Mesedez, ondo ba'deritxazu, nik azken-doiñua jo nai neuskio gure Zugatz gurenari.

—Bai orixe, laztan! —Iriñe'k jardetsi.

Eta Txomintxok, bere gitarrea eskuratu ta Muxika'ko Urretxindorrak beñola abestu eutsen kanta biozkor au jotzen dautso biotz-dardar:

«Erri ospetsu polit ederrak
ludian izan arren aneika,
guztietatik begikoena
niretzako zeu zara, Gernika.

Zeu zara egiz antziñetatik
zuzentza-zelai jatorrizkua,
gure esaben Batzar-tokia,
lagi zuzenen gorde-lekua.

Erri polita, erri garbia,
erri alaia, erri txukuna,
lau aldetatik begiratuta
zeru txiki bat dirudizuna.

Euzkoen txadon kutuna zara;
zure ganga ta ortze urdiña,
eguzki eta izar ederrez
gutziz apainki Urtzi'k egiña.

Zeure ormeak mendiak dira,
zure arpillak dira zugatzak;
zure ondia zelai orlegi,
argia lora zuri-gorritzak.

Zure jaupari euzko-sendia,
zure idazia lagi zuzena;
izki danetan irakurten da:
«Beti ta beti zuzentasuna».

Oso politak izkia ta doiñua. Iriñe bera be, ainbat soiñu eder entzuna izan arren, Zugatz deunari eskeiñitako onekin entzunago ta sorginduago egoan. Luzaro jarraitu eben oindiño be irurak, inguru areik ikuskatu ta ederresten, andik iñolako be aldendu eziñik. Ain yaken atsegiña toki sagaratu a, euskaldun zaar arein malkoz ta biotz zauskadaz asetua!

Lumo azpian

Lumo —Luno— len azke, baiña gero Gernika'ri atxikia izan zan. Andra Mari eliza ondolik gora doa arako bidea; beti gorantza, suge kiribil-duaren antzeko makur-uneakaz. Emendik gora artu eben iru ikerleak be, azkenean be Zugatz doneari agur egin eutsoenean. Berandu zan. Eta Iriñe'k esan eutsen gazte biai, emen itxi bear ebazala. Alantxe egin eban: aldatz erdi aldean, bide-gurutzean ezkerretik aurkitzen dan baserri batera eroan eta ementxe, etxeoandra maratz batenean itxi ebazan: Iriñe onen adiskidea zan, eta ondo artuko ebazan onek zalantzarik bage. Orrela, egiñitako mesedeak eskertu, elkarri agur egin eta banandu ziran egun bitan ain lagun miñak izan ziranak.

Gure bikotea, barriz, Iriñe'k alan naita, ez zan abi txarrean geratzen. Lumo azpian, beste batzuen artean, eguzkitara aurkitzen dan baserri zuri-gorriko etxeoandrearen babesa ziñez eztia izango yaken, egun-erdi batean beintzat. Baliotsua baita, beti be, biotz eder bat aurkitzea bizi-bidearen aldatzean. Senarra ta lau seme-alaba ditu Jone deritxan emakume zoli onek, Iriñe'ren adiskide kutunak. Orain bera bakarrik aurkitzen da etxean, eta etxeke lanak egiñik daukazan ezkerro, Iriñe'ren esanera, Gernika'ko gauzarik urtenenak erakutsiko dautsiez neska-mutil eskaleai.

Frontoia

Eta Goienkalean zear, Barrenkaleko «Boliña» jatetxera jo dabe, zerbait artzeko, Jone'k eta neba-arrebak. Andik frontoira, gaur ain zuzen be ospatzen dan bertsolari saioa ta pelota-jokua ikusten. Gernika'ko pelota lekua ederra da, 1963'ko bagillaren 29'an lenengoz zabaldua. Ikusleak sartuaz batera amaitu da bertsolarien ekiñaldia, Enbeitatarrak, Deunoro ta Je-

sus Mari Sardui anaiak eta Lopategi'k ederki egin dabena. Ondoren, pelotariak, Miami'n eta izandako pelotari izen aundikoen partidua: jentez betebeterik dago frontoia.

Jokua amaitu danean, Jone'k —Iriñe'ren esana egiñaz— erdiko oltzara eroan dauz neska-mutillak, eta Txomin bere gitarra txikiaz eta Itziar bere kapela ta jantzi liraiñez ikusirik, danak asi yakez etenbako txalo jotean. Bost euskal abestiraño jo ta kanta bear izan dabez. Ango poza ta txalo-jo bearra, bein eta barriro!

Azkenez Jone'k, itz bitan, iragarri eutsen ango guztiai Txomin ta Itziar, neba-arrebak, zetan ebiltzan, lamiñentzako orrazi eskean. Esku-zarta ikaragarriagorik! Eta ondoren, bertatik, euri zaparrada lez, orraziak eta orraziak agerttu ziran ugari: beingoan bete eutsoen garba dizditsuz lepotik dingilizka ekarren zisku txanbeliña. A zan orrazi meta!

Ipuin-kontaketan

Bertsolari, pelotari ta enparau guztiai agur esanik, joan ziran lekutik, «Boliña»nean edari gorritzak pizkat artu ta Lumopeko baserrira itzuli dira iru laguntxoak. Pelota-lekuan batutako orraziak Jone'ri itxiko dautsez, onek Iriñe lamiñari eroan daiozan.

Jone'ren senarra ta seme-alabak etxetik dira. Eta, jakñia, benetan poztu dira gatzetxo biak etxean ikusteaz, frontoian izan daben arrakesta jakiteaz... Pozik dagoz bai danak, eta apal-aurretik eta ostean amaikatxo kontu erabilli dabez alkarrekin: Muxika'ko bertsolariena, Oka, Gorozika, Mendata, Errigoiti ta Gerekiz aldeko sorgin eta lamiñenak... Zer ez gero! Aita izan da kontularirik bizkorrena!

Amak be, bere aldetik, aletxo bat ipiñi gura-ta, berak bere errian ume-tan sarri entzundako au kontatzen dau, oso polita. Busturi'ko Altamira'n onela esaten ei eben:

Kandelarixo egunean izaten zan Altamira'ko Morozillo kobara joatea. Ume guztiak joaten giñan argizarizko kandelatxuekin. Atearen aurrean abesten genduan:

«Kandelarixo lerixo,
atxari ura darixo,
sagarrari madari,
eutsi, Peru, adarrari».

Au kantaturik, kandelak biztu ta barrura sartzen giñean. Sartuta, bide medar bat dago lenengo, ta saloitxu bat gero. Saloitxuan mutillak atxurtu egiten eben atxurregaz, eta lur baltz-baltzak urteten eban. «Ene!, kafia da au!» esaten genduan. Eta azurrak be bai urteten eben.

An antxiña erdi-arrain eta erdi-kristiñau ziran pizti batzuk bizitzen ei ziran. Lamiñak yaken izena. Errekara jasten ei ziran orrek piztiok, eta uraren barruan sartzen ei ziran. Euren orraziaz asko gustetan yaken.

Egun baten lamiña batek aztuta itxi eban bere orrazia, eta urrengo etxeko andratxuak aurkitu ei eban orrazi a, ta etxera eroan ei eban, norena zanik ez ekiala. Gabean lamiña etorri yakon ate-joka; eta andreak bildurrez, onean emon bear izan eutson leiotik. Lamiña, bere orrazia artu ebanean, joan zan ostera be bere kobara.

Iñok eurai ezetan ikutu ezik, lamiñak ez eben kalterik egiten.

Lamiñak onak dira

—Kontakizun jakingarria, Jone! —diño azkenez Txomintxok—; zuk, beraz, uste dozu lamiñak onak dirala?

—Bai, gazte! Nik aspalditik dot eurakaz artu-emona eta niretzat beti onak izan dira; egundo be ez dauste kalterik egin, eta mesedeak bai askotan.

—Guk egunokaz ainbat artuak gara, estu-alditik onez atera, toki ta gauzak ikusten lagundu... Zertan ez dauskue on egin? —Txomintxok ari.

—Oka, Muxika ta inguruetan ba-dira «eperlanda» esaten dautsen lekuak, sorgiñak eta, batzen ziran tokiak. Baita ba-dakizue Donibane bezperan egin oi diran suak be. Zelako sugar eta kantak! Ona bat Mendata'n kantetan dana:

«San Juan gaur dala,	Ba'dagoz bere, erre beitez!
biar dala Donianez;	San Juan! Artoak eta gariak gor-
etzi San Juan, biaramonez	lapurrak eta sorgiñak [de,
gure soloan lapurrik ez,	eta beste «peste»
sorgiñik bere ez.	guzti-guztiak erre!»

Dakusuenetz, emen ez da lamiñarik agertzen, onak diralako. Orain goazen lotara. Biar geiago.

XIII

BIDEZ BIDE

«Bizkaiko Jaunek, XIV'garren mendean, Busturiko arkaitz batean bei-altzarrak (erraiak) zituten euren aurretiko Mariren opaz. Ala dio beintzat D. Pedro Barcellos Kondeak: Bizkaian ziñoen eta oraindik diño, Iñigo Gerra'ren ama dala Bizkaiko sorgin eta aztia. Bizkaiko Jaunak Busturi deritzan errian arkitzen diranean, etxean iltzen dituten bei guzien altzarrak opariz eskintzen dizkie, arkaitz baten gainean egunero utziz; biamonean ez dute ezertxo ere arkitzen. Orrela egingo ez balute, kalteren bat ukanen omen lukete, egunez edo gauzez» (J. M. Barandiaran, *Euzko-Gogoia*, 1954, 201 orr.).

Argi ta jaseko

Oge guriko izara artean, ikasleak, eskola bako egun zurietan lez, lo gozoaren besoetan orduak emonik, gertatu dira gure gazteak, esanaren ari-
ra, aurrera joteko. Aurrera, bai, itxasaldeko edertasunen billa, eta orrazi eskean.

Gosari ugaria ekarri dautse etxekoandra onak. Eta, etxeko seme-ala-
bakaz batera, jan-izkia egin dabenean, laztan gartsuak alkarri emon ondo-
ren, Itziar ta Txomin, euren gitarra, zisku ta gainferakoakin, Busturi, Txa-

txarramendi ta Mundaka'rantz urten dira. Biotz-ikara gozoz agur esan dau-
tsoe, baita, Gernika, Foru-uri pertxentari be: malkoz busti dira gazteen
matraillak. Agur, Gernika!

Joak dira zortzirak. Foru ta inguruetatik neskati batzuk datoz, dotore
jantzita; eta andratxoak Gernika'rantz, astotxoakaz, ortuari ta abar saldu
nairik. Lugiñak solo ta landetan, nagirik bage. Atxerre gaiñean eguzki aita,
bazterrak alaitzen.

Axpe

Taka-taka ibilli ta Foru ta Murueta atzean itxirik, Axpe'ra eltzen da-
goz gaztetxo biak. Ondar ertzean daukagu errixka au, toki ederra benetan;
gaintxo onetatik begitu ezker batez be: Busturi'ren zati bat dozu. Antxi-
ña bateko etxe ederrak daukaz, eta landak eta soloak. Udan kanpotar asko
dator bertora, atsedean eta itxas-aize billa. Emen inguruan, solo ta landaz
gaiñ, ba-da gaur lantegi baliotsu bat be: Murueta'n itxas-ontzi galantak
egiten dabez.

—Auzune au bai ederra! —Itziartxok.

—Zelako baserriak, eleizea gainaldean dabela! Igali-zugatz asko. Urri-
ñera, ibaiz bestaldetik, Kanala ta baranoak. Ezkerrerago Laida, une on-
tan ur bete-betean; edo-ta, naiago ba'don, urak urari.

—Egia dok. Bizkaiak ba-dau leku ederrik!

Altamira

Bidea gurutzatzen. «San Kristobal» diño ertzeko burdin-ostioak. Etxeak,
zarrak eta oraintsu jasoak, politak danak, eta garbi-garbiak. Bide barria
gorantza doa: au artzen dabe gazteak. Ezker-eskuma, etxe atari ta aurre-
tan, era askotako loraz beterik baratz eta lilitegiak.

Begi aurrean daukiez, kresalera begira, zutik Axpe, Murueta, Altamira,
Busturi ta enparauak zaindu nairik edo, Geleta ta Artadi mendi txaraz be-
teak; ba-da or aspaldiko arte, gatzain, areitz, gurbiz, legeltxor, endalar,
masusta, sasi ta olakorik.

Bazter polita dogu Altamira, etxe zuriz, solo ederki landuz eta fruta-
zugatzegz gaiñezka. Arrantzutik bizi dira geien bat bertokoak, eta solo-la-
netik; ba-dau erdian arrobi, kantera eder bat be, karatx oso onekoa. Gi-
zonezkoetatik asko itxasoak arrotzen ibilli oi dira, kargu aundiekaz ez
gitxi be.

Erri au izen aundikoa izana dogu lengo gizaldietan. Ementxe egon zan,
gaurko eleiza ondoan, Txirapotzu jaunen etxetik ur samar, gizaldiak zear
Bizkaiko Jaunak bizi izan ziran jauregi ospetsua.

Busturia

Gaur errege-bide zabala dogun ontatik joian lenago Gernika'tik Ber-
meo'rako galtzara edo arbidea, erromatarren denporan egiña. Mendia ta
ura daukaz Busturi'k, kresala ta lurruna, zelaia ta ondartza, eguzkia ta ke-
rizpea. Arrobi aberatsak ditu inguruan, sorkaldetik daukan mendi-aldea
batez be oian arriatsua dau-ta.

Begipean edatuten yaku bertoko eleiza nagusia, Andra Mariari eskai-
ñitakoa. Etxeak alde bietatik. Itxasotik eta lurretik bizi da jentea. Udatiar
itxura dabe bazterrak. Gaur be, gizaldi onen lenago amarkuan sortu zan
gaitzagaitik, gaitziña tantai ederrak ikusi daiegez berton, baita intxau-
rrondo, geriza, madari ta sagar-ondo jagiak be. Eta maats-parrak or-emen:
ba-dau entzuterik emengo txakoliñak.

Igazi gizaldiaren erdirantza ementxe egoan, gaiñera, teilleri eder bat.
Tamalez ez eban urte askotako bizi izan Busturi'ko zeramika lanak, erri
onen izena mugaz-bestalderaiño nabari izan zanak. Aspaldi batetik zan buz-
tiñola bati jarraituz, Gaspar Boluena'k eta onen lagun Manuel'ek, bustu-
ritarrak biak, pitxer, txongil, potix eta olakoak egiten asi ziran, Frantzia'tik
eta, ontzigille maixuak ekarri-azoaz. Baiña buztin zuria ekartea gaitz ta la-
guntasun exkaxa ebelako, porrot egin bear izan eben.

Sukarrieta'ra goazala, bide egalean, zartegi bat dago Arroategi jaunak
diruz lagunduta jasotakoa. Arroategi anaiak kapitanak ziran eta itxasotik
diru mordotxoa aurreratu ebelako, erriko zaarrak nun zartzaroa emon euki
egien, zaartegi au jasotea erabagi eben euren kitan.

Iriñe'k esan eutsenez, Itziar eta Txomin'ek emen daukie lamiñ-koba
bat, oso antxiñakoa. Bera ikusi barik ezin aurrera egin. Baiña atzera itxi
dabe. Zer egin? Altamira'n dago eta gazte biak ez dira konturatu.

—Zer egingo yonagu, Itziar? —Txomin'ek arrebari.

—Nekaturik be ba-nago ta, goazen aurrera —Itziar'ek.

Eguerdia da, ta zerbait artu bear. Muna gaiñean ezarri dira zerbait
jateko. Olan indarbarriturik, barriro lotuko bideari.

Zaldua ostikolariakin

Erri ontako gazte ospetsu bat ikusi gurarik, mutil koskor bateri itandu
dautsoe nun bizi dan Zaldua.



Busturi ta inguruak, gizonez eta lurrez eder

—Emengoxea da, bai, Zaldua, Bilbao'ko Atletiko'n atezain dana. Nai al dozue bera ikusi?

—Oba ez! —Txomintxok.

Ur dago-ta, aren etxera eroan dabez. Berak edegi dautse atea. Gordin dago oraindik, urte batzuk bizkar-gaiñ euki arren. Erri bakotxak ditu bere «jainko txikiak» eta au da Busturiko bat beintzat. Pixuz ta goibez galanta dogu Juan Andoni Zaldua Olazar. Ez da futbolista bakarrik: ikasten diardu; gauza ederra nunbait: dakianak daki ta ez dakiana bego ixillik: ago ixilleen ez bait da eulirik sartzen, esan oi danez.

—Pozik al zagoz emen? —Txomin'ek ari.

—Neure gurasoakaz bizi naz emen; lan apur bat egiten dot, eta ikasi. Leku au —Soillube daukazue or gorago— txit ederra da. Toki txairoa udan batez be, ederto ibilli oi naiatzue berton. Neguan ez da bardin, leku tristeagoa da. Egia, igande ta jaietan jenterik asko urreratu oi da onantza, ondar gorrira bereziki. Lurralde liraiñak errez zoratzen mundua.

—Gogait egiñik, bear bada?

—Ez! Pozik bizi naz neuretarren ondoan. Astero, gainera, Lezama'ra joan bear izaten dot, eta ikasi, jokatu ta lagunakaz itz-egin: ez dot, egia esan, gogaitzeko astirik izaten.

—Noiz asi ziñan jokatzen?

—Zelai zabal bat daukagu emen, eta ementxe asi nintzan eskola aurretik eta ondoren ostikoka be ikasten: eder yatan umetatik baloiari dantzan eragitea.

—Eta gero?

—Gero, amabost bat urtedun, Gernika'ko ekipo edo taldera joan nintzan eta an urte bete bat egiña, Bilbao'ko Atletiko'ra... Olan da nire futbol karrera.

—Orain pozik?

—Bai; nik uste dot, urrin samar elduko nazala.

—Agur, Zaldua!

—Agur, gazteok!

Gizon zaartxo bat

Bidez doazala ona gizontxo bat, arrizko jarlekuan.

—Aitaita!, Sukarrieta'ra goaz, eta ez dakigu zenbat bide lez daukagun —Txomintxok ari.

—Ez daukazue asko; amar minutu barru zubian zagoze, nik uste. Jakin neinke gitarra orregaz zetan zabiltzen?

— Gu berriztarak gara. Egunokaz erriz erri gabiltz. Illuntze baten galdu egin giñean mendian. Eta Mari Burrika'k, ango lamiñak, bialduta gabiltz orain orrazi eskean. Ez al dozu lamiña orren entzuterik?

— Bai...! Lamiñ-kontuan aitua nozue. Sarri entzun dautsedaz ari ta oni lamiñen ipuiñak, Berriz'ko Mari Burrika orren albisteak be ba-ditut, eta ez gitxi.

— Ba, aretxek bialduta gabiltz gu...

— Zertan?

— Esan dautzut: orrazi billa.

— A, bai! Lamiñak beti diardue orrazketan. Eta, jakiña, orraziak bear.

— Gu bejatzat orrazi eskean goaz...

— Orraziak bakarrik?

— Zer ba?

— Diñoenez, izpilluak be bear izaten dabez.

— Guri orraziak batzeko agindu dausku Mari Burrika'k.

— Egin dozue uzta onik?

— Bai, jentea esku zabala da. Ona orduko, Gernika'n esaterako, pelota lekuan, partidua ta bertsolarien saioa amaitu ostean, nik gitarra jo ta nire arreba Itziartxok kanta, biok, orrazi batze ikaragarria egiñak gara. Zetan gabiltzan esanez berba bi naikoa izan dira, dozenaka orraziak ziskuratzeko. Artia'n eta Santimamiñe'n ama-buru dan Iriñe'ri bialdu dautsaguz, egun bitan asko be asko lagundu dauskulako.

— Orain ze asmo dakartzue?

— Txatxarramendi ikusi gura geunke. Baiña aurretik, gose gara-ta, zertxobait jan egin bear dogu.

— Ba-daukazue ezer? —ak Txomintxo ta Itziartxo'ri.

— Ez, ezertxo bere ez! Erosteke asmoa dogu. Emen egongo da zer erosi, ezta?

— Etorri neugaz...

Or berton Sukarrieta. Busturi'ko mugaz nastean. Etxe barriak sakon eta luban gaiñeetan: lur ta itxaso, eguzki-izpi kiskalgarritan. Une onetan, izgora da antza ta birak oro urez plin-plin agiri yakuz. Ur-ertzean, zugatz txiki ta aundiz inguratuta, etxe luxanga bat, aurreko zelaian ume-mordoa olgetan daualarik. Or baita otel zut-zuta, «Pako» deritxana. Or Txatxarramendi: eskumako are-obi ondotik, astrapalada utsean doa bultzia, Zorno-tza'tik Bermeo'rakoa. Or Sukarrieta, eleiza, etxe ta txalet ederrez osotua; itxas-ertzetik bitxabalerako tartean, or parke zabala, mota askotako landaraz ta umez bete-beterik. Ezkerreko bidetik beerantza doaz zaartxoa ta neba-arrebak.

— Ementxe artuko dozue nai dozuena —zarrak bikoteari.

Eta ezkerretik dagoan «Ramona» jatetxera doaz. Kanpoko aldean, baratzeko kerizpean artu dabe lekua, egal bateko mai zabalean.

— Otoi, Karmele, bazkaria gazte bi onei —dirautsa aitaitak, irribarretsu azaldu dan andereiñoari.

— Zer jango leukie? —ak gazteai.

— Edozer! Gose danak, edozer jaten dau —neba-arrebak ari.

— Orduan, ekarri lenengo txirlak irurontzat —zaarrak ari.

— Ar lekua nai dozuen maian: ona irurentzako bat aukerakoa, argiz ta zugatzez lerdan —Karmele'k iru bazkaldarrai.

Eta axe, andereiñoak esanikoa artzen dabe; eder yake, izan be, bazkal orduan izadiaren eregu-pozkaria.

Jarlekuak artu baizen laster or datorkie Karmele, dotore, txirla plater zabala lurruntan daula. «Aitaren» egin eta otoitz laburra esanekoan, zaartxoak serbidu dautse neska-mutillai, bakotxari txirla pillo eder bana. Itxura oso bikaiña daukie txirlak, txit edegiak eta perrexil orriakaz onduak.

Bazkaria

Beste barik, katuak sagu illarekin lege, egiten dabe iru bazkaldarrak begi aitzinean daukiezan txirla, ogi-zati ta ardao zuriarekin. Au gozoa! Jan-gale gareanean edozer yaku atsegin, baiña gozoa baldin ba'da, askoz atsegiñago aurki. Txirlak, egia esateko, Busturi aldean arrapatuak eta «Erramona» etxeak ipiñita, beste jatetxeetan baiño bikaiñagoak eta jakera obekoak izan oi dira. Tripazaiñak ba-dakie ori, ondo be!

— Ekarri orain txibi baltzak —zaarrak agindu.

Eta erresakon, kazola apalean, txibiak mairatu, ikatz-leia baizen saltsa baltzean. Goizaldēa baserri-tximinitik gorantz doan kea dirudi azpillari darion lurrin bior kirimillak. Dizdiz dagie jaleen begi-inguruak, eta, zali luzangea atzamar-arteraturik, bakotxak artu dau nai beste: zaartxoak be ederto diardu, gazte biak baiño gitxigo ez izatearren. Oneik ez dakie oindiñokarren aren izenik, baiña bitarte baten itanduko dautsoe.

Txibiak amaituta bertan, aguretxuak barriro:

— Orain lebatz prijidua, mesedez.

Berealako batean maiko zamau gaiñean daukie azpil zapala, amar bat lebatz zati zuri-gorritzak. Nekez euki lei itxura obarik. Irurak txandaka atera dabe orretatik be: zaarrak berak lenengo, ta Txomintxok eta Itziartxok gero. Jan bitartean, ainbat gauzari daragoioe, gizalegeari berea emonik, jakiña.

— Azkenerako, *suple* ekarri —zaarrak Karmele'ri.

Eta ezker-eskuma begituaz, gazte biai onela:

— Ba al dakizue zuek, *suple* zer dan? Gaztetxoak zarie-ta, ez arritu. Ikasiko dozue denporaz, beste gauza asko ta asko lez.

— Orren pozean bizi gara, aitaita!

— Mai azkenekoa da *suple*, laster ekarriko dauskuena. Sagar, gaztae, izozki, esne-opil ta olakoak artu oi ditugu bazkari atzeneko. Nik orren ordeztu, *suple* artzen dot sarri: gozo-gozoa da. Laster ikusiko dozue. Sutan ekarriko dausku Karmele'k, eta, nire ustez, orixegaitik deritxoe *suple*, gaitetik sua dariola maira dakarrelako.

Ba-dator Karmele, ezpan-zokoan irripar gozo. Iru pitxer antzeko dakaz zidarrezko azleu batean, irurak sutan. Bakotxari bat serbidu dautso, eta bazkaldar zar-gazteak, bakotxari Karmele'k ekarri dautsan koillaratzoa artu, ta gogotsu diardue; baita beingoan amaitu be!

Ederto asetarik geratu dira onekin; ez dabe geiagorik bear. Egun guztiak ez dira bardiñ. Esakun onek ba-dau mamiña; «Dagoanean bonbon, ez dagoanean egon». Orrela gaztetxo bientzat be, iñoizka ogi-kuskur bategaz, baiña gaur «bapo gagozak» esateko eran.

Neba-arrebak, euren beintzat, ordaindu nai dabe, baiña aitaitak ez dautse laga. Zergaitik? Zaarra ei da bera, beste mundurako bidea artu bear gesu baten. Aukeran bizi da, ta ez dau diru premiñarik. Txomin ta Itziartxo, osteraz, gazteak dira: Euskalerraren alde jokatu bearra dabe.

Jantokia itxi aurretik, euren esker ona erakutsi nai izan dautse «Erramona» etxeokoi; eta Txomintxok, gitarrea artu ta gozaturik, iru eresi polit, «Begiak parrez parrez», «Donostia'ko iru damatxo» ta «Bazkaldurikan bapo bapo» eskeiñi dautsez. Arein txalo-otsak! Itziartxok ondoren, aren joale soiñura, dantzan egin dautse. Arein txalo ta gorak barriro be! Egiz esan eikean: gazteak asean, betean, eta areik naiak eraginda. Bizia beti obe larrosaz betea.

— Guk, aitaita, Txatxarramendi ikusi gura geunke —Txomintxok zaarri atetik kaleratzean.

— Ez dot zeregiñik eta neuk erakutsiko dautzuet —zaarrek erantzun.

«Marina» jatetxe ondok parkera doaz irurak. Txinboka ta olgetan ume-pilloa emen. Txominek gitarraz:

«Orra or goiko areztitxu baten
kukuak umeak egin yozak aurtan.
Kukuak egin, amillotxak jan,
axe bere kukuaren zori txarra zan.
Lara lara lara la...»

XIV

SUKARRIETA

«Bizkargi azpian, eguzki aldetik, daukazu Gorozika. Munaguren baserri ondoan *Lamiñapozu* deritxan oxin bat dago; lamiñak bizi izan ziran emen, eta oneik toki ontako zugatz-adarretan orraztu oi ziran, eta eurotatik esegiten eben erropa garbitua. Munaguren'go emakume batek bein izara bat ostu eutsoen; lamiña batek gabaz atean ots-egin eutsan, esanez:

«Munaguren'go atso banderaa,
Ekarri egidana nire ondra-izaraa»

(J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, II, 433 orr.)

Maxin

Bizkaiak daukon txokorik ederrenetarikoa dozu Sukarrieta. Itxaso ta lur, zelako bazterrak! Amesekoak dirudie; bertara joan, ikusi ta bizi izan ezikan, ez dozuz errez eukok atxiki ta gozatu al izango.

Itxas-ertzean sotil datzan parkeko jarleku batean egokitu dira zar-gazteak. Eta Itziar'ek, euren gidaria nor dan jakin gurarik, itandu dautso:

— Aitaita! Zure izena, eder ba'yatzu? Ez dauskuzu esan oindiño.

— Egia, maitetxo; ez dautzuet ezer esan, eta merezi dozue, niretako ain zarie maitekor! Maxin deriste. Larogetaz urteak dodaz bizkarrean, eta neu nozue Sukarrieta'ko gizasemerik zaarrena. Jaio nintzan etxean bizi naz: gero erakutsiko dautzuet, eder ta gozagarri yatan sorleku ori.

— Asko ibillia izango zara, ezta?

— Gaztetan Kuba'tik ibillia. Habana'n euki neban burdiñategi bat, baiña gaixotu egin nintzan, eta Suiza'ra jo bear izan neban osasun billa. Urte batzuk an erre ondoren, neure jaioterrira itzuli nintzan ostera be, berton baiño obeto ifun ez nintzala izango ta.

— Zertatik bizi izan zara?

— Itxasotik ondarra atereaz. Arazo apala dan arren, orretzek emon daust niri jateko beste. Urte batzuk dirala, alan be, agur esan neutson zeregiri orri; eta gaur jan ta ibilli, ondoto bizi naz.

— Seme-alabarik?

— Ez, ezkongue nago.

— Nogaz bizi zara?

— Arreba bategaz. Biok batera, ez gara txarto bizi.

Zimurrez dau arpegia; ez da txiki, ez aundi, bai bien arteko. Txapela buruan, ondo sartua. Sur luze samarra, ta beronen gain betaurrekoak. Izkera alaia dau: asko jakifia emoten.

Aurtegia

Bilbao'tik Bermeo'rako trenbidea igaro ta aurrera doaz irurak. Ezkerretik, etxe-sail polita, itxas-gaintxoan; izgoran guztiak artzen dautsoz urak. Aurreratxoago beste etxe barri batzuk; ondoan, areatza nasaia, itxasberan batez be.

Maxin'ek batetik bat Aurtegia erakusten dautse: Aurtegi edo umebaratz au aspaldi antolatua da. Ikas-koloni da, umetxoentzako batez be, ta berton txandaka, ia milla bat ume egon oi dira urtero. Etxe au aurrenik Erramon Sota bilbotar aberatsak bere itxas-ontzietan ebiltzan zaarrentzat eregi eban, Arbiña deritxon ur-bazter ikusgarri onetan. Geroago, 1925'n, Bilbao'ko Udal-Aurrezki Kutxak erosi eban, gaur daukagun ume-koloni au jarteko. Arrezkero, amaika umetxok, ikasi ta jolas, makiña bat ordu eder emon dau bertontxe.

Lan izugarria burutu dau Kutxa ongille onek bizkaitar umetxoakaz, osasuna ta jakitea ainbat sendi beartsuri emonaz. Toki ezin ohea neska-mutikoentzat: itxas ertzean, kresal aize bigunez ondo zanpatua, lau alderdietatik ikuspegi txairoak ditula; jolas-lekuak be, ugari, ezereen arrisku

bakoak. Jantoki, ikas-saloi ta logela apain osasuntsuak barnean... Kutxa txalogarri au ez yaku iñoiz be, etxe onen onari dagokionez, urri ta eskas ibilli. Azken urteotan, gainera, osorik barriztatua daukagu.

Neska-mutiko aldrea dabil aurreko zelaian olgetan. Txomin'ek, arei soinu saio bat entzun-azo naierik, Maxin'i dirautsa:

— Onei joko ete zerbait?

— Bai orixe! —Maxin'ek.

Umetxoak, Txomin bere gitarreaz ikusirik, beingoan pillotu yakoz.

— Zer nai dozue jo dagitzuedan? —Txomin'ek arei.

Ez dautsoe ezer erantzuten. Erditik eginda lez, totel dagoz. Adi-adi danak begiak jogailluan josirik.

— Zez nai dozue jotea? —Txomin'ek ostera be—; atsegin ete yatzue «Aitor'en izkuntza»?

— Bai! —danak batera, pozetan.

Txomintxok jo ta Itziartxok kanta, gaur modan daukagun abesti txanbelin orren estrofa ta aapaldi guztiak eskeini eutsezan. Umetxoen poza! Eta amaikeran, arein txaloak!

Arbiña

Eguzkia sartaldearantz, izpi-urtika oindiño. Zar-gazteak, barriz, bide medar batetik zear, ondartzaga egalez egal, zugazti txiki batera doaz. Ikus or Andoni Deunaren eleizatxoa. Arbiña deritxe leku oneri.

— Noiztikoa dogu, Maxin, eleizatxo au? —Txomintxok galde.

— Antxiñakoa, antzutea danez; urte asko ez dala barriztau zan; gaur joera aundia dau jenteak ermita onetara: udan ondartzara datozanetatik gitxi geratuko dira ona «Gure Aita» bat beinik-bein esatera urreratu barik.


— Andoni Deunak ba-ditu eleizak Euskalerrian —Itziartxok.

— Ez da mirestekoa. San Antonio Lisboa'n jaio ta Padua'n il. Bere amaren amea, au da, amama ementxe «Arbiña»-n jaio zan, San-Ander parroikiko eleiztar izanik.

— Guk ez genkian olakorik... —Txomintxok ari.

— Bein, Antonio, Prantzia'ko Tolosa'n itzaldiak egiten aurkitzen zala, nagusiak aginduta Padua'ra zuzendu aurretik, bere amamaren jaiotetxea ikusten etorri zan onaxe; berton egun bi igaro ondoren, Urkiola'tik zear itzuli zan Tolosa'ra ta andik Padua'ra; 1231'an il zan, eta andik laster orduko Aita Santu Gregorio IX'garrenak altaretara jaso bear izan eban, erri osoak, ots, mundu osoak eskatuta.

— Arrigarria benetan! —Itziartxok.



Sukarrieta, Txatxarramendi ta birak lur-itxasoz lerdan

— Ez otera Andoni Deunak Bizkaian eta inguruetan eleiza asko eukitea; au ez da arritzekoa, geure odolekoa genduan eta. Bizkaiak ba-dauka zertaz arrotu, puzkeria egundo ona ez yakun arren.

— Orixe, Maxin! —Txomintxok, amaituaz.

Txatxarramendi

Arbiña bazter atsegiña ta Begoña'ko Amaren ume-kolonia atzean itxirik, geltokirantz doaz iru bidaztiak. Leengo gizaldiaren azkenetik batez be, Sukarrieta'k dauan gora ta entzutea azaltzen dautsez Maxin'ek, Gaur Bermeo'raiño doan trena, 1888'an zabaldu zan Gernika'raiño, 1892'an onaiño, ta oraintsu Mundaka ta Bermeo'raiño. Jenteari erreztzun aundia emoten dautso onek, onaiño eroso samar eldu ta euren birikiak kresal eguratsez asetu al izateko. Töki atsegiñagorik ortarako!

Ba-dau istoririk Sukarrieta'k, ur-ertzeko ziiak bezela. Konta ezin-ala gizaldi joanak dirala be, emen daukagu berau bere bazter txairo guztiakaz. Or bekoz beko Txatxarramendi ugarte, beti txeratsu ta eder. Ementxe ibilli ziran gure aspaldi bateko euskaldunak, ementxe geroagokoak eta gaurkoak. Edozein urte-arotan, bai maitekor toki baketsu au! Zubia igaro ta aurrera doaz: txanel ta txalupatxoak dabiltz arin ur-beeran. Bermeo'rako bultzia bizkor azpitik, Umeak txinboka parkean. Eguzkia sartzen lez.

— Auxe dozue Txatxarramendi —diñotse zaarrak neska-mutillai—; bide bi daukaz itxasoraiño eltzeko, baiña guk, politagoa da-ta, ezkerreko au artuko dogu.

Arte, sasilar, ereiñotz, gurbiz ta olakoz beteriko itzal-bide zardaiña da, suge antzera, biurka, ur-muturreraiño edatzen dana. Ezker, zugatz-erpinpean txipli-txapla dagi urak arkaitz idekiduretan. Uraren jolasa, ifioiz amaitzen ez dana!

Atzemon dabe ugarte muturra, ta alboko aitz-puntetan jarririk, eskualde ederrik ederrena dabe begien aurrean.

— Gure itxasoa, sotilla bene-benetan! —diño Maxi'k, ixil-une ostean.

— Zoragarria! —Txomintxok jardetsi.

Ura beeraíño jatsi da: gorri-gorri ondartzak, leen ikusten etziranak nunbait. Ontzi bat dator, Laida'tik, jentear... Ur-gaiñez ibiltea, bai atsegin! Ontzi orrek otera asko dagiz egunero, jentea eroan eta ekarri. Ziñez ikusgarri! Or jentea, milla kolorezko, zaar-gazteai agurka. Nasa jentez gaiñezka, andik datozanak eñta emetik doazanak. Andra batek, Txomintxo gitarreaz ikusirik, oni diñotsa:

— Gitarra jotzaille ete?

— Bai, emakume, pizkat jotzen dot —Txomin'ek erantzun.

— Jo eiguzu zerbait, negarrez datorren umetxo au ixildu daiten —ak barriro.

Txomintxok —Itziartxok bardin—, era askotara on egin daukegula-ta, «Aldape'ko sagarraren adarraren puntan» jo dautse, Itziartxok ederto abes-turik, Amenean ixildu da umetxoa, irribarre gozoa ezpan ertzean loratzen yakola.

— Nungoak zarie zuok? —itandu dautse Maxinek.

— Zornotzarrak! —erantzun dabe guztiak, autsez eperdi, motroilloan.

Eta, beingoan, bultzia artzeko joranez, danak artu dabe arako bidea.

— Or gaiñean etxe bat —Txomintxok Maxin'i—; iñor bizi ete da bertan?

— Ugarte au, ots, Txatxarramendi, ezkutuzko ipuin eta istoriz beterik daukazue, gazteak. Urte askotxo dirala, esatea danez, Mundaka'ko taberneru bati erosi ei eutsan Irigoien abizeneko batek, zaragi ardo bategaitik erosi be; gero Pedro Paskual Gandarias'ek erosi eban. Leenago karea ateraten zan berton: ondiño be ba-dira emen kare-zulo bi ikatzez beteak.

— Eta geroago? —Txomintxok, jakin-miñetan.

— Geroago txalet eder bat eregi eben ortxe zugatz artean. Urteen irau-liz otel biurturik, oraintsu arte ospe aundikoa izan da. Iñoiz Alfonso XIII' garrena, Espaiña'ko erregea be, egon zan berton, bere jarraigoko ta guzti, bazkaltzen. Jauregi au aundia zan, aukera guztikoa; saloi eder bat eukan erdian, zabala aillegiñan, milla lagunerañño artzen ebazana. Umoro edo se-keriarentzat onak ziran baiñuak artzen ziran berton. Sekulako tokian se-kulako etxea! 1947'an, alan be, bea jo eragin yakon etxe orri, beste ederra-go bat bertan jasoteko asmuz. Baiña asmoa zana asmotan geratu zan, antza.

Maxin'ek aitz-zuri gaiñean ezarria, bere begi lausoak zorroztu dautsez gazteai, esanaz:

— Ederto gagoz emen, zume malguak aizetan lez; baiña, eguzkia apal-duaz doa-ta, joan bearra daukagu. Emen inguruan, gauza asko daukaguz oin-diño ikustekoak. Emendik alde orduko, baiña, jo zuk, Txomintxo, zerbait itoka dabilzan olatu onei, ur-oxin urdin oni, aitz arteko portutxo oni...

Eta Txomintxo, Mundakatik onantza datorren aize-ontzi zumaila iku-siz, onela asi da gitarra jotzen, Itziartxok eztarriz lagunduta:

«Zu, urez zabilzan mariñel ernea!,
bioztxo batek dau zure gomutea.

Itxasoa dozu guztiz aldatia:
zu, ene mariñel, ez zaitez kanbia!

—Ez, ene maitea, etzaitut aztuten,
itxarrik naiz lotan, zaitut gogoratzen.

Ba-dau olatuak orroarik naiko:
ene biotz onek zutaz areago».

Iltegia

Legarre ta Birgiñearisti, itzuliz begipean daukiezan mendiak, illunkeraz jantzi dira; bestaldetik, Atxerre ta birak eguzki izpitan gorri-zuri. Zugatz, baratz eze, jolas-tresna, berebil, etxe argi-origorritz dago azken urteotan an-tolatutako atsedeen-leku bikaiña, Zazpi ta erdiak dira erriko kanpantorrean.

Maxin erakusle bizkor, eleiza, frontoia, udaletxea, erriko taberna ta gai-ñerakoak ikusi dabez. Udaletxe aurretik beerantza doaz, iltegia ikusi nai dabe-ta. Atea itxirik dagoan ezkerre, ezin barruan sartu; urrats bitara, itxas-kolkkoa, ixil-ixilla, tantaitxoak biran ditula. Ogoño'ren kukutza an urruti... Laida, ondar gorri uts...

Maxin'ek gauza askotxo esan dautsez gazteai iltegi aurrean. «Ementxe zetzan —oraintsurarte beintzat— gure erria bere jabetasun-bidean ipiñi ebanaren gorpua... Askok jo oi dau ona, lur santuari mun egitera...». Eta azkenez, barne zauskadari eutsi eziñik, abots zoli ozenetan, aapaldi oneik —Enbeita zaarrarenak noski— abestuten dautsez:

«Adiñik guztiz ederrenian
ogeta amazortzigarren
urtian, il zan Sukarrieta'n,
Euzkadi gaizkatziarren.
Nor dala, baiña, olan il zana?
Aita Sabin, euskotarren
irakaslia, etsai guztiak
jarten zirala pozarren.

Bera zan euzko-abertzalien
irakasleri zuzena,
Euzkadi'ren gatxak ain ondo
ezagutu zitubena;
baita be beratu osatuteko
zorun-biderik onena
berak irasi eban ain ondo
Alderdi euzkotarrena».

Gabaz izarrak dardar zeru illunean, Malko bik bardin Maxin'en matrail gaiñ. Ezin dau geiago, ixillera da...

—Goazen emendik —diño azkenez.

—Ez, aitaita; neuk be zerbait jo gura dot —Txominek ziplo.

—Zer? I be gure aitaren zale? —aitaitak.

—Oba ez! Amak erakutsita dakiguz aren abestiak. Eder ba'yatzu, oraintxe joko dautzut bat, negar-jario aundikoa. Nai dozu jotea?

—Bai, ba! Jo egizu! —arek Txomin'i.

—«Kirikiño» zanarena da —azkenik Txomintxok,

Eta, Itziar'ek abestuz, au joten dautso:

«Netire semian seme,
neure illoba laztana,
ezeik aitzu aitonak
irakasten dauskana.

Lenen maite egik beti
geure Jaungoikua,
eta onen urrengo
Euzkadi geure ama».

Eta ondoren, beste au, abandotarrak berak abestua:

«Ene Aberri laztana!,
jausi zara erbestepian...
Obia eriotza da!»

Areitz azpian len bizkaitarrak	Zeure basotik atzo igoten zan
Batzarrak eiten ebezan;	eskari ona zerura;
gaur Aretxeko ganian	gaur erdeldunak sartuta, axia
danak dabiltz zoli dirutan.	birauz bete da. [emen
Ta bizi zara zeu olan!»	Zelan ondiño il etzara!

Aize bigunaren eragiña gari-lora bitartean. Zaar-gazteen mosu gorriak legortzeko, bear bada. «Gure Aita» bat oiukatu dabe irurak ildakoen alde.

—Emengoa ete genduan Sabino Arana? —Txomin'ek zaarrari.

—Ez, bilbotarra zan; baiña emengo alaba bategaz ezkondua. Aundietan aundia benetan! Orain goazen etxera. Illuntzera doa, ta geure etxean emongo dozue gaba.

—Eskerrik asko, aitaita! —Txomintxok ari—; aurrera egiteko asmoz gengoan, baiña zu lango batek askotxo daki ta guretzat garrantzitsua izango da, egi-egiaz, zuenean gaba emotea.

—Esan dautzuedanez, arreba bategaz bizi naz, ta arek ipiñiko dauku apari ederra. Ez izan orren ardurarik! Joxe Anton-ena dau izena nire etxeak. Lo egiteko be, ez yakuz iñoiz palta oge guriak, izara zuri, burusi bigun ta estalki leunakaz. Etzarie, nik uste ezeren paltan izango.

—Eskerrik asko, osteria be! —neba-arrebak poz-pozik.

—Eta biar norantz egiteko asmoa dozue?

—Mundaka'rantz. Gero andik, Bermeo ta bion artean dagoan Laminaran ikertu gogo geunke. Eta angoakaz itz-egin.

—Guztiz ondo! Biar goizean, nai dozuen orduan, neuk lagunduko dautzuet Mundaka ta inguruak alik zeatzen ikuskatu dagizuezan. Gero, berbertan egiten yatzue Laminaran. An itxiko zaituet nik. Ondo deritxazue?

—Ondo be ondo, aitaita on! —gazte biak batera.

XV

MUNDAKA

«Lope Garzia Salazar'ek dionez, Eskozi'ko errege baten alaba bere mirabeekin Mundaka'ra iritxi zan eta bertan kokatu omen ziran eta an zegola Bizkaian Sugaar (Culebro) zeritzan txerren batekin (etxeko jauna berau) ametsetan loegin omen zun gizon eder eta lazo (soin-itxura) onekoa izango zana, eta Jaun Zuria deitu zioten» (J. M. Barandiaran, *Euzko-Gogoa*, azilla-lotazilla, 1954, 199 orr.).

Zaarren goralpena

Miñ arriñak: geldi! Zaarren aurka, ez ezer esan! Mendiak zaarra dau aizea, ta sarriro zakar astindu arren, ez dautso samíñezko itzik esaten.

Txomintxok eta Itziar'ek, oetik jagiaz bat, sekulako goralpena eio dabe zaarren alde. Ederki bai dabe igaro gualdia Joxe Anton'enean!

Txomin'ek diño: «Zaarren aurka! Nik neuk ezin dot eroan olakorik. Gazte naz; eta iñoiz entzun dodaz tamalez zaarren kontrako solas bada-
ezpadakoak! Ba al dabe susterrik esan zantar orreik? Ez ete gara guztiok sendi bateko? Ez al gara anai, zaar eta gazte? Zaarrari esker ona zor dautsagu: biziagaitik, beragandik arturiko jakituri ta ikasbide ta mesedeakaitik. Au ezagutu nai ez dauana geldo dabilkigu nortasunean. Izatearen erruz edo, akasdun doa mundu zear oiñarrizko yakon zerbaiten».

Eta Itziar'ek: «Egunak aña denpora bear geunkez, bai, Maxin'i adibidez, eskerrak merezi giñoan emoteko. Zenbat gauza ta toki eder erakutsi euskun atzo! Eta bere arrebak zelako txera etxean, eta aparia! Gau bat atsegiñagoa! Ainbeste ipuin, kontu zaar, edesti ta elezar! Igarri barik joan yakun aldia! Eskerrik asko biotzez, Maxin ta arreba, zuen arrotz-maitasun eta abegi onagaitik! Jainkoak ordainduko!»

Mundaka'ra

Eder da daukaguna emotea, ta onek biotz barrenean sortu oi dauan poza dozu munduko pozik garbiena. Emon eta otseintzen jakin, gizonarentzat neurkera polita.

Onako zerbait dagi Maxin'ek gazte biakaz. Atzo arratsaldean esan eutse-nez, gaur Mundaka'ra laguntzen dautse, txeratsu ta maitekor. Eurenear gosari legea egin, eta bidez bide doaz irurak, itxas-egaleko uri ospetsu au ikusteko asmoz.

Ugara gorrizka agiri da itxasoa; albotik jagiaz doakigu gandu zuri ariña, gero ta edatuagotuz ur-arlo guztian. Eguzki aita, alan be, laster gainditu ta ezereztan dau ganduaren nai biurria: egun ederra egingo dau, nunt bait. Tximista lez dabiliz txori batzuk egaz, beste batzuk kantari ezker aldeko txapartzan; txirri, kaio more ta kalasantzak zarata bizia dabe ateratan giñarre ta abe txikien ingurumari. Bizi-nai zolia!

Or Mundaka, lur ta ur eder. Aintzagarri doguz bertoko seme-alabak, izakeraz ta lanez. Kale medarrak lo dagoz oindiño. Egiz esan daikegu: leen ikusia bitxia izan baldin bada, emengo zer guztia ez dogu gitxiago: eleiz, zumardi, portu, jauregi ta abar, zer ez dogu berton eder?

Lurretik eta itxasotik bizi dira mundakarrak; lurrak ez dira sakonak, arrizko azpidun ortu txikiak daukiez. Kantauri, oster, beti daukie zabal ta arrain eskeinka. Mundaka'n alan be, arrantzale baiño itxas-gizon geiago yakuz. Leen eta gaur, ospe aundikoak izan dira emengo kapitain eta pilotuak.

Sorgin-errete

Bero-garaian ainbat udatiar artzen dabezan uri gaillurrean ara ta ona ibillirik, Artza auzora eldu yakuz gure bidaztiak. Arrantzaleen egoitza da. Itxuraz antxiñakoa, len-sundaz asea.

—Emen ba-dabe ekandu bat, bitxia bera! Ba leiteke zuok, gazteok, jakin nai izatea.

—Zer, Maxin? —neba-arrebak batera.

—Sorgin errete.

—Jeesus!

—Bai! Orixe egin oi dabe Donibane bezperan, sorgiña erre. Aspaldiko oitura ei da. Onako txingote bat izaten da, edozelan eratua; lenago, ementxe berton, etxe batetik bestera jarten zan: soka baten dingilizka ipiñi ta, txakurrenak esandakoan, su emoten yakon.

—Eta orain? —Txomin'ek bizkor.

—Orain, urte batzuk dirala, sorgin bat margoztuten da, bizirik ba'lego lez, eta, txistulariak aurretik dirala, errian zear erabilliz, goiko atalaiaraiño eroanda gero, antxe su emoten yako. Jai au ikusi ta ospatuten jente asko etorri oi da albo errietatik be. Ez bait da edozelakoa izaten.

—Mundakarrak, beraz, ez dira sorgin-zaleak.

—Ez! Lamiñak, orraitio, ez yakez aren iguingarri.

Gizon ospetsuak


Gure erriak, lur mamorak liliak lez, nainun sortu izan dauz gizon ernai ta jakitunak; euskal literaturari gagokiozala, iru aitatu gengikez: Etxeita'tar Joseba Imanol, «Josetxo», «Jayoterri maitia» ta «Au, ori ta bestia» idatzi ebazana; Garro'tar Bernarta Mirena (Otxolua) «Bertolda ta Bertoldin»-en maltzurkeriak eta beste ipuin sail asko euskeraldu ta idatzitakoa, ta gaur Kordoba'ko «Santa Marina» eleizan txaunburu daukagun Arrizubieta'tar Martin M., olerkari bikaiña. Emengoxea zan R. M. Azkue zanaren ama, Mari Karmen Aberasturi be. Onetaz Azkue'k, bere «Euskalerriaren Yakintza»-ri egin eutson itzaurrean, onela: «Zortzi-amar bat gai ez, beste mila ta bederatzireun ta lagorei ta amarrak, ama, berorren ezpanetatik neure belarrietara yatsiak dira».

Maxin kalean gorantz begira: bertoko bat dator kalean beera. Nor ete? Zorion Egileor. Gazte oindiño. Gaur Bilbao'n bizi dan arren, ementxe jaioa dogu. Mundaka'n musikari onak egon dira, eta dagoz gaur be. Egileor bat. Bere aitaita Tomas, lekeitiarra, musikari ta zur-arotz izan zan; onen seme ta Zorion'en aita, barriz, Jose Mari, Andra Mari eleizako organu-jotzaille dogu; ari ta oni erakutsiaz, beronek eratu dau txistulari talde ederra be, ementxe Mundaka'n. Zelako kale-jira nabarmenak joten dabezan!

—Kaixo, Zorion! —diñotsa Maxin'ek, zerbait aurreraturik.

—Kaixo, Maxin! —ak erantzun.

—Gazteok: auxa dozue Zorion abeslari fiña, gaur an eta emen kantari dabillena. Batxiller ikasi ondoren, bere gurasoak dirua ekarri leikeon ogibide on bat artzea gura eben. Baiña Zorion musika zale izan! Musika



Mundaka, itxaso ta lur, andiki askoren sortterri

karrera ikasteko, Bilbao, Madrid, Barzelona ta olako urietara jo eban. Eta gaur, or dabilkigu, edozein jogaillu joten: pianu, gitarra, txistu... zer ez dau joten? Abeslari bezela, oraintsu Santurtze'ko kanta-konkurtsuan bigarren geratu yakun, gero Tolosa'ko euskal kanta norgeiagokan berau txapeldun... Diska batzuk be ba-daukaz irarrita; gaur Bilbao'ko erri-irratian lan egiten dau.

—Zorionak, Zorion! —Txomintxok, eskua luzatuaz.

—Zorionak! —diñotsa Itziar'ek be.

Portu inguruan

Eleiz-kanpaiak durundu. Amabiak dira. Maxin'ek txapela erantzi ta «Agur Maria» agin artean: biotz gozo erantzun dautsoe gaztiak. Aizeak zurmur osto artean. Portuko arkaitz azpitan urduri diardue olatuak, jo ta jo. Txoko atsegiña benetan portualde auxe! Mariñelak dabiltz tretzak, amusaillak, sareak, sokaleak, au da, arraiñietarako tresnak gertatzen.

Mundakarrak ez daukie Bermeo'n eta Ondarroa'n lako ontzidirik: amar-amabi txalupa nagusi, batel, txanel, botakor eta beste arraun-untzi batzuk. Urreko uretan tximiñoi ta olakoen billa dabiltzanak kendu ezkerro, irureun bat gizon ibilliko dira ontzi orreitan, eta, noiz dan, atuna, bokarta, lebatza, sardiña, besigu ta antzeko arrain fiñak artzen dabez geien bat. Alan eta guzti be, ondo bizi da mundakarra.

Izaro aurrez aurre

Igarri barik eldu dira Santa Katalina eleizatxo ondora. Leku zoragarria! Maxin'en so-bearra! Izaro dauka begipean, eta dana iruntsi gura dau bere begi biakaz.

—Izaro! —diño azkenez—; Izaro!, gure ugarite, istoriz betea!

—Istoriz betea? Konta eiguzu zerbait! —Itziartxok.

—Nok ez dautso bira emon, udan batez be? —darrai aitaitak—. Iz atzizkiak badakizue zer adierazo nai dauan: *iz*-urde, *iz*-pazter, *iz*-aro; *iz* atalak ura esan gura dau. *Arok*, oster, biribilla esan nai dau, ots, itxasoaren koroia. Liburu zaarretan irakurten danetz, antxiñako gizaldietan, itxas-beera aundietan nunbait, Izaro ugartea lur tinkoaz batzen eban arri-mokor luzangea agertzen ei zan azpitik.

—Iñor bizi izan da bertan? —Txomintxok.

—Bai! Amabostgarren gizaldiaren lenengoetan, au da, 1422'an, Frantziskotar lekaideak, Kalaorra'ko gotzaiñaren baiezkoaz, euren komentu bat jaso ei eben lur-zati orren bizkarrean. Espaiña'ko errege katolikuak iñoiz

egon ei izan berton, Fernando 1476'an eta Isabel 1483'an. Txarto ibilli ei zan Isabel erregiña, ugarte orretara igotean batez be; eta bertorako igon-bidea erretzu naita, bere aginduz eta bere pekoan txalupak geratzen ziran ur-ertzetik goraiño, gaur be osorik apurtu bage dagozan 254 arrizko mailadia egin ei zan.

—Noizarte egon ziran prailleak? —Itziar'ek itaun.

—Amaseigarren gizaldiaren amaieran, 1596'an, frantses itxas-lapur batzuk, ugonote eritxenak, arkaitz mutur areitara igonik, su emon eutsoen komentuari. Eta andik urte batzuetara, tokia be etzala ain egokia ta, urik be ez eukiela-ta, komentu a itxi ta Forua'ra aldatu ziran aita frantzisko-tarrak.

—Eta gero?

—Arrezkero, ez da an iñor bizi. Geroago, otoiztegi biurtu zan leka-retxe a, Madalen Deunaren eleizatxo; antxiñako komentutik gaur ormazar ta ondakin batzuk besterik ez dago an. Arri-mokor zut latzak, olatuen enetsez eta sapelaitz, ur-egazti ta antzekoen zinkulin-txirrioz dardarazoak.

—Guk entzutea dogunez, jai eder bat ospatzen da emen Madalen egunean.

—Orrela dozue. Bizi izateko ezpada be, Izaro leku andigoz betea da, itxas erdian lirain. Mundaka'k ugarte au berea daua, uste izan dau beti, jeografi edo lutelestiz; baiña Bermeo'k berea zala uste eban istoriz eta kondairaz. Ortaz, ba, askotan sortu oi ziran asarre ta eztabaidak ango ta emengo Udaletxeen artean. Kirrimarra ta istilluok arintzearren, joku bitxi batera jo eben erri biok.

—Zein jokutara? —Txomintxok.

—Estropada bat jokatzera ez eben erabagi, ba, ugarte orren jabe aurrerantzean nor izango zan jakiteko? Traiñera bik urten eben Mundaka ta Bermeo bitarteko itxas-ertzetik, eta lenengo eltzen zanarena izango zan arrezkero Izaro. 1719'gnekoko garagarrillaren 22'an, beraz, amairu arraun-lari ta patroik bategaz, neurri bardiñeko traiñera bik jokatu eben estropada gogoangarria: bermeotarrak eldu ziran aurretik. Jazoera orixe gogoratzeko barriztu oi da oraintxe be urtero, Madalena egunean, traiñera ikusgarrien ibildeuna.

—Zenbat dakizun, aitaia! —Itziartxok.

Ur-gaintxoan irakurten

Ermita inguru au, askoren egurats leku da, itxura danez; ainbat jente aurkitzen da oraintxe be berton, ur-azaleko kresalpafadaz euren biri-auspoak osasundu naiez ona etorrita. Or ogei bat urtedun mutil gaztea irakurten.

—Kaixo, Iker! Irakurten, ezta? —diñotsa Maxin'ek, ezaguna dau-ta.

—Opor-aldia dogun ezkeru, zerbaiteki ekin bear: gure Otxolua, euskal idazle aundiaren itzulpen giar au irakurten diardut, eguzkiz ta aizez asetu-ala.

—Nun zabiltz orain? —Maxin'ek.

—Seigarren atalean nabil, «Bertolda'ren bigurkerea» deritxoanean. Nai dozue pizkat irakurri dagizuedan?

—Bai orixe!

«Bertolda, urrengo goxian —dirakur gazteak—, bere gorputza arraintzale sare bategaz narru gorrijaren ganean baturik, aurkeztu zan bakaldun aurrera. Itxura aretan ikusirik, ba-diñotso bakaldunak:

—Zelan azartu zara nire aurrian orretara agertuten?

—Ez al zeunstan zeuk esan nigana bigurtzeko goxion, baiña ez billoxik ez jantzirik etorteko?

—Bai; ba-neutsun esan.

—Emen naiagotzu, ba, sare onetan baturik —esan eutsan Bertolda'k— eta zeuk ikusi daikezunez, gorputza erdi-agirian erdi-estalirik dodala bigurtu naiatzu.

—Orain artian non ixan zara?

—Ixan nizan lekuan enaz arrezkero, ta orain nizanatan iñor ezin daiteke ixan neu ezik.

—Zein da egunik luziena?

—Jan barik egon biar ixaten dana.

—Buruko uliak zergaitik zurituten dira bixarra baño len?

—Bixarra baño lenago jaiorikuak diralako.

—Itxubak eurak be ezagutzen daben bedarra, zein da?

—Asuna.

—Zein da lorarik itunena?

—Zatotik urtetan dana, ai!, ardaua amaitutian.

—Nor da arako a, norberen etxian iñok gura ixaten eztauna?

—Errua.

—Nor da a beste okerra, lerdan guztiai istarrak ebagiten dautsezana?

—Garia ta olua batzeko igitaia.

—Zein da gauzarik argijena?

—«Iretargija argi da, baiña eguna baxen argi ez...» Eguna, jauna.

—Esnia baño bai?

—Esnia baño argiago, ta baita edurra baño be.

—Orixe diñostazun ori egiztau ezpa'daistazu, makillaka zigortau zagi-jezala agindu biarko ete dodan nago...»

Agur eginda, an itxi dabe gazte irakurlea.

Giro ederra dala-ta, ez dautsoe oindiñokarren bazter ari azken agurrik esan nai. Ain yake lilluragari! Noizbait, alan be, arkaitz artetik gora igonez, ezkerreko jatetxe baten artu dabe kopau bat irurak. Maxin'ek oraindu dau. Au biotz oneko!

Gorago igonez, Bermeo'rako bidean aurkitzen dira, Kantauri zabala barriz be begien aurrean, zalu ta diztikor, daukielarik. Txomin'ek eta Itziar'ek Lamiaran'en egon bear dabe gaberako. Ez dakie nun dagoan, baiña aurrera egiñik aurkituko dabe.

Bide zabalean oinkada batzuk emon orduko, or atari nasai baten aurrean, andra talde bat: arratsalde osoa igaro dabe, antza, briska jokoan eta orain, illuntzera doala-ta, kartak, jarlekuak eta maia jasorik, euren etxeetara egitekotan dagoz.

—Arratsalde ederra, andrak, ezta? —bota dautse Maxin'ek.

—Ederra, bene-benetan! —erantzun atze-alde zabaldun batek—; jakin geinke zetan zabiltsan gazte bi oneikaz? Ain daukie itxura polita!

—Neska-mutillok, esan daustienez, lamiñentzako orrazi billa dabilts, sei-zazpi bat egun dirala ibilli be. Oiz'tik datoz, eta orraziak bear dabez; zuok izango dozuez, ba, etxeetan bear ez dozuezanak be. Zergaitik ez emon gazte ortzargi, biotzean sartu yatazan onei?

Eta itzetik ortzera, euren zer guztiak bertan itxi ta orrazitan joan yakuz. Eta amen batean biurtu dira bakotxak dozenerdi bana orrazi dizditsu zapitxo barruetan dakarrezala. Zar-gazteen poza girgilleri areik ikusi ta ikutuaz! Itziartxok guenez danak dauz ziskura. Ba-dau adiguri ta esku-erakutsirik Lamiaran'go biztanleentzat.

—Oneik orain Lamiaran'era joan nai dabe. Zuotatik bat-edo-batek izango dau arantza joan bearra, ezta? —barriro be Maxin'ek.

—Bai; an urrean daukat nik neure etxea: neuk lagunduko dautsiet —egozten dau, iger-samar, agin-lokadun batek.

Ortaz, ainbat gauza ta toki eder erakutsi dautsiezan Maxin biotz onari ta kartetan aurkitu dabezan andra esku-zabal arei agur esanik, Txomintxok eta Itziar'ek, emakume igertxoak lagun dabela, Bermeo'rako bidea artu dabe.

Bide zabalez joan dira aurrenik, makur-une idoro arte. Itxasoa azpian urrumaz dago ezti, arri-mokor baltz sarri joen artean zinkulinka. Berton, gorantza doan estarta artu dabe irurak. Illunak bere maindira zabala tolesgetu ta edarazo dau txit ausarti. Aurrez aurre, zelai naiko zabala.

—Or Lamiaran! —diñotse emakumeak, zelaiaren ertz bat, ateka edegi bategaz erakutsirik.

XVI

BERMEO

«Bermeotik Mundakara bidean aldape andidun aran bat, zelai bat dago: Lamiaran du izena. Gizaldi berriko Mundaka-Bermeotarra Lamidxaran entzun diet esaten. Nere ama ta asaben ezpainetan Lamiaran zan izen au» (R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, 23 orr.).

«Gabon-aria»

Bai gau ederra Txomintxok eta Itziar'ek emona Lamiaran'en! Zelaiko ataka ondora elduaz bat, bertako lamiñ-amak atea zabaldu ta sekulako abegi ona egin eutsen. Enparauen agurra gero, Mundaka'n baturiko orraziak banatzea, alkarrekiko afaria, dantza ta soiñu entzuteak, saguzarren kantu eresitsua, epotxen irra, Kukubitz lamiñaren itzaldia, arg'zagien asperenak, izara zuri-gorrien arteko lo gozoa...

Biaramonean, gosaldurik, Bermeo'rantza doaz neba-arrebak. Zelai goitik beera dator atzo gabeko emakume igerra be: plazara doa. Bidean topez egin dabe irurak. Eta emakumeak lamiña-adiskide biak gaua zelan emon daben lamiñakaz, jakin gura dau. Berak ba-dau artu-emonan aran ortakoakaz; ez dabe sekula aurkakorik izan, alkarri lagundu barriz nainoiz egin dautsoe.

—Zuk orduan jakingo dozuz emakumetxo bildurti orreïn kontuak —diñotsa Txomintxok, ezkerretik bidez doiala.

—Bai, ta ez gitxi. Emen ba-dira mundakarrak eta bermeotarrak, izaki biotz-bera orreik etxe inguruetatik aldendutearren, gurutzea, kutuna, gabonaria ta olakoak erabilten dabezanak.

—Zer da gabonaria? Nik iñoiz entzun dautsat amari olako zerbait —Txomintxok andreari.

—Gabon Kristoren jaiotz bezpera da, baiña guk Bizkaian Natibitate egunari be Gabon-eguna esan oi dautsagu. Gabon-aria, bada, egun ortan goizaldean iruten dan aria izan oi da, edo esaten yako, «gabon-aria». Lenago, umeak, gazteak naiz zaarrak askotan ibiltan ziran Natibitate goizean goiz-goizetik irun eta irun, gero gabonarizko atorra naiz alkondarea soñean eroateko.

—Bakana! —Itziartxok.

—Oraindik geiago. Neuk be iñoiz entzun neutson neure amamari, sukaldeko laratz ondoan kontu-kontari ebilkigula nunbait, zuok izan zarien lekuko lamiñen alkar-izketa au.

—Zein?

—Zuok ez dakit ikusi ete dozuen: aran orrek aldapa gogorra dauka gaiñekaldean. Bein ortxe ingurutik zear ei joian gizon bat, illundu samarrean. Or landa ta itxaso bitartean zubi bat dago ta onen azpian Arrosape deritxan errekatxo, ur asko ez daroana. Lamiñak, Lamiaran'goak jakiña, errekatxo ortan eta itxas-egalean orraztuten ei ebezan euren ule-txorta ederrak. Gizon a andik igarotean be, an ei egozan batzuk euren orrazketa egiten, eta gizon a urretik joiala ikusirik, uluka ta oiuz itz oneik esan ei eutsozan batek goi-aldeko lagun bati:

—A, Lamiaran'goa!

—Zer gura dona, Arrosapekoa? —erantzun ei eutson bekoak, intzirika.

—Or doan orreri bota eiona lakirioa.

—Zelan botako yaotsanat lakirioa? «Gabon-ariz» egiña yarioana soiñekoa.

Bermeo, mariñel uri

Tapa-tapa ta kontu-kontari, bidea oso labur egin yake: Bermeo'n dagoz. Emen Lamiaran ondoan bizi dan emakume lamin-zaleak esan dautse-nez, portua, eleizak, atalaia, umezaingoa, arresiak, alderdi zaarra ta uria-
ren biotz-biotzean Ertzilla ospetsuaren jauregia ikusiko dabez. Ongille ari agur egiñda, nun zer eder asi dira billaka.

Sarreran bertan etxe dotoreak ditu Bermeok, ezker eta bekoz bekoz berezik. Bultzi-geltokitik eskumatara kaia daukazu, ontzi ugariz, kolorez-

ko ta garbiakaz betea: ontzi konponketan diardue batzuk. Ontzidi ikaragarria dauka Bermeok. Ontziak eta kai ezkerretik dagoan zumardiko baratzak ikusiaz igartzeke joan yake aldia: amabiak dira.

Aurrerago egiñik, emakume aldrea sareak atonduten: itz-ontzi uts dira langille oneik, gaur beintzat ba-dabe zer-esana ta maratilla lez darabillez miin-puntak, momentu baten be atsedan artu barik. Autu bitartean, baiña, lanari zoli lotuak dagoz; sare konponketa euren arloa dabe ta ortan dabil-tzalarik ez dira egundo nekatzen. Neba-arrebak gitarrea lepoan eta kolo-rezko jantzi ñabarrez ikusiaz, areitarik ausartenak antza, bota dautse bai:

—Gazteak, gitarra ta guzti, e? Jo eiskuzue zerbait. Musika zale gozue.

Erregua, agindu izan bear leuke. Txomintxorentzat olan da. Ta gitarra eskuraturik, asi yake jo ta jo. Lau euskal abesti jo dautsiez, politik politenak: «Matxalen Busturiko», «Arrantzaliak baru ausita», «Donostia'ko iru damatxo» ta «Iragan pesta biaramonian», Itziartxok eta sare-konpon-tzailleak ederto lagundurik.

Arrituta dagoz, neska-mutillen trebetasuna miretsiaz. Txomintxok bizkor jotan dau ta Itziartxok abots leun-zolia dauko. Azkenez, bigarren batek onela dirautse:

—Nundik norakoak zarie zuok, eresi-zaliok?

—Berriztarrak gaituzu. Egunokaz, alan be, Mari Burrika lamiñak bialduta, orrazi eskean gabiltz, gitarra jo ta kanta.

—Ba-dot nik Mari Burrika'ren entzutea. Eta ak bialduta zabiltze orrazitan...?

—Orrela da. Lamiñak, dakizuenez, beti orrazketan diarduenak dira, ta jakiña, orrazi asko bear dabez. Ulertzen dozue, ezta? Orixegaitik bota ginduzan ak orrazi eskean. Or zuen auzoko Lamiaran'en emon dogu gaba. Zelako lamiña sendia daukazu berton! EUNETIK gora dira: onak eta ederrak danak.

—Guk ez, baiña gure asabak, gure gurasoen gurasoak artu-emonean ei egozan orreikaz. Gaur ez dogu olakorik siñistu nai. Alan be, egia, gaur egunean oindiño ba-dira andratxu batzuk ixilleko ar-emona daukienak...


—Zergaitik ez euki? —Txomin'ek artez.

—Okerrak dirala diño ta...

—Sorgiñak, bai; lamiñak ez, oster. Lamiñak onak dira, gizakumai beti on egiñez bizi diranak. Guk egunokaz asko ikusi doguz, eta okerrik ez dogu bat bera be idoro.

—Orrazitan, asko batu dozue?

—Naikoa. Or-emen egin ditugu batzeak, eta polito. Emen be artuko geunkez, bermeotarren orraziak naitaez bitxiak izango dira-ta. Bermeota-



Bermeo, arrantzale erri, gizaseme errimez jori

roko ospe aundikoak zarie; esku zabalak zariela entzun dogu or bazterretan. Baiña berbaz ez, erakutsi egin bear da esku-zabaltasuna. Ez al dozue orain, berton, orrazirik.

—Orain ez —darantzue danak batera—; guk ez dogu, lamiñen antzera, alperrik aldia emoten; guk egunero agora zer eroan irabazi bear dogu geure esku-lanez. Lenen bizi ta gero apain ibilli. Orain beste lamiña batzuk daukaguz: gure neskatiak, lanik egiteke, beti apainketan ibilli oi dira. Dana dala, noizarte zabiltze emen?

—Illuntzerarte.

—Orduan, etorri arratsaldean lauretatik aurrera ta gu emen izango gara geure lanaren ardatzean. Bazkal ostean ekarriko dautzueguz nai beste orrazi.

—Ederto! Arrastian, lauretako emen gara gu be. Orrazi asko ekarri gero! Andi, txiki ta politak...!

— Bai, gazteak, asko ta dizditsuak!

— Agur, gero arte!

Atalaia

Erri guztiak dabez, euskal errian bereziki, euren arnasa ta izakera bereziak. Baita bermeotarrak be. Txit langille dozuz, arrantzale baitik bat: itxas-kresalak moldatuak dira azalez eta barruz. Gizonak ez ezik, andrazkoak be langilleak dira, ta biotz onekoak. Albo errietakoak, bekaitzez edo esan oi dabenez, zatatsiak, «xoro» samarrak bear bada. Baiña biotz onekoak. Guztiz edertuak bizi dira azken urteotan. Txiro ta beartsurik ez dago emen. Jaiak jai egiten ba-dakie.

Emakumezkoak eder dabe goralpena, ta Bermeo'koak merezi ditue gure txaloak: ezagunak dira oso, arrain saltzen, etxean, eleizan, bultzian. Senarrak itxasoan diralarik, eurak eratzen dabez etxeko gorabera guztiak; arrain-salduketak, naiz errian naiz erriatik kanpo, euren oituzko ardura ta zeregiña izan oi dira. Bermeotar gizasemeak, arrantzale beti, illabete luzeak itxas-lanean aitu arren, areik ba-dakie euren arazoak ondo joango dirala. Ortik sortu oi da geienez lanerako poza.

Andra langilleak euren arloan itxi ta Txomintxo, Itziar'egaz, arrantzaleen Kofradi etxe ondotik eta Santa Eufemi eleiza ostetik zear, gora ta beerrako mailla labankorretatik, gorantza doaz, eskumatik itxasoa dabela. Etxe barriz beterik dagoz alderdi oneik be. Bizi-naia! Lengo zaarrak bota ta barriak eregiten. Ederra nunbait Bermeo, arrizko mailla-buru onetatik begirata. Azpian portua, zabal ta dizditsu, barriztau ta luzatu nairik; bestekal-detik, mendi ertz bedartsuak, eta etxe-sail ikusgarriak.

Goian dagoz, zelai zabalean, jarlekuz ta jolastoki bedartsuz orniduan. Kantauri eder, begipean; Soillube begirale, atzetik; ederraren ederrez bete-betea dana. Uri eder!

Istori aundikoa da Bermeo. Bermeotarrak ditugu Kantauri itxasoko arrantzalerik trebe, bizkor eta ausartenak. Antxiñako urteetan be eurok etxeratu euskuen izenik bikañena, bakaillao ta baletan Islandi, Groenlandi ta Terranoba'raño joan-etorri askotxo egiñaz. Gaur be, bi milla ta bostu-netik gora dabiltz Bermeo'ko semeak itxasoetan barna; batzuk bajurako arrantzuan, antxoa ta atunetan, Kantauri ta Afrika'n lan dagie; beste batzuk, urrago, Matxitzako inguruko kaletan besigua ta amu-lebatza artu oi dabe. Gaur egunean, geien bat, emetik bizi dira Bermeo'ko 17.500 biztanleak.

Zaartxoak jarlekuetan autu bizian. Zer darabille? Batzuen ondora urreratu dira Txomin eta Itziar; gaztetxuok ikusi arren, ez dira areik bape artegatu: eurenear daragoioe.

— Ni an nintzan eta ba-dakit zer diñodan —bota dautsa zaartxo batek besteari—. Geroztik be sarri izan doguz «galarrenak», baiña ontziai ipiñitako izenak bakarrik. Ordukoa izan zan benetako «galarena».

— Bai, egun latzik latzena. Zori txar ikaragarria, 1912'garren urtekoa, Bermeo ta inguruetak itxas-errientzat. Ni txo nintzan oindioño, baiña ondo gogotan daukat: eunetik gora iruntsi euskuzan itxasoak egun baltz-baltz aretan.

— Orduan ez geunkan euki be gaur lako aurrerapenik. Eta, naitaez, gorriak ikusi bear alako itxasaldietan.

— Gorriak ikusi ez-eze, eriotzea bera be bai!

— Gizonak naiz itxasoak, bardin jarraitzen dogu orain be. Gaurko bizitzea, orraitioño, ez da bardintsu. Danok gara aberatsak orain; arrainketa be lengo aldean errez egiten da: irratia daukagu gaur, «radar»-a, ta gizarte-seguruak. Gaur bizi leiteke itxasotik. Orain, bai, bizi-gura geiago dogu bazterretan, arin aberastu, lenengoak izan. Alan be, obeto lan egiten da, ta askoz geiago irabazi.

— Ezkurra, joan be gero arin joaten.

— Bai, len baiño ariño, dakizunez; len etzan orren labankor, eta irabazten genduana alantxe zaindu be egin oi. Gaur, liorrean bizi ezker, laster doa irabazitakoa. Itxasoan dabilzala, ez, baiña errian arin doa dirua; zuriak dirala, lagunak, kotxeak, jolaslekuak, jan-edariak, alperkeriak ez dakarre gauza onik.

— Gu laster gara Aritzatzu'ko bidean, eta...

Emen amaitu dabe zaar biak. Aitatutako bide ori, antza, kanposantura-koa da. Txomintxok eta Itziar'ek, buruaz agurka, andik alde egin dabe. Zugatz gaiñean kardantxillo batek dabe. Itxasoa, barriz, torrenteru azpian, arkaitzak astintzen.

Ume-zaingoa

Zoro-etxeari erdi-bira egin ezker, ezker aldetik aurrez aurre daukagu Ume-zaingoa. Zer dogu beru? Bilbao'ko Udal-Aurrezki Kutxak emen daukan etxe onuragarria; umeentzat da, 1929'an jasotakoa. Umearen etxea deritxo, bai, alderdi eder onetan kokatua.

Erri askotan dagoz onako etxeak. Zertarako dira? Txomintxo ta Itziar'i bertoko lekaime-buruak emon dautsez milla zeaztasun. Bermeon bear-bearezko zan etxe au: gizonetxoak arrantzuan dabilzan bitartean, bermeotar emakumeak, aspaldiko urteetatik, etxean eta etxetik kanpo ainbat lan egin bear izaten dabe. Antxiñakoa da Bermeo'ko arrain-industria, eta gorde-arrain arazo ontan gizonak baiño lan geiago egin daroe andrak, edo emakumezkoak. Lan bitartean, nun gorde langille onein umetxoak? Ortarako sortuak ditugu ume-etxeok. Bilbao'ko Udal-Aurrezki Kutxa, bada, era-kunde txalogarria benetan!

Ama nagusiak barrura eroan dauz Txomin ta Itziar, oso maitekor. Etxe osoa erakutsita gero, urte bitik bosterañoakoak dagozan saloi zabalera zuzendu ditu. Emen dagoz umetxoak: talde bakotzak bere irakaslea dau. Alai ta irribarretsu, ementxe emoten dabez orduak eta orduak, goizeko bedertzetatik arratsaldeko seirak arte; ementxe bazkaltzen dabe, eta askaria artu. Eta azi-biderik aurreratuenakaz, berein gauza ikasi. Euskeraz dagie guztiak; gazte biak ikustean, euren burutxoak biratu dabez: umetan konturatu barik egin oi doguzan zirkiñak dozuez bear bada.

Adi-adi dagoz, arrituta lez, Txomintxo gitarra aundia dingilizka ikusiaz batez be. Zetarako ete dau jogaillu ori? Ama nagusiak zer-edo-zer jo dagiala diñotso, umetxoak poztu daitezana. Onela asten da beingo baten:

«Aldapeko sagarraren
adarraren puntan,
puntaren puntan
txori bat dagola kantari!
Txiru-li-ruli, txiru-li-ruli,
nok dantzatuko ete dau
kantutxu ori?»

Bermeoko umetxoen
miin txikien puntan,
puntaren puntan
txindorra dagola kantari!
Txiru-li-ruli, txiru-li-ruli,
nok ikasiko ete dau
soiñutxu ori?»

Amairantza, neska-mutiko txiki guztiak asi yakez kantari, txori sailla bai litzan,

Kale muturra okertuz beerantz datoz, San Juan portaleko arresi azpitik igaro ta Andra Mari eleizarantza, Aurrerago jarraitu ta Erzilla'ren torrecetxean aurkitzen dira: Alonso Erzilla (1533-94) jatorriz, «La Araukana» poma ederra, 37 kantutan idatzi ebana, emengoxea zan. Orma lodiak daukaz jauregi onek, metro ta erdi lodi, amalau luze ta amasei gorantza. Oraintsu barriztu ta museu biurtua.

Porturantz jatxirik, or Santa Eufemi eleiza, Bermeo'n lenengoa, arkaitz gaiñean jasota: barruz nasai, zabala. Bizkaiko Jaunak, eta Espaiñar erregeak, Gernika'n zin eginda gero, onaxe etorri oi ziran eleiza ontako altara nagusi aurrean an egindako ziña sendotzera.

Emen kai ertzean goizeko andrak. Poztu dira, eta benetan, neska-mutil eskaleak ikustean. Ainbat orrazi ekarri dautsez! Itziar'i ia osorik bete dautsoe ziskua. Txomintxok, eskerrak emon ondoren, diñotse jakin guraz:

— Emengo bazterrak zerbait arakatu doguz. Baiña iñok ez dausku esan ze jai ospatzen dozuen emen. Jakin nai geunke, beraz...

— Jai asko ospatzen doguz Bermeo'n —erantzun andratxo begi-bizi batek; —baiña niretzat ederrena, zegaitik esan ez?, garagarrillaren 22'an, Madalena egunez egiten doguda da. Zuok be izango dozue, urrean, erromeri orren albistea. Egun orretan, zin-eleizan mezea esan ostean, Udaletxekoak aurrenen doguzala, milla margozko ontzietan, Izaro ugartera goaz: ni neu urte bat utsik egin barik joan naz oraiñarte. Ikustaldi bat da, toki a bermeotarrena dala mundu guztiak jakin dagian. Ara eldutakoan, ango arkaitz eta erroitzetan: teilla bat jaurtzen da, txistulari-batzak Madalena abestiaren doiñua entzun-azoten dauan bitartean.

— Eta gero...?

— Orren ostean Elantxobe'ra doa lagun-talde guztia, zapi, ikurrin eta lora-txortaz apainduriko itxas-eraldea. Ara elduaz bat, Elantxobe'ko alka-teak Bermeo'koari emoten dautso agindu-makilla, bermeotarrak an dagozan bitarterako. Ondoren aureskua. Bazkaldutakoan, barriri danak Bermeo' rantza, Mundakarra, gizalegez eta bide batez agur egini. Bermeo'n emen-txe amaitzen da erromeria, bertoko eresbatzak Madalena'ren ereserkia joaz.

— Erromeri polita guztiz! —Txomintxok—; ba-goaz, eskerrik asko guztioi.

— Ondo joan, gaztetxoak!

XVII

GAZTELUGATXE

«Eguzkiaren urteieran uretatik urteten ei eben, eta beronen ondoan paretan ziren euren ule-irritzen ederra orrazten. Euxe zan euren betiko lana» (J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, II, 426 orr.).

Bide egaleko atsedena

Aize ozkirriz nagiak ateraten izadia. Erraiñu zuri-oriz eguzkia, jagi nairik, ur-ezponda urriñaren erdian. Laiño mataza gorrizkak sortu dira, ezarian baia-rian, ezker aldeko zeruan. Euskal esaerak au: «Goiz gorri, arrats euri». Olan izango ete? Guri ez dagokigu euririk, ezta tantarik be.

Bermeo'tik Bakio'rako errege-bidea, biur-gune askoduna, bare-bare daukagu, ez dabil jenterik, ez berebillik. Zugatzak dantzari ezker eskubi; itxas zabala agiri da, zidarrezko xafla gisa, ametz, gurbiz, giñarre ta eukalipitu artetik. Ixil doaz neska-mutillak alkarri eskutik oratuta. Olan laburrago egiten bide-arloa.

— Nekatu be egin gara-ta, ementxe jarriko pizkaten —Txomin'ek Itziar'i, itxas-gaiñeko bedar-une batean.

— Ederto! —Itziar'ek erantzun, apatz jarririk, azkenik ez dauan ur zabal-diari begira.

Itxasoa —pentsatzen dabe— orkesta jote izugarria dirudi. Zek artzen ete aren soiñu ereskitsua? Urtetako mendi, bedartza, larra ta pendizak.

Zeruak eta labarrak, olatu apartsuen turut zoliak, zelako aunditasunnez jazten! Sotilla, ziñez, Bermeo, baiña bakartade onetako ixilla, ur aundiaren begipean...

Uritik auzo, aitz ebagi onen txuntxurrean egoki, polito bereizten doguz emendik ur-egaleko biurgune ta makurrak, eta urriñean erdi-ikusten diran lur-beso ta itxas muiño urtenak. Ispillu leuna, zabal eskerga dogu aurrean edarazten yakun gezal-zelai ori, urdin, orlegia. Erakarpen biziz beragana-tzen gaitu, gururrezko laztan beroan. Kantauri, Kantauri eder! Euskaldu-non itxaso aundi, maite, ospetsu! Agur dagitzugu!

Euskal jogailluak

— Emen ederto gaiagozan, arreba!, ta abestu egin bear yonagu zer-bait —dirautso Txomin'ek Itziar'i, itxas-aurreko biotz-zauskadari eutsi eziñik.

— Ortan naiagok. Jo egik zer-edo-zer!

— Zer gura don?

— «Itxasoa laiño dago», esate baterako.

Ez bat ez bi, bertatiko baten asi la Txomin doiñua emoten. Eta biak ondoren, sentimentu utsetan:

«Itxasua laiño dago	Gure oroiz aita dago
Baiona'ko barraraiño,	laiñopian gabearaiño,
nik zu zaitut maitiango	nik zu zaitut maitiango
txoriak bere umiak baiño,	arraitxuak ura baiño».

Ixildu diranean, Itziar'ek jakintsu antzean:

— Gitarrea, jogaillu bikaiña, ezta?

— Gaur batez be. Gazte guztiak ez dozan gitarra zale?

— Orrela da. Jo batek eta besteak kanta... ederki asko.

— Ezin uka daikegu, gitarrea ez da tresna makala. Andereiñoak esan euskunez, aldien laiño artean galtzen da beronen edestia. Era askotakoak ezagutzen, gaiñera: txiki, aundi, zabal, makur, luzanga ta abar. Bere doiñu ta joteko tankera, orraitaiño, beti da gitxi gorabera bardintsua.

— Zer deritxak? Euskaldunon jo-gaillu ete yoagu?

— Baietz uste jonat; orrela esan yauskunan irakasleak: txistua, alboka, txirula, pandereta ta olakoak geure-geureak dirala. Arizko au be bardin. Gitarra joteko trebe ta gai izan bear dau batek: dakianak daki jo-gaillu au erabilten. Gitarra-jotzailleak, izan be, zolitasuna bear dau atzamarretan, belarri ona ta musika sena buruan.

Eder ta ikusgarri!

Gazte biak jolasean, eta denporak aurrera egiten. Bidez joan bearra daukie, orraitaiño. Euskal lur zatietatik auxa bat zorakor, Kantauri mutur auxa. Or agiri da Matxitxako, errime ta zut, arrantzalien zaindari, uretan oiñak eta burua goi, babes eskeinka. Mariñel eta itxastarrentzat dizdiz xirri-pa burrusta edatuaz. Illun-abarretik goiz-argirarte, atertu bage, bialtzen ditu bertoko argontzi indartsuak, ur-gaiñez dabilzantentzat poza dan erraiñu-izki bizia.

Zutundu dira neska-mutillak. Itziar'ek bere ziskua ta Txomin'ek bere gitarra arturik, bideari lotu yakoez. Ibili ta ibili, Matxitxako gaiñetik eta Burgo mendi azpitik, barriro agertu yake itxaso zabalaren edertasuna. Zela-ko ikuspegi!

Aurrerago egiñik, an beean daukie, eder ta ikusgarri, Gaztelugatxe, ur oztinez biratua. Ezker-eskuma, ur ta lur zabaltzen yaken aunditasunaren aurrean, erdi leloturik, barriro ezarri dira bide egalean aurkitu daben zurezko jarleku baten. Gezal-gaiña gurme loiz agiri da zeru-itxasoak besarkatzen diran unean. Kaio egalariak eder antza lur-giroa ta, mendi azpiko otadi ta bedartzetara datoz negar-ziñuka.

«Ekatzu neure orrazia»

Andra bat dator onuntz, otzarea ta igitaia eskuan.

— Zaartxoa dirudi, ta andratxu onek asko jakingo dau; emen jarteko esan bear dautsonat —Txomin'ek Itziar'i.

— Amama, jarri emen! —dirautso Itziar'ek urreratu yakiepeko.

Bikotea ikusiaz poztu egin dala esan leike; irribarrea loratu yako ezpan ertzean. Bien alboan ezarri da ondoren, otzarea beean eta igitaia jarleku gaiñean egokiturik.

— Andra, zu emengoa zara, ezta? —Txomintxok.

— Bai! Ia larogei urtean or San Pelaio ondoko etxean bizi naz.

— Zuk, beraz, emengo barriak ondo jakingo, ezta? Gu barri-billa, eusko lurra ezagutu naiean gabiltz, eta bide batez lamiñentzako orrazi eskean.

— Orrazi eske? Eta lamiñentzat?


— Berriztarrak gara gu, neba-arrebak. Ango lamiña batek bialduta orrazi eske goaz erririk erri.

— Beste iñoiz be ikusi dodaz emendik, zuon antzera lamiñentzat orrazi eskean.

— Bai? Zuk orduan lamiñ-ipuiñak eta, jakingo dozuz.

— Oba ez! Ez dautzue onetzaz ezer aitatu Bermeo'n?

— Zertaz?



Gaztelugatxe, aspaldiko erromeri-leku zoragarria

— Lamiñen orraziai buruz. Beti izan dira lamiñak eta sorgiñak; ez gure artean bakarrik, mundu osoan baiño. Nire erriko abadeak esan oi ebanez, fedean otzago ta sorginkeria ugariago. Orrelaxe dala, uka eziña dogu. Jainkoagan siñisterik ez dauanak beste zerbaitegan ipiñi bear naitaez, barruan berezkoa dogun utsunea betetako.

— Zer jazo zan Bermeo'n?

— Ara: lamiña bat sarri ikusten ei zan «Garatzondo» landako koba ondoan, Bermeo'n, San Mikel auzunean, urrezko orrazi bategaz orraztu ta orraztu. Bein, antxe bertan aitzuta itxi ei eban lamiñeak bere orrazia, ta andik igaro zan Intxus baserriko mutilla ta orrazia an ikusirik artu ta etxera eroan ei eban. Lamiñeak, biaramonean mutillaren etxera jorik, orrazia eskatu ei eutson, esanaz:

«Intxus'ko eratziye,
ekazu neure orraziye;
ezpabere kendukotzut
kortako bei nagosiye».

Aginduak bete

— Ez al dakizu emen inguruko besterik! —Itziar'ek tankez.

— Bai...! Ikusten dozue an beeko eleizatxo? San Juan'ena da. Bermeo'tik eta inguruetatik lagunarte aundia etorri oi da bertora bagillaren 24'an eta agustuaren 28'an batez be. Urte barruan pareko: estualdietan egiñiko eskintza ta promesak beteten ez dira gitxi oiñez be ona eltzen yakuzanak. Zoritzarrez, munduan danetik gagoz eta, ba-dira batzuk itz-emon eta gero jaten dabenak; oba da, ostera, ez eskeiñi, eskeiñi ondoren ez betetea baiño. Ba-dakizue, gaztetxuak!

— Guk ez dogu promesarik egin...

— Ez, baiña bada-ezpadan be... Dana dala, Bermeo'n uste dabe, iñor promesa edo agindu bat bete barik il ezkeru, garbitokian —guk purgatorioa esaten dogu— egoten dala olakoaren arimea, arik eta beste batek bete arteiño ak egindako promesa. Askotan agertu oi dira ildakoen arimak.

— Ori be bai? —Txomintxok arrituta.

— Bai. Eta agertzen yakonari esaten ei dauto: «Ba-daukozu zapirik?» —«Bai». —«Ekazu, ba, mesedez». Eta zapia arimeak ikututen dautsonean erre egiten ei da. Arimeak orduan esaten ei dauto: «Lagun eidazu, mesedez, Gaztelugatxe'ra neure bizian eindako promesa bat betetan». Joaten ei dira, ta San Mikel, Agerre, Arana ta beste auzuetako etxe batzuk argi-argi egoten ei dira Burgoa ingurutik; beste batzuk, ostera, illun-illun. Eta

arimak esaten ei dautso lagunari: «Ikusten dozuz an etxe batzuk argi-argi?» —«Bai». —«Ta beste batzuk illun-illun?» —«Bai». —«Ba, argi dagozan etxeetan errosarioa erreza dabe gaur; illun dagozanetan, ez».

— Zelako gauzak! —Itziar'ek.

— San Juan'en eleizatxcan, gaba izan arren, ateak zabalik egon oi dira beti. Ta arimea ta laguna, promesa bete ondoren, lengo lekura etorten dira; orduan arimeak esaten ei dautso lagunari: «Ekazu eskua». Eskua ez ei da bero egoten. Eta arimeak esaten ei dautso: «Orain ba-noa zerura, ta eskerrik asko zeuri».

— Bitxia benetan! —Txomintxok.

— Ba-dira, gazteak, onako beste kontakizun batzuk be; baiña naikoa dozue gaurko. Lamiñak onak dira. Aztuakaz bizi dira geien bat. Beti gizase-mei laguntzen, alan edo onan.

— Eskerrik asko, amama. Orain ara beera goaz, Gaztelugatxe ikusten.

— Ni sarri egon naz, Leku ederra dozue. Eraspen aundia dautso San Juan'i emen inguruko jenteak. Bere egun bietan, Burgoa mendiaren egal biak gora ta beera doazan eta datozen jentez beterik ikusten dira. Aurreko egunetik datoz asko; itxasoz be ainbat ontzi eldu oi dira, kolorez polito jantzita. Ikusgarria gero, andik eta emendik bertoratzen dan jentea aitz-mokor biak alkartzen dituan arrizko zubia zear, suge ñabar antzera, igoten ikustea!

— Errez igoteko eran daukagu?

— Bai; ez da gatxa arako bidea. Ermita, guztiz antxiñakoa, aitz-mukurraren gainean datza, baiña Juan Deunaren eleizatxoraiño daroan mailladi ederra dauka emengo aldetik. Andik ikusten dana, ura nare dagoanean batez be, ezin daiteke adierazo. Eleiza oso polita da barrutik: atsegin yake ara doazan guztiai. Esker-onezko arri landu ta gordegailuz orniduta dagoz ormak, itxasoko larri ta estualdietan lagun dabezalako Juan Bateatzailleari esker onez an esegi ta jarritakoak.

— Artutako mesedeak eskertutea, jakiña, beti eder! —Itziar'ek—. Amak orrela esaten dausku guri.

— Olaxe da. Bere egunean, esate baterako, meza entzun, eskerrak emon eta gaintxo atatik itxasoari begitu gozoa egin ostean, jentea bai pozik, zubiz jatsi ta urez bestekaldeko ondartzan, bedartzean eta gorako bide-egaletan zerbait artu ta indar-barriturik, ostera be etxera bidean!

— Antxiñakoa al da eleizea?

— Naikoa zaarra. Aspaldi baten gaztelua ei zan. Ori diño bere izenak be: «gaztelu-gaitz», igoteko zailla, gatxa dan gaztelua nunbait.

— Zenbat dakizun zuk, amama!

— Antza danez, ortxe euki ei eban, 1334'garren urtean, inguratuta Juan Nuñez Lara, Bizkaiko Jauna, Gaztela'ko errege zan Alfonso XI'garre-

nak, Bizkaiaz jabetu nai izan ebanean. Geroago —paper zaarretan agertzen da au be—, 1596'an, Drake itxas-lapurra agertzen da Bermeo'n amalau ontzigaz, Izaro'ko komentua erre, Gaztelugatxe'ra etorri ta, eleizea suntsitu ondoren, bertoko padarra arkaitzetik beera bota ebana.

Txipli-txapla

Gazte biak ondoren, amamari agur esan, ostatuan zerbait artu ta oraintsu zabaldutako ur-ertzerako bideari ekin dautsoe. Esetan dago itxasoa. Urrin, alan eta guzti be, laiño zee baltzizkak estaltzen ditu ertzak, eta ez da ondo ikusten.

— Giro ederra yonagu —Txomin'ek Itziar'i, goitik beera jatsitzean—; baiña ifar-aldeetik agiri dan laiño-bera a ezta zantzu ona. Gure baserritarrak igarle dira, ta goiza gorri azaldu yaku; orain arte eguraldi bikaiña yaroa-guna; gaberako, alan be...

— Guri eguraldi ona komeni yakuk, ba; etxuagu bear ez aizerik, ez euririk, bestelan galduak gaituk.

Txapar-une ta bedartzak, ezker-eskuma. Itxasoak azpian, eragin zolia, txipli-txapla diardu aitz-ortzak astintzen. Oldarrez olatua barrutik, eta ertzean zoztorra aurkitzean, zoztor ori eratsi opa dau eraso zakarrean. Aurrez ez dau iñor nai bekoki txordo. Baiña or lertzen dira ur dardartiaren ekiñak, gizaseme mukerraren alegin asko lez: gizaldietan jardunagaitik, zer egin dautso atxari? Zulotxo batzuk.

Ur-ertzean dira neska-mutillak. Bitsetan dana. Ur-ondotik gorantz datoz arri-musturak. Arnasa billa, bear bada. Ala urak, ekiñaren ekiñez, ia eze-reztu ete ditu? Bazter begiragarri! Gibel-arri erabillitakoz eder!

— Arreba!, ikus zelako mailladia! —Txomin'ek Itziar'i.

— Goazan bertotik! —Itziar'ek ari. Eta gorantza doaz.

— Zenbat mailla diran zenbatu bear yonadaz —Txomin'ek.

Eta konta ta konta, igonez. Arrizkoak dira geienak. Eta 365 zenbatu dauz Txomintxok, ez geiago, ez gitxiago. Eldu yakuz gaintxoraiño. Aize ozkirria; itxasoa illunduaz doa, lengo bake-narea galduaz. Ekaitza sortuko ete? Euri zaparadaren bat? Itxasoak arin ei daki aldatzen, bermeotarrak diñoenez. Oraintxe agertzen ei da betarte argi, ta laster, onik onenean, mustur baltz, itsusi.

Zabalik dago eleiza, Jon Bateatzailleari eskeiñitako txadon deuna. Ez da aundi, ez txiki; arkaitz gain onetarako ederra. Konta ezin-ala jente dator bertora, zaar eta gazte, andrazko ta gizonezko, euren aginduak, itz-emonak eta promesak betetan. Ormetatik dindil daukezan gomutagarriok lekuko, testigu. Amargarren gizalditik ospatu da berton Juan Bateatzaillearen jaia; bagillaren 24'an jaia, ta aguztuaren 28'an Sama-ebagitea.

Gogora emen Markos Ebangelariak diñuskun au: «Erodes, bere jaioteguna zala-ta, nagusi ta agintariakaz aparitan egoala, Erodiás'en alaba sartu zan apaltegian eta dantzán asi zan Erodes eta maitarren atsegin aunditan. Erodes'ek esan eutson neskatzari: —Eska eídazu nai dozuna, ta ník emongo dautzut, baita neure erreíñu erdia be. Andik urtenda, amari esan eutson neskatzak: —Zer eskatuko deútsot? Eta amak: —Joan Bateatzaillearen burua».

Berandu egin yake neba-arrebai bazterrak ikusten. Urteteko atera diraneko, illun daukie dana. Euria da naikoa sendo; orro bizian itxasoa azpiko aitz-sabelean; aizea sekulako txistuz doa ifarretik egorantz; zirimola dirudi.

Gazteentzat aterpea? Alboan daukie ermita-zaiñaren etxetxoa, arrotz eta olakoentzat gerturik. Ementxe egokituko dira atertu arte.

—Esan osterá be: baserritarrek ez ete ígarle? —Itziar'ek nebari.

— Onak, izan be! —Txomintxok erantzun.

Ez dau atertzen, eta berton gaba amotea erabagi dabe neska-mutillak. Eleizatik argizagi bi ekarri, bertoko lasto ta egur-pusketaz su apur bat eginaz, apari izkia atondu dabe sabel-zorriaren ozka-bearra zerbait arindurik. Lo pizkat egiteko be, naiko aukera da berton. Eroso-ezago dabiltz nunbait aurreko Aketxe'tik ona bitartean, ega ta ulu, zakar baiño zakarrago ari diran kaio ta beste itxas-egaztiak.

Lotara baiño len, ipuin-kontari ekin dautse neska-mutillak.

«Etxe aberats baten —asi zan Itziartxo—, lapurrak sartu ei ziran. Baiña ondo gordeta egozan ango aberastasunak. Eta lapurrak, txaututa, buruari atz egin ei eutsoen. Alan be, besterik ezta, oillar zar bat eurakaz eroan eben. Oillarra, lapurren beso artean estu-estu aurkitu zanean, errenkuraka asi ei zan, esanik: —A zer gauza ederra náoazuen...! Zetarako nozue ní? Oillanda gozo ta guria izan ba'nintz, zuon lapurketak irabazpena ba eutzuen, baiña ní lango oillar zar ta belaxkak ez dautzue noski urdaillik mardulduko. Gaiñera, nori kalterik egiten ete dautsot, onura ta mesede baiño? Gaberdian ta goiz aldera egin oi ditudan kukurruku galantakaz, aguro esnatu oi dira lo dagozanak...

«Ez augu ilgo ez —lapur batek erantzun—, ire mamin ederragaitik, ire kukurruku zit.lagaitik baiño. Ta aiztoa sama ondolik sartu eutsoen».

XVIII

BAKIO

«Batix'en goruetan izanda gabaz etozanak, ixi-ixa entzun eben Larrazabal'enian, eta erantzun eutsen eurak be. Gero onatzago, Larretagan'ian. Eta bardin erantzun be. Baiña urretxu entzun ebenian ixi-ixa, estuturik ariñari emon eutsen, ta arin-arin ga etxian sartu ta atia itxiagaz batera jo eutsen sutagar etorrenak, bertan itxirik amar atzamarren markia. Urkitza-aurrekua da etxe au» (J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, II, 472 orr.).

Goizaldean

Bart illuntzean sekulako euri-jasa, erauntsi ta truízua zan. Eguraldia be, gizon kaskarren antzera, bere kasket-artaziak berotzen: gaur, ígarri bage; motz jarten ba'yaku, biar ortze zuria baizen ditzikor dagerkigu.

Gaur goizean, izan be, eguzkiak barriro, egun-urratze zoragarri ostean, berandutu barik jalgi-azo dauz bere erraiñu ameskorrak. Txomin ta Itziar beetik gorantza datoz zidor-bidez, ta polito galdatu dautsez bizkarrak.

Gaiñeko bitxabalera elduaz bat, Burgoa'ra begira dagoan jatetxe atariak alboan daukon parrapean gelditu dira, aldatz gora nekatu yaken gorputzari atsedén apur bat eskeiñi nairik. «Kas» bana eskatu ta edan dabe. Berebillak dabiltz ara ta ona, Bermeo'tik Bakio'ra ta alderantziz: asko turistak dira, itxura danez. Inguruan, ari guztitariko lorak, dingilizka ta orma kareztuan lauazka aiendu bearrez.

Zintzurak busti ta ezkotu ala, sedazko xingola edo zinta berdea jarri dautso Txomin'ek bere gitarratxoari, eta zintatik lotuta kolore askoko lora-txorta. Panpoxa dirudi. Itziar'ek, oster, an beean, arkaitz-gaiñean izan daben gauaroa ta lo gozoa dakaz gogotara. Pozik dago, gaba ederki emon dauala-ta. Aize-txistua ta euri-zirimola ta, baiña zer-jana ta zegaz berotu barruan: gitxien uste danean idoro oi da aterpe egokia. Jon Deunaren babes somatzen: ez ebiltzan alperrik iñoren agintza ta promesak betetan.

Edana ordaindu, jagi ta bidez-bide asi dira goiz-giro ederraren gozoa ausnartuz. Or, ezkerretik, San Pelaio baseliza; txikia, baiña polita. Amabigarren gizaldikoa da, entzutea danez, erromatarren egikerakoa: onelako gitxi dira Bizkaian, eta orixegaitik yaku au interesgarriagoa. Leenagoko gizaldietan eurrez joian jentea erromes Gaztelugatxe'ra; azpi barreneko itxas ertzera orduko, bear eben alakoak atsedean pizkat eta orretarako izan zan batez be eleizatxo au, baita gero emen inguruko baserritar kristauai erreztasuna emoteko be. Leku dotorean datza, muiño egalean tinko. Oraintsu oraindik, Bizkaiko Aldunetxeak barriztatu eban 1958'an, eta gaur guztiz txairo daukagu.

Bakio'rantz doaz gazte biak. Eskumatara daukie Kantauri, urdin ta bakte-tsu, atzo gabeko nastea gorabera. Esakun onek ba-dau mamiña: «Ekaitz osten, barealdi». Ikusten ez diran arren, bekoz beko daukiez Armintza ta Lemonitz mendi ta larrez beteak; ezkerretik Jata ta Soillube ta beerago Mungia, atzean Burgoa ta Bermeo geratzen diralarik. Leku zabala lez atse-gingarria, etxe zuri ta solo landuz gaiñezka. Ondartzarantza batez be, etxe barriak, zut eta goizale. Bizi-naiaren kemenak dardar-azorik oro.

Bakio

Euskal erriak ba-ditu —ez, ezin daikegu uka— bazter argi ta amesez beteak. Naita be, ezin ditugu olakoak bear leukien bestean margoztu ta adierazo: biotz zauskada ta eder-ertzik bada guk, ikusi ta ederretsi arren, lumaz azaldu ezin daikeguzanak. Orreitakoa dogu Bakio, ederrenetatik ederrena. Bazter au, itxaso ta lur, zoragarria dana, besterik ez lako zirkillu bete okitua. Lekuok izan dira iñoiz, zoritxar aundiz sendi ta anai arteko burruka ta istillu gordiñen antzeztoki; gaur bake-esnetan agiri yaku, jainko baten magalpe ba'lego lez. Bego beti orrela anai-burruka ta arrotz-kutsu bagarik.

Eguzki guritan jatsirik doaz. «Beerago ta errimeago begitantzen yakez inguruak. Adi-adi doa Itziar, ikusten dauanaz erditutulu, gergel, antxul: baratza dirudi milla eratako lora ta frutu-igaliz betea. Giro samurra da emen urte guztian, eta danetik dator emokor, maats, sagar, madari, laranja, limoi, okaran, urretx, kerexa, iko..., zer ez? Itxas ur, opa izan geinken girorik atsegiñena, birako mendimuiñoak magal gozoan esitzen dauala. Lur-zati lilluragarria, ziñez!

Lurretik eta uretik bizi izan dira —eta bizi dira gaur be— bakiotarrak. Ez dago berton arrantzale askorik; bai, oster, itxas-gizonak: konta ezin-ala dira Ameriketara joan-etorria osotu dabenak. Lenago arima asko ez ebazan arren, gaur Bakio'k, udaldian batez be, amabost millatik gora artuko dauskuz.

Or-emenka jauregi batzuk agiri dira, antxiñakoak nunbait, euren arma-riakaz: Ormatza, Elexpuru, Udaletxea... Baita eleizak be: Andra Mari erriko nagusi ta ondartz ertzeko Karmen'go Amarena; Zumetzaga'ko Mikel deunarena, XIII'garren mendekoa; erromeri aundia ospatu oi da bere egunez, ots, iraillaren 29'an.

Txakoliña

Bideari ekiñik, ertzetik arrikadatxo batera lez dagoan euskal etxe jaiki bat Itziartxo'ri ederra iruditutako benetan.

— Ori baserri lerdena! —diño oartzaka.

— Orrela don! —Txomin'ek jardetsi—; or berton, kerizpetan dagon aguretxo orri zerbait itandu bear yautsanagu. Goazen!

Eta ezpelezko esi artetik doan bidexka zear gizontxoagana urreratu dira. Euskaldun zaar askoren antzera gogapen sakonetan murgildua egoan nunbait; gazte biak beraganatzen ikustean beintzat, arpegia bizitasun bereziz gorritzatu yakola esan daiteke. Txindor batek dabes ur-urrean.

— Eguerdi on, aitaita! —dirautso Txomin'ek, ezkillak beeko eleizan amabiak ots egifia dituta.

— Baita zuoi be! —erantzun ak—; gitarra ta zisku, lirain jantziak, lanerako griña barik, ezta?

— Ez, ba, geure lanean gabiltz.

— Bai, bota, bota! Lanerako zagoze zuok!

— Egia, jauna; gu lanean gabiltz. Orrazi-eskean, naizta ogeigarrenez esan bear. Oiz'ko lamiña batek bialdu gaitu orrazi billa.


—Lamiñak, lamiñak! Zeuek zarie zuok naiko lamiña, dakarzuezan tresna ta jantzitxirikorda orreikaz.

—Gu baiña liraiñagoak dituzu lamiñak, guk ikusitakoak beintzat.

—Ezta arrigarri! Beti orraztu ta orraztu euren ule-adats borobillak... Ezelango lanik egiteke...

—Inguru ontan be ba ete olakorik?

—Leenago esaten ebenez, or gorago Jata ta Soillube aldean bizi ei ziran euren artzuloetan, eta emen ondartzako atxetara etorten ei ziran, eguz-



Bakio, leen txakoliñez ospetsu, ta gaur udatiarrak malte

kia artuz, euren kopeka mataza aundiak orraztu ta liraintzen. Orain, ostera, beste itxura bateko lamiñak agertu yakuz ondartzetan, eta areik, lengoak, lamiñak, toki ezkuagoetara alde egin dauskue.

—Gaur, orduan, emen ez da lamiñarik ezagutzen?

—Bakio'n berton ez. Baiña or Bakio'tik Armintza'ra bitartean, orain-tsu bide barria edegi daben itxas ondoko troka barrenean, ikusten ei dira oindiño be.

—Eta zuk, zer bear daukazu emen? Itauna ez da samurra, baiña guk ba-dogu orren jakin-gurea: sudur-luze gaituzu nunbait. Etxalde onek guztiz arduratsu erabillia emoten dau. Ainbeste zugatz-mota, klase, ta maats-parra ain ederrak... Txakoliñik egiten al dozu?

—Egingo ez dot ba! Asko ein be!

—Maats ona daukazu aurtan?

—Egundokorik onena! Itxura ederra dakar, eta pare bat illabete on samarrak egiten ba'daustaz, litro askotxo artzeko asmua dot.

—Beste urteetan, zenbat litro lez?

—Iñoiz artu dodaz amabost millaraíño be.

—Zer egiten dozu txakolin orregaz?

—Lenengo botelletan ipiñi, ta gero saldu. Etxean be guk txakoliña edaten dogu. Baiña, orrez gaiñera, asko saldu bear izaten dot.

—Emen ala kanpoan?

—Izen aundikoa da Bakio'ko txakoliña, ta udan batez be —gaur ne-guan bardin— bertora etorten yataz billa.

—Ortik bizi al zara?

—Txakoliñak emoten dau. Baiña ba-dodaz emen, ikusten dozunez, beste frutu-zugatz askotxo be. Guztiokaz bizi izateko aiña atera oi dot.

—Noiz asten zara maatsa batzen?

—Urrillaren erdirantza. Beste bat edo bik lagunduta, laster batzen dogu guztia. Ondoran, dolara ta abar. Niretzat, umetatik nabil lan onetan eta, lan atsegiña da.

—Bakio'ko txakoliñak, esan dozunez, entzute aundia dau Bizkai osoan. Guk Berriz-en be edaten dogu.

—Berrizkoak al zarie?

—Bai!

—Lenago dantzariak ziran an, dantzari erneak!

—Kantu bat, aitaia!

—Oba ez!

Eta «Txakolin, txakolin, txakoliñak on egin...» abesten dautse.

—Gazteok, etorri barrura —diñotse azkenez baserritarrak; bazkal-
tzeko ordua da-ta, neuk emongo dautzuet dagonetik. Andra on, maratz,
garbia daukat, eta guztiontzat izango dau zerbait.

—Seme-alabarik?

—Bai, baiña kanpotik dira; batzuk ezkondata, beste batzuk Ameri-
ketan. Orain urte bi dirala, bakarrik bizi gara neure emaztea ta biok, ur-
ertzeko baserri ontan.

Etxakoandreak entzun arein autua, ta agurtzera datorkie, irri-barretsu.

—Aurrera! —diño—; sukalde au danona da. Jaunak ez ete diñosku
arrotzak ondo artu bear doguzala? Naiz arrotz naiz etxeko, danok anai-
arreba!

Onegaz, lenengo itaun eta txerak egin ondoren be, etxekoandreak bere
lanari diardutso, bazkari lanari ain zuzen. Etxeko jaunak, bitartean, bere
dolara, igazko txakolin bonbilla ta gaiñerakoak erakutsi dautsez ardura
gozotan.

—Maira, kutunok! —dei laster etxekoandreak.

Eta irurak, alkarren leian artu dabez mai inguruko jarlekuak. Lau
jatontzi bakotxetik launa dagoz mai gaiñean, erreskadan jarrita, gazte biak
be andra-gizon zartxoan etxeko bai litzan. Aitaitak duinkiro onetsi dau
maia, ta ondoren etxekoandreak, ezpan irribarretsu, atera dauan zopatik
artu dau aurrena.

—Atera zuok be, nai beste —diñotse gero neska-mutillai, adeitsu, xalia
eskeiñiaz.

Orrela dagie, Txomin'ek lenen ta Itziartxok gero. Ondoren, gazteak
egundo jan ez daben bedar-jaki berezia dakartse. Zer dan itandurik, Bakio'
ko menestra bedegarra dala diñotse. Bedarkizko zuku au errazuri edo es-
parragoz egiñikoa da, orio ta berakatzetan egosita. Gozoa guztiz! Usaiñak
erakarrita edo, katu zaartxo bat agertu yake atean; baiña laster, ugazabaren
kiñua oartzuz, utsez-eperdi joan da bertatik.

—Emen, dakusgunez, errazuri edo prantses-porruak artzen dozuez, ez-
ta? —jalgi dautse zaar bai Txomintxok.

—Bai, ta ez gitxi. Txakoliña ta prantses-porrua (esparragoa) aspaldikoak
dira itxas-egal onetan. Jata mendiak zainduta bear bada, ba-dira emen baz-
ter batzuk txit onak bedarki ori artzeko. Ortuarien artean dalako au izen
aundikoa dozue Euskalerri osoan; orain berrogetamar urte, esaterako, Ba-
kio'ko baserri guztietan artzen ebezan esparragoak, eta Bilbao'ko plazan
saltzen ziran batez be; gaur-egun ez da ainbeste artzen, eta ao-gozoko abe-
ratsak etorri oi dira erosten; baita urietako jatetxe txukunetakoak be. Zeo-
zer ba-dabe, beraz, emengo ortuari oneik.

—Errez artzen dira?

—Bai. Ez dauko txokorreri aundirik. Alik eta egokien lurra gertatu
ta azillean landatzen da txorkoa, ta negua lo emonik, udabarri asikera er-
neten da, garatu ta garagarrillaren erdirantzta ekarte amaituz.

—Zer da txorkoa?

—Lurra txorkotu esaten dautsagu emen ereiteko zoloak egiteari. Txor-
koa, ba, azia ereiteko naiz kipulak sartzeko egiten dan potxoa, zuloa da.

—Txorko bakotxak zenbat buru lez dakaz?

—Berrogei bat batez beste. Batutako buruak uretan sartu bear dira
ta kerizpetan euki, egun bi edo irura jan edo saldurik.

Ondoren lanpernak, pertzebeak ekarri ditu etxekoandreak maira. Eta
Ilari'k —au bai da senarraren izena,

—Oneik be —diño— bertoko batzai dira, or Aketxe, Gaztelugatxe ta
onuntzako aitz arteetan artzen diranak. Ba-dabe, egia esateko, aomena Ba-
kio'ko lanpernak; arkaitz arte orreitakoak, izan be, gustu ederrekoak do-
zuez. Jan eta ikus. Kare-ariak ezarten dautse gustu ona, gozotasun fiña.
Ezaguna da beste onako bat be, «makala» esaten yakona; klase au arbel
artekoa da, baltza ta mea, ez da ain gozoa.

—Zelan arrapatzen da?

—Beetik gora azten da lanpernea, eta azpiak kendu ezkerro, ez dator
geiago: zugatzari erroak ebagi ezkerro, ez daukazue kimurik. Bardin one-
gaz be. Arrantzale onak, ba, gaiñaldekoak atera oi dabez «pertzebeki» de-
ritxon lima punta makur bategaz. Urpeko arrantzaleak, eutsi ta legor, azpi-
koak be erauzten dabez tamal aundiz. Oneik, gaiñera, ez dira ain onak:
lanperna onak eguzkia artu bear dau.

—Noiz artzen dira?

—Udabarritik udagoienara bitartean. Neguan ernabarritu ta kumak bo-
taten dabez. Itxas-beera danean, arrantzale asko joan oi dira orretan. Bermeo
ta Matxixako'tik asita Bakio ondartzara bitartean makiña bat olako ikus-
ten da aldikada batzuetan: bitarte orreitako atxak ondo arakatuak izaten
dira; txanel, batel ta txalupa txikiz beterik agertzen yakuz inguruak, eta
bakotxak pillo galantak etxeratzen ditu.

Gazte biak aurrean daukiez lanpernak, baiña ez dakie zelan jaten di-
ran. Txomintxok Ilario'ri:

—Zelan jatekoak dira eurok?

—A, bai, egia! Ez dautzuet esan... Onela: Bakio'n beintzat, atzama-
rrakaz, ogiaz eta txakoliñaz lagunduta. Txortetan egoten dira, ta txorta
orreik, askatu aurretik, ur irakiñera botaten dira, gatza ondo emonda; bor-
bor egiten astean, bigarrenez irakiten asi orduko, sutatik atera ta zabaldu
egin bear dituzue. Ez al dagoz oso gozoak?

—Olaxe!

—Au sarri izan oi da gure janari.

Arraiña dakar etxekoandre maratzak. Eta azkenez, azpil zabal bat bete laranja ipiñi dautse maiko zamau gaiñean.

—Laranja oneik be Bakio'koak al dira? —bota dautso Txomintxok aititeri, irri maltzurrez.

—Baita! Limoi ta laranja askotxo artzen da Bakio'n. Urte barru guztian emoten dabe limoi-zugatzak; laranjak be ia urte guztian eukiko doguz arbolan, eta gozoen dagozanean, ots, urrengo lorea datorrenean batzen doguz, edo-ta jan bear doguzanean. Zugatzetik arakoak lakorik ez dogu eza gutzen. Ur gozo dituzu agoan.

—Danetatik daukazue, beraz, bazter zoragarri onetan.

—Danetatik, edo beñik-bein, gauza ederrik asko bai. Esker txarreko gintzatekez, ezer ez daukagula-ta, alaka ba'genbiltzaz. Larre-baso, mendi-solo ta itxas-egal aberats, lau, eguzkitsu baten jabe gara bakiotarrok. Bizkaia ba-ditu toki ederrak, eta eder orreitatik bat auxe dozue bikain, pertxenta.

Ikusi ta ikusi

Arratsaldean, Ilari'k lagunduta, Bakio'ko zokondo danak ikusi ta ikusi ibilli dira gure gazteak. Konturatu barik joan yakez orduak. Pozik gabiltzanean, aldia labur. Itxas-egaleko aitz-gaiñean ezarrita, aitaitak ainbat ipuin eta kondaira zati edestu dautsez. Itziartxo'ren begiak bai zabal antxiñako gauzak aditzean!

Gaba baserrian emon dauskue, apari aurretik eta ostean zaar bien ezpanetatik zenbait lamia kontakizun be entzunik.

XIX

G O R L I T Z

«A, neska!

Nun don nire orraska?»

(*Eusko-Folklore*, 1926, 4 orr.).

Bide barritik

Aspaldi danik, lau ta erdiak inguruan, eguna txirrist egiten asia da. Izadi osoa ereserki ta dei-ots goiztarrez itxartu nairik daukagu. Txoriak bira guztiaz etenbako txinta ozenean diardue, Mikel Deunaren ezkil-torrean aremaitakoa entzunik batez be.

Gorri-zuri agiri da itxas ertza. Sute eskerga zan egun-antz gorria zatitu egin da izpi-txatal pitiñetan; mendi-kateen aldapetan eta ibar-zulo urriñetan dabil dantzari. Goiz-zabaltze sorgin baten ederra dozu, izakien begi aurrean gara osora doan egunaren gurentasuna. Zerua ta lurra jai-soiñekoz jazten...

Zazpirak dira. Ondo lo egin eta obeto gosaldue ondoren, ba-doaz gure gazteak Gorlitz'erako bidean, tapa-tapa, alkarrri eskutik oratuta. Bide arlo luzea da nunbait egin bear dabena; baiña eguraldi ederra da, ta euren ustez polito egingo dabe.

Beeko bide-gurutzean, eskumatik, Armintza'rako bide barririk artu dabe. Atzera begitu ezkerre, birako lurralde apaiña oso-osoan agiri yake begiñean. Euskalerrriak, istori zear, izan dauz bere astiñaldiak, eta ez gorabera gitxi: etxez, erriz, bidez aldatua izan da sarri, baiña bazterretan daukazan

edertasun joriak, itxaso ta lur, izadiak —Jainkoak, guenez— emon izan eutsozanetik ona, bere-bereak izan dauz eta bere-bere lez zaindu ta jagon daukuz.

—Begira zelako troka, munduan batekoa —diño Itziartxok, eskumarrantza begiak zorrotzurik.

—Olantxe don —Txomintxok erantzun—; itxasoaren dizdiza ta lurra-
ren berdetasuna!

—Alaia yatak bazter onetako ixilla!

—Zoragarria!

Azpian daukie mendi-bitarte orlegi, sakon, begiragarria, zugatzxo, ler, ote, giñarre loratu ta txapar osto okerrez beterik. Doazan bide barriak ba-ditu gorabera ta oker-uneak, baiña len iñok ezagutzen ez ebazan toki liluragarriak agertu yakuz berau ebagi ebenetik. Berrogetamar bat milla urte ei dira, jakitunak diñoskuenez, emen gizakiak, euskaldunak ziurrik asko, bizi zirala, eta orduen be gaur lez eratuak izango ziran bazter oneik: laua ta mendia alkar eiota: azala gorri naiz arre, azpia arbel eta karatxez, ibai, zugatz eta errekarroz... eder jantziak. Bee ortan Kantauri, ekaitz-oiuen oiar-tzuna mendez mende edatu ta adierazorik. Aldioro, euskalunen maitagarri... Bai orixe!

—Emen ez da baserririk ikusten —Itziar'ek, samur asko.

—Muiño orren ostean bat —Txomintxok ari.

Ur-egaletik urrun samar dago egon be bat, zelai-une beratzean eguzkita begira, gain-gorri ta bekoki alai, zugatzez esitua. Usoa pago-adar geldian. Ardi batzuk nabari dira beeratxoago; baita iru auntz be, sasi ondoan ausnar. Bero da-ta, iñor ez dakusgu lanean.

Bidez nekaturik, ondoko arrimokor zabal luzanga baten ezarri dira gazte biak. Itziartxok ez dau gogo aundirik aurrera jarraitzeko: eguzkiak zutut joten dau, ta bidea oraindik luzea izan. Aril bat eginda iraun dabe amar bat minutuan.

—Itziartxo, goazen aurrera —diñotsa Txomin'ek.

Itziar, alan be, muker, nagi, ez dau ibilli nai. Txomintxo ikaraz, bere arreba zuritu eziñik: goldaketan jarraitu nai ez dauan idiaren antzera, noski.

—Txomin! —diñotsa azkenik Itziartxok—; ez aize ozkirri, ez itzal gozo, dagoan bero-sapa onekin Armintza'ra orduko itoko gaituk. Oba dok, beraz, zuur ibiltea. Entzuik nire eritxia: emetik igaroz joiazak kotxe batzuk: zegaitik ez egin «autostop»? Orrela konturako orduko gagozak Armin-tza'n?...

—Erabagi ederra! —Txominek ari—. Urrengo datorren kotxeari adierazoko dautsagu zer opa dogun.

Jagi ta bide-ertzean egokitu dira, tente ta zuur. Uste bagarik geratu yake bat, eta barruan arturik, oso txeratsu eroan dauz Armintza ganeraño. Or beean etxe mordo, teillatu gorridun. Emen berton, eskumatik, itxas ondoan, langille batzuk dagoz zerbait artu bitartean, izketan. Amabi ta erdiak dira. Indar-ola, kizi-atomu ola egiten diardue langilleok. Batek agur egin dautse, eskuari eragiñaz.

Etxe-miñetan

Lemonitz eta Gorlitz'erako bide-gurutzean, areitz sendo bat dago. Onen suster tximurtu gaiñ ezarririk, Armintza'n erosi barri dabezan ogi-artekoa, sagar gordiñak artu ditue, bazkari legea egin dagien. Gorputza ibilliaz nekarazten, baita arimea be birloraz ta zauskadaz. Luze samar jan eta atsedena artu ondoren, Itziartxok Txomin'i:

—Ibilli ta ikusi, ainbat gauza bikaiñez okituak, ia aztu egin gaituk gurasoakaz.

—Orrelaxe don, arreba; au ez izan, baiña, legezko: seme-alabak ez dabez egundo gurasoak burutik itxi bear.

—Zer esan ete yoeek onezkero? Ainbat egunetan gure barri barik...

—Egia. Ni neu ez non oindiño nekatu bidez bide ibilliaz. Baiña barruko etxe-miña egunetik egunera aziagotuz doakidala iruditzen yatana. Biotz bat yonagu, ta biotz orrek ez yauskun parkatzen: sakonak sakonari lez, guri be zerbaitek estu sakatzen.

—Orixeko dok. Onezkero, alan be, laster gaituk etxean. Aste bi esan euskun lamiñak etā, oker ez ba'naiagok. bigarren astearen eguastena yoagu gaur. Ori yñok nire egutegiak.


—Obeto olan. Baiña, Itziartxo, orain asiko ete gozan geure miñak zenbatzen? Orañarte ez ete gaitun ondo be ondo ibilli toki guztietan? Eta orain...

—Ez, ez! Gogora ekarri bakar-bakarrik...

—Bedi! Egun oneitan ez yonagu aintzat artzeko ezbearrik izan, Jau-nari esker. Arnasoska be ez gaitun ibilli, ainbat leku zoragarri ikusi yitunagu, iñun be txarto ez gaituez artu...

Eta eskutxo biak alkaturik, Goikoari otoitz egin dautsoe, geratzen yaken bidean be lagun izan dakien. Txomintxok gero, Itziartxo poztutearren, gitarrea zorrotik atara ta «Guazen mendirik mendi» erri abesti ariña jo dau bizi-bizi. Gaiñeko areitz adarretan txoriak ego-dardara. Txantxangorri batek, zorabiatua, bere arrats-otoitzari daragoio eztarri leun.

Gazteak, beingoan, jagi ta bide-arloari lotuak doguz, begi-adi, belarri-zut. Lemonitz'eko gurutzean eskumatik artu dabe. Itziartxo be adoretu doa orain.



Gorlitz, ondartzabala eta aurtegiak entzute aundiko

Etxegain gorriak

Itziartxo, neskato ona da. Alaia, Eder-zalea. Itz-ontzi ez gitxitan. Inoiz euki oi ditu ixilaldiak be. Neba-arreba biok naikoa ondo alkar artu oi dabe, noizean bein eztabaida, garrasi ta txilio batzuk erabilli arren. Naikoa ondo ezagutzen dabe alkar. Eta bidea tapa-tapa egin dagian, Txominek, berak dakizan ipuiñetatik bat esan dagiola eskatu dautso.

—Ipuin bat, Itziar! —dirautso erreguka, bide arloa osotu ondoren.

—Pozik atan be! —Itziar'ek erantzun—; edu orretan ibilliaren nekea arinduko yoagu... ez dok alan?

Eta, beste bagarik, asi yakon konta-kontari: «Bein, sarri lez, markin ardratxu bat Eibar'era joan zan bere bendejea saltzen. Ortuari pilloa eroian zimeran, baita oillasko eder bat be bertan estalduta, ango azokan saltzeko asmuz. Azokaratuaz batera, andra aberats kopetadun bat urreratu yakon, zimeran eroian dana erosi nairik.

—Zegan salduko zeuskit or dakartzuna? —itandu eutsen bat-ba'ez.

Markin ardratxuak, gordeta ekarren oillaskoaz gomuta barik, ortuariaren saria eskatu eutsen. Andra kopetadunak eskatua ordaindu ta kitu. Saltzaillea gero gogoratu zan oillaskoa dubarik emon ebala. Baiña berandu zan: tratua tratua.

Andra andikiak bere kautan: «Ziri ederra sartu yaustanat markin memela orri». Baiña ikusiko eban nor zan memeleago.

Andik amabost egunera, ba-doa osteria be gure baserritarra bere zimera oparoaz. Klean azokarantz egina bat, or agertzen yako lengo eguneko andrea. Markin zoliaren zimera bete ikusia, au diñotsa:

—Neuk erosiko dautzut dana. Zenbatean damostazu?

—Ogetamar ogerlekotan —markinarrak ebagi.

—Emoidazu, arren. Ederto! Eskerrik asko!

Plastikozko zisku ta guzti emon eutsan. Oraingoan, alan be, ez joian an oillaskorik, ortuaria ta kalabaza zati batzuk baiña. Besterik ez. Joan zan etxera, pozik, emakume a. Edegi eban plastikozko ziskua; baiña aurragokoan lez irabazi ederra izango ebala uste ebana lau kanako sudurraz gelditu an, ortuari pizkat eta kukuma-atal galantak besterik ez eukala ikusia. Esan eban berekiko: «Len oillasko ederra jan naionan memela ari eskerrak, oraingoan berak sartu yaustana larakoa ederki».

Ez, ez barrerik egin inoiz be gure baserritarren lepotik.

Itziartxo ipuin kontalari ona da. Ikastolako anderiñoak erakutsita dakiz, ugari samar, euskaldunen kontakizunak, jator eta pentsagarriak. Arazo bikaina, beti be. Gure gazteai beintzat, esan ta entzun, ariña begitandu yake bide arloa.

Begi aurrean daukie Gorlitz, eta itxas-ertzerago Plentzi, euskal erri-txo bi, oso apaiñak, uda ta negu jentez betetan diranak. Teillatu gorri ta orma zirutan agiri dira etxeak.

Plentzi

Doazalarik aurrez aurre daukie eguzkia. Egin dauan jardunaz nekatua bide: ur gaiñean dau bere izpi-adats joria. Ezker-eskuma, baratz, ortu ta kale dizditsuak. Erditik doaz neska-mutillak, baiña ots-otsean bide-guru-tzea jarri yake aurrean. Norantz artu? Ezkerretik doaz Plentzi'rantza.

Itxas-bazter yaukala dozu Plentzi: itxas-gizon jator, bulartsuak bertoko semeetatik asko. Lengoak eta oraingoak itxasoa daroe barne-izatean jo-sirik. Kale luzeak dabez ezkerretik eta eskumatik; Butroi erreka ondoan dagoz erdi totel: suge ixilla dirudi onek. Beronen ertzez itzulua egiñik, on-dartzaruntz artu dabe.

Emen Plentzi, lur baiño itxaso geiago. Ain dotore ta zalu ikusiaz, txaloka asi yakuz bidariak. Erria gizonaren bizitoki; erria, ez gero toki ta gizatalde lez soilki, edesti-gertatze ta zerbaiten izatea lez baizen. Zer da gizartea? Errian onek aregaz dituan ar-emon eta jazoak: dana, izadia, toki ta ikuspegi. Erria, lurra eta gizonak dagien bizitz-barruti.

Emen Plentzi; ez dauko portu aundirik: ontzi aundientzat ez dau leku esatekorik. Gaur arrantzale erri lez ospe berezirik ez ba'dauko be, joan-dako gizaldietan entzute larriko gizasemeak izan zituanik ezin daikegu uka. Antxiñakoa da emengo Nautika eskola. Amabi-amairugarren mendeetan Bermeo ta Pentzi izan ziran Bizkaiko uririk arrantzaleenak; bertoko kaia etzan, alan be, egokia ta apurka Bilbao'k kendu eutson eukan nagusi-ospea.

—Iñoiz irakurri yoat nik —Itziar'ek bota dautso Txomin'i— Plentzi'k idatzi dauala, bere mariñel jenteaz, jakiña, itxas-poemarik aintzagarriena.

—Bai! Emengoxeak izan zonazan, gaiñera, munduari lenengoz bira emon eutsoenen artekoak be.

—Areik bai kementsu!

—Zerrenda bikaiña egin daikegu, aginpidez ta adorez aundi izan ziran emengo ontziburu ta kapitain izan ziranakaz. On eta jatorrak aurki! Orre-tan apartak izan doguz plentzitarak. Gorlitz, Barrika, Urdulitz, Gatika, Laukinitz, Lemonitz eta ingurukoai ezer kendu bagarik.

Kale barna ta ur-ertzez ibilki, kaira eldu dira gazteak. Bazter ederra au be! Zenbat ontzi txiki ta aundi berton, arraiñetarako ta jolaserako! Portu au ez da zabala, baiña bai polita; ez dau areatza aundirik be, etxez ta zugatzez esitua. Urdin-urdin daukazu ura, eguzkiaren azken-izpi ta errai-ñuz txipristindua.

—Orogaillu, monumentu bat emen —diño Itziar'ek, ez bat ez bi.

—Nori eregia ete da? —Txomintxok beretik.

Ondotik igaro dan andratxo bati itanduten dautsoe. Baiña ez daki no-rena dan. Arrigarri! Onako monumentuak errian eta nori eskeiñiak diran jakin ez! Tira, tira! Ar kultura, enetxuok! Alan be, beste zaartxo batek esan dautsienez, Marina Merkantekoai eskeiñitakoa da, uri ontako itxastar zan-garrai jasotakoa nunbait!

Gorlitz

Ertzez ertz aurrera egiñik, or len etorri diran bidea, Gorlitz'tik beera-koa. Milla margo ta kolorez aberastua. Benetako edertasuna damotse Gorlitz'i ingurumari daukazan Astondo, Ermu ta Kukullu mendiskak be. Ba-serriak, eze ta eder, solo-sagasti artean. Ezkerretik ondartza izugarria, ur-din ta zabal, ertzak olatu txaplatariz dituala: maskor-kuillu edo arrain-oskola dirudi, luzanga ta edatua. Billano muturra aurrerago, billois billoisik, eta izukor ekaitz aldietan.

—Emen Gaixotegi ospetsua —diño Itziar'ek—; emen egon zan Iturri-oste'ko neskatoa iru urtetan.

—Gogoratzen non —Txomin'ek—; baita ementxe osatu zonan Itxer-ko mutikoa be.

—Norena ete gomutagarri au?

Ondartza ta Gaixotegi tartean, lerden aurkitzen dan au, Enrike Areil-tza medikuari jasotakoa dozue, Bizkaiko Diputaziñoak eskatuta batez be, gaixo-etxe eder au eregi zedin ainbat lan burutu ebanari esker onez eskei-nia.

Iru edo lau etxe-mordo dira Gaixotetxea osotzen dabenak, iru pixu-koak, balkoi, egurats-toki, igarobide ta besteak itxasora begira dabezala. Guztia zuri ta gorri. Gaitz toki ederragorik eta etxe bikaiñagorik aurkitzea.

—Goazen barrura! —diño Itziartxok, ikus-miñak erreta.

Eta erdiko mailladitik gora dagie, aurreko hall edo atari zabalera igo-nik. Aizea firi-firi, ta aurreko ikurriña zabuka. Otoz-otoan moja batek ur-ten dautse bidera. Arritua lez lotu da, baita neska-mutillak be gaintxo aretan euren buruak ikusiaz.

—Zerbait nai al dozue, gazteak? —diñotse mojeak, «arrasti on» esa-naz bat.

—Zerbait edo... Auxe ikusi gura genduke —Txomintxok ari, erdi-berbartua—. Nire arreba Itziar ta biok erriz erri gabiltz orrazi-billa, ta emen be...

—Orrazi-billa zabiltzela?

—Bai, entzuten dozuna. Oiz'en galdu gintzazan San Kristobal egunean eta angó lamiñak bialdu ginduzan orrazi eske.

—Lamiñakaz artu-emoná izan dozuela?

—Askogaz izan be.

—Olakorik! Lamiñak ba-dirala iñoiz entzuna dot, neure ama zanak esanda; baiña ez neban uste gaur olakorik egoanik. Dana dala, zuek itxura onekoak dirudizue-ta, etor aurrera.

Gaixotetxea

Gisa onetan, adiskide uste osoko beingoan egiñik, etxeko logela, jantoki, gizategi, jolasleku, eskaratz, bebarru ta abar, bazter guztiak erakutsi dautsiez mojatxoak.

Umetxoetatik asko euren oetxoetan dagoz; batzuk arpegi nekatua darakuse, beste batzuk oian egonagaitik alai itxura daukie. Oneik ikasten diardue, areik barruko aterpean olgetan dabiltz; mordo batek aurreko ondartzan ginasia egiten daragoio, andereñoak zuzenduta. Txomin eta Itziar'ek areik be ikusi nai, ta mojatxoak ara artezten ditu txeratsu ta begirune aundiz: ura bee-bee dago, ta ondar gorri leuna: ementxe dabil neska-mutiko sailla soinketa ikasi iñarkun zaletan geienak. Banaka batzuk baita, ondarrean erdi-makurturik, mundu guztiko umeak lez, are artean etxeak, potxuak, zubiak eta makuak osotzen be. Osasungarri ziñez ondar gorriko kresala!

Gorlitz'i aldikada baten garrantzi aundia emon izan yakon. 1910'an, Luis Salazar buru zalarik, Bizkaiko Aldunetxeak asi ebazan bertoko lanak; alan be, urte batzuk igaro ziran lanak amaitu ta umetxoak artzen asi orduko: 1919'ko bagillaren 29'an, San Pedro egunean emon yakon asiera. Arrezkero, zenbat ume azi ta ezi dan berton! Jaiotzatiko zenbat oker ta gaixo zuzendu ta osatu yakezan, bertoko ardura ta aize-kresalez! Lareun ta berrogetamar oge daukiez, ta ogetaz osagillek, ogetamarrez mojak, amabost bat irakasle ta gaixo-zaiñek, eta ia euneraño laguntzaillek lan dagie berton.

—Gitarra ta guzti, gazteak? —diñotse osagille begi-alai ta arpegi-bizkor batek—; zatoze neugaz.

Ume pillo aundia dagoan etzangela batera eroan ditu biak, eta lau-bost eresi jo-erazo. «Binbilli, bonbolo sendal lo», «Aita San Migel», «Lora polita ontzian», «Eskabapoin dantzian» eta «Mikel, Mikel» jo dautsez. Umetxoan poza ta txalo-jo bearra kantu ta soiñuok entzutean! Itziartxok, osterá, bere aldetik oraingo lau abesti-barri oiukatu dauz. Ondoren danak aparitara, baita neska-mutillak be. Gabaz lo gozoa ta amesa...

XX

BUTROI

«Mari, beste numen guzien burutzat daukate... Durangoko ipui batek dionez, odei txuri bat bezela agertzen omen da sarri. Orobat diote Izpazterren ere» (*Euzko-Gogoá*, 1954, azilla-lotazilla, 199 orr.).

Gure baserria

Loaldi gozoak gorputza bizkortzen. Txomin ta Itziar, itxas-urruma ta aur-ames artean lo nasai egin ondorean, zazpiretan jagi, gosaldú ta moja, umetxo ta osagilleai agur esanik, bidean jarri dira. Ez dabe kezkarik; eguzki-erraiñu ta gau-iruntz artean, errekontotik zear Butroiko gaztelurantz doaz. Atzo mukerño ibilli zan Itziar be gaur bizi-bizi dabil. Zegaitik ez daki-gula, egun guztiak ez yakuz bardiñ: gaur dana ondotoxo atera arren, biar, ez izan zalantzik, ba'leiteke arantzaren batek biotza zulatzea. Onerako naiž gatxerako gertu egon bear.

Mutil txiki bat aurkitu dabe doazala. Ia nora doan itandurik, Urdu-litz'era erantzun dautse. Lau gai itxi ebazan dingilizka azkenengo azterketetan, ikastaroa amaitzerakoan, eta orain, jakiña, opor-aldia izan arren, ikasi egin bear. Zenbat obe sasoiz sasoiko gauzea! Mutil koskorrak, baiña, konturatzén ete? Eta neskatoak? Egunean eguneango ikasgaia ikasi, or ikas-agiri edo nota onak aterateko biderik errezena!

—Gu Butroi'ra goaz, gatzetxo —dirautsa Txomin'ek—; emendik zuzen al goaz?

—Bai, Jarraitu zuzen, eta laster daukazue —ak erantzun.

Bide egalean yaio basetxe zuri. Onen aurretik doaz naba-arrebak. Itziar'i, antza, oraindik oraintsu andereiñoak euskal baserriai buruz esana dator-
kio burura.

—Baiña, Itziar, ez da arrigarri: zuen andereiñoa urian jaioa izango da, ta uritarrak ez dau egundo be mendi-tartean bizi danak lango eder-
senik.

—Izan be, aurreko etxe ori baiño bikaiñagorik! Aurrekalde zabala, orma landuak, teillatu zapal gorrizka, erlaxak sakape dotorea moldaturik: ba-da-kik gure aititak zer esaten yauskun? Ortxe, sakape olakoetan illai lur emo-
ten eutsela antxiña baten.

—Ederra don gero baserri au! Emen, muiñotxo nasaian lerdan! Leio bi daukaz goian, eguzkitara begira; balkoi luzea orrean azpian; beerago beste iru leio ta erdiraiño balkoia. Began, atari zabala, uztaz egiña, ta leio txikiago bi alboetan.

—Eta ondoko labea?

—Ori be baserri guztietakoa yonagu. Ezker-eskoiko zugatzak, lorak eta enparauak oretua da euskal basetxeen nortasun gurena.

Or Butroi erreka. Orain ez daroa ur aundirik, baiña itxas-goran bete ta gonburu egiña euki oi dogu. Areitz, gaztaiña ta platanoak, bide ertzean landatuak, kerizpe atsegiña jarioka dagoz. Ortu ta solo egalean, or sagar-landara barriak, maats aienak, okaranak, mizpillak, kerexak, priskuak eta ikoak...

—Nik ez jakin askok zelan —Txomintxok arrebari—, baserria itxi ta urira iges dagian. Ain da atsegiña! Gure gurasoak beintzat pozik bizi ditun baserrian!

Gaztelua

Goizaro eztian ibilli ta ibilli, azkenez Gatika'rantz egiñik, bide erdian ezkerretik, idoro dabe opa ebena, Butroi'ko gaztelu ospe aundikoa. Zugazti itsu, kurubilkatua dauko ingurumari. Kanpoko atea, gaztelutik arri-
kada batera lez, itxirik dago. Gaztetxoak, baiña, zirrikitu batetik sartuaz, aurrera egin dauskue.

Kolorezko zugatz artean milla txori kantuan; loraen usaiñak gozotasuna dixuri barruti zabal ezkutuz betean. Bide-zidorrak ortik eta emetik. Ez da inor agiri, ez da giza-zantzurik. Aurreko aska zear doakigun ur-sugea ixillik dabil oso, bere zoriaren mende. Zenbat zugatz-mota! Areitz, pagondo, intxaur, magnoli, astigar, arte ta gaiñerakoak. Guztiak eder ta berde, joritasun oparotsuan!

So gaztelua, Ganzurritz mokor gaiñean, aspaldi bateko Butroi sendikoen torretxe gaiñean eregi ta kokatua. Ederra, ziñez! Atetik so-egiñik soilki liluratzen gaitu. Ain dozu txairo, lerdan, bitxi, gurena! Gaur daukagun au, lenagokoaren tokian bertan, joandako gizaldiaren azkenerantza, Torrezilla'ko markesa bere jatorrizko jabe zalarik, Kubas'ko markesak antolatu ta eregia dozu. Erromantiku garaian asmatu ta jasoa nunbait.

Lenago, amalau-amabostgarren gizldietan batez be, triskantza ikaragarriak sarri egin ebezan Bizkaian, eta Euskalerra osoan, Butroi sendikoak, Muxika'koakaz batuta bereziki. Juan Perez Butron izan zan itxura danez, Aiangiz etxekoa jatorriz, Butroi'n bere lenengo jauregia jaso ta bizi izan zana: emendik zabalduak dira gero ondorengo guztiak. Oiñaztar-ganboata-
rren istillu ta burruketan, bai batzuekaz bai bestetuekaz txandaka jokatu-
rik, gorriak ikusi ta jasan ebezan sarri Butroi ta Muxika etxeetakoak. En-
rike Espaiña'ko erregeak, 1456'an, alderdiok odol geiegi jarioten ebela-ta, Bizkai ta inguruetan egozan torretxe guztiak erasteko agindua emon eban.


Gaur be oso ikusgarri dogun gaztelu au, lenagoko torretxe aren zoru edo zotarrain gaiñean datza. Sei pixu, bizitz-oin daukaz, Nikomedes Egiluz eta Adolfo Areitzaga bilbotarrak, 1879'garrenean asi ta urtez urte pizkat, Urdultz'eko arriz nasai ederrago bir-egiña. Lau torre aundi ditu, biribillak kubo antzekoak; barruko baillak, ataritik gora, gaiñaldeko bizitzetara doan mailladi nausia, alboetan beste bi mailladi gora doazanak, biribillak oneik be; eskaratzeko gangak, laberak, erdiko torrean dagozan torretxoak...

Iparraldeko torre nausiak lau zati daukaz kaiñoienezko zulo bereziekin; au da: lau aizetara daukaz torreak, gaiñazpi ta ertzak eder-ederto landutakoekin. Ez dau inondik be euskal etxeen egiturakaz antzik ez tankerarik. Baiña irudimen biziaren askatasuna nabari da oparo, ezeren zoztor barik: antxiñakotik al zana zaindurik, antzetsu ta ganoraz birregiña dogu. Ba-dau ederrik saloi, sukalde, iztoki, logela, ganbara, kañoi-zirrikitu ta olakoetan. Pixu bakotxetik urtenda, egutera begira atan be, toki zoragarriak daukazala esatea, pellokeri bat esatea besterik ez da baitik bat. Eun eta berrogetamabost oiñeko goibea dau.

Gaur lamiñategi

Gazteluko atezaiñak betosko zimurtsua euki oi dau geienetan. Gure gaztea, alan be, barri guztiok emon ondoren, gizalegez edegi dautse bertako atea.

Eta ba-doaz, oni begitu ta bestea ikusi, atzera ta aurrera egiñez. Sarre-ratik laster, ezkerre, lorategi ikusgarria. Araxe aurreratzen dira biak. Eta zer dakuse? Zuriz bitxitutako lamiña taldea. Txomintxo ta Itziar ikusia-



Butrol, zugatz artean aspaldiko gaztelu bïpilla

rekin, ez ete dira urduri jarri? Baietz esan leiteke. Illuntzeko odei-ertzen gisa, gorrizka itzuli yakez beintzat matrail borobillak. Bat, euren artean nagusi dana ziurki, gazteakana zuzendu da erabagitsu. Irurak batera, lamiñak eta gazteak, txil egin dabe bidean urrats bardin.

— Eguerdi on! —diñotse jainkosa irudiko lamiñak.

— Baita zuri be! —gazteak erantzun. Alegiñak alegin dagiez, izuari amor ez egiteko; gurentasun arek bildurra bai dautsoe sartzen.

— Zek zakarrez ona?

— Entzun! Gu orrazi eske gabiltz, Oiz'ko lamiña Mari Burrika'k bialduta. Itxasaldetik ibilli gara Itziar nire arreba ta biok. Gorlitz'en lo egin dogu. Ta, gomutagarri lez bikaiña dogun gaztelu au, ezin itxi iñolaz be ikusi barik: onaiño elduak gaituzu, ba, Bizkaiko oroigailu eder au ikuskatu nairik.

— Mari Burrika, beraz, ezaguna dozue?

— Oba ez! Ekaitz egun batean berak babestu ginduzan. Atrezkero, aren lagun onak gaituzu.

— Zuen izenak?

— Ni Txomin nozu, ta au Itziar, neure arreba.

— Ederto! Ba-dot zuen barri. Araiñegun emen izan yakun Mari Burrika, eta arek iragarri euskun zuen etorrera. Orrazirik ba al dakazue?

— Pilloa! Ona emen ziskukadea!

Itziar'ek zisku osoa eskura emoten dautso. Arek artu ta, poztasunari eutsi eziñez, besteakana doa arin-aringa. Arein gora ta burrunbada! Ez dabe bakerik izan ziskua edegi ta orraziak banandu arte. Arein ikus-naia! Abian janari-zain dagozan txori kumak lez luzatu dabez euren idun eder samarrak, danak batera ikusi ta artu naiean. Ba-dakie, jakin be, pozari berea emoten.

— Zatoze ona, gazteak! —diñotse azkenez lamiña amak, Txomintxo ta Itziar'engana zuzenduaz.

Eskutik eldu ta ara daroez: pozak ez dau izurik ezarten. Neskatz lirain arein alaitasun! Erdikide egin nai dabez gazte biak be euren barne-poz etenbakoan. Zenbat itaun, guztiak batera! Nungoan diran! Zetan dabilizan! Euren artekorik iñor ezagutzen daben! Nun asi ziran Mari Burrika'kin artu-emonean! Argitako emakumak nun zer barri zale ta itz-ontzi baldin ba'dira, illunpetako oneik ez ditugu gitxiago, Butroi gazteluko oneik edola be!

Azkenez, eguzkia ezkerrentza asi dala-ta, bazkaltzera daroez gazteak be eurakin batera. Gaztelu gaiñeko ibai zubia igaro, atarian obo aundia osotu osiñaren biran eta erdiko mailladiz mailladi gorakoa artu dabe danak; goian be, ezker-eskumako gela, areto, batzar-toki ta inguruetan barbaro itzala nabaritzen da. Ez dagoz bakarrik, ez!

Laugarren etxe-mailla edo pisuan, jantoki zabal ederra; orma ta egalak, paper more-gorritz orniduta ikusgarriro; argi dizdizariak eurrez txin-txilika; oma-zirrikuetan egazti buru sotillak irribarrez, eztanda egin zorian; urrezko errezelak leio ta ateburuetan; eundaka jarleku, etzan-aulki, zizailu ta zapalak, oro zidar ta urre margozko —Maiak erdian ugari azpil, pitxer edontzi, aizto, sarde, lauortz, zali ta koillaraz beteak; zamau zuldartsuak azpiko, ta txindor-buztan itxurako irudidun esku-zapi gorritzak, bakotxa-rentzat berea.

Bazkal-orduz

Gazte biak, aldia emon, areto ederreko bazterrak miresten diarduen bitartean, txilin-ots zolia izan da: mairako deia. Or datoz pilloka zuri-uridin, gorri-more, larrosa kolorez jantzitako eundaka andere papin, panpox, lerden, zardai. Ireltxu taldea be, areto zokondoetan, gertu dago bazkalda-rrai jatekoa zerbidutzeko. Bazkaltzen asi baiño len, iñun diran ikoti, irra ta artaziak egin dabez: gora ta beera, soiñak, gerri mee segaillak batez be, lurrerantza naiz sapairantza trebe erabilli dabez. Ariketa au amaitu dabe-nean, bakotxak autetsi dau jarlekua, maiaren inguruan.

Lagun ezezagunen artean egonda be, pozik aurkitzen dira Txomin ta Itziar. Arek eta onek, samurki, maiaren ertz bakotxetik, buru-makur-zantzu ta begi-klisk gozoak, adierazgarriak, bidaltzen dautsez, eurokin artu-emo-nean asi-naia erakutsirik, Txomin'ek, jaten asikeran, atzekaldeko maitxo gaiñean itxi dau bere gitarrea: ari begiratzen dautsoe askok, ikusmira bi-zian. Ez al dakie zer dan? Oneik ez ete dabe, Gabaro'koak lez, gitarrarik jotzen? Geroak esango.

Bazkariari asiera emonik, ireltxuak ekarri-ala jaten dabe guztiak; baita gazte biak be, ezertariko eragozketa ta jausigarri barik: ederto ase dabe bidearen ekiñak sorturiko gosea. Bedarki mingots eta arrain orizkatik ekin dautsoe lenengo, ta ikopasa antzeko igali-oretik gero; gantzagia azkenerako. Jangartzu ziranak sabel-bete polita burutu dabe. Bazkari aillagiñakoa, bai orixe!

Kriskitin kraskitin

Jatordua amaitutakoan, barriro asi dira danak dantzari, kriskitinka. Begi-txatxu, mamin-jario bat urreratu yako Txomintxo'ri, bazkal-bitarte guztian adi-adi egon yakona nunbait, gitarrea eskatuaz: berak ba ei daki jotzen. Pozik itxi dautso Txomintxok. Eta azal-bete arek, zelako soiñuak atera dautsozan gaztearen jogaillu bitxiari!

Aurrena bakar-pareko jo dau, kantari besteak lau-bost aapaldi; azkena errepika lez, ikusle-entzuleak amaitzen lagunduta. Dantzarako erdiratu yaku ondoren, begi-musker, adats-aundi bat ditziratsu, beste asko be, ogeiraiño, banan-banan atzetik dakazala: taldeka ta bakarka abestu dabez zenbait kanta, Txomintxo'ren gitarra soiñura. Ez eben uste gazteak orren txeratsu artua izango zanik euren jogaillu txairoa.

Nagusiak ustekabea geldiaz dau dantzea, musikearekin. Eta guztiak, gazte biai buru-makurtze biguna egiñik, euren arazoetara joan dira. Girgil'ek jarraian, au bait da lamiña amaren izena, gazteluko bazter guztiak era-kutsi dautsez Txomin'i ta Itziar'i: goian ainbat logela, saloi, soiñak apain-tzeko leku bereziak, egontokiak, dantza-salak, begira uneak... Gaiñetik, zelako ikuspegi nasai, ederrak edatzen diran lau alderdietara; Gatika ta inguruak begiaren mende daukiez, aurreko zugatz-gaiñez eta zeru urdin azpitik.

Girgil'en jantzia! Zuri-gorritzka, larrosa edegia dirudi; orkatilletaraiño eltzen yako, zimur askodun tolesturetan; ibilkeran, krisk-krask, krisk-krask egiten dautso. Begi-alai ta ezpanak irri-barre loratan, barru oneko neskatxa da, dirudienez.

Esker ona eder dalako, agur egitean, Itziartxo'ri ziskua gozo, bitxi, janariz bete dautso, orrazien ordaintzat. Kanpoko atariraiño lagundu dautse, gizatasun aundiz. Azkenik bostekoa alkarri emon eta zoriona opa izanik, banandu dira irurak. Eskumako bidea artu dabe gazteak: lamiña ama sotilla, oindiño be, ezkerreko atzamar txikiz agurka daukie, lora zurizkaz beteriko baratz-ertza okertzean.

Illuntze leuna

Laukinitz albora itxi ta ba-doaz bidaztiak Urdulitz erditik barrena: an goian agiri da Santa Marina arkaitz gaiñeko eleizatxo: ikuspegi zabal na-saiak doguz andik, itxasalderantz begira batez be: jai ederra ospatzen da bere egunez. Orain gandu, laiño zuri-arrez dago, beera bidean dabilkigun eguzkiaren izpi dirditsuz koroatua.

Aurkez aurke Sopelana, eleiz-torre zuta gaillen daualarik. Txomintxok eta Itziar'ek, bide erdirantza, eskumakoa artzen dabe artadi baten ondolik: orrela egiteko esan dautse Girgil lamiñeak.

An aurrean agertzen yake Plentzi ta Barrika'tik datorren bide zabala. Ara jo bear dabe gazteak. Zearka bide dagie, zelai, landa ta estartetan bar-na; etxeak or-emen solo-bizkar gaiñetxoetan. Euskal etxeak beti eder, baiña autortu bear da: itxasaldean iñun baiño zoragarriago dituzu oneik. Maita-garriak bolizko eskuz jarriak edo. Euskaldun baserri, munduan bateko! Gora zu beti!

Bitxabalaren aldameneari, eleizatxo polit, Ander Deunari eskeinitakoa: Meñakotz. Oraintsu barriztatua. Illa dan egiazko apaiz batek bere gogo-arnasa guztia ortan ipiñi ebala, esan dautse bide ertzeko gizaseme zaartxo bik. Oso da polita, barru ta kanpo. Uztai-koroan Ander Deunaren gurutzea daroa: emendik artu ei ebazan abandotarrak gure ikurriña osotzeko irudi ta margoak.

Txomin'ek bere txapela ta Itziar'ek bere kapela erantzirik, otoitz beroa igorri dabe zerurantz, Euskalerriak dituan premiñaz Jainkoa errukitu dedin. Eta aurrera barriro be, sarkalderantz; bee-beean dabil eguzki aita, azken-agurra bota ondoren itxas altzoan murgildu naian: laster itzuliko dauskuz gorri-gorri ur-zabaldiaren bazterrak oro. Baita illuna be laster biurtuko itxas labearen jaun eta jabe.

Otz samar dator aizea ezkerreko piñaditik; ezker eta aurrez aur, Sopelana ta Larrabastera, txit apain eta dotore; asago Getxo ta Algorta, Berango ta Neguri'gaz, begipean dituala. Arrats-giro eder! Illuntze zoragarri! Egazean, txio-txioz, kalasantza, kaio ta gabai batzuk. Ur dago itxasoa; bantzuez aren amaibako zalapartak, atzeko atxakin ler-bear gorrian.

— Goazen ona —dirautso Txomin'ek Itziar'i, eskuiko piñadian «camping» bat ikusiaz.

— Nai dokan lez —Itziar'ek erantzun—; eu az zuzendari.

Eta beste barik arakoa artzen.

Gaske samalda dago atsedentartzen, erriak beiñola osoturiko zelai onetan. Talde alaia da agiri danez; Txomin ta Itziar gitarra ta guzti ikusi ordukoxe, deiez asi yakez, eurakana joan daitezala esanaz. Ara doaz ausarditsu; apaltzen diardue amabi gaztek, neska ta mutil. Adiña? Amabi-amairu urtekoak danak. Sutarik arako zukua, ke-lurrunetan aterata daukie bakotxak bere plateretan. Txomin'i ta Itziar'i be eskeini dautse eurenetik. Ukatu, bear bada? Bai zera! Eguerdian ederki janak izanda be, bideak antza gosea sortzen... Beraz, areikin egokitu dira zerbait artzeko gogoz.

Zukutik ekin dautsoe lenengo. Gero, arrautz-opilla sartaiñean pilpilka: sarde ta olakorik ez da bear mendian, etxetik kanpora dana bai da garbi ta gozo. Azkenez, laranja, platanu ta antzekoakaz egiñikako naste zilimala, onki bezela. A!, ta akeita! Ta txola, koñak bizia! Ta txokorra, ez Abana'ko txokor aundirik, baiña bai gatzetxoen tabakorri leuna! Areik bai erretzaille asi-barriak! Zelako tirakadak! Sarkutzak austeko lakoak!

Ondoren, nor ariñago, ondartzara jo dabe, Txomintxo ta Itziar be eura-kaz eroanik: aspalditik ezagunak bai litzan, beingoan egin dira guztiak adis-kide kutun. Luze samar ondar bustian jolasturik, euren etzanguetara biurtu dira, bakotxak bere putzeko lo-zakuetan gauaro ederra igaroaz.

X X I

G E T X O

«Orain ba al da lamiñarik? Madalen berriztararak arako «beti etxerik etxe ta beti orrazi-billa ibiltzen zirean» esan zidanean, «ez al dira orain ibiltzen? Zegaitik ez orain?» galde egin nion. Eta berak: «ona emen, jauna, zer yazo dan. Aita santuari arek kentzeko zerbait eskatu eutsen. Asentsioletañak emon ebazan Aita santuak, eta arrezkero ezta bat azaltzen» (R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, 26 orr.).

Millazka (tamarindu) artetik

Gosaltzeko guriña ta esnea euki dabe itxas-ertzeko zelaian lo gozoa egin daben neska-mutillak. Eta ogia, bezperakoa. Ondartzara joan dira bertatik, bernak eta soin-zanak bizkor.

Larrabastera'ko baiñutegia ez da antxiñakoa. Basa-ondartza deitzen dautsoe askok; baiña leen ba'zan be, gaur ez da; gaur ondo zaindurik eta aukera guztiakaz daukagu, eta jai-egunez atan be, laguntza ikaragarriak bertaratzen dira.

Bazter arrigarritzko onetan ba-dira edesti-aurreko gizonaren aztarreak: Lumentxa'n eta Santimamiñe'n lez, emen be bizi izan ziran agiri danez, antxiña bateko euskaldun arpe-zaleak. Ur-egalak, lior barruak baiño atsegiñago yakezan arei, dakigunez. Larrabastera'ko atxak izan be ikustekoak

dituzu: arri-arte bakotzeko meatz-adarrak kolore berezia dabe. Basa-ondartza deritxoan arren, iker-zale danak ba-dau emen, ur-azpiko arri-mustur zorrotzez gaiñ, zer ikusia ta zer ikasia.

Txomintxok eta Itziartxok, talde begiko ari agur esanik, itxasondotik gora artu dabe, oraintsu jasotako uda-etxe mordoaz ezker itxiaz. Ibilteko aski erreza dan bide-zidorrak daroaz aurrera; ez dabe galtzerik. Ibilki, masparra ta igali-zugatz asko daurkiez, ezker-eskuma jagiten yakezan millazka tarterik ur-zabaldi urdiña ber-betan dakuselarik. Goian, eguzkia galdatzen asia; aurretik, ez urrin be, Getxo, Berango, Algorta, Neguri, Ondarreta, Santurtze, Portugalete, Sestao, Barakaldo...

Oartu bage, konturatu barik eldu dira gazteak Galea muturrera. Ba-dau onek entzuterik! Izan be, esan eziñeko ikuskarria daukagu aurrean. Somorrostro ta Kastro'raiñoiko guztia begiak daukie ikuspegi barruan. Gaztelu, babestoki zan au antxiñatean. Ementxe nabari dira oindiño be lurpe estuak, igarobide mearrak, kañoi-leku landuak, luban ausartak, arerioai arpegi emoteko itxas-aurrean ipiñita. Izlapur ta korsari dongai gogor egin al izateko ziran oneik.

— Egarri nok! —Itziar'ek Txomin'i.

— Baita neu be! —Txomin'ek jardoki.

Edari-etxe bat berton. Eta ara doaz gazteak, eztarriak bastitzen. Beti lez «kas» bana artzen. Leio-zulotik begiratuz, ementxe daukie ezkerretik antxiñako itxas-argia be, 1782'an ipiñitakoa.

Edestiak, bakotxari berea emon nai izan ezkerre, asko esan daikegu Getxo'ri buruz; lenago, 1858 aurretik, adibidez, zelai, larre ta solo genduzan orain etxez beterik daukaguzan leku guztiok; len, lugiñaren laiak lan egian solo-ortuetan, artzaiñak ardiak zaindu, arrantzaleak itxasoratu goizean goiztik. Inguru guzti au, oso ederra munduan ederrik ba'da, aitatutako urte orretatik andikien bizileku biurturik dago.

Erri lez be, usuario ta ekanduz, lege zarrez, bizi ziran areitakoa dogu Getxo, udaletxez eta eleizaz oso samar ornidua. Beronen ikurdi edo armariak ba-dau esan-gurarik. Koroï bat dakar gaiñean, eta zugatz bat azpikaldean, igaroz doan azeri batekin. Lau mendel-ertzetan idazkun au dirakurgu, euskeraz «Kaltea dakanak bizarra lepoan». Jakin dagigun: gu baiño geiago ziran antxiñako areik!

Aizerrota

Itxas-egaletik onuntz datozela, Itziar'ek Txomin'i:

— Ez dok iñoiz entzun aizerrota bat dala emen?

— Bai; igaz emendik ibilli ziran berriztar talde batek ikusi ei eban. Orrela esan yeustanan Arizpe'ko Bitor'ek. Zaarra ta ikustekoa ei da.

ospetsua. Emen ingurutik, egia esan, jente ugari dabil; bestelan bakar sa-Orrelaxe berbaz doazala, begi aurrean jarri yake Getxo'ko aizerrota mar daukazu. Gaur, tamalez, ez dautsegu jaramon larregi egin oi antxiñako gauza ta oroigarriai. Tamalez diñot barriro be! Kanpo-errietan eder-zaleak ditugu, ba!

— Aitak askotan autortu yauskuk —Itziar'ek barriz be—, gauzak zenbat eta zaarrago ta lotsa geiago merezi dabela.

— Gaur, osteraz, zaarren esanai eta egiñai jaramon gitxi egiten.

— Gu ez gaitun, aurrerantzean batez be, orreïn artekoak izango.

— Arduratsu gaitez.

— Asi eugandik, Txomin.

Izenak berak dirausku errota au zelakoa dan: aizezkoa. Noiztikoa danik ez dakigu. Iturritza'k, Berrizko seme kondairagilleak, bost urezko ta aizezko bi aitatzen ditu. Aizezkoetatik bata auxa izango da ziur asko. Bizkaian ba-dira geiago be: Sopelana'n bat, «Arnabar», Izpazter'ekoa, Artxanda'n ei dago beste bat, eta Abadiño'koa. Leenago, alan be, asko egozan ormen: 630'raiño, Iturritza'k idazten dauskunez.

Sorgiña ta ikaslea

Itziartxo nekepean jausi da barriro be, ta bedartzan jarri yaku, itxasorra begira. Au ase-aldia! Lerdena ziñez Bilbo'raiño luzatzen dan itxas-muturra! Abra deritxon ibaiz andik, Serante mendia, laiñoen adiskide, Santurtze, Portugalete ta Sestao zaintzen, esan daikegu. Ontziak ara ta ona ur zabal urdiñean. Itxas-egaztiak negar-ziñuka... Ereaga, Arrigunaga ta Azkorri udatiarrez beterik.


So ta so, zati bateko betealdi ederra egin ondoren, Itziartxok, ibilteko gogo barik oindiño be, ipuin liburutxoa, Butroi'n Girgil lamiñak emondakoa ain zuzen, ziskutik atera ta irakurten asi da.

— Irakur biontzat —Txomin'ek erreku.

— Eta pozik...

Ipuin au irakurriz, lendik be, etxeko larazpean adi adi bere amari iñoiz entzuna nunbait, Txomintxo'ren jakin-irrikari ase emoten dautso neskatoak.

«Bein —diño— etxe batean, sorgiñak egozala, gauez zaratak entzuten zirala, ta olakoak, esaten ebezan, Arako etxea iñor biziten azartzen etzana genduan. Egun baten, alan be, ikasle edo estudiante bik, alkar aitu ta etxe atara joanik, gaba bertantxe emotea erabagi eben. Araturik, ba, eskaratzean egozan, bata loak artuta ta bestea liburua irakurten. Alako baten agertu zan sorgin bat tximini-puntan, eta esan eutson itxarrik egoan ikasleari: «—Jausiko nok ala ez?» Eta estudianteak erantzun: «—Jausi adi gura ba'dok, eta gura ez ba dok, ez».



Getxo, aberatsen bizileku, gomutagarri bizitan ugari

Orduan bere anka bat tximiniatik beera jaurti eban. Barriro be esan eutsan: «—Jausiko nok ala ez?» «—Jausi adi gura ba'dok, eta gura ez ba'dok, ez» —erantzun eutsan mutillak. Orduan sorgiñak beste ankea jaurti eban. Irugarrenez be itandu eutsan sorgiñak: «—Jausiko nok ala ez?» Ikasleak bardin erantzun eutsan.

Sorgiñak onelan gorputz guztia zatika jaurti eban. Dana jausi zanean, barriro zatiak batu, ta bere gorputza eratu eban. Eta esan eutson estudianteari: «Jarraituko daustak ala ez?» «—Gura ba'dok, bai; ta gura ez ba'dok, ez» —erantzun eutsan. «—Artik ba atxur bat —sorgiñak ari— eta jaurti egik». Artu eban ikasleak atxurra, ta sorgiñak orduan kortara eroan eban ikaslea. Eta an, berak esan eutson lekuan, atxurraz zuloa egiteko agindu. Egin eban, ba, estudianteak zuloa. Eta urre-pillo bat topau eban bertantxe».

Erbia garitzan

— Polita egiaz! —Txomintxok arrebari—; irakur eidan beste bat be.

— Entzun, belarri-zur!

«Garitzea beti da arrisku aundikoa erbi batentzat —jalgi eban erbi zaarxoak—; eta bearrak beartuta ezik, ez dakit nik zetarako sartu olako matzetan.

— Garitzea —erbi gazteak jardetsi—, ederra dirudi, zingira lau aizeitsu! Zoragarria! Orixe diñotsut! Arras loretan apaindua. Gaur goizean, plaust!, danak batera ler-azi bai litzan! Ara noa!

— Baiña, zegaitik? —zaarrak erostaka.

— Otu yatalako! —gaztearen jardetsia.

Erbi gaixoak ez dabe arriskurik ikusten. Iñun bere ez! Argalak dira, baiña sendo agertu gura. Maiñati, burukoi doguz, eta mukerrak ez gitxitan. Ixilka edo, ikusi al dozuz egundokoren baten illargi beteko gauez? Arein zapart, salto, jauzi ta ikotikak! Zenbat zentzunbako ariñeketa! Orain alkar-tzen yatzuz, beingoan banantzeko; onek aginkada bat pagotx-buruari, arek irustari. Jolas-bear zalua!

Arrisku aurrean, alan be, laster emon oi dautsoe igesari: arestian astun yakezan anak aize biurtzen, eta azpia ikutu bage iruntsi oi dabez landabazterrak. Garitzan, oster, ez da bardin. Erbi gazteak txakur zuri-nabarren zaunkak entzun ebazanean, otzikarak artu eutson gorputza osorik. Ezin zan gari artean ibilli; katigu egoan. Zapart jagiakaz, bear bada, aurreratuko? Txakurrak atzetik, ur-ur, etorkiozan lasto artean bide egiñik. Bi ziran: «Txiki» mustur-luzea ta «Lun» anka-motza. Arein lasterketa! «Txiki»-k ebagi dautso garitza egalean urteiera. Erbiaren estuasuna! Txakurren zaunka zolia!

Erbia azkenez, igarri barik, arantzazko sare-esi baten buruz jo, naspildu ta bertan garbitzen gaixoa! Arin-arin egiten dau soloan erbiak, utsak egiten ditu punturik erdiak, Zelan ez garitzan?

Amak, izuaren mende, dana ikusi eban bere gordelekutik. Ai, zelako eriotza! Alaba gaixo! An izan eban azkena! Malkoz lausotu yakozan begiak. Lertu bearrean eukan biotza, taupada biziz. Biaramonean, bigarren alabari esan eutson: «—Alabatxo: begiak onak dozan, baita oin ariñak be; baiña bizitzan, naiz lau begi eta naiz lau oin ba'geunkaz be, ez litzakiguz naikoa izango. Arriskuz, galzoriz gaiñezkaka daukazu mundu au. Zer dala-ta, maite, premiña ezean, garitzetan sartu? Bizi bat besterik ez dogu.

— Gu be —Itziartxok Txomin'i— onako zerbaiten sartuak ez ete gabiltz?

— Arrisku-zelaiz gabiltzana egia don; baiña onezkero, Jaunak lagun, onik urtengo dogula deritxat.

— Alan bedi!

— Ipuñok ez dira erakutsi bakoak: egoki litzakigu eurok, ausnartuz, gogotan erabiltea. Baiña, oraingoz, ikasgaia artzeko lain: orduariaren orratzak aurrera dagi-ta, ezin geintek ez onela egon; oraindik ibilli bearra yaukagun!

Kale zear

Beste barik zutundu ta elbitz- galbar artetik doaz, bakotzak bere tresna aldean daroala. Getxo'ko eleiz nagusia daukie, igarri bage, begi aurrean; baita bekoz beko Berango, Algorta, Neguri, Ondarreta, Lamiako ta gaiñekoak be. Ezker aldetik, suge iduri, Gobela errekea doa geldiro, Urdulitz'en jaio ta Sopelana, Getxo, Berango, Lexona'tik zear, Lamiako ondoan usturik bere urak Abra ur-ezponda zabalean. Tarranta, kotxe ta berebillen zarata ta ibilli-bear erabatekoa!

Eguzkia itxasperuntz doa. Aren azken-izpien ziztada gozoz jabetu nairik edo, jentez gaiñezka agiri dira oindiño be inguruko ondartzak. Kaleak, emengoak nasai, angoak estu ta medar, txukun-txukun daukaguz: atzo ziran bertoko jaiak; sarreretan lili-uztaiak eder emoten dabe, baita leio ta balkoetako lora-txorta ta kolorezko zapi ugariak be. Or eleiza bena, emen Udaletxea; liburutegi, denda, jan-etxeak, erakustokiak dizditsu, jauregi ta txaletak aurrez, eskape ondo ta espaloi ertzetan apain-zugatzak osto aunditan.

Noraezeko ibilliari ekiñaz, arrantzaleen kale estuan sartu dira gazteak; Ondarru ta Lekeitio'n lakoxe etxe-tarte estuak dagoz emen be. Algorta'k antxiñatik eukon bere kaia, portua; gisa ontakoak ez dira gitxi

itxasaldeko errietan, Euskalerrian bereziki; arrantzaleen bizitegi apalak, garbi ta txukun, andikien jauregi ederren aldamenean. Gaur ez baiña, izan eben aldikada baten entzutea algortar mariñelak.

Ondar ondolik zear, Igeretxe eskumata itxi ta ba-doaz txutxumutxu neka-mutillak, aurrerantza beti. Jolas-ontzi mordoa agiri da nasa barruan; aruntzago, salerosketan dabiltzan untzi asko, kanpotik etorriak edo-ta doazanak, zuri ta eder, tximini-zuloz ke-moltzo galanta goian ixuri ta edaturik.

Perra iduriko nasa osoari itzulua emonez dabiltz, alkarri atxikarretik oratuta. Ikuspegi atsegiñ! Ozkirri dator aizea, itxas-aize osasuntsua! Ura jotenen dago eguzkia, Zierbana ta Abanto aldetik: printz zuri-gorritzak zidarburnio ikusgarria antolatzen dausku.

Ondartzako mailletan

Sartua da eguzkia, ta Ondarreta'ko (Las Arenas) plaia utsituz doakigu; azkenengoak, euren baiñu-soiñeko ta tresnak batzen daragoioe. Gaurko egunak emona dau dagokiona: biakoak biar.

Txomin ta Itziar, ez nora ta ez ona, baltzitz doan zabaldira begira daukaguz; erdi zurtuak nunbait. Eurok dagozan unetik bertan, ondartzako mailletatik gora, aurrez aurre, andratxo bat datorkie, gazte ta baltza, eguzki galdatan errea, bere alabatxo bi eskutik dabezala. Txomin gitarreaz eta Itziar zisku aundiaz ikustean, arritu egin da bera be, itxura danez. Goitik beera begiratzuz, irri-barrearen ezia erakutsi dautse ezpan-ertz gurietan.

—Iluntze on, neska-mutillak! —diñotse azkenik.

—Baita zuei be!

—Itxas-giroan pozik, ezta?

—Orrela da.

—Ez al zarie emengoak?

—Ez! Berriztarrak gaituzu.

—Berriztarrak? Neuk be ba-dodaz an senitartekoak...

—Zeintzuk?

—Patxi Goiko zanenekoak. Neure senarraren osabak dozuez.

—Ezagutzen doguz —biak batera—; guretako on-onak.

—Nora zoaze?

—Gu eskean gabiltz.

—Eskean?

—Eskean, bai!

—Baiña, hippi antzean, ezta?

—Ez, ba! Gu Berriz'ko baserritarrak gara, ikastolan gabiltzanak, nebarrebak, au Itziar ta ni Txomin.

—Ondo be ondo! Illunduaz doa-ta, ba al daukazue gaba nun emon?
 —Ez, ba!
 —Egia?
 —Diñotzuguna.
 —Etorri geurera: geuk emongo dautzuegu aparia ta ogea.
 —Eskerrik asko, biotz-biotzez! Neskato biok alabak dozuz, ezta?
 —Bai, neure alabatxoak dozuez, Arantza ta Jaione. Ikastolara dabiltz eta gauza asko ikasi daustiez. Pozik naukiet!
 —Ori bai zoragarria, ama batentzat!
 —Eta zuek askotxo ikasten dozue?
 —Saiatzen gara, baiña gure amak izaten ditu noizka bere neke ta miñak...

—Zer dala-ta?
 —Bere ustez, benetako ikasleak ez garealako.
 —Bai, aurrera urteteko, gauzak benetaen artu bear dira; ezpabere, zangurru antzera, atzerantza dogu aurrerantza baiño errezago.
 —Izpidea daukazu, andra.
 —Tira, goazen etxera!

Beste barik nasa gaitiez kalerako bidea artu dabe. Itziartxok mosu luze bi ezarri dautsez matrailletan andra txeratsu aren alabai. Orrekin uste osoa artu be bai alkarri: etxeko dira, aspalditik ezagun bai litzan!

Kale-izkiñak, trenbidea ta espaloi ugari igaro ondorean, enparantza edo plaza nasai samarrera eldu dira bostak. An bizi yatzu gurasoak eta alaba bik osotzen daben sendi abegi oneko au. Euskaldun sendia, aurki! Seigarren oiñean bizi dira, baiña goragailluan sartu ta Aitaren egin ordukoxe, igonak daukazuz.

Alabatxoen poza, laguntxo barriakaz! Amak aparia gertatzen dauan bitartean Txomintxok gitarrea jo ta Itziartxok kanta, sekulako iskanbilla atera dabe! Aita lanetik etxeratu-ala apaldu ta apal-ostean ipuinketari jardun dautsoe guztiak. Nok geiago ta politagoak esan, arein alaitasuna!

XXII

LAMIAKO

«Lamiñak ez-amarrenakaz biziten zirala, esakera da. Ez-amarrena, amarrenak egon eta ez dagozala esatea da» (J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, II, 421 orr.).

Gau ederra

Itz gozoak beti laket. Euskal esakerak au: «Aume ago-bigunak ama biren esneak edaten». Txomin'ek eta Itziar'ek be orixe egin dabe, ederto apaldu ta obeto lo egin, izara arte gurian.

Bart Romo'ko bizitz-oin dotorean ez eben txarto igaro; apal aurretik eta apal-ostean, sendi on aren babespean, zabal-zabal egin yakozan ateak umore onari. Eresi joten asi orduko, umetxo biak dantzeari ekiten: oindiño txikiak dirala be, ba-dabe neskatoak dantzarako griña. Soñu, eresi ta dantza, egundoko jaia eratu zan sendi langille aren sukaldean!

Aiztatxo biak burdi bete andrakilla daukie: danak atera ebezan zelaira. Ango ikusi bearra! Ango panpin-zaletasuna! Orrela ordu laurenean. Gero dagokien kutxa ta zirkillura bakotxa, amak esanda dakienez, bat bera be agirian itxi barik. R. Tagore indiar olerkariak onela: «Zori ontsua zu, auts artean etzunik, ordu luzeetan zotz orregaz jolasean zabiltzan mutiko ori! Barre egin bear nik, nai ta ez, zu goiz guztian, orrela jostari ikusita. Nik be ordu luzeetan, bat-banatu ta bat-banatu diardut, neure kontuak ondo atera nairik. Eta ba leiteke zuk, niri begira, au pentsetea: «Ori bai jolasketa ergela! Goiza alperrik galtzeko gogoa, nunbait!»

Apaltzekoan ez eban iñok nagirik izan, ez mukertasunik, bakotxak ekarri izan yakona gozoz artu baizen. Ipuin-kontakizunez ondu eben apal-ondokoa, bakotxak ekienetik ekiena jalgi-azorik. Gero, amaren txaloe zantzuz, guztiak lotara. Gaumaitagarriak laster ixuri eban arein begi-ertz urdiñetan lo gozoaren gantzu ezta, ta danak ames miresgarri ta zurrunka ixillean igaro eben gau-besarkada leuna.

Goizeko ipuiña

Gaur, txoriak txintaka asi ordukoxe, aita jagi da ogetik: ikastuna da-ta, lanera zuzendu baiño len, zeozertxu irakurri ta ikasi nai dautzu. Goizero dagi ori berori. Ondoren lanera doa Bilbao'ra; bai, ba, etxerako ezkurra irabazi bear. Bakotxaren egitekoa: aita lan egin, amak etxea atondu, umeak ikasi.

Jaione, etxeko alaba txikia be, laster jagi da. Maitagarrien zelaian izan da amesetan; millaka lora mota ikusi dauz, eta mitxeletak egazka kolore askotakuak; baratz orlegi ta itxas-ertz urdiñetatik ibilli da atsegiñ aunditan. Zer nai ete dau orain? Ikastolara dabil eta berak ei daki ipuin polit bat, Itziartxo'ri, bart onek edestu eutsonaren orde, kontatu nai leuskiona. Maitagarrien ipuiña da, ta ogetik jagi daitenean esango dautso, astiro ta samur.

Logelako ate ondoan dago noiz ak urtengo. Emen! Bertatik, belarrira zerbait mormoxean bota ta panpin-salara eroan dau, ipuin bat daukala-ta, berari bakarrik edātsi nai dautsola esanik.

Edesten asirik, au diñotsa: Lagun txiki bat dot ikastolan, oso maite dodana. Orain bederatzi urte daukoz, baiña bost urtekoa zanean, ez eukan agiñik, eta neskazar irudia eukan, agiñai begiratu ezker. Gozorik ezin jan, lagunak irri egin, naikoa zoritxar nire laguntxoak.

—Zegaitik ez eben eroan agin-ateratzailleagana? —Itziartxok.

—Eroan eben; baiña ez eutsan arek jaramonik egin. Laster agiñik ederrinak izango ebazala; gozokiak jango ebazala; polita zala, ta agiñakaz askoz politagoa, ta olako iruzur-itzak sarri esan oi eutsoezan, pozgarritzat lez. Baiña agiñik agertzen ez. Aren baltza!

—Eta gero?

—Azkenez, laguntxoa neban eta, neuk eroan neban goiz eder batean maitagarrien lilitegira; ortxe goian dago, zelaitxo baten ostean. Beingoan, lora usaintsu artean gengoza, otoitz egin geuntson, eleizan Andra Mariari lez, lilitegi atako Maitagarri amari. Aitaren egin orduko agertu yakun bera, jantzi zuritan dotore. «Zer nai dozue, laztanok?» itandu euskun itzetik ortzera. Arek bertatik: «Agiñak. Urte mordoa daukat, eta motz daukat agoa agin barik: agiñak nai neukez!» Maitagarriak orduan agoa erakutsi-azo

eutson, eta agin-tokia goi ta bee bere atz zuriz ikuturik, berealaxe agertu yakozan ari erreskada bi agin, edurra baizen zuri. Egiñiko mesedea eskertu ta alkarri agur egikeran, Maitagarriak esan eutsen: «Eska geiagotan be!»

—Ipuin polita, txiki! —Itziartxok ari—; egiazkoa dirudi.

Zintzilakako zubia

Aita, bitartean, lanera joan da. Txomintxo ta Arantza, kontu-konturi. Ama —Baltzerane— danentzat gosaria gertatzen. Gosaldutakoan, aizta biak gertu daukaguz ikastolarako. Amak daroiaz ara, Txomintxok eta Itziarrrek lagun-duta.

Ikastola txairoa daukie, zugatz adar ezezkoxe beterik. Leku baketsu, alai ta zabala, Urdin-berdez margotua kanpotik. Barruan, oster, saloi, ikastoki ta jolastegi nasaiak. Umetxo asko dira berton dabilzanak. Sar-tzeko ordua dala-ta, dozenaka datoz ortik eta emendik, euren amak lagun-duta geienak. Pozik geratu dira aizatxoak. Laster dabez oporrak.

Baltzerane ta neba-arrebak, ondoren, kalean ixuri dira, uri ontako etxe ta txaletak begiztatu nairik. Jente asko nabari da ara ta ona: gizartean ba-da artegasuna ta bizi-naia. Bizia laburra bait da, guna atera nai beroni, itxura danez; aingira dirudi, ain zuzen be, eskutik iges dagiguna; euskal esakunak ederto: «Ain ta ondo usoak egara». Bardintsu, egara bizikoa dogu bizia.

Emen Abra, Nerbion eta Kadagua eta Galindo ubide zabalen ago: emen alkartu ta aundikiro datoz, zirimol betean, Bizkaiko mendietatik datozen urik geienak. Portugalete Santurtze daukaguz bekoz beko, eta atzean Ondarreta, uri aundia. Zelan alkartu ete geinkez ber-berton dagozan uriok? Zubiz, jakiña!

Or Bizkaiko zintzil-zubia, lerdan ta ikusgarri. Geratu barik dabilkigu batetik bestera; jentea ugari ta kotxe pilloa daroaz joan-etorri bakotxean. Txomin eta Itziartxo batez be, erditik eginda dagoz, arrituta, aurrean daukien igaro-tresna izugarriarekin. Munduan bakarra ei zan bere garaian, au da, jarri zanean.

—Noiztikoa dogu berau? —Txomintxo Baltzerane'ri.

—Lenago be ba-zan zerbait, baiña, gaur daukagun lez, joandako gizal-dian, 1893'garren urteko garagarriaren ogera zortzian asi zan ibiltan, Gexto ta Portugalete alkar baturik.

—Lan izugarrikoa ordurako, ezta?

—Orrelaxe! Garai atan ordiño burdiña ta metal kontuan ez gengoza ain aurreratuak, industri aundirik bere ez. Izango ebezan, ziur asko, eragoz-pen eta buruko miñak zubi au zintzilika jarteko. Ez izan dudarik, ez ez-pairik.



Lamiako, leenago lamiñi-zulo, gaur Industri ta etxe-okollu

- Dirua be bearko zan, ezta?
 —Jakiña! 808.911,60 pezeta kosta ei zan.
 —Azken gudatean suntsitu egin ei eben...
 —Bai; 1937'ko bagillaren amaseian kartutxoak ipiñi ei eutsoezan lau alderdietan eta dana, iskanbil ikaragarrian, zugatz abartsu baten antzera, urak iruntsi ei eban.
 —Tamalgarria, ezta?
 —Ondoren, ez egoan andik ona, ez emendi ara igaroterik.
 —Noiz ipiñi eben barriro?
 —Andik iru urteren buruan. 1941'ko bagillaren emeretzian, arratsaldeko bostetan, tresneri osoa barriztuta, zintzilikako ontzitxoa arat-onat asi zanean, jai aundia ospatu zan. Geroago, 1964'an, jarria da gaur dotore daukagun ontzitxo barri au.
 —Merezi dau, gaiñera. Nai ba'dozue, egin geinke berton oster bat.
 Beingo baten billeteak atera ta, iturritik ura lez poza jalgiz, ontzitxoan sartzen dira: jentea doa alde batean eta kotxeak bestean, oso eratsu. Barebare dabil, azpiko ura ikutu barik. Usteke, beste aldea jo dabe. Ordu laurenen bat emen kontu-kontari, ibai ertzetik zear. Edesti-alorrean asko daki Baltzerane'k: bera ez da emengoa, ezkondu egin zan bertora, baiña amar urte oneitan oitua da bazter oneitan, eta onezkero emen itxiko ditu bere azurrak. Eguraldi onean, uda naiz negu, umetxoak ikastolara eroan eta gero ondar gorrian, soñia baltzituz lan egin ondoren, barriro joan oi da umetxoan billa. Orobat arratsaldean be. Egiatzko amatasunari dagokionez zaindu ta eskolatu nai dauz bere alabatxoak.
 Alkar-autu luzearen ostean, barriz doaz zintzil-zubitik; azpiko ura garbi dator itxas-gora da-ta. Ibillaldi atsegiña!

Oroitarri bat

Ibar egaletik itxasorantz jarraituaz, lorategi eder batean, oroitarri bat daukagu, antze ta trebetasun aundiz egiñikoa. Arrizko gomutagarriai begira, Bitor Etxabarri'k Portugalete'n daukan lez, emen Ondarreta'n Ebaristo Txurruka'k dau berea; Etxabarri'k, or inguruetan ainbat meatz-zulo aurkitu ta Bizkaiko industriari indar berezia emon eutsalako, ta Txurruka'k emen, Getxo'ko udaletxe barruan. Onek, zegaitik? Bilbao'ko portu edo kaia, emen kanpo aldetkoa batez be, beronek moldatu eban ia gaur daukagun legez; beronek ortzak erakutsi eutsezan itxas asarratuaren ekaitz ziri-moltsuai. Eta uri biok, Ondarreta ta Portugalete, txibista leunez alkar josi ebazan Alberto Palazio'k, aurki, ibai gaiñetik jaso ta ipiñi eban zintzil-zubiarekin.

Oi, lur! itxaso! Lur, aize, ur! Zu, Txurruka, lanari gogoz lotua, jakituriz ta biotz zangarrez, ibai aintzagarria moldatu zendun ori! Gora zu! Zuk zaintzen dozu gaur, lamiña batek lez, beronen zintzur aurea! Bego zutik, urte askotan, zure oroitarria! Bertokoai lez atzerritarrai ikasbide bikaiña emonaz nunbait... Zaindu ta gorde zuk, gudari zoliak gaztelu bat lez, bertoko sarrera ta urteiera. Or dozuz alboetan euskaldun gotorrak, ur ta lur, zuri languntzeko beti erne ta zut.

Nasa muturreraifño urbildu dira iru ikusleak, zabaldiaren arnas ozkiritz asetu nairik. Uin soiñutsu artean txairoki zirkin dagi itxasoak, eta goitik zut datorren eguzki-galdak, argia ixuriz, aintzira biurtzen dau ur-tanta bakotxa. Aurrez daukiezan Getxo, Algorta ta Neguri'ko jauregi-etxeak kristal orrizkoak dirudie, argi ta kresalezko izpillupe zoragarrian: nasa ta ondartz, biak gorriaren mamin, dizditsu ta bizi-nai jarioka; erakarpen sorgin onen zamape eztian, kresal uretan murgilka, plisti-plasta dabil jentea, edo-ta gorputz-as ondarrean etzunik, ezeren kezka gabe itxuraz.

Izadi ederrez ordia! Ire besoetan atsedeen nai jente ta erriak! Zuok, txalupa, txanel, aurrera edu orretan! Zuok, ontzi nausiok, iraun egizue egoe-
ra ortan, munduan zear ibilli ondoren, euskal gogo ta arnasaz orniketa arduratsua egiñik. Orain ur-gaiñez noski laprastaka, gero illargipe amekorreen daunbada neurtuz.

Neba-arreben guraria

Itxasoari ta Txurruka'ri agur egiñaz, itzulian datoz ikusleak. Ez daukagu esan bearrik: alai etorri be! Zati batean kale barrena ibilli ondoren, Txomintxok Baltzerane'ri egotzi dautso:

—Atzo esan geuntzunez, guk Lamiako ikusi nai dogu.

—Norbait al daukazue bertan?

—Ez; guk ez dogu gaiñera erri orren albisterik. Baiña Mari Burrika'k esan euskun lenago alderdi orretan be lamiñak bizi zirala. Orixegaitik ikusi gura geunke eskualde ori.

—Ederto! Ezagutuko dozue. Orain, oster, amabiak dira ta alabatxoak etxera eroan eta jaten emon bear dautsiet. Bazkal ostan, eurok barriro ikastolara eroandakoan, neuk lagunduko dautzuet bazterrok ikusi ta ezagutu dagizuezan.

—Bapo! —neba-arrebak batera.

Eta erdiko kaletik doaz aitzatxoan billa.

Itzako lamiñak

Bart lez gaur be izan da andrakilla ikustea, bazkal aurretik eta ondoren. Itziartxok, atzo lez, lamiña ta maitagarrien kontuak edestu dautsiez; baita Txomin'ek gitarraz lagunduta, ainbat gaurko kanta abestu be. Txalotan jo eutsoen, txalotan! Abesteak eta txalotzeak, izan be, ez daukalterik. Zelako umeteri polita, umore ona saltzeko dabela! Umeak mundu guztian ume! Barretan egin oi dabe! Euren erara, jakiña!

Neskato biak ikastolara eroandakoan, Lamiako'rako bidea artu dabe Baltzerane'k eta berriztar neba-arrebak. Ibai-ertzetik doaz, Bilbao'ra doan bidetik. Ba-da berebil zaratarik. Au ibilli bearra! Ez dago, ez, atsedeen ar-
tzerik; ez da nagirik. Xixtu ta abiada garaian bizi bait gara!

—Auxe dozue Lamiako —dirautse Baltzerane'k ogei bat miñutu ibilli diranekoxe.

—Zenbat ontzi! Geienak aundi kolorezkoak —Itziartxok erantzun.

—Gaur joan-etorri izugarria dago emen. Lendik be ba-ziran fabrika ta olakoak, baiña Maximo Agirre ta Ebaristo Txurruka jaunai eskerrak, Nerbion ibaiaren ertzak tinko jarri ebezanetik, industriz eta langillez ugartzen asi zan inguru guzti au. Orain ez dauko lengo edertasunik, ezta urrik emon be.

—Lengoa orduan...

—Erandio ta Lexona leen be izen aundikoak ziran; alan be, orain industri-zulo diran ibaialdeok lenago arrantzale-barruti zenduzan, itxasotik eta lurretik bizi ziranak. Gaur be, oraindik, lurralde onak dozuez emen inguruan. Giro epela dagi berton geienez, eta Gobela Udondo'gaz emetik dabil zearka, lurak bearrezko dauan busti-giro gozoa eskeiñiz. Erandio ta Lamiako, egia esateko, fabrika toki uts dituzue gaur. Lexona(leio-ano?), barriz len baserri batzuk osotzen ebena, gaur Peruri, Sarriena ta Sansoena auzotegiakaz, ibar arte ta muiño gaiñetatik lirain agertzen yaku. Aspaldiko egunetan baziran emen inguruan torre-etxeak be: Gaztelueta —gaur ikaste-txe biurtua—, Artaza jauregi zarra, ta Martiartu, an urriñago.

—Guztiz ondo... Ta ba al dakizu zuk, zegaitik deritxon Lamiako alderdi oni?

—Lamiako deitu bazter au, leenago, larregazi, padura ta itxas-urez beteriko iizi-zingira zabala, besterik etzan. Gero, ubideak erretendu ziran-
nean, ur-zelai orreik legor biurtu yakuzan: Lexona, beraz, itxas ondotik beñik-bein, osoan eraldatu zan. Maximo Agirre'ren trebetasunari zor yako au batez be.

—Eta...

—Arrezkero, dakusazuen lez daukagu. Ba-dakit zer jakin nai dozuen, orduan ipuin, elezar edo antzekorik ete zan berton. Esango dautzuet: leku basati au, gaurko itxura artu aurretik, elezar (leienda), ipuin eta kontakizun askoren abi zan.

—Lamiñen elezarrak be, orduan...

—Bai! Lenago gizaldi askoz lamiñen kantuak entzuten ei ziran sastrapa, zingira, izaga ta ziridoi oneitan. Udondo ta Gobela errekatxoan ondoetan sarri ikusten ei ziran orraztu ta orraztu; iitza arteetan, barriz, askotan entzuten ei ziran euren kantu ta zinkuliñak. Gaur, ainbeste ke ta kutsuduraz, ezin bizi iñundik be emakume ain gupera ta liraiñak.

—Egia!

—Len, oster, bai. Lenago Lamiako toki ixilla zan, Kurkudi, Boluburu, Ikea ta antzeko bizkar-gunez esiturik.

—Leku ederra, ziñez! Ta zeu sarri ibilli zara berton?

—Or-ortxe. Nire alabatxoai atsegin yake mendia, inguruko zelai ta landak atan be. Igande ta jaietan, aitagiz ereginik ez ba'dauko, laurok Gaztelueta, Ondiz, Artaza ta inguruetara jo oi dogu... Iñoiz joan gara Lexona'n egin-barri daukagun Ikastetxe nagusiraiño be. Gure alabatxoak lora-txor-tak burutu, mitxeletak atzemonez, eta laurok aize osasungarria arnastu bitartean, igarri barik joan oi yakuz orduak.

—Emen inguruan etxe barri asko doazala, entzun dogu.

—Bai. Gaixotetxe barria be, Ikastetxetik urrean, ementxe dira egiteko. Lexona'k orrela indar aundia artuko dau.

—Eta entzutea —Itziartxok gaiñeratu.

—Orain ez dago lengorik. Dana doa aurrera. Erriak aldatuz, ugarituz... Bideak nasaituz, edertuz... Aurrerakuntzearen bizi-legia dogu-ta, zer egingo?

Orrenbestez, ordua be aurrera doala-ta, txerazko agur ezitia egin dautse alkarri, «ikusi arte», «ez zaitugu aztuko», «eskerrik asko biotzez» ta ola-koak esanik.

Egazkin bat, burundara utsez, itxasorantza. Alboko intxaur adarrean kantari egon dan karnaba, itzetik ortzera ixil-lezaratu da. Guzur-deia ez ete dau atsegin?

XXIII

ARTXANDA

«Ez gerala, baiño
ba-gaitun;
Mari-Petraliñ ez beste
guztiak emen gaitun»

(J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, II,
42 orr.).

Gorago

Gaintxoan dagon Arria, mendiska biribilla, atzean laga-ta, troka txikiño baten zear, Bilbao'tik Asua ibarrerako bidea artu dabe neska-mutillak. Fatima'ko Amaren eleizatxoan otoitz-alditxoa egiñaz, Artxanda'ra daroanari oratu dautse, beti gorantza. Abril mendia daukie eskumatik, eta Asua alde osoa ezkerretik, zabal eta eguzkiaren arrats-izpipean; Txorierri begi-aurrez, Lexona, Luiu, Sondika, Derio, Zamudio ta Lezama'raiñokoa... Ibai ondoan, Erandio, Axpe, Lutzana, Deustu, Bilbao; eta ibaiz bestekaldetik, Burtzeña, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtze... Zelako ikuspegi zabal ederra!

Itxasaldetik emoten dauan aize otz-epela arnastuz gorantza doazala, Itziartxok gauza bat dakar gogora; au da: Ondarreta'n eta Lamiako'n ez dabela orrazi batzerik egin.

— Aztu egin yaku, Itziartxo —Txomin'ek—; ain ondo artu gaitun andra gazteak, Lamiako'n batez be, makiña bat zer jakingarri edestu dauskuz lamiñatzaz be. Gero aztu egin yaku, bai, toki askotan ederto be ederto osotu izan dogun bilketa egitea.

— Tamal emoten daust!

— Ez estutu, arreba! Egingo dogu oindiño, abagunea dogunean.

Intzentsu billa

Eta gorantzakoan arnasa obeto artzearren astirotxoago joiazala, Itziartxok ipuin au aletu eutson Txomin'i:

«Abade batek beiñola intzentsutan bialdu eban bere sakristaua Bilbao'ra. Sakristaua, lelo samarra zalako, abadeak esana aztu ez ekion, bide guztian joan zan «intzentsua, intzentsua» esaten. Bilbora sarreran gizon bat aurkitu eban lepo bete abarka saltzen ebillena. Ainbat abarka eroan gizona ikusirik, au otu yakon: «—Arek yaroak lepokada abarka!» Baiña au gogoratuaz aztu yakon apaizak esana, ta «Abarka, abarka, abarka» esaten eragoion.

Or begitu, emen geratu, alako baten sartu zan dendan. An egoan bera tente, jente pillotxo zain egoan bere aurretik eta. Azkenez, bere txanda eldu yakonean, «Zer bear dozu?» itandu eutson dendako ugazabak. «—Abarka» esan eutson saltzailleari. Eta ekarri eutson bat, eta sakristauak: «Au ez!» Ekarri eutson aundiago bat, eta sakristauak: «Au bere ez!»

Aundi ta txiki, moltzoka, dendan eukazan abarkarik geienak ekarri ta erakutsi eutsozan. Sakristauak ezetz, ezetz, ezetz, ez ebala olakorik gura. «—Zer bear dok, ba? Zelakoa dok nai dokan tresna ori?» «—Abadeak erabilten dabe mezatan», erantzun eutson sakristauak. «—Baiña, zer, zer erabilten yok?» «—*Eutsi ta tati, eutsi ta tati* erabilten dauana».

Guenean, saltzailleak igarri ezinda asarrez bota eutson: «—Ken adi ortik, intzentsu ori!» Eta sakristauak beingoan: «—Orix berori, esan dozun orixe gura dot!» Eta emon eutsan opa eban intzentsua.

Ondoren Itziartxok gaiñeratu eban:

— Gu biok artzen gaituk gure amak kontautako ipuin onek: Getxo'n gerorako itxi giñunan orrazi-batzea; emen, oster, bioi, iri ta niri aztu egin yakuk. Ortan ez ete gabiltzak? Lar ondo artuak gaituk, eta gure ongillearen esana doi-doi beteten yoaguk. Ez dok jokabide itxurazkoa.

— Ez, arrebatxo; or goian, Artxanda'n ba-dira, entzutea dodanez, jolasleku ta jatetxeak; antxe egingo jonagu batza joria, sagar-urtea danean base-rritarrak egin oi dabena baiño be ugariagoa.

Artxanda'n

Ekin eta ekin arloaz jabetzen. Bizkar-gaiñez doaz gure gazteak. Aizea yatorke leun-leun, alboetako sasi-bedar ausartak makur-azo ta orraztuaz. Mendia sutan? Ke-zutoin ikaragarria ezkerretik, ke zurizka lau alderdietara edatu ta zabal-aziz. Zer ete? Ez lardazkatu, otoi! Ezereza; Bilbao'ko loi ta saskarak dira, aizeari esker, auts biurtzen dagozanak. Itxura-itxurazkoa ez dan arren, keak be ba-dau bere edertasuna, aizearen ego erpiñetan kiribildua.

Artxanda'n dira. Eskoi aldetik or Deustu, Bilbao, Zorrotza, Larraskitu, Pagasarri, Ganekogorta, Begoña, Otxarkoaga, Basauri, Arrigorriaga, Zaratamo, Galdakano... Ikuspegi zabalegia nunbait begiendako. Ipar-lauso meak daukaz, gaiñera, bazter orreik. Beti lez, bear bada? Kutsadura ospea dau Bilbao'k alderdi ontatik; Asua aldetik, orraitio, tximini ketsuz bete samar aurkitu arren, ez dau ainbesteko arriskurik. Zerbaitgaitik dogu euriz ta aizez oparoa gure Kantauri itxaso maitea. Jarrai ta ekin ik orrelaxe, euskal lurraldeak garbi jagoten!

Goi-goian dagoz. Arkaitz gaiñean kokatu oi diran arrano gisan, ezkereskuma baratx loratsu, jatetxe, ikasgu, jolastoki ta abar, ugari be ugari: goitik beera Bilbao'ra ta Asua aranera begira. Eskualde bikain, osasuntsu!

Zugatzetzer lerroturiko bide zabalak, zein eurrera ta zein atzera begiratu. Gure gazteak, ezker-eskumako txalet eta jatetxeak itxirik, an urrin ikusten dan ermitarako bide lau egokia artu dabe. Au toki zoragarria! Bean dakusgu Asua ibarra, eskuekaz oratzeko eran, ur-ur; or egazkin-kaia, Larrondo, Derio'ko iltegi aundia, aruntzago Artebakarra eta alboetako lekaretxeak, Galdos eta apaizgaien ikastetxea, ta urrutia Unbe, Jata, Soillube, Bizkargi..., zer ez? Begira nekez asetzen. Euskalerrria bai eder, dizditsu!

Ikus aizerrota bat, benetan zardaiña: gure asabai zor dautsegu au be, izkuntza ta beste kultur-gai asko bezelaxe. Beerago, zelai ta landak musker; ola ta fabrikak biran ke-jarioka; baserriak eta trokak, piñuz eta areitz bakanez jantzita. Aldatz-gorako bide muturrean, ikastetxe jaiki, gorritzka bat, izadi-zaleentzat eregia nunbait.

Erroka Deunaren eleizatxoan otoi pizkat egin ondoren, itzulian datoz gure ibiltariak. Ama bat datorkie onantza, sei umetxo biran saltoka dabezala: lore-pitxiak dakarrez eskutxoetan. Mitxeleta bat ikusi dabe ta bi bertatik doaz, arin be arin, aren atzean, ota, sasi ta elbitz artean zear; an beeko areitz adar ostean ezkutatu yake. Gero, ama ta seme-alabak, eleizatxoaren ate aurrean belaunbikotu dira.

Ona unamazko burdia (funikularra), Bilbao'tik Artxanda'ra dabillena. Igon dauan jentetz utsitu danean, begira egon dira gogotsu gure gazteak. Ika-si naia beti eder. Aurreratxoago, Lurdes'ko Amari eskeiñitako otoiztegi begi-



Artxanda, ikuspegi ta jolas-lekuz aberats

ragarria, urez, lora ta arkaitzez dotore jantzia. Itziar ta Txomin belauniko jarri dira emen be, iru «Agur Maria» esanik: ezpiritua be berea bear, aber-uts ez gara-ta.

Azkenengo orrazi-batzea

Sabel-zorriari irutxur egiteko, gorantzakoan, laranja biña artu dabez. Emen, oster, egarri dira, ta zerbait artzea otu yake. Ezkerretara daukie «Anton» jatetxea, ta araxe zuzendu yakuz. Naikoa kristau dabil berton, gazte ta zaar, barruan eta kanpoan; ementxe artuko dabe «kas» bana, edari auxe bait yake atsegiñena. Jatetxeak toki zabala dauko aurrean, berebillez beteta une ontan; jateko pixu bi ta geiago, bar luzangea, maiak barru ta kanpo: bai aize preskutan eta bai barne epelean nai dana artzeko leku auke-rakoa.

Idun-azurra apur bat bustita kanporantza egikera, begi-luze askotxo jarri dira neska-mutillai adi-adi; bitxiak dirudie, antza. Txomintxo gitarreaz ikusirik ume pilloa urreratu yake, atetik urteten ez izteraiño. Ain dotore aurkitzen dabez!, Itziartxo jantzi fiabar ta kapela zabal biribillez, eta Txomintxo gitarra zorro aunditan. Zerbait jo dagitsela eskatuz ez dautse itxi urratsik emoten.

Olako eskaria zor dala-ta, Txomintxok, bere jogaillua moldatu eta «Atzo Bilbon nenguan» jo dautse. Ango txalo-zaratea! Iru aldiz jo eragin dautsoe gauza bardiña. Eta ondoren, beste lau doiñu, gaurkoak oso. Jentetza aundia inguratu yake zorionak emoten.

Atzenean, gizon kapeladun bat aurreratu yake nortzuk diran itaunka; gazte bi areik, ain zuzen be, arrituta itxi dabe. Ain gazte ta ain trebe! Nun-goak diran, nundik nora dabilzan, nok bialduta... Zer ez dautse itandu? Ari ta ari, ta danen aurrean, atera dautsez barruko ixillak oro. Lenengotan ilsamar, uste on bage, gazteak; baiña gero, lamiña batek igorrita orrazi eskean dabilzala autortu dautsoenean, barre-algaraz inguruak dardarka jarri dauz. Inguruko guztiak izu-lauorri...

Txerpolari antza artzen dautsoe kapeladunari. Izan be, berebiziko umorea erakusten dau. Bai bein! Erdi-dantzan asirik, aren artazi, triska ta txuntxuleperdiak! Beste zeozer joteko eska urreratu yako Txomintxo'ri barriro be, eta onek «Donostiako iru damatxo» jo-ala, aren ikoti, zapart eta zintzili-lipurdiak, oster ta oster. Ba-dau bai, aldarte ta umore ona!

Azkenik, lepotik dingilizka daroan ziskua kendu dautso Itziartxo'ri, ta mai gañfiera igonik, sekulako itzaldia egin dautse barruko ta kanpokoai: neska-mutiko areik zetan ebiltzan, orrazirik izango ebela aldean, eskupeko

bana, alkarri lagundu bearra, orain ikusiko dala nor nor dan, ta olakoak etorri onean aldarrikatu ostean, lau-bost joan-etorri osotu dauz Itziartxo'ren ziskuaz, jentearen artetik ara ta ona.

Tximontxok, bitartean, P. M. Otaño'ren aapaldi au soiñutzen:

«Mutil koxkor bat, itsu aurreko,
zuela aldamenian,
gizon buru-soil, bizar-zuri bat
bi makuluren gaiñian,
kale-ertzian ikusi nuen
iñora ezin joanian;
ta bera nor zan jakin naiean
inguratu nintzarian,
limosnatxo bat eskatu zidan
Jainkuaren izenian».

Soiñua ta bilketa amaitu ziranean, kapeladunak Itziar'i ziskua emonaz diñotso:

— Ar, neskatil laztan, eure zisku betea!

Trumoia langoxe esku-otsa...

— Eskerrik asko! —erantzun dautso Itziar'ek, ziskua jasoaz.

Barriro be, txalo-zarata bardiña! Gazteak eta zaarrak poza dagerre. Neba-arreba eskaleak, oster, jente a baiño be pozago, usterik bage, orrazi pillo galanta eurekanandu dabelako. Goraiño bete yake ziskua, ta berau erosoago eroan al izan dagien, beste plastikozko boltsa bat eskatu dabe barrean.

Gaiñez gaiñ

Gizon txeratsu ari ta enparau guztiai samurkiro agur egiñaz, bidean jarri dira zintzo-zintzo, oraindik joanalditxo burutu bearra dabela-ta. Itziar'ek bere ziskua daroa, Txomintxok bere gitarrea ta bigarren ziskua: ez dabe labore artze urria izan Artxanda gaiñean. Pozez beterik doaz. Bego Bilbao eskumatik, gandu meepean, langille ta aundi. Santo Domingo'tik, gaiñez gaiñ, aurrerantza bide dagie gazteak. Eguzkia beerantza, Serante mendi ostean, ia itxasoan murgiltzen, Pagasarri ta Ganekogorta azken-izpi artean laztanduz. Derio'tik Begoña'rakoa itxi ta bizkarrez bizkar Ollarrerakoa artu dabe. Aurrez datorkie berebil bat xixtu ikaragarrian, pizti zaurituaren antzeko urrumada baiño zoliagotan, Bidea egin dautsoe, bakean joan daiten.

Bizia dan ederra! Ta orreik, galzorian ipiñi oi daben zur-ezok? Zentzun bageak nunbait! Jainkoak emoniko doairik bikaiñena izanda be, alperrik, ez dabe maite. Bizirik bage, zer? Soin-bizia, arima-bizia! Biak eder, ta maitagarri! Ez daiguzan iñoz galzorian jarri, ez gorputzarena, ez arimearena.

Piñua ugari ezker-eskuma. Txoriak azken-txintaka, egunari kantuz agur egiten. Batek, amerikar areitz-tantai baten adar dardartian, egundoko doñu eztiak ariltzen diardu. Ari entzuten, erdi-konkor, geratu dira pizkaten bidazti biak. Argi-une bat piñu-sail artetik, eta beean ibai biren besarka —Ibaizabal ta Nerbion— ikusten da, eta inguru guztia fabrikaz, etxez, tximistargi-ariz, tren-bidez, mendiska ta pendiz urratuakin ase-aseturik. Bizi-naiaren bizia! Oi, Bilbao ta inguruak!

Aldatz-bera arturik, bereala agertu yake, zelaitxo baten, eskumatik, txabola pillo kolorezkoa. Zer eta da? «Erakarpen-toki» diño sarrera baiño goragotxoagoko ol zabal laukiak, taket bitan ikusgarriro jarriak.

— Guk be, onaiño eldu garean ezker... Jatsiko gaitun bertara? —Txomintxok arrebari.

— Oba ez!! —Itziar'ek erantzun, irrika bizitan—; erea joagun ezker, leku ta tresnok ikusteko...

Jolas-tokian

Au toki atsegiña! Bai, polita dala! Ez da denpora luzea jarri ebela, ta ikusi ori, jai ta astegun ez mutiko gorriak, neskato txikiak bakarrik, nagu-siagoak be eurrez ikusten dira berton. Gizasemea, eritxi baten, bere bizitzadin guztietan dago jolaserako prest: dirua ta osasuna bear aldean.

Jatsi yakuz beera neska-mutillak; beti lez, zerbait zurrutatu dabe aurrenik. Bertoko otsa, baraila! Jolas-tresnen txirrio ta jogailluen naste-marraste ta iskilmia! Uri nausia dirudi mendiak; argi-ezpal indartsuak dana, piñuar-te ezkutua be bai, eguzkitan lez daukie dizditsu ta zuri-gorri. Jentetan ba-dabil oindiño, jentetan! Atsegiñerako tramankuluak ba-dagoz gero, egon be!

Edaria ta zerbait jateko artu ondoren, ara ta ona begira dabiltz Txomintxo ta Itziartxo, eztitan ibilli be. Eder yake bertako giroa, argi, musika ta jente. Onetan, bertako nagusia nunbait, gitarra ta jantzi bitxiz ikusiaz gure berriztarrak, bideratu yake arritu samar, eta nortzuk diran jakin dauanean, gitarra joteko eskabidea egin dautse oso adeitsu, olako gizonak dakienez.

Kartoizko zaldi eskerga baten ondoan asi da Txomin bere jogailluari eragiten. Besteetan baiño zoliago dabiltz, ariak zear, aren atzamarrak. Zaar eta gazte, aldra aundia inguratu yake beingo baten. Irugarren doñua joaz

bat Itziartxo be, bere abots leunez, kantari asi da; ta bien artean aizatzen daben erromeri! Ba-dau eragiña gitarreak! Euskal abesti mordoa jo ta abestu dabe, iru ordu lauren igarri bage joanik. Nagusia pozarren, eta gazteak areago! Entzuleak ez ete? Makiñatxo bat txalo jo dautsiez, gaur modan dagozan euskal abestiak entzutean batez be!

Nausiak, azkenez, egiñaren truke, jolas-tresna guztietan dubarik ibilteko baimena emon dautse. Zor-ordaintze atsegiña, ziñez, berriztar neska-mutillentzat. Orrela dagie, beste amalau-amabost urteko lau neska-mutillek lagunduta. Astotxoetan, plaustako berebilletan, zomorrobide ta aideko trenetan, olagarru, kanguru, su-leza ta biribilki biurrietan ibilli dira bape nekatu barik; baita egazkin, sorgin isats-punta, irra-leku zoro, argi-luban, mendi-zulo itsu ta olakoetan be. Nun ez yakuz ibilli, baiña?

Izerdi patsetan dagoz andik urtetea. Ia ordu bi joan yakez konturatu barik. Ozt-oztan ezer ikusten, jolas-lekutik kanpora: zerua lañnotan, gau itsu samarra. Berebil-burrunba, arnas estuka; jentea ba-doa. Itziar eta Txomin'ek, eskumako bideari loturik, beerantza egin dabe. Ez dakie nun gaba emon; Oiz'en lez, igartzeka, gau illunak eratsi ditu, lo dagon erbia eiztariak lez.

— Zer egingo yonagu, Itziartxo? —Txomin'ek arrebari.

— Ez yakiat, ba... Gau zarratua be yoaguk eta...

— Or txabola bat! Gura don bertan lo egitea?

— Euk ikusi; ni oituta ñagok onezkero...

— Ni be bai! Egunokaz, ikus, zenbat lekutan eta eratan gaba igaro yonagun!

— Eta ez txarto, egia esan!

— Goazen bertara!

Erletxetara jatsiaz goazala, ezkerretik aurkitzen dan txabola aukerakoa da. Ementxe egokitu yakuz, gaba emoteko, berriztar neba-arrebak. An beean dakusez, Galdakano'n, Elexaldeko argi distirantak. Argizagi bat biztu ta apari-lega egin dabe lenengo, umore onean eta kontu-kontari. Ba-daukie, euki be, alkarri zer esan! Ainbat biotz-zauskada eder! Gero, ate-osteko bedar-moltzo legorrean, lo poliki...

XXIV

IKUSI TA ENTZUN

«Bein, *Laminarri* zer ote den yakin nairik, Galdakanoko Lamiarrieta orretara yon nintzan. Amolarik zarrena nor zen galde egin ta berarengana yo nuen. «—Maiton, esan nion, beste zerbañteren ondorean; Maiton, zer dira Laminarriak?» «—Errekako atxak, jauna». «—Eta zegaitik ete dauke izen ori?» «—Antxe, atxetan, egoten zirean laminak uretati urtenda, orraztu ta orraztu». «—Zelangoak ziran eurak?» «—Gerriti gora, emakume; gerriti beera, arrain» (R. M. Azkue, *Lamiak Euskalerrian*, 6 orr.).

Bidez bide barriro be

Logale gareanean, edonun oge ona. Bide ertzeko txabolan gure gazteak beintzat, naizta elbiltz pilloan, ez dabe lo txarra izan. Gabeko orduak, ia jabetu barik, geziaren bizkorra baizen arin joan yakez: gorputz nekatuak atsedena eskatzen. Atzoko bide ta ibilliakaz Itziartxo ta Txomin, jakiña, aul samartuak.

Gaur, alan be, biaramon barik, jagi ta argia len-izpiakaz illuna uxatzen asi danekoxe bidean jarri dira Ollarra'rantza; esnatuz doaz aurrez aurre Txinpazmendi, Lemoatz, Aramotz, Belatxikieta, Upo, Axmutil, Lekanda... Bedia, Usansolo ta Ereño troka laññoak daukaz izarape zurian. Giro ederra; eguraldi bikaiñaren zantzua nainun.

Tapa-tapa, oinkada bardiñean, jatsiz doazala, Itziartxok au:

— Goizeko lañoa, errotari; arratseko gorria, pelotari.

— Ori esakuna izango don, ezta?

— Diñokana. Amari bein baiño geiagotan entzuna.

— Dana dala, gu atzo, arratseko gorritan, pelotari ibilli gintzozanan erakarpenezko parke aretan.

— Ederto, eztok?

— Obeto ezin! Baiña esakeretan asi azan ezkeru, bota egizan beste batzuk be: gure erria aberatsa don guztiz esakun, atsotitz, ao-korapillo ta igarkizunetan. Ik ba-dakizan mordoak.

— Azeri zaarra, beti goiztar —Itziartxok.

— Luzaro bizi nai? Oiloakaz ogera, txoriakaz jagi —Txomin'ek.

— Orain oraingoa, ta gero gerokoa —Itziartxok.

— Andrak andra aundi, Domu-Santuetan dira agiri —Txomin'ek.

— Egizu beti on, ez jakin arren non —Itziartxok.

— Nun gertatu, an ostatu (gure antzera) —Txomin'ek.

— Zura bigunago, arra barrurago —Itziartxok.

— Amarratzak egurasa, gaiñean euri-jasa —Txomin'ek.

— Neskatxa ederra, dantza-gura; neskatxa zakarra, mutil-gura —Itziartxok.

— Ondarroa, erri beroa —Txomin'ek.

— Zornotza, ango jenteen zorrotza! —Itziartxok.

— Lezama zorri-erri, Derio tximintx-erri —Txomin'ek.

— Mungia, lapur guztien abia —Itziartxok.

— Larrabetzu, beti kakatsu —Txomin'ek.

— Arratzu'n, atso guztiak laratzun —Itziartxok.

— Ibarrangelu, ganbela-buru —Txomin'ek.

— Amaitzeko: Gorbeia beleak Gorbeia jokera —Itziartxok.

— Bai, arreba, naiko don; azkenerako, mormoxka asi gaitun, geure erri txanbeliñak jorratu ta izen ona lapurtzen. Geurea ez dogu egundo be beztu bear; are gitxiago euskaldunok esakera zentzundunen bitartez.

— Ba-dakik, botaten asiz gero, bertsolariena jazo guri be.

Beean dagoz, Bilbo'tik Donosti'rako bidean. Or ospe aundiko Oillarra, bide-gurutzean. Oraingo kultura ta aurrera-joteak! Emen ez da olakorik asmetan; leen oilar dotore bat, kukurukularia, egoan emen zutoin luze baten gaiñean: gaur burdiña pillo bat. Zer adierazten ete? Nok ete daki? Egilleak, bear bada... Lau alderdietatik begitu dautsoe gazteak; alan eta guzti be, ez dautsoe oilar antzik idoro, ez itxura, ez ganora! Gazteen ez jakina? Ba leiteke. Kifiu gozoaz agur egin dautsoe, eskumako eskuko bost atzamarrak kakarraldo antzera erabilliz. Urgoiti auzunea da au.

Jarraian, Usansolo'rako bidea artu dauskue, an bait dago antxiñako lamin azter-ondo edo arrasturen bat; beraz, Bilbao-Beobi'rako auto-bide azpitik arantza doaz tapa-tapa, alkarri eskutik elduta. Ezker-eskuma, solo, landa ta piñu-saillak; eta etxe barriak ugari, eta fabrikak eta olak. Baita torre-etxeak be.

Lamiñarrieta

Lenago ezer gitxi zan Usansolo gaur azita daukagu. Toki polita, garbi ta lerdena, Ibaizabal ondoan etzuna. Erri-etxez Galdakano da. Ementxe alkatzen dira Larrabetzu ta Kortederra'tik datozen urak; baita Ereño ta San Anton Txikerra'tik jasten diranak be. Emen dago lamiñ-zulo bat, edo beintzat ementxe ikusi oi ziran lenago errekondoetan lamiñak orraztu ta orraztu. Gaur ez ete? Dana dala, ementxe Usansolo'n daukagu Lamiñarrieta. Itz onek zer adierazo nai dauan itandu ezkeru, edonok erantzungo dautzu erreka atxak dirala. Erreka atxak, baiña zegaitik? Antxe, eleizarantza goazala, atxetan, uretatik urtenda lamiñak egon oi ziralako, euren uledi luzeak orraztuten. Gaur be solo ertzean onako zerbait agiri da.

Dudamudak uxatzeko, or soloan lanean diardun zaartxoari itandutea otu yake.

— Gizon, mesedez, nun dago emen Lamiñarrieta? —bota dautso Txomin'ek.

Eta lugiñak, bere atxurra jorra-saillan itxi, ta,

— Zatoze neugaz —diñotse.

Beragaz eroan dauz ogei metro ez.

— Auxe dozue —esan dautse—; onexeri deritxogu Lamiñarrieta. Nik ez dakit zegaitik, baiña gura aurretikoak esaten ebenez, sarri ikusten ei ziran emen lamiñak euren orrazketeak egiten.

— Zeuk ez dozuz iñoiz ikusi?

— Ez, nik ez dodaz ikusi; baiña nire gurasoak bai. Orain zarata aundia dago emen: lenago bultzia be or ondolik joaten zan. Lamiñai, barriz ixiltasuna yake atsegin.

— Ba al dakizu zelakoak ete ziranik?

— Nik entzun dodanez, gerritik gora emakume dira; gerritik beera arrain.

— Gauza bitxia, ezta?

— Orrela dozue.

— Tira, aitaita! Agur onezkero, ta eskerrik asko.

— Ondo izan!



Usansolo, lamiñarrieta auzoan, lamiñak orrazten

Orraziaren ipuiña

«Lamiñak geienetan onak dira, ez dabe gatzik egiten. Baiña eurai okerkeriren bat jauki ezkero, batzutan agertu izan dira zemaika. Ona, gure gazteak zetan ebiltzan jakin eban emakume zaartxo batek, Usansolo'n bertan kontatu eutsena.

«Usansolo'ko auzo baten —Lamiñarrieta'n— lamiñak ibiltzen ei ziran erropa garbitzen eta kantetan. Errekan euen arrizko bidea beste aldera pasetako. Beti ibiltzen ei ziran gorritz jantzita. Gabero, amarretatik goizaldera oillarrak kantau artean, erropa garbitzen. Ordu artan ez ei eutsen izten ifiori pasatzen, jo barik. Orraztu ta orraztu egoten ei ziran erreka ondoan.

Bein baten, neskatilla batek orrazi bat aurkitu eban bertan, eta etxera eroan eban. Gabean, lamiñak joan zirean bere gelako leiora ta esan eutsoen: «—Maringo, non dona nire orrasko? Ekarten ezpadon nire orrazi, kenduko nik zure bizi».

Urrengo egunean neskatillak itxi eban orrazia aurkitu eban lekuan. Beste egunean joan ei zan ikusten, ez ei zan geiago orrazia ageri».

Antxe bertan errekeari dautsola dagoan baserrikoa zan kontatzaillea.

Mendien barrena

«Andratxu ari be agur esanik, garizale dan kurrilloe bat baizen bizkor gorantza doaz neska-mutillak; etxe oste, landa berde ta solo erein egaletatik barna, Lemoatxera jo nairik. Ba-da piñurik bidean! Baita noizean bein areitz batzuk be, Landalde inguruan baitik bat. Aldatz-gorako zidorra, baiña naiko egokia: an goian agiri yake San Antolin zelai gaiñeko erpiñaren musturra.

— Gose nokana ba-dakik? —Itziar'ek Txomin'i, bide luzetxoa egin ondoren.

— Artu egingo yonagu zerbait —Txomin'ek jardetsi—; alan be, asko ezingo luzatu, gaberako ba Oiz'en egon bearra yaukonagu: orduak atsaldi barik aurrera yoazan.

—Beste bagerik, areitz erro-zoldu baten azpian ezarririk, aldean eroezan txolokate, ogi, gozoki ta igaliak artzen dabez. Poztuteko edo, gazteak jan bitartean, txantxangorri batek diardu bere txintak ariltzen gaiñeko adar luzanga dardartian. Ostoa tartetik eguzkiak be siñuz ta kiñuz alaitu nai ditu, antza danez. Ondorean, indargarri orregaz zuzperturik, gertu barriro be al-dapari autsak aterateko. Eta gorantza dagie, azkar azkar.

Lemoatx, zoragarri! Gaiña zapaldu-ala, zaldi baten antzeko irrintzia bota dausku Txomintxok, pozari ezin eutsirik. Azpian daukie Lemona, aurrerago Arrati osoa, ta an urrun Gorbeia, guren ta eder, inguruak oro babespean ditula. Agur, Arratia! Agur, Gorbeia, euskaldunon mendi gaillen!

Gaur, tamalez, erri-laiñoak dauko ikuspegi osoa. Arraiño, Garamendi, Elorriaga, Bedia, inguruko auzoak, ez dira bear aiña txukunak ikusten, zementu fabrikako kea, autsa, ta egunaren ganduagaitik. Goiko gurutzean, azken-gudan emen jausi ziranen alde otoitz dagie gazteak. Pagadi lerdana azpian, eta bere ondoan leza bat, goitik beerakoa: ertzean makurtuta, begitu dabe ezer ete dan, baiña ez da lamiñen zantzu ta azterrenik.

Begitu ta ikusiz ase-betea egin dabenean, Txomintxok Itziar'i:

— Goazen beerantza!

Eta biak, ota-mataza, piñu erkin eta sasi artean doan bideari ekin dautsoe, Kortederra'ra jatsi naiean. Astepe, Zornotza, Etxano, Euba, Berna, Bernagoiti... daukiez eskumatik; Boroa, Bizkargi, Aldana, Arazosa, Autzagane, Katia... ezkerretik. Emen ez dago ainbeste be-laiño, ta polito ikusten dira bazterrak.

Beti aldatz-beera ekinaz, konturatu orduko Kortederra'n aurkitzen dira, Bilbao'tik Donosti'rako bitxabalean; ortxe albotik doa auto-bidea be; ola, fabrika, mandio ta biltegi barriz bete dira inguruok: egin-eginean be, leen solo-lanerako lez, orain leku egokia ortarako.

Or ezkerretik Mezo bar-etxea. Bideak estututako arnasea pizkat arintzearren, araxe doaz neska-mutillak. «Bitter» bana artu dabe ementxe. Etxekoak guztiz onak dirudie, bizi ta txeratsuak; abegi gozoa emon dautse bidaztai. Txomintxok daroan gitarra ta Itziartxo'ren kapela ta ziskua ikusiaz, sor ta lor, bizi miresten dabe gazteen itxura bakana. Atsegingarri yakez!

Umetxoen eguna

Ezgarriak busti ta atsedean apur bat artutakoan, Boroa'tik zear Garaitondorantza egiteko dagozalarik, or mutiko batzuk zuri-gorri jantzita, erromerirako lez gertu. Zer jazoten ete? Umetxoen jai bat ospatzen dala, diñotse. Nun? Ortxe, menditxo ostean, Larrea deritxon auzune txanbeliñean.

— Bai, ba-dogu leku onen entzutea —Txomin'ek arei—; amak sarri aitatu dausku orren izena. Umetxoen jaia! Ederto! Geu be orduan, Bizkargi barrenak ikustea beste baterako itxi ta Larra'ra, joango gara. Umetxoen jaia, noznai atsegingarri!

— Bostak inguruan ipuin sariketa bat egiten da...

— Ipuin sariketa? —Txomintxok, pozarren—; Itziar, ara joango, ezta!
— Atsegin aundiz! —darantzutso Itziar'ek.

Beste barik, berriztar biak eta lau mutiltxo boroatar, alkarren leian, Larra'runtz zuzentzen dira. Bide-kako, itzul-inguru luzea egiñik, ots, piñubitarte, soloak zear, Etxarkuziñe'ko zurezko zubia, Garaitondo'tik datorren errekatxo gaiñekoa, igaro ta laster eldu yakuz seirak Larra'ko zelai zabalera. Milla kolorezko umez josirik dagoz bazter guztiak. Oraintxe daragoie umetxoak aurkeztu dabezan ipuiñai dagokiezan sariak banantzen. Aurretik beste sari asko emonak dabez. Zazpi ta erdiak dira. Bat-batez, gizaseme lodikote batek, mai zabal antzekoan aurkitzen dan mikrofonu aurretik, onela diño:

— Umetxuok: zuen egun ederra gaur. Pozarren zagoze danok. Ederto! Goiz eta arratsalde, jai bikaiña ospatu dogu. Gora zuok, gaztetxu maiteok! Euskaldunak gara, ta euskal jaiak bear ditugu. Gora zuok, barriro diñotzuet! Orain sari-banaketa; beste sail askotan artuak dozuez: orain ipuiñena. Euntetik gora dira, zuek bialduta artu doguzan lanak. Jakiña!, batzuk, beti lez, obeagoak besteak baiño. Alan be, zuen naimen sendo ta euskaltzaletasunari esker, jaso doguz ainbeste lan: beraz, sarigarri dira, ta izan be, danak izango dabe merezitakoa, iñor be albora itxi barik. Ona txorta eder au!

Eta paper-moltzo aundia erakusten dausku ipuin lanakaz. Sarituen ize-nak irakurten asi da. Lenengo saritu biak, euskeraz ta erderaz, bakotxak sari bi artuko ditu; beste ondorengo amarrak, euskeraz ta erderaz, bakotxak sari berezi bat, eta enparau guztiak, gomutagarritzat, liburu bana artuko dabe. Otzara jaiki bi daukaz ondoan, liburuz beterik. Neska-mutiko ipuin-larien begiak eurretan dagoz josita.

Euskerazko aurrenak jaso dau bere saria, baita lana irakurri be; bigarrenak orobat; ondoren erderazkoak, saria artu ta irakurri; bardin beste amarrak. Umetxoen poztasuna ta txaloak! Txistua ta tanboliña gero, biri-bilketa bizkorrean. Eta lasterketa, antzar-dantza, txokolate jatea, eta...

Pozarren

Txomintxo ta Itziar, berandutu yakela-ta, jaia erdi-amaitu itxirik, Ategorri'rako bidea artu ta Epaltza'tik gora, Kaita ta Etxano ezker-eskuma laga ta Etxanosolo'tik gora Torreburi'rantz doaz. Bizkor-bizkor dabilta, illundu orduko Oiz azpira eldu nairik. Esturo ta Ibarruri ezker, Muniketa aurrezaur, Orobio eskumatara. Ego biurtu yakez orkatillak Maume'rako bideetan barrena.

— Egun eder-ederra gaurkoa, ezta? —Txomin'ek Itziar'i.

— Ezin ohea! —Itziar'ek.

— Entzutea ba-gendunan, bai; baiña ez naionan uste jai ain ederrak Zornotza'n egiten ebezanik.

— Umetxoan gauzea beti dok atsegingarri. Berriz'en ba'geieunkak ola-ko zerbait! Ikasi egin bear eratuten!

— Ikasiko yonagu, Itziartxo!

An beean daukie Oxinbaltz; aurrerago Garai, Oiz, Andikona, Berriz... Laster dira etxean, lenengo Oxinbaltz'en eta gero Ereña'n. Or euren txangoaren azkena. Illunduaz doa dana, eguzkia sartua baita, Santurtze aldeko itxas borobillean pulunpauta.

Barriro kezka

Bide egalean erromara bat, bost langaz itxita. Erdiko langoari eragin, sakaka atera ta igaro dira bestekaldera; langea egoan lez barriro eratu ta ba-dabiltz ardi-bide batetik taka-taka. Beerantza beti.

Illunak daukaz bazterrak, beeko zuloan agiri dan trokarroa batez be: leza ikaragarri baten agoa emoten dau. Bidaztiak ez dabe ia ezer ikusten.

Itziar'ek, kasketaldiak jota lez, ez dau aurrerago egin nai; lengoan Oiz gañean lez, galduak dirala diño. Ezkerreko munotxoan ezarri da, itun eta naigabez. Atsedean apur bat artu gura. Beeratxoago mamutz antzetan da goan gaztañarro gañean, mozoloak ujuju, ujuju! Izar batzuk, illargi bagako zeruan.

Bildurrez edo, Itziartxo bere nebagana urreratu da, estu-estu egiteraiño. Samur laztandu dau Txomintxok, bizkortu daiten.

— Ez izan bildurrik, arreba! —diñotso—; oraiñarte onik urtenak gara, ta aurrerantzean be lagunduko yauskuna zeruak.

Eta eskutxoak alkartuz, zerukoak eta lurrekoak, ongilleak jakiña!, go-gora dakarrez. Gero, gazte bildurtiak be, bildurra uxatzeko, kantari ekin oi dautsoela illunez, gogoratuaz, Txomintxok bere gitarra kutuna artu ta Itziartxo'ri euskal doñu gozoa jotzen asi da, ixil-ixilka.

Ontan, arein doñu ixilla entzunaz, argiak ixetu dira Oxinbaltz'en. Bein goan ondoratu yake Mari Burrika, alai baizen argitsu.

XXV

ETXERAKOAN

«Lamiak suntsitu ta aienatuak, ezereztuak di-rela diote. Ez ote da or laminereken batean, gi-zakirik bizi ezten basamorturen batean, ez ote da bat edo bestetxu gelditu? Entzule zaituzte-danon artean euskalzalerik adinbat mendigoizale ez ote zerate? Neronen susmotxo au egiazkoa baldin bada, laminerreka-zale ere egin zaitezte ta orrelako toki bakar biderik ere eztuen batera yoan ta gerritik gora emakume ta gerritik beera arrain den izaki bat ikusi dezazutenean, zatote neregana berri ori ematera. Ijitoenganako izan enuen ke-mena nere biotzean dudala eta sakelean bost-sei bat orrazi artuta, zuekin batean errekatxo ortara yoango naiz» (R. M. Azkue, *Lamiñak Euskale-rrian*, 28 orr.).

Lamiñen batzar nagusia

Itzal-giroen ezti, itz eta itz jatsi dira polito Mari Burrika ta gazte biak; zerua dirudi Mari Burrikak soñekotzat daroan jantziaz. Argi-illun sotillean, aren jasa zoragari! Oker-une ta erromara ugari igaroaz, Oxinbaltz'era el-durik doaz. Urrerago ta ozenago entzuten dira bertako kanta ta eresi-soñu etengabeak. Leen ezer etzan ortzean zidarrezko izarrak biztu dira banaka, banaka bazterrak guztiz artzeraiño, biztu be! Oinpean ots dagi iturri gar-den batek!

Ate nasaia bekoz beko; goitik, zintzilika, milla margozko zapi luze, sarrera bira osoa edertzen dabelarik. Gorago, arkaitz makurretatik mustur motza erakutsi nairik, zazpi aker kasko-gain disditsu, jai baterako lez ipiñita, aurrealde guztiai sekulako itxura ñabarra erantsirik. Zelai edatua, atxurdiñez, goitiko argien islak sorginduta. Burtxirrinkak inguru-inguruka.

Alderen alde edegi da ate nagusia, bidariak eltzean. So-ala, oi ez lako zerbait nabaritzen dabe oneik, gurentasun bestelako baten arnas betea; pozkor dan egunaren asiera; atsegiñaren udabarri adierazo ezíña! Neke ta asunik bako bizi-naiaren sotiltasuna! Barruko zabaldi eskergak eguzkia dirudi, bere betearen osotasunean. Barruan sartu ta lilluraturik gelditzen dira berriztar biak, ez bait dabe egundo olako argitasun, edertasun eta gurentatsunik amestu, ez amestuko be!

—Ez izutu, maiteak —diñotse Mari Burrika'k, Itziar'en mosua zurbil samar ikusiaz—; ez izutu! Gaur, egin-egiñean be, lamiñen batzar nagusia ospatzen dogu, eta emen dozuez inguruetako sorgin, aztru, belagile, akerbaltz, prakagorri, gabeko, ireltxu, epotx, ximelgorri, inguma, Mari ta Maju, Mikolas, Basajaun, Tartalo, Aitor...

—Orreik guztiok? —Txomintxok—. Eta gu umezorri besterik ez, eta...

—Ez bildurtu! Etorri neugaz, eta ikusi: Or ekatzak naspil-azo, kanpoko gauzak alperrik galdu ta itxasontziak ondatzeko almena dauan Mari, Anboto'ko damia. «Ekaitz aundietan bere zaldi eta gurdiakin aidean» ibiltzen da; gaur, alan be, otzan samar daukagu; bai ba, iñoren etxean...! Leenago asko joan oi ziran beragana ezkutuko gauzak jakin edo-ta etorkizuna azaltzea nai ebenetatik; batzuetan ardatzean egon oi da bere leiza aurrean, bestietan labesu egiten; baita arilketan be iñoiz ikusi izan dabe aari bat arilkaritzat dauala. Aldamenean daukana, bere senar Maju dau.

—Beste ori? —Itziartxok.

—Basajauna dozue, jentillen aita; gizaseme antzekoa da, oiñetan beatz ordezkariak daroazan arren: euskal mendietako jainkoa dozue.

—Eta beste ori? —Txomintxok, jakin-guraz.

—Ori, Tartalo! Azkarra da, indartsua: gure mendietako tregoarriak beronek ipiñiak dira. Or Gabeko be; zu, Itziartxo, gabaz ez egon, otoi, etxeko leio ondoan illargitan josten, ardatzean edo olako ezer egiten: iñoiz olan ari izan zan neskatzik eroan dau orrek, «Gaba gabekoentzat, eta eguna egunezkoentzat» esanaz.

—Sabel-zorro aundidun ori? —Itziartxok.

—Onentzaro dozue ori. Berriz'en ez dozue mutill'ik ikusi Onentzaro irudia lepoan dabela etxez etxe eskean? Umetxoentzat bildurgarri da: «begiak gorri, aurpegia beltz, bizkarrean ota-sorta, eskuan igitaia». Gabon

gabean batez be tximinian egoten da, ta apal-ondoan etxekoak ogera joaten diranean, bera sukaldera jatsi ta bertan jaun eta jabe gaba igaroten dautzue.

—Basajaunagaz izketan diarduan orrek alaia dirudi —Txomintxok lamiñari—; nor dogu berori?

—Laztanok, Aitor dogu ori!

—Aitor, gure izkuntzaren aita? —Itziar'ek, bizi-bizi.

—Diñozuna. Antxiña-antxiña baten, orretzek sortu eban gure euskera.

—Jakintsua dogu naitaez!

—Oso! Nik ez dabit beste izkuntzak nok eta zelan asmatuak diran.

Baiña gureak ba-dau gatz, mamiña ta jenica! Mintzatzeko gozo, leun, ariña dogu! Idatzeko erreza; ikasteko be, besteak beste, au te ori esanagaitik, ez da zaila: naiz aditza, deklinabidea, atzizkiak, naiz itz-urren eta joskera Europa'ko beste izkerak baiño lojika geiagor daukagu euskera; beraz, euskal zentzun apur bat daunak beintzat, errez ikasi leikena da. Ezetz diñoanak, ez diño egirik.

—Eskua emongo ete dautsagu...! —Itziar'ek, azartua ta mari-laster.

—Bai! Etorri! Neure adiskide aundia da!

Eta Aitor'egana zuzendu dira irurak. Aitor'ek, barriz, mintza-lagunak itxi ta bidera urten dautse, irri-barreka. Arpegi-alai, bizar-zuri, soin-arin, esku-leun... oso itxura ta kaizu ederreko agertzen da. Mari Burrika'k azaldu dautso nortzuk diran gazte biak, nungoak diran, zetan dabilizan, euskeraz ze ederto mintzatzen diran, eta gaiñerakoak, Aitor'ek, azkenez, gattetxoekana pizkat makurtu ta bere ezpan gorri-guriakaz mosu ezti bana ezarri dautse matraillatxoetan. Gazte bien poza! Txomintxok, ordaiñez, gitarrea artu ta «Aitor'en izkuntza» jo dautsa, guztiz samurkiro.

Abarrada

Oxinbaltz'eko lamiñburu dan Mari Burrika'k ba-dau aginpiderik lurazpiko numen oneitan; beronek darabiltz sarri bere naitara. Oraintxe be, esku-zarta jorantsu batez, autuan ziarduen guztiak ixillera dira, jesu-damenean. Apal-ordua da etxeko ta arrotzentzat: prest daukie epotxak sekulako oturuntza. Beto batzarkide ta enparau guztiak jan-edatera.

Or gizategi luzea, argiz ta lora-txortaz apaindua; erdian mai zabalak, jarleku txikiakaz. Dana daukazu gertu. Danak artu dabe txalotsera euren ezartokia. Eundaka dira, gazte ta zaar, lamiña, sorgin eta osterantzeko. Zerbizariak adi-adi, ama nagusi aren kiñuaren zain, zerbiduten asteko. Jatzen asi aurretik, gaiñez-gaiñ ozen datorren musika ixil-azo ta saloi-erdian, idi-buru enborra ikusterrean dauala, jasotako irakastegitik, Mari Burrika'k bere mezua irakurten dau.



Etxekoen poza, guraso ta seme-alabak alkar besarkatzean

—«Leenak leen —diño—, ba-dot oraindiño zuoi esatekorik. Jan-edatez da. Afari-izkia artzera goaz; apaldar guztioi, beraz, jan-edanean neurritz ibilteko dirautzuet: ezkutuko izpirituok beti izan gara; ta izan bearko be bai, ikasbide oneko, laban arri bagarik. Gizakumeak lez, ez gaitezcan oben-buruetan errez jausi, ez diru, ez griña, ez aundikeri, ez jai-alaietan. Ut, batez be txibizkeritik! Zenbat gizaseme dakusguzan upel antzeko gilbor eta sabel-zorroakaz! Gu gaitezcan beti neurriko; soin-arin eta oin-ariñago ibilli bear izaten dogu uste baiño geiagotan. Ortaz, jabon begi baktotzak bere gorputza lirain, mee, aize-egoa baizen zinbel. On egin!» Txalo-jote zaratatsua. Mari'k, urrintxo egon arren, zearkako begirakunea ñirñirtu dautso.

Bertatik, abeslari taldea dator aurrera. Amasei neskatx dira, adin bardiñekoak, izpildun jantziz apain-apain. Ederto burutzen euren egitekoa. Onan dabese:

«Sor-erazten, Illargi!,
dauskuzu bizia:
izpi-muskillak gara,
taldeño ezia.

Gogo urduriz gabiltza
illun naiz argitan,
zuri alabearrez
gau egun kantetan.»

Txalo-otsa barriro! Bukatu dabenean, amasei neskatxak miesa urdiñezko estalki ostean ezkutatu dira. Aranago artu dabez jarlekuak, apaltzeko.

Apal-ostekoa

Apaltzerakoan, Mari Burrika erdirantza jarri da, amesetz eiotakoa dirudian aurki berezian: Itziar ta Txomintxo artu dauz bere ezker-eskuma. Au arrimena, besteena! Mari ta Maju, senar-emazteak batez be, oneikana zorrotzen dabez euren gauontz-begiak. Txomintxok alboan dauko bere gitarrera ta orrazi-ziskua, plastikozkoa; Itziar'ek be bai, bere zisku luze orraziz betea. Eta Mari Burrika'k, apal ostean, orrazi banaketa dagi, berriztar neska-mutillak nortzuk diran eta burutu daben arazoaren barri mai-lagun guztiai emonik. Barriro be, esku-zarta beroak! Gero, jagi ta lamiña-ama ta neska-mutillak, ezteguetan txokor luze ta su-zotzak ezkonbarriak lez, lamiñen artean banatzen dabez —besteak eztabe ainbeste bear-izan —Artxanda gaiñetik ekarri dabezan orrazi dizditsuak. Arein poza ta esku-ukaldiak!

Lamiñak ortaz, berandu samar dala-ta, bizkor kanporatu dira. Sorgin eta enparauak, oster, pare bat ordu geiago luzatu dabe euren autu, bariaketa ta alkarri albisteak emon bear gartsua. Jantokiari gandu-laiñoa dario, lau aldeetatik apaldarrai, zetan esan?, pozak darraie, azkenik ez dauan poz-irrika biziak. Txomintxo ta Itziar be, Mari Burrika ta Aitor'ekin dagoz kontu-kontari. Iztuna dozu oso Aitor, gure izkuntzaren aita. Epotxak, maiak batu ta kendu dabezanean, dantzaldi ikusgarriak antolatu dabez, argi illun samarrean... Euskal kanta soiñua dator bazterretatik, gozotasun aunditan...

Eta, zapla!, konturatu bage, sapai gaiñeko oillar gorri-nabarrak kuku-rruku jo dau! Mundu guztia urduri jarri da: sorgiñen ordua. Lamiñak gaudi aldia arat-onat egin ondorean, etxera datoz; sorgiñak eta besteak, barriz, kanpora: euren garaia baita. Alkarri buru-makurketa batzuk egiñikoan, as-trapaladan kanporatu yatzuz. Iparralderuntz artu dabe, Oiz aldera nunbait; aldatz-gora Maume'rantza doazala, entzuten dira euren azken garrasi, ijui ta irrintziak. Inguruko mozolo danak be ujujuka asi yakez.

Lamiña, Aitor ta besteok emen geratu dira. Aitor ez da zalaparta zale ta lamiñakaz obeto daroa bere bizia. Txomintxo ta Itziar begiko ditu, ta «Aitor'en izkuntza» barriren barriz jo dagioela eskatu dautse: Txomintxok jo ta Itziar'ek kanta luzaro egon dira oindiñokarren. Azkenez, danak lotara! Neska-mutillai, barruan ormaz berezituta etzangu bi dituan gela zuri-urdiña, ingitu barria, emon dautse Mari Burrika'k. Ogetxoetan etzun diranean, Mari Burrika'k lazten gozoz, lo naroa ixuri dautse begizinta beera.

Oxin ingurumari

Biaramonean, bakotxa bere arlora joana zan berriztar gazteak jagi ziraneko. Bederatziak dira, eta eguzkia be goi samar. Mari Burrika'k berak ekarri dautse gosaria, ez bero ez otz, ederto adelatua. Zurrutada ozenez artu dabe lenengo akeit-esnea opil bigunagaz, eta ostein okaranakaz egiñiko ai antzekoa. Aitor ariñeketa baten etorri yake, lanera joan bear dabela-ta, agur egiten.

Mari Burrika'k gero inguruak erakusten dautsez, lamiñen biltoki ta bizilekuak noski. Milla ariko zugatz aundi ta txiki; zumardi, egurats-leku, ikuspegi, jartoki biribil, zer ez! Au ete dan ba leku zoragarria! Kolorezkoak dira zugatzetatik geienak; ñabar ta garbi guztia, ez ezeren lokatz, loi, orbel ez arbaztarik.

Zugaztiaren erdian oxiña: ortik datorkito Oxinbaltz izena. Urtegi na-saia; garbi aratza bertako ura, baiña baltza geien bat. Zergaitik? Orixe itandu dautso Itziar'ek be, ta Mari'k beingoan emon dautso orren azal-pena.

«Dakuskun —diñotsa—. Antxiña baten, jauregi eder bat ei egoan orain oxin au dagoan lekuan. Jauregia ederra, ziñez! Baiña bertoko nagusi-etxe-koandrak etziran nunbait beartsu ta txiroai on egitekoak: euren ate ondora urreratu oi ziran eskeko gaixoai, eskupekoa emon bearrean, txakur gaizto bat axatzen ei eutsen.

Alan eta guzti be, biotz onak nainun aurkitzen ditugu-ta, emen berton bizi zan, neskame, eskaleen errukia izan oi eban andratxo bat be. Eta egun batean, leiōtik begira egoala, eskale bat dakus bidean jauregirantz etorrela. Arin-arin jatsi, uretarako errada-ontzia artu ta, iturrira ba'lio lez, atera urten eutsan bere eskupeko edo limosneagaz. Zaartxo bat zan eskalea ta onek esan ei eutsan lenbaitlen urten egiala etxe artatik. Jauregi eder a, neskamea bertatik aldendu zaneke, bertako biztanle ta ondasunakaz, lur-pean ondatua izan ei zan.

Ordutikoa dozue oxin au. Jauregiaren lekuan ur galdua agertu zan, baltza. Ez da, egia esan, ur txarra, baiña beti daukagu baltz-itxuraz. Gu emen-txe garbitzen gara; igeri egin, orraztu ta olakoak emen-txe dagiguz. Beera-go be, Orobio'ra jatsiaz doan erreka ondoan, ba-daukaguz leku atsegiñak. Geure kobatik, alan be, urrago daukagu au, Oxinbaltz! Gure Mari saiatzen yaku nozik bein potzu au nastu guraz: ikusi doguz iñōiz bertotik urteten laiño kuskur, odei baltz, aize biurri, edo itxura okerreko eurijasak, oneik inguruok ondatu nairik. Mari beti dozue bekaizti; eta, jakiña, aren gaiz-takeriak, odolik dauanari, zerta-arta min emoten.

Etxean

Izaki ilkorren gauzai azkena dagokie. Gure neska-mutillen ibillia, es-kea be eldu da bere amaira. Eguzkia goi-goian dagoala-ta, etxerako gogoa erakutsi dautsoe Mari Burrika'ri ta onek, agur egikeran, esker ona zor dautsela adierazorik, ainbat bitxi emon dautsez: idazkortz, erestun, kaltza, abarka, gona, jostailu, txirlarri, zinta, gerriko, ipuin-liburu, urre-miesa, zidar-txanpon...

Bidez doazala be luzaro egon yake begira, ta azkenez, goikaldeko oker-unea artu dabenean, beso zuri biak jasorik, eta eskumako bost atzamarrak alkaturik, mosu bana bialtzekoa egin dautse.

Eta, tapa-tapa, Maume azpirik zear, piñudi itzaltsuak atzean itxiaz, laster eldu dira Garai gaiñeko muiñotxora. Goian daukie Oiz, eguzkitan eder. Etxera ariñago eldu naiean, tontorrerako bide zabala laga ta labur-bideetatik bizkor-bizkor dabiltz. Or Garai'ko eleiz-torrea begipean. Urra-go ta pozago neska-mutillak!

Aldatz-beeran, or Sarri ta gorago Andikoa. Erreka gaineko zubia igaro ta gorantza dagie sagasti gazte baten ezker-aldeetik. Ixil-ixil doaz; azkenik, Itziar'ek oguzi:

—Elduaz gaioazak... Eta aitak, eta amak, eta neba-arrebak...

—Ez izutu, arreba! —Txomintxok jardetsi—; izango yonaguz betosko, agiraka ta olakoak; baiña besarkada samurrak be bai: naigabe ta atsegiñakáz, guztira parra! Zer gura don geiago? Amabost bat egun igaro yonaguz beintzat, ezin obeak!

—Izan ez? Bai orixe!

—Orain datorrena artu eroapenez... eta ixillik.

Or «Bolu» baserria. Zazpi ta erdiak jotzen. Aita ta iru neskato-mutiko etxerantza datoz solotik. Ama begira, atartean. Txomintxo ta Itziar solo-barrenera urreratzen ikusiez, barruratu ta ate-ostean bardatzat daukan aritz-adarra —zugatz donea nunbait— eskuratu ta izarrak be ikustekoak emon dautsez seme-alaba ardura bako, farras, fardel, zilimindrin, gibel-andiai... Bake-lilia loratu da aita ta seme-alabak etxeratu diranean.

Azken ipuiña

Afal-ordua. Neska-mutillak edestu dabe jazo yaken guztia, San Kristobal egunetik asi ta etxeratu diran artekoa. Beingoan, leengo negar, antsi ta ardurak poz biurtu dira. Poztasun au merezi dauan lez ospatzeko, aitak, apal-ostean Mari Burrika'ri buruzko ipuin sarritan entzun au, astiro ta samur, eralgi dautsie.

«Lenagoko urteetan —diñotse—, nainun jazo oi dana, Andikonatarrak eta Sarritarrak, gure auzoak nunbait, beti ibiltzen ei ziran asarre, uren ganean. Oiz menditik jasten zan errekatxo bat eta andikonatarrak Sarri'ko bidea zarratu ta Andikona'ra eroaten eben ura. Eta Sarri'koak bardin, zarratu Andikona'ra bidea ta Sarri'ra eroaten eben ura.

Andikonatarrak ura kendu eben egun batean, deabrua agertu yakon Sarribeiti'ko andreari, eta esan eutson: berak ura beti Sarri'ra bialtzea-gaitik zer emongo eutson. Bere alabea emongo eutsola, erantzun eutson andreak. Au entzun ebanean deabruak, ura bialdu eban Sarri'ra, eta alabea eskatu eutson andreari. Ta andreak esan eutson Sarrimendi'ko Mariburrika'ren zuloa dagoan landara bialduko ebala beiak zaintzen eta arrapetako.

Alabatxua beiak ekarten joan zan, eta «txuri», «txuri» deader egin ebanean, Mariburrika'k zulotik urten eta arrapatu eban neskea ta bere

zulora eroan eban. Urizar etxearen ondoan dago zulo txiki bat Mariburrika'ren zuloen azkena esaten dabena, eta antxe aurkitu ei ebezan neskearen zirtzilluak.»

«Antxiñako siñismenen eta oituren aztarnak... Aztarna oiek emen, Euskalerrria'n bertan sortuak ez badira ere, gure aurrekoak berentzat noizbat artu zituztela ezin gentzake ukatu: emengo mendi, leize, iturri eta orrelako gauzai ezarriak daude siñismen oiek» (J. M. Barandiaran, *Eusko-Mitologia*, 1921, 70 orr.).

AURKIBIDEA

Euskaldun umeai ...	7
---------------------	---

I

Zorra ordaintzen

Oiz gaiñean erromeri ...	9
Ekatxa ...	9
Mendian galdurik ...	11
Illun-altzoan argi ...	11
Mari Burrika ...	13
Oxinbaltz ...	14
Orrazi-eskean ...	15

II

Lenengo ibillaldia

Kiñar usaintsu artean ...	17
Zenarrutza ...	18
Jareille baten jatorri-tokia ...	19
Erdotza ...	21
Bide-guretze ...	22
Uri griñatsu ...	23

III

Markiña

Kale ta inguruak ...	25
Zaartxo bat ...	26
Pelota-lekua ...	29
Arretxinaga ...	30
Gabaro ...	30
Lamiñakaz Gabaro'n ...	32

IV

Ondarroa

Oporrez ...	33
Berriatua ...	34
Arrantzale uria ...	34
Brix eta Tramana ...	37
«Boga, boga...» ...	39
Erri garbala ...	40

V

Armiña

Illuntzez musean ...	41
Armiña ...	43
Kontu-kontari ...	46
Leena oroituz ...	48

VI Lekeitio

Egun-sentian	49
Lekeitio	50
Kaia	51
Lumentxa	53
Kondaira-zale	54
Ertilariak	55
Jaiak	56
Koba ikusten	56

VII Itxasalde

Zatika	57
Izpazter eta Bedarona	58
Ea ta Natxitua	59
Elantxobe	61
Barriketan	62
«Gero arte»	63
Illunkera	63

VIII Itxas-egala maite

Laga	65
Izaro	66
Aitz-igola bi	67
Laida	69
Otoitz-bearra	71
Ordulari esanekoa	71
Orraziak ona!	72

IX Santimamiñe

Gaztelua	73
Koba-zulora	74
Santimamiñe	75
Lamiñai ez kalterik egin	78
Margozkien balioa	80

X Ipuin-barreka

Ikusia auznartzen	81
Lezika baserria	82
Ipuin kontari	83
Ogi ostuarena	85
Orrazi kendua	85
Burdiñearen galdea	86
Deabruak zenbat urte?	87

Aparia	87
Lamiña sagardo-zaleak	88
Kaiku esnea	88

XI Foru-erria

Saltzaille bategaz	89
Iriñe lamiña	90
Urian zear	93
Kondaira ta abar	95

XII Gernika

«Adoratzen zaitugu...»	97
Batzar lekua	97
Kondaira museua	98
Lumo azpian	102
Frontoia	102
Ipuin-kontaktetan	103
Lamiñak onak dira	104

XIII Bidex bide

Argi ta jaseko	105
Axpe	106
Altamira	106
Busturia	107
Zaldua ostikolariakin	107
Gizon zaartxo bat	109
Bazkaria	111

XIV Sukarrieta

Maxin	113
Aurtegia	114
Arbiña	115
Txatxarramendi	117

XV Mundaka

Zaarren goralpena	121
Mundaka'ra	122
Sorgin-errete	122
Gizon ospetsuak	123
Portu inguruan	125
Izaro aurrez aurre	125
Ur-gaintxoan irakurten	126
Arkaitz ondotik gora	128

XVI
Bermeo

«Gabon-aria» ...	129
Bermeo, mariñel uri ...	130
Atalaia ...	133
Ume-zaingoa ...	135
Ikusgarri geiago ...	136

XVII
Gaztelugatxe

Bide egaleko atsedena ...	137
Euskal jogailluak ...	138
Eder ta ikusgarri! ...	139
«Ekatzu neure orrazia» ...	139
Aginduak bete ...	141
Txipli-txapla ...	143

XVIII
Bakio

Goizaldean ...	145
Bakio ...	146
Txakoliña ...	147
Bazkaria ...	150
Ikusi ta ikusi ...	152

XIX
Gorlitz

Bide barritik ...	153
Etxe-miñetan ...	155
Etzegain gorriak ...	157
Plentzi ...	158
Gorlitz ...	159
Gaixotetxea ...	160

XX
Butroi

Gure baserria ...	161
Gaztelua ...	162
Gaur lamiñategi ...	163
Bazkal-orduz ...	166
Kriskitin kraskitin ...	166
Illuntze leuna ...	167

XXI
Getxo

Millazka (tamarindu) artetik ...	169
Aizerrota ...	170
Sorgiña ta ikaslea ...	171

Erbia garitzan ...	173
Kale zear ...	174
Ondartzako mailletan ...	175

XXII
Lamiako

Gau ederra ...	177
Goizeko ipuiña ...	178
Zintzilikako zubia ...	179
Oroitari bat ...	181
Neba-arreben guraria ...	182
Iitzako lamiñak ...	183

XXIII
Artxanda

Gorago ...	185
Intzentsu billa ...	186
Artxanda'n ...	187
Azkenengo orrazi-batzea ...	189
Gaiñez gaiñ ...	190
Jolas-tokian ...	191

XXIV
Ikusi ta entzun

Bidez bide barriro be ...	193
Lamiñarrieta ...	195
Orraziaren ipuiña ...	197
Mendien barrena ...	197
Umetxoen eguna ...	198
Pozarren ...	199
Barriro kezkaz ...	200

XXV
Etixerakoan

Lamiñen batzar nagusia ...	201
Abarrada ...	203
Apal-ostekoa ...	205
Oxin ingurumari ...	206
Etxean ...	207
Azken ipuiña ...	208

A m a i a